

# KURIK

ate zulotik ikusten da... Lekeitio.

2016



K U R I N

ate zuloatik ikusten da... Lekeitio.

2016

**KURIK**  Ate zuloatik ikusten da...

2. zenbakia. 2016ko Uda

ARGITARATZAILEA:  
**LEKEITIOKO UDALA**

LAN TALDEA: **KURIKerua<sup>k</sup>**  
**Maite Garamendi Rey, Iñaki Goigana Mendiguren,**  
**Aitor Iturbe Gabikagojeaskoa**  
www.kurik.eus  
emaila: kurik@kurik.eus

AZALAREN DISEINUA:  
**Iñigo Zabala**

MARRAZKILARIA:  
**Jon Zubiaur**

DISEINUA eta MAKETAZIOA:  
**KIÑUKA**

L.G. BI-887-2016  
ISBN 978-84-608-9127-7

# Aurkibidea

<b>KURIK KURIKAN: Editoriala</b>	<b>4</b>
<b>KATUOK ERPE ETA GEHIAGO</b>	<b>6</b>
<b>BETI ESKAMAK KENTZEN: Sta Katalinako koba</b> ( <i>Eduardo Berganza eta José Luis Arribas</i> )	<b>8</b>
<b>JOAQUIN DEL VALLE DE LERSUNDI</b> ( <i>Pilar del Valle de Lersundi</i> )	<b>14</b>
<b>AEROPLANO BI PASA-TA</b> ( <i>Maite Garamendi</i> )	<b>18</b>
<b>AUZOKUAK: Solanotarren Mendexako etxea</b> ( <i>Aitor Iturbe</i> )	<b>30</b>
<b>TIERRA FRIA, 1527</b> ( <i>Aitor Iturbe</i> )	<b>34</b>
<b>KABANAK</b> ( <i>Amaia Apraiz</i> )	<b>50</b>
<b>ON EGIN: Santi taberna</b>	<b>66</b>
<b>LEA IBARRA, ONDARE INDUSTRIALA</b> ( <i>Goretti Fariñas eta Amaia Apraiz</i> )	<b>72</b>
<b>MUSIKOAK</b> ( <i>Sabin Salaberri</i> )	<b>90</b>
<b>SAGAR LAPURRETAN</b>	<b>98</b>
<b>ARRINDA KAPITAINA: Terranoba, 1927</b> ( <i>Aitor Iturbe</i> )	<b>106</b>
<b>TXIKIAK HANDI, HANDIAK TXIKI: Nautilus</b> ( <i>Aitor Iturbe</i> )	<b>112</b>
<b>GURE TXITXIÑAK</b>	<b>118</b>
<b>ATABAKA: Garraitz 25 edo ondarea herriratzen</b> ( <i>Atabaka elkartea</i> )	<b>121</b>
<b>LIBURUEN ERRESEINA</b> ( <i>I. Goigana</i> )	<b>130</b>
<b>GURE PERLAK</b> ( <i>Aitor Iturbe</i> )	<b>134</b>
<b>MARKUES</b> ( <i>Joseba Markuerkiaga</i> )	<b>138</b>
<b>ESTROPADAK: “como la cuestion es de honra de los marineros...”</b> ( <i>Aitor Iturbe</i> )	<b>140</b>
<b>SANPEDRUAK ETA SANJUANAK</b> ( <i>Iñaki Irigoien</i> )	<b>150</b>
<b>ETAHALAIZANBAZAN: Se non e vero...</b> ( <i>Koldo Leniz eta Aitor Iturbe</i> )	<b>162</b>
<b>TALAIK, ITSASOARI BEGIRA</b> ( <i>Maite Garamendi</i> )	<b>174</b>
<b>BATEAN KALE BESTEAN BALE</b>	<b>184</b>
<b>ARTXIBOKO KONTUAK</b> ( <i>Maite Garamendi</i> )	<b>186</b>
<b>ZAZPI AKATSAK</b>	<b>188</b>
<b>AZKEN KOPATXUA</b>	<b>190</b>

# KURIK kurikan

Azkenean hemen da bigarren **KURIKa**, berandu eta, nahi bada, nekez, baina ez inondik inora be nagiz. Ezin genion lekeitiarrok ikaragarri kostatuta irabazi dugun berantiar ospeari huts egin. Urtekaria urtet'erdikaria bihurtu da eta hirugarren alea, lehenago esaten zen legez Jaungoikoak badaki Ama Birjinaren berri. Halanda

be, ikusiko dugu, etorri edo ekarriko dugu eta. Edozein modutan, artikulu hau bigarrenari buruz da.

Oraindino **KURIK**en berririk ez duenari –holakorik izan baleike, behintzat, bazterrotan-hiru-lau azalpentsu:

**Hasteko eta garrantzitsuena.** Ondarea, materiala eta inmateriala, ikertu, ezagutarazi, eta babestu nahi dugula. Oiek dira, ba, landuko ditugun gaiak.

**Bigarrena.** Halanda be, ez da gure asmoa, Kaiganeko san Pedoren irudiaren antzera, inori atzamarragaz esateko zer egin, ez eta beste inor bedeinkatzeko be. **KURIK** egiten dugunok historiagileak gara, errimeak akaso lehenagoko kontuetan, baina ez den-dena

dakigunak, ez eta gutxiagorik ere. Hori baino apalagoak gara, eta konformatzen garenak zenbaki bakoitza kontu jakingarriz beterik kaleratzean; seinale guk geuk be, asko edo gutxi, aldizkari hau betetzean ikasi egin dugula.

Ikasteak, baina, ez luke izan behar aspergarria, kontrara baino, eta gure ustea da ondare kontuen gainean zale asko dirala gure artean eta guzti oiei pozgarria egiten zaiela **KURIK**en argitaratzen ditugun artikuluak. Horregatik, irakurle zintzoak dituelako, gure aldizkariak begirunez egindakoa izan behar du. Halanda be, artikuluren bateri txantxa usaina hartzen badiozu, irakurle, aurretiaz barkamena eskatzeaz gain, esan orriotan ageri diren lan guztiak aukeratze-prozesu zorrotza gairiditu izan behar dutela, hegaluze freskoak, itsasoan harrapatu eta arraindegian saldu bitartean, pasatu behar duenaren antzekoa, eusko labelaren parekoa.

**Hirugarrena.** Liburuetan, testuak beste dira garrantzitsuak irudiak, sasoi bateko egunkarietako artikuluak, dokumentuak eta oinak, horreetxek guztiak direlako sasoiaren sasoiara eroango gaituztenak. Honek guztiak ahalegin apur bat eskatzen du, baina merezi du.

Aurreko zenbakian, lehorreko kontuak nagusi, gutxi busti ginen. Aurtengoari kresala gehitu nahi izan diogu eta, irakurle, laster igarriko duzu itsasoa ageri dela orrialde guztietan. Bakailaoa izango da gure leitmotiva.

Euskal kostaldean ez dago herririk bere armarrian balea ez duenik, baina ez dago bat bera ere bakailaoa erakusten duena. Honetan ez gara bereziak. Harro dio gure udaletxeko hormako idazkunak: *horrenda cete subject*, bale izugarriak menperatu zituen, baina barbarik be ez bakailaoaz. Halanda be, itsasoan igerian ibilitako arrainen batek munduan gosea kendu badu hori, zeresanik barik, bakailaoa izan da. Horregatik izan zen, eta da, horrenbeste esaten ez bada be, hain garrantzitsua. **KURIK** honetan bakailaoa omenduko dugu, itsaski eder honek gurean utzi dituen hainbat arrasto zure eskuetara, irakurle, aldizkari honen bidez ekarriz.

Gezurra ematen badu be, Europan aurkitu izan den bakailao arrastorik zaharrenak Lekeition topatu izan dira, Santa Katalinako ko-

ban. Bestalde, Aro Modernoan Ternuara joan ziren Bizkai-Gipuzkoetako euskaldunen artean lekeitiarrak lehenak izan ziren, lapurtarrak baino ez asko beranduago. Europarrek Ameriketa zapaldu eta gutxira urezandira joan ziren lekeitiar bakailao arrantzale haien ondoren, 400 urte geroago berriz ere Ternuara bueltatu zen lehen bakailaozaleko kapitaina gure artekoa zen. Ur hotzetako eta harrapatzen hain nekeza eta, akaso horregatik, hain jaki gozoa den bakailaoa, ez ete gure balearen lekuan jarri behar?

Bakailaoak ez ditu gurean historian bakarrik utzi arrastoak, platerera ekartzen be jakin izan dute gure aurrekoek, andrek batez be. Horren lekuko Santi tabernako errezetak. Edozein modutan, bakailaoa baino nahiago baduzu, irakurle, bokarta edo atuna, ez arduratu horretarako be baduzu erantzuna-eta; kabanen gaineko artikulu mardula. Beraz, **ON EGIN!**



Itsasoa lehorrera be heltzen da, eta horren lekuko dira, esate baterako, talaiak. Ba, Lekeition izan ditugun itsasoa zelatatzeko lekuen barri jakin nahi baduzu, horra talaien eta talaieroen gaineko idatzia.

Zeinek ez ete du inoiz entzun edo abestu “Aeroplano bi pasa-ta bat itsasora jausi”. Aldizkari honetan aeroplanoen historia arduratu gara eta argitu be egin dugu, bermeotarrek aipatzen dituzten lau hegazkinak topatu ez arren. Irakurri irakurle eta ikusiko duzu zer izan zen ha, argazki ikusgarriak tarteko.

Ondarrutarrekin, beti ondarrutarrekin, estropadak zirela eta izan genuen estropezu baten gaineko berri be irakurtzeko moduan zaude irakurle. Eta XIX. mendean egindako estropada horren ondorioz izandako okasinoiak hona badakarzkigu ez da inor haserretzeko izan, sasoi hareetan zelan bizi ziren erakusteko baino.

Aeroplanoaren argazkiari begira zer ikusiko eta, han atzean, etxe eder bat, orain urte asko sute batek hondoraino erre eta ezabatu zuena. Solanotarren Mendexako etxe hori ezagutzeko aukera ezin hobea da eskuartean duzuna.

**KURIK** honetan geure zilari beti begira egon barik, auzo herriei be zaitxo bat eskaini nahi diegu, baita beraneanteei ere, eta Lekeition maite izan duten guztiei ere bai, honakoan Joaquín Valle Lersundiri.

Itsasoa aho-mihinean dugula, ezin sanpedroak eta sanjuanak aipatu barik utzi, eta jaion barruan, *kaxarranka*, *kilin-kala* eta emakumeen aureskua. Guzti honetaz inork badaki, hori Iñaki Irigoien da; eta, Iñaki ezer bada, eskuzabala denez, jaion gainean idatzeko eskatu egin genion, eta beraneante ilustre honek egin, ederto gainera.

**KURIK**en artearentzat eta artistentzat, alez ale, zenbakiz zenbaki, lekua izatea nahi dugu. Horregatik, bigarren zenbaki honetan datoz: XIX. mendeko musikoak, Markuesen txisteak, Zubiaurren katuak, gure lekei-

tiar idazle gazteen lantxoak, Karmele Garatea, Ainhoa Gojenola eta Olatz Martiartu, *gure txitxiñak*...

Ondarea ez da bakarrik iragana. Are gehiago, esango gure gaur egunera ekarritako iragana dela eta bihar eta etzirako gorde behar den ondasuna. Horregatik, Eusko Jaurlaritzak Lea Ibarreko paisaia industrial babesteko eta zabaltzeko egin duen plana herriratzeko asmoz, proiektu horretan ibili den arkitektoari eskatu genion Jaurlaritzaren asmoak argitu diezagula. Honek egin, eta guk irakurleari eskaini.

Ondare historikoa maite dugunok zorionekoak gara Lekeition ditugun artxiboak izanda. Zer esanik ez dokumentazio hau dagoena baino eskuragarriago jartzen denean. Lekeitioko Udal Artxiboko agiri multzo bat horretan aditu den teknikari batek landu du eta lehen zegoena baino eskurago dugu orain. Horren berri guztiak **KURIK**en, orrialde batzuk aurrerago.

Esan beharrik ez dago Txitxirri ez ziotela Pulitzerrik eman ez meritu faltarengatik, ez bada be aurkeztu ez zelako baino. Ikusi, bestela, bigarren garau honetako *etahalaizanbazen*. Benetan gertatu zena eta gertatu izan zitekeenaren arteko marra estuan dabilta Txitxirriren istorioak. Egia ala gezurra irakurleak asma dezala.

Amaitzeko, betiko atalak: Sagar lapurretan, Zazpi akatsak, Batean kale, bestean bale, Katuok erpe eta gehiago, Artxiboko kontuak, eta Liburuen aipamena edo erreseina.

Denetara, 192 orrialde irakurgarri! Honako zaparrak ez duzu, irakurle, erraz egingo.

Esker onak eta onenak hurrengoei; alfonbra gorria ahaztu zaigu, baina bihotz handi-handi bat aurkitu dugu:

Lekeitioko Udala, the boss.

Artikulu egileak: Eduardo Berganza, Amaia Apraiz Sahagún, Pilar Valle Lersundi, Goretti Fariñas Egaña, Iñaki Irigoien, Sabin Salaberri, Koldo Leniz Ortuondo, Tere Osés eta Atabaka elkarteak.

Eskertu baita be José Manuel Matés Luque arkeologoa, hurrengorako utzi dugun Lazunarri buruzko lanagatik. XIX. mendeko aldizkarietan esaten zena gertatu zaigu artikulu hau ez argitaratzeko: “por exceso de originales”

Artistak: Joseba Markuerkiaga, Markues, txistosoa; Jon Zubiaur katugilea, eta gure etorkizuna: Karmele, Ainhoa eta Olatz. Eta –ia ahaztu dugu– Iñigo Zabala ondarrutarra baina amaginarreba lekeitiarra duena.

Euskara orraztu dutenak: Koldo Ruiz de Munain, Ibon Iturbe eta Iñaki Goigogana. **Zuzenak eurenak, Xakatsak geureak.**

Gehiago ere baditugu eskertzeko: Xabier Gezuraga, Juanita Zendoia, Iñaki Laka (aguazila), Dolores Txopitea, Miren Bengoetxea, Txakartegi-Arrinda familia (Bittor eta M<sup>a</sup> Begoña neba-arrebak)...

**Kopirraita.** Ez daukagu ez dirurik, ez lukuru edo probetxu-asmorik. Zerbait txarto egin badugu kartzelara eraman beharko gaituzte. Edozein modutan, hau zuen kontu izango da eta ez gure kalterako, guk ezer gustuko badugu lo egitea da eta.

# KATUOK ERPE ETA GEHIAGO

Kaixio laguntzarra,

Uda datorrela eta jendeak denbora libre dabela eta Kurika kalean izan behar dala eta, presaka, arin aringa, ganora asko barik behartu nabe idatzitxu hau egitera. Idatzitxua idaztera bai, baina zelan demontre idatzi daiket dexente, pentsateko astirik be izan ez badot!

Esan neutsen "Mendigurenen gaseosiaren antzera galduko dozue indarra", baina gaztia izatea zer dan! Edozein modutan, be, ez da go txarto, urteferdikaria izatia. Olinpiadak be denporatik denporara egiten dira, eta bitartian lau urte igaro bihar! Eta, ganera, hoba da kalidadia (gitxi, baina ona) eta ez kantidadia (asko eta txarra), ezta halan ala?

Berba eta berba deusat, barriketa hutsian eta oraindik ez dot neure burua nor dan esan. Batzuk eza gutzen nauzue, lehenengo Kuriketo izarra ni neu izan nintzan-eta, baina, honezkeru, irakurle barriak susmo txarra hartuta esongo dira.



Bai, katua naz eta harro nago, -Muguruzaren abesti zahar bat bururatu jat-. Eta bai, idazteko gauza naz, nahiz eta erpiok askorik ez deusten laguntzen horretan. Katuok aspaldi ikasi genduan berbetan eta katuotako batzuk baita izkiriatzen be. Horregatik, sorginak eta katuok, katuok eta sorginak, sasoi ilunak bizi bihar izan genduzan. Halan da be, ez dot, ez, penarik kontu nahi, ospatutzeko eguna da gaurkua-eta; Kuriken bigarren alabatxua jai da. Tristurak kaxatzen baten itxiko doguz, eta kittu.

Aurreko Kuriken Kanpilluan agertu nintzan, honetan, barriz, portura egin dot salto, Urjarteko saquekin gogaituta, ia beixiguren bat atrapatzen dodan Arranegi bueltan ibilita. Beixiguak barik lebatzak, eta galantak ganera, topa nebazan kalia zihar; arrantzarako egunik txarrena aukeratu neban, Antzar Eguna. Portzieto, zer deritozue lehenengo Kurikean agertu zan Txixiren artikulua zoro haren ganian? Venezian antzarrak egiten ziriala ezin izango da ukatu, baina geuk asmatu genduzalakuan nago. Ez ziran bakar batzuk Lekittora etorten ziran genobarrak eta beneziarrak, ez pentsa!

Likona (edo Liku) dorrian nago, etxeko izan dodaz beti, eta hamendik ezin hobeto ikusten dodaz antzarrak. Ez dot uste erretratu agertzen dan horrek samia kenduko eutsanik, orduko antzarrak zitalak ziran, ez gaur egunekuen modukuak.

Portua barriztuta ageri da, baina bertako etxiak oraindik grazia galdu barik dagoz. Ez dago etxia hazteko egindako miradore itxusi askorik, egurrezko balkoi zaharrak dira nagusi. Ez nago aurrerapenen kontra, baina dana bere neurrian. Eskumatara kabania ikusi geinke, gaur egungo keleria bera. 1903an erre zan Untzetatarrena lehenengo eta Kofradiarena geroago izan zan etxia egoan hor eta argazkian ageri dana, esandako eraikin horren lekuan altxa zana da. Atzekaldian Kofradia galanta, edozein katuren ametsa -beixiguz edo makailauz beterik balego, sardinak eta antxobak zeuentzako-.

Aurrekaldian, arrantzalien etxetuak, komunak, luxua orduan, portura begira dabezala. Beherkaldian, arrantzalien bodegak ozta-ozta ageri dira, eta danen artian handiena, ederrena, Likona dorrekua, ordurako hamaika erreforma izandakua. Goialdeko leiho puntadunak apartekuak dira. 1934an egin eben erreforman txikitu egin ebezan. Albuan, Likonatarren beste etxetu bat, geruago bota zana, eta, beren lekuan, hobiago bat altxatu zana 1920an. Zer ez da gertau dorre horretan? Hementxe, Kurik honetan izango da hango bat protagonista eta harriztuta geldituko zarie beraren barriakaz. Harriztuta geldituko zarie baita be, makailautan edo aeroplanotan lekittarrok erakutsi dogun abilitadiagaz. Eta isildu egingo naz eta ez dot ezer gehiago esango neugaz hasarratu ez daitezkan Kurikeruak. Azkenenguan be, hobeto ixilik egon izan banintzan, hauxe da alamera eman nebana!

Amaitu baino lehenago asmatizun bat: Zer dala ta zer dala basora doanean etxera begira, etxera datorrenean basora begira? Ezetz igarri. Akerrak adarrak okerrak ditu.

Besterik barik, on dagizuela!!

*Gloria, Patri et Filio gure katuak txilio; in secula seculorum Amen, katurik ez dago hemen.*

# Beti eskamak kentzen

Santa Katalinako **kobako** arrantzaleak

Testua: Eduardo Berganza eta José Luis Arribas

**Batzuetan arkeologoek aurkikuntza bikainak egiten dituzte eta iraganetik ezkutuan iraunduten objektu oso zaharrak, bakanak edo ederrak berreskuratzen dituzte.**


**H**orrelakoak dira, besteak beste, Paleolitoko artelanak. Nolanahi ere, gogora ekarri behar da indusketa arkeologikoen helburua ez dela objektu edo irudi ikusgarri eta harrigarriak biltzea, baizik eta historiaurreko bizitegi jakin baten ingurunea nolakoa zen argitzea eta bertako gizakiak nola bizi ziren azaltzea. Beraz, milaka urteetan zehar haizuloetako hondoko sedimentuetan pilatutako hondakintxoak oso lagungarriak gertatzen dira lehen gizakien bizimodua ostentzen duen lainoa argitzeko. Gaur egunera arte iraun duten aztarna guztiek, are

itxuraz deusezak diruditenek ere, informazio baliotsua ematen dute beren historiari zein inguruaz.

Aztarnategi arkeologikoetako ikerlana metodikoa, zehatza eta neketsua da; ez da ezer gutxietsi behar, ez eta ezabatu. Informazioa zuzen biltzeko ezinbestekoak dira esperientzia, eroapena eta lan-metodo egokia, zehaztasunarekin finkatu behar baita non aurkitzen den aztarna bakoitza. Sistema horren bidez aurkitzen diren objektu guztiak identifikatzen dira eta beraien arteko erlazioak ezartzen dira; horrez gainera aztarnategiaren kronologia erlatiboa

ere zehazten da, hau da, aztarnen aldi-esparrua finkatzen da zaharretatik berrietara.

Horrekin aritu ginen Santa Katalinako kobazuloan hamabost udatan. Uda haietan talde handi bateko kideok buru-belarri jardun genuen eta ahalegin handiak egin genituen; esaterako, kobatik erauzitako sedimentu guztiak garraiatu, ikuzi eta arreta handiarekin bahetu behar izan genituen. Dena den, onartu beharra dago lana eramangarriagoa eta atseginagoa izan zela Lekeition ikerketarako laguntza-eske joan ginen pertsona eta erakunde guztien jarrrera abegitsuari eta harrera onari esker.



1986ko indusketa kanpaina.

Argazkia: Xabier Gezuraga



## Garai hartan hotza nagusi

Santa Katalinako koban egindako lanen ondorioz orain bada-kigu jendearen bizilekua izan zela tarteka duela 12.000 urtetik duela 8.000 ingurura arte. Aldizkako okupazioa koban elkarren gainean pilatuta aurkitu diren suen hondarrek salatzen dute, aldi batetik bestera kopurua eta potentzia aldatzen dira eta.

Aurrean aipatutako aldi berean Lumentxako koba ere okupatuta egon zen, oso hurbil. Beraz, pentsatzeko da gizatalde berak bizi izan zirela bietan, batean edo bestean tarteka edo gizatalde bat batean eta beste bat bestean.

Dauzkagun datu guztiak adierazten dute koba okupatuta egon zen lehen aldian klima nahikoa gogorra zela. Aurkitu diren animalia-hondarrak aztertuta esan dezakegu gaur egun Norvegiako iparraldean dagoenaren antzekoa zela, hau da, nahikoa hotza. Izan ere, urtean zehar gutxienez aldi batean batez besteko tenperatura 5° C-tik beherakoa izango zen eta horrek eragin handia edukiko zuen itsasoko uraren tenperaturan (egungoa baino askoz hotzagoa izango zen).

## POLOETAN IZOTZ UGARI ZEGOELA ETA, KOSTALDEA GAUR EGUN BAINO KILOMETRO BATZUK HURRUNAGO ZEGOEN

Garai hartan ozeanoetako eremu handiak izoztuta zeuden eta poloetan izotz ugari pilatzen zen; ondorioz itsasoaren maila gaur egun baino beherago zegoen. Ez da gauza erraza zehaztea non zegoen itsasoaren maila duela 12.000 urte, baina kalkulatu daiteke gaur egun baino 75 - 80 metro beherago zegoela. Beraz, Santa Katalinako koba, egun kostaldeko labar batean dagoena, itsasoaren aurrean zegoen baina 5 km-ra ur-bazterretik.

Kobaren sarreratik itsaso aldera begiratuta malda leun eta nahiko zabala ikusiko zen, goragune handirik gabea. Kobaren aurretik Lea ibaiaren orduko ubidea pasatuko zen; itsasargia dagoen muturrean biratu eta iparrerantz joko zuen, urak itsasoan isurtzeko.



Ingurunean basoak urriak ziren: pinuak eta ipuruak; zuhaitz hostoerorkor gutxi zeuden. Zabalunetan espezie belarjale gregarioak bizi ziren, esaterako elur-oreinak eta oreinak.

Orain arte pentsatu izan da Madeleine aldiko gizakiek batez ere ugaztunak ehizatzen zituztela elikatzeke eta arrantza dietan garrantzi handirik ez zeukan osagarria baino ez zela. Santa Katalinako koban egindako ikerlanek uste horiek aldatu dituzte. Izan ere, ehiza garrantzitsua zen, baina arrantza ere bai. Eta, gainera, ohartarazi behar da ibai-erreketan ez zik itsasoan ere aritzen zirela arrantzan.

duela

# 12.000

urte



## Makailaua

Are gehiago, itsasoko arrantzaren garrantziaren datua berria bada ere, are adierazgarriagoa da argi eta garbi jateko egindako ebakien arrastoak dituzten bakailao-hondarrak aurkitu izana. Beraz, egiaztatu da Santa Katalinako kobazuloan bizi zirenek bakailaoak harrapatu eta jaten zituztela, eta gaurkoz arraina espezie horren hondarrak aurkitu diren Europako aztarnategirik zaharrena da: orain artean zaharrenak Norvegiako kostan zeuden eta hemengoak baino 4.000 urte modernoagoak ziren.

## HOGEI KILOTIK GORAKO BAKAILOAK HARRAPATZEN ZITUZTEN

Ornoen tamainaren arabera bakailao gehienak 20 kilotik gorakoak eta metro bat baino luzeagoak ziren. Urertzetik kobara zegoen distantzia kontuan hartuta pentsa liteke harrapatutako arrainak kostaldean bertan manipulatu zituztela (tripak kendu, lehortu...) eta gero kobazuloa eramango zituztela. Hala ere, buru-hondar ugari aurkitu direnez, ondorioztatu behar dugu arrain asko osorik eramango zituztela kobara.

Alabaina, bakailaoaz beste itsasoko espezie batzuk ere jaten zituzten, platuxa eta salmonido hondarrak ere aurkitu dira eta (azken horiek lehorreko uretakoak ere izan daitezke).

Ez dakigu nolako tresnak erabiltzen zituzten itsasoan arrainetan egiteko. Adarrez egindako arpoiak aurkitu dira, baina ezin dugu baieztatu ziurtasun osoarekin itsasoko arrantzarako erabiltzen zirenik. Halaber, ez dakigu nolakoak ziren itsasoko arrainen azturak garai hartan, baina uste izatekoa da presioa txikiagoa izanik kostaldetik hurbilago biziko zirela eta ontzietan nabigatu barik harrapatu ahal izango zirela.



Adarrezko arpoiak. Argazkia: Eduardo Berganza



Michael Eiselek du bakailao handienaren munduko errekorra, 47 kilotako bakailaoa! (103 libra). Hala ere, 1884ko "Scott`s emulsion" publizitatekoak, 156 libra! zituen, propaganda ote zen?



Bakailo hezurra ebaki artifizialekin. Argazkia: E. Roselló

Haragi-dietaren barruan ugaztunak (oreina eta elur-oreina) eta hegaztiak zeuden. Hegaztietan elur-hontza eta pottorro handia (desagertutako pingui-no espeziea) ziren harrapakin ugarienak.

Aztarnategi zaharretan oso bakanak dira landare-hondarrak, eta hortik ondorioztatu daiteke garai haietako gizakiak batez ere ehizakiez elikatzen zirela. Hala ere, aztarnategi honetan hamar bat urteko bi gazteren bi hagin aurkitu ditugu eta dauzkaten narriadura-markek adierazten dute landare asko jaten zituztela.

**SORRY**



Fotomuntaketa: Xabier Gezuragaren kobazuloko argazkia txikitu dugu.



duela

# 8.000

urte

Santa Katalinako koba duela 8.000 urte inguru okupatu zen azkenekoz. Garai hartan ingurumena erabat aldatuta zegoen. Klima, gaur egungoa bezain epela ez bazen ere, nahikoa beroagoa zen; temperatura-igoeraren ondorioz poloetako izotz-masak urtu ziren eta itsasoaren maila igo egin zen. Kobatik itsasorainoko distantzia laburtu zen eta kilometro bat ingurukoa izango zen.

Kobaren inguruan baso hostoerorkorrak zeuden (urkiak, haritzak, hurritzak) eta ibai-bazterretan haltzak eta sahasak. Koban bizi ziren gizakiek baso haietan biltzen zituzten fruituak eta haziak jaten zituzten. Esaterako, kiskaldutako ezkurak aurkitu dira.

Fauna ere aldatu zen, eta oreinaz gainera (espezierik kontsumituena) klima epeletara hobeto moldatutako espeziak ehizatzen zituzten, esaterako orkatza eta basurdea. Hegaztien ehiza ere aldatu zen eta itsasoko espezieak barik paduretakoak ziren harrapakin ugarienak.

Itsasoko ura epelago zegoen eta ondorioz kostaldera beste arrain-espezie batzuk hurbiltzen ziren, aztarnategiko garai hartako geruzan sardina, antxoa eta lupia hondarrak aurkitu dira eta. Ez dakigu ziur arrain guztiak arrantzan harrapatu ziren edo batzuk hegaztiei esker eskuratu zituzten. Nolanahi ere, lupiak handiak ziren (kilo bi inguru) eta argi dago gizakiek harrapatu eta ekarri zituztela.

Klimaren berokuntzaren eraginez itsasoko baliabideak ugaritu ziren, eta kostaldetik hurbil egonik Santa Katalinako kobako gizakiek errazago aprobeztatu ahal izan zituzten. Horren lekuko da lapa eta magurio oskolen kopuru ikaragarria; bi espezie horiek elikadura-osagarri onak izan ziren, eta haien gainera itsas trikuak, lanpernak eta krustazeoak ere jaten zituzten.








# Joaquín del Valle de Lersundi Mendizabal: el investigador inquieto

Testua: **Pilar del Valle de Lersundi**



Joaquín del Valle de Lersundi Mendizabal (Deba 1922-Iruña 2009) heredó de su padre Alfonso y del entorno en el que creció, dos de sus mayores pasiones: la geología y la historia. Como él bien decía, formaban parte de una misma inquietud: descubrir el origen y la evolución de lo que fue a partir de lo que nos queda, reconstruir el pasado y comprender el presente, ya sea de orden natural o humano, a través de las huellas y vestigios que han llegado a nosotros. Joaquín poseía una mente analítica científica muy abierta y una capacidad creativa propias del gran ingeniero que era. Su naturaleza le hacía plantearse constantemente preguntas acerca del origen y el proceso evolutivo de lo que le rodeaba. Era también ameno y divertido, siempre dispuesto a compartir sus teorías y conclusiones, ofreciéndolas generosamente, a menudo de forma anónima.

Joaquín era geólogo e ingeniero de minas de profesión. Su currículum profesional es prolijo, siendo difícil resumirlo. Al terminar la carrera, fue profesor de Geología en la ETS de Ingenieros de Minas de Madrid, participó del descubrimiento e investigación del yacimiento de fosfato de Bucraa en Sahara Occidental (1962), así como en investigación de petróleo. Tras esta primera etapa en Madrid y el norte de Africa, se trasladó a Euskal Herria y se instaló en Iruña en 1968, donde desarrolló una enorme labor investigadora, como jefe del Servicio Geológico de Navarra y director de su Mapa Geológico, docente, como profesor de geología en la facultad de ciencias biológicas de la UN, y divulgadora, a través de numerosas publicaciones y conferencias. También fue director de la delegación del Ministerio de Industria y Energía de esta Comunidad. Siempre comprometido con la conservación del medio ambiente, manifestó públicamente su oposición a proyectos como el pantano de Uharte-Pamplona o el de Gabiria (Gipuzkoa), contribuyendo a su paralización, y en sus últimos años de vida contra el de Itoiz. Realizó el proyecto de investigación de los recursos geológicos del subsuelo de la Comunidad Autónoma Vasca (CADEM). Poco antes de su jubilación, se trasladó de nuevo a Madrid donde ocupó el cargo de Director General de Técnicas Básicas del IGME. Tras ésta, se estableció definitivamente en Lekeitio y continuó investigando la cuenca potásica pirenaica. Fue Premio Nacional de Geología en 1989.



Joaquín del Valle de Lersundi Marokon.

## Pasión por la historia

No obstante, volvamos a su otra pasión, la historia, que desarrolló de manera casi exclusiva en Lekeitio. Un día, mientras Joaquín preparaba su trabajo de fin de carrera sobre el diapiro de Mutriku, se acercó a visitar a su familia en Lekeitio. Allí conoció a Paz Manso de Zúñiga, con quien se casó y tuvo cuatro hijos. Desde su llegada a Lekeitio se interesó por su historia, su geografía y la evolución de su casco histórico. Además su mujer poseía una casa con mucha historia y un archivo familiar, al que dedicó muchas horas de estudio. Así comenzó sus investigaciones con la evolución del casco urbano y de la iglesia de Santa María. De hecho, a mí me animó a estudiar ésta última en mi tesis de licenciatura, revelándome algunas de sus observaciones, como es el fuerte esvía en planta, y de sus reflexiones sobre el antiguo poblamiento de la costa. Compartía sus inquietudes sobre historia con su amigo Vicente de Urquiza, el párroco. También intercambiaba información con sus amigos José Miguel Ugartexea, interesado por la documentación histórica del archivo municipal y con Rufo Atxurra, compilador imprescindible de la memoria de Lekeitio, entre otros compañeros de viaje. Por último, investigó el archivo familiar de la torre de Uriarte y, además de ofrecer su ayuda a los investigadores que se acercaban a consultarlo, publicó algunos de los resultados.

A finales de los 70 comienza a publicar trabajos sobre la historia de Lekeitio. En "**La primitiva villa de Lekeitio**" (1977), analiza la formación del casco, el trazado y denominación de sus calles, así como la ubicación de las diferentes murallas históricas, desde fines de la Edad Media, hasta el siglo pasado. Para ello utiliza como soportes la foto aérea (vuelo de 1957), el mapa de Víctor de Munibe (1856), la descripción anónima de la villa (1735) y el padrón de la Hacendera de los vecinos (1510), junto a otras fuentes históricas.

En su siguiente trabajo, "**Una familia de ferrones: los Bengolea en el siglo XVII**" (1979), examina información procedente de la correspondencia conservada en el archivo de Uriarte. El trabajo ofrece, por un lado, información sobre la familia y otros temas de la historia cotidiana. Por otro, aspectos económicos relativos a la producción y a la comercialización de los productos, sin olvidar la construcción de las herrerías. Finalmente, contrasta algunas noticias erróneas, aparecidas en el libro "**Seis Siglos de Aventuras**", del Padre J. Garrastachu (1968).


Joaquín analizó la figura del habitante más notable de Uriarte, el ingeniero Pedro Bernardo Villarreal de Berriz (1669-1740), en diversas publicaciones y conferencias. Es uno de los personajes que contribuyeron a la llegada de la Ilustración a nuestro país y al florecimiento de la Bascongada en la siguiente generación. En "**Notas biográficas de Pedro Bernardo de Villarreal de Berriz y de sus hermanos**" (1988), además de desvelar datos sobre el origen de la familia, los progenitores y su destacado hermano Juan Bautista, analiza los aspectos científico y empresarial del caballero.

En 1990 participó en la exposición **Pedro Bernardo Villarreal de Berriz: la aportación vasca a la ingeniería del XVIII**, celebrada en Bilbao, que más tarde viajó a Madrid y lamentablemente no pudo hacerlo a Lekeitio. Joaquín contribuyó con el capítulo del catálogo **Pedro Bernardo Villarreal ingeniero y empresario**, además de ofrecer asesoramiento sobre temas diversos tanto de corte científico como documental.


Aquel año también publicó "**La muralla de Lekeitio y las torres de Uriarte**" (1990) donde determina la forma y ubicación de las diversas fortificaciones de la villa a lo largo de su historia, así como reconstruye la topografía, y evolución constructiva de este barrio.

Muchas son las notas y estudios inacabados sobre la historia de Lekeitio que nos ha legado. Ya sean sobre el incendio de 1442 y cómo afectó a la torre de Santa María, como sobre el origen de los vascos, iniciados en los años 70, como respuesta al repunte de la vieja teoría de la vasconización tardía, que ahora vuelve, con nuevos matices. También dejó en preparación un libro sobre orogénesis que invierte muchas ideas corrientemente aceptadas en la comunidad científica. Y es que, para terminar, la aproximación a la historia de Lekeitio de Joaquín siempre se vio influida por su espíritu anti dogmático e independiente y por su formación en ciencias geológicas, por lo que además de las fuentes más comunes se valió de otros recursos, como la propia geología, la topografía y la observación. Nunca fue seguidor de las autoridades científicas en aquellos aspectos que no pudiera constatar de forma fehaciente. Fue un investigador tenaz, agudo y escrupuloso, amante de Lekeitio, que tan bien conocía, contribuyendo al esclarecimiento de su historia para investigadores venideros.





# 1917



Aeroplano bi pasa-ta bat itsasora jausi (bis).

Ekarri Severianok ekarri (bis) Severianok barran pondo emonda itxi.

Goixeko sei tt'erdijetan Asentsio burutsik (bis).

Sabiño ezeik eruan Sabiño (bis) ezeik eruan bestela danok preso.

## Aeroplano bi pasa-ta...

Testua: Maite Garamendi

Kanta hau 1917ko gertaera bati aterazioten Lekeitiarrek. Ikusgarria izan omen zen jazoera, mundiala! Abiazioak ez zituen urte askorik, izan ere gerrarako hegazkinak I. Mundu Gerran estreinatu ziren... Imajinatu dezagun, herriko bapor bat hidroplano bat atoian sartzen Lekeitioko portuan, beste 16-18 baporek eskolta emanda. Moilak eta hondartzak jendez gainezka, danak ikaragarri harrituta...

### I. Mundu Gerra

1917. urtean mundua gerran zegoen. Aspalitik blokeetan zatituta, tentsio nabariak zeuden potentzia handien artean. Gerran hasteko arrazoiak, aurretik garututako inperialismoen ondorio ziren; batez ere arrazoi ekonomikoak ziren eta lurraldetasunari zegozkienak. Industria potentzia handienak hortzetara arte armaturik zeuden eta egoera honek eztanda egin zuten 1914an. Izugarri krudela izan zen I. Mundu Gerrak 1918ra arte iraungo zuen.

Hasieran Errusia, Frantzia, Ingalaterra, alde batetik eta beste batetik Alemania eta Austria-Hungaria aritu baziren ere, gerora ia Europa guztia bloke bataren edo besteren alde jarriko zen. European hasi zen gerra hura laster mundura zabalduko zen...

Estatu Espainiarrak ez zuen parterik hartu. Abentura kolonialistak aspaldi egin zuten porrot eta garai batean nazioarte mailan izan zuen eragina, orduan ez zen ezer. Europa mailan Estatu isolatua zen, eragin eskasekoa, europako alianza edo entente handietatik aparte zegoena. Onerako eta txarrerako. Trukean, herrialde hispano-amerikanoekiko harremanak hobetu egin ziren eta ekonomi aldetik urte parpoak izan ziren orokorrean, gerran ziren herrialdeen hornitzaile izan baitzen. Euskal Herrian, batez ere Bilbo aldean, itsasoko merkataritza eta ontzigintza izugarri garatu ziren urte haietan, nahiz eta oso arriskutsua zen.

1917an nekeak jota zeuden herrialde guztiak; Errusia erretiratu egin zen iraultza propioaren ondorioz eta Estatu Batuak esku hartu zuten gatazkan. Azken honek balantza okertu egin zuen aliatuen alde.

1917an Juan Zabala Ibañez de Aldekoa zen Lekeitioko alkate eta Isaac Orue Artiñano alkateorde (orduan urte baterako aukeratzen ziren agintariak). Lekeitioko Udalbatza Osoko aktetan nekez aipatzen da gerra konturik. Udala, uraren kontsumoa neurtzeko kontagailuak erosteko zegoen eta, hori dela eta, batzarkideek komentatzen dute zaila zegoela asuntza "por las circunstancias mundiales actuales".

Urte haietan Gizaburuagako Telleria iturburu urak ekarri ziren herrira eta gitxi-gitxika etxe partikularretara bideratzen joan ziren. Ura "a chorro libre" kobratzen zen hasieran, beraz, kontagailuak ipintzeko premia zegoen.

## ... bat itsasora jausi



Aeroplanoa Lekeitioko barran, 1917. Argazkia: Luis Céniga.

*Aviación Hallazgo*

Confirmando lo que por conferencia telefonica acabo de comunicarle, tengo el honor de significar a V. S. que anoche proxicamente a la hora de las 8 y media entro en este puerto remolcado por unas lanchas pesqueras un hidroavion frances averiado, tripulado por un Teniente de la Marina de Guerra francesa y su Mecanico, cuyo aparato cayo a unas cinco o seis millas de este puerto, y fue visto y auxiliado por las indicadas lanchas de este puerto. Se trata de un hidroavion destinado por la Marina de Guerra francesa al servicio de vigilancia en esta costa, y esta señalado con el numero 445 y las letras D. D., siendo su motor de 160 caballos de fuerza. Fue visto tambien en su caída por otro aparato analogo, el que hizo señas a las embarcaciones pesqueras antedichas; y los tripulantes del averiado a su vez dieron tambien parte del accidente a Bayona lanzando dos palomas mensajeras.

La Autoridad de Marina interviene

en el asunto, quien esta instruyendo las diligencias del caso.

Anoche mismo se quiso comunicar a V. S. la noticia, pero como la estacion de esta es limitada y estaba ya cerrado el servicio no pudo conseguirse la comunicacion por Eilbao ni telegrafica ni telefonicamente, pues a las llamadas del encargado del servicio no contestaron de Bilbao ni de las estaciones intermedias.

Como noticias relacionadas con el particular, puedo participar a V. S. las siguientes: El aparato tiene armamento alguno y unicamente iba provisto de bombas de mano que fueron arrojadas al mar por los tripulantes en cuanto se les desmolque; A las 11 de la noche despues de prestada declaracion ante el Jefe de Marina se traslado en automovil a esa Capital el piloto de la aeronave, quien ha regresado a

Villa a las 4 y media proxicamente de la madrugada, acompañado del Viceconsul frances o un Empleado de la Embajada Francesa; Segun se afirma sin que haya comprobado su certeza, esta misma madrugada ha tenido conocimiento de la entrada de dicho hidroavion el Excmo. Sr. Ministro de Estado, por conducto de la Embajada Francesa, a la que transmitio la noticia el Viceconsul de Francia en Bilbao; y esta mañana se han presentado ante este puerto dos barcos pesqueros armados franceses con intencion al parecer de llevarse la aeronave a juzgar por el hecho de haber intentado echarle un cable para remolcarlo mar afuera un vaporcito de esta matricula, lo que ha impedido la Autoridad de Marina.

Lo que tengo el honor de participar a V. S. para su conocimiento y por si cree oportuno transmitirme alguna orden o instrucciones respecto del particular.

Dios guarde a V. S. muchos años.

LE -

QUEITIO, 3 de Julio de  
El Alcalde,

Jefe Civil de Vizcaya.

B I L B A O .

## Gertakizuna

Hasieran aipatutako testuinguruan, 1917ko uztailearen 2an, Kantauriar kostaldea ikuskatzen omen zeuden ur-hegazkin frantziar bi pasatu ziren Baionatik Matxitxakorantz arratsaldeko 5:00ak aldera. Ordu betera, bueltan zetozela, hegazkin bietatik bat itsasoratu egin zen, matxuraturata, Lekeitioko portutik bospasei milietara.

Orduan, Francisco Etxebarria talaieroak, suzko seinaleak erabilita, sardinatan zebiltzaten itsasontziak abisatu zituen. Badirudi, *Euzkadi* egunkariko Lekeitioko berriemaile Lartetxek guzti hau ikusi egin zuela Talaiaiko teleskopioa erabilita. Irakurri egizue hurrengo orrialdeetan, uztailearen 4ko *Euzkadi* egunkariko artikulua.

“Miren Begoña” ontziak ekarri zuen Itsas Armada frantziarraren aeroplano matxuraturata Lekeitioko barraraino. Lekeitiara bidean, aeroplanoaren tripulatazile biek, uso mezulari bi bialdu zituzten, agian Baionara, eta barruan zeuzkaten esku-bonbak part bota zituzten uretara. Portura, bestelako armamentu barik heldu ziren.

Severiano Mendiola zen “Miren Begoña” ontziko patroia. Gizon honek taberna bat zeukan moilan, Drungulunekua, gaur egun Antzarrak taberna dagoen tokian. Arratsaldeko 8:30ak aldera heldu zen komitiba, ikusleaz gainezka zegoen Lekeitioko portura.

Bertan egunean ezin izan zenez egin, biharamunean alkateak Bizkaiko Gobernadore Zibilarari telefonoz deitu zion eta karta bat bialdu, gertakizuna azaltzeko. Orduan hasi zen korapilo diplomatiko-burokratiko...

Bitxia da urte haretan bertan berri zela Lekeition, telefono, telegrafo eta posta zerbitzuetarako eliza atzeko eraikina, urte hasieratik, industrialariak, merkatariak eta Kofradia, posta eta telegrafoen zerbitzuak hobetzea eskatzen baitzeuden. Gasolindegiko lurretan egon zen eraikina. Urte amaieran ere zerbitzua ez zen oraindik oso ona...



Biharamunean, frantziar arrantzontzi armatu bi etorri ziren isla atzera eta nagusia batelean hurbildu omen zen Lekeitiara. Irakurri *Euzkadi* egunkariko Lartetxek sinatzen duen artikulua, uztailearen 7koa, oso xelebrea da.

*Mamelena l baporea, euskal ontzidiaren arrantzarako lehen baporea izan zen. Ignazio Mercader donostiarrak erosi zuen Erresuma Batuan, 1879an. Hasieran bela-tralupak atoiari eramatzen zituen kaletaraino; eta probako saio batzuen ostean, arrasteko arrantzan erabiltzeko. Kontixu, 1917an arrasteroei mamelenak deitzen zieten.*

Badirudi, frantzesak Sabino Erkiagarekin (Sabino Marrauxa), “Ama Antiguakua” ontziko patroia, jarri zirela harremanetan, hegazkina portutik ateratzeko asmoarekin, baina Bilbotik heldutako aginduak zirela eta ez zuten ezer lortu eta arratsaldeko laurak aldera alde egin zuten.

## BILBOKO AGINTARIEK ERE ETORRI ZIREN LEKEITIORA ETA UDALAK ZERBEZA EDATERA GONBIDATU ZITUEN

Asentsio Gezuraga Komandantziako ardurduna zen (cabo de mar). Asentziok, gertatzen ari zenaz ohartu zenenan, Sabino Erkiagari hegazkina ez ateratzeko agindua eman zion, arazo larriak egongo zirelakoan. Prim taberna alboko bodega gainean bizi zen Asentzio eta, badirudi, bentanara irten zitzaiola Sabino Marrauxari, alkondara hutsean eta txapel barik (Asentzio burutsik).

Argi dago gure kantaren esanahia, ezta? Ur hegazkin frantzesaren uztailearen 5era arte egon zen Lekeitioko portuan, itsas agintaritzek arazo burokratikoak konpondu zituzten arte. Bitartean, bai ingurutik eta baita urrunagotik ere hainbat lagun hurbildu ziren Lekeitiara, aeroplanoa ikustera.

Bilboko agintariak ere etorri ziren Lekeitiara eta Udalak zerbeza edatera gonbidatu zituen, begira gastuaren agiria.



## LIBRAMIENTO DE FONDOS MUNICIPALES

Ayuntamiento de Lekeitio

Año de 1917

NÚMERO 179

NÚMERO DEL CONCEPTO 27

CAPÍTULO

ARTÍCULO 8º

Don **Juande Zabala e Ibáñez de Aldecoa** Alcalde-Presidente de dicho Ayuntamiento.

El Depositario del mismo D. *Severiano Mendiola* satisfará de los fondos que obran en su poder a D. *Euzkadi* la cantidad de *veinte siete pesetas* y *setenta centimos*.

por cuenta de los expresados capítulo y artículo del presupuesto de gastos, en concepto de *Abono de las dos cuentas por Capi. Servida al Ayuntamiento el día San Pedro (Mes 2º 20) y Cuenta a las Autoridades de España en materia de la estiba en este Puerto de un hidroavión francés (Mes 2º 10), según justificante que se anexa al Libramiento.*

Y en virtud de este Libramiento, autorizado por el Regular Interventor, tomada razón por la Secretaría de este Ayuntamiento y con el Recibi del interesado, se dará V. de la expresada suma en la cuenta de anuales que rinda al terminar definitivamente el referido año.

Lekeitio 7 de Julio de 1917



El Alcalde, *Juande Zabala*

RECIBI: *Euzkadi*

LUA-L0072/00



Lekeitio

Bat' baster emen dagon hidroplanokuen beste lagunak eruan eben izarna euren erri aldera.

El hidroplano en Lekeitio

He aquí lo que nos dice nuestro colega correspondiente en Lekeitio acerca del hidroplano francés que cayó en nuestras aguas. Con el sencillo relato deber acabar las mil fantásticas versiones de los no enterados.

Dice así: "Hoy, a las cinco de la tarde próxima, he visto volar a unas 4 millas de la costa dos hidroplanos franceses. Llevaban la actitud de explorar los mares y limpiar estas costas de las minas submarinas."

Serie las seis, cuando de pronto vieron que aparecía de nuevo, ahora con di- rección a Francia, los dos aparatos que al principio creyéramos tuviese no- ta en el motor.

Mas, he aquí, que de pronto, tambien su compañero de viaje de y revoloteando cual gaviota sobre el mar flotante, alrededor del que des- pués sobre las olas, prosigue su via- je solo.

Por tales señas que hizo al atar- nerse al aparato unas trala- ras, se hallaba a la sazón a la pes- carina y de pronto remolque pe- ro el caso.

El hidroplano lleva el núm- ero 54 y el tripulante un teniente y un sub- oficial de Bayona a las 10 de la tarde, y al ocurrir el accidente al mismo puerto fr- ances.

Ahora nos reservamo- s para el caso. Lo m- ás seguro es un estricto sigi- llo.

LARTETXE.

"La Gaceta del Norte" 1917/7/5

bata bestien atzetik txorijak baxen arin Bayona-aldetik Matxaku-rantza.

Au arratzaldeko bostak inguruan ixan da, baña jira egin ondoren seiretan lez lengo biderantza jarraituteko, sei ta erdijak inguruan eraingija ondo ez ebilla- lako edo, itxas-ganian geratu da bata, Le- keitio'ko kaitik lau-bost milla urrin.

Au ikusita beste itxas-egazkijak iru edo lau jira egin dituz bere onduan, eta gero jardun dau Bayona'rantz edo urten ziran tokirantz.

Ederto ikusi doguz gertaera danak, ga- nera len baño obeto, igon ixan garalako begiratoki edo atalayara, ta emeko betau- rre nagosiyakin geugaz lez euki doguz.

Lekeitio'ko begirari edo atalayeruak, Etxebarria'tar Pantzeka'k arin-arin su- ikurra eginda itxasuan egozan sardña- arrantzale ontzizjai, onek laster igarri da- be zetako ixan dan, ta baita juan be las- ter. Lenengo eldu da "Miren Begoña" ontzizja, Mendiola'tar Seberen'ena ta txi- kotak botata emen dakarre kaira.

¡A zan zaparradea kai ondora agertu zanian! Kai-ganiak oztez estalduta ego- zan. Hidroplanuen albotik amasei edo amazortzi ontzi be bai-dira ixan.

Eldu danian ikusi dot atzeko buztanian Parantze'ko ikurrin-marguak daukazala, ta aurrian 445 DD ikurra. Polita ta ikus- tekua da.

Entzun dot Bayona'kua dala, ta bertan dagozan gixon biyetatiko bata opixialia. Emen daukagu ba kai barruan. Eztakigu agintariyak zer erabagi artungo dabem.

Lartetxe.

Garilla, 2.

MOTORES MARINOS

"WOLVERINE"

Garavilla, Hurtad de Amézaga, 17



"El Correo Español", 1963-7-13

Kontuan izan! LUA Lekeitioko Udal Artxiboa BFAH Bizkaiko Foru Agintegi Historikoa

Eztabaida (drgan)

1963ko uztailaren 10ean eta 13an argitaratutako artikuluekin, Vicente Talon kazetariak polemika piztu zuen Bermeo, Mutriku eta Lekeitioen artean, hiru herriak baitzeukaten memorian antzeko istorioak eta antzeko kanta. Zein herrik atera zuen kanta hau lehenengoz? Nork ipini zion musika? Galdeketak egiten ibili zen kazetaria herririk-herri baina ez zuen gauza handirik argitu. Rafael Ossa Echaburu kazetariak, bere partetik, Lekeitiori buruzko 1917ko prentsa artikulua lokalizatu zituen eta transkribitu egin zituen artikulua baten, 1963ko uztailaren 12an.

Vicente Talonek kontaktzen du kantaren musika Feliciano Beobidek konposatu zuela, orduan Lekeitio Musika Bandako zuzendarari zenak. Berari kontaktu egin omen zioten lekeitiarrek baina ezin izan zuen puntu hau argitu. Ez daukagu sasoko partituri- rik..., egia ote?

Azkenik, 1968an argitaratu zuen artikulua baten Talonek labur- pen bat egiten du eta aitortzen du hainbat testigantza entzun zitu- tuela baina ez zuela gertakizunen konturako dokumentu garu- rik aurkitu eta, beraz, kontu guzti horiek legenda edo kondairak izan zitezkeela. CSICek babestutako Revista de Dialectología y Tradiciones Populares aldizkari-ko XXIV. zenbakian argitaratu zuen Vicente Talonen azken artikulua hau.

Egun, baliabide gehiago ditugu eta Lekeitio gertatutakoa do- kumentatu egin dugu. Eta egia da. Dokumentu idatziez gain, orain gutxi, orduko argazki bi ere agertu dira familia lekeitiar ba- tek utzi digun argazki bilduman.

Aldiz, kantaren jatorriaren polemikari dagokionez... batek daki! Bakoitzak atera ditzala bere konklusioak.

Gertakizuna aztertze-ko erabilitako informazio iturriak: Lekeitio alkateak 1917ko uztailaren 2an Bizkaiko Gobernadore Zibilar bialdutako gutuna, Lekeitio Udal Artxiboa (LUA-U1488/01).

Lekeitio Udal Artxiboko aktak eta kontuak. Zenbait egunkaritarako artikulua, bai garaikoak, bai 60. hamar- kadakoak (Euzkadi, El Correo Español - El Pueblo Vasco, La Ga- ceta del Norte).

2002an Maite Garamendik Rufo Atxurrekin izandako elka- rriketa. Rufok, kantan agertzen diren pertsoniak ezagutu egin zituen.

2000an Juan Mari Endeizak Jose Inazio Murelagari egindako galdeketa. Inaziok gogoratu egiten zuen gertaera. 9 urte zituen orduan.

"La Gaceta del Norte" 1963-7-12

Newspaper clipping: "Existieron dos aviones; como existen dos canciones" with a map of the Cantabrian coast and a portrait of Severino Mendiolain.

Newspaper clipping: "Los lekeitianos reivindican para sí la historia del hidroplano francés" with a map of the coast and a portrait of Severino Mendiolain.

Newspaper clipping: "El establi" with text about a hotel and a portrait of Severino Mendiolain.

"Euzkadi" 1917/7/7

"Euzkadi" 1917/7/4

# Beste aeroplano bat 1917

1917ko uztaillean ere, bada kasualitatea, "Nueva Magdalena" baporak atoiaren eremuan zuen beste frantziar ur hegazkin bat itsaso zabaletik Pasaiaraino. Baporak Luis Abaroa (Luis Alegre) zuen patroia eta Modesto Erkiaga armadore. Pasaiara eroan eta gerrako ontzi frantziar bati entregatu zioten hidroplanoa. Zerbitzu honen truke, Mariak, armadorearen alabak, 3.100 pzt. kobratu zituen frantziar kontsulatuak emanda. Mariak, dirua banatu zuen, patroiarri sibre zarratu bat emanda eta arrantzale bakoitzari 90 pta (dieciocho duros). Gainera, Hotel Beitian afari ederra eginda ospatu omen zen gertakizuna. Baliteke gertaera honen ondorioz beste bertso bi hauek gehitu izana gure kantari:

PARTILLA  
DIECIOCHO DUROS PARTILLA (bis)  
DIECIOCHO DUROS  
SEVERO TA KUADRILLA.

AFALDU  
HOTEL BEITIAN AFALDU (bis)  
HOTEL BEITIAN  
MOZKORRA ARRAPATU



Honen kontura ez dago dokumentorik ezta aipamenik Lekeitioko Udal Artxiboan, izan ere, partikularren arteko kontu bat izan zen eta Udalak ez zuen honetan inolako eskurik hartu. Santi Akordarrementeriak, udal langilea izan zenak, Vicente Talon kazetariari kontatu zion pasadizoa eta harek argitaratu egin zuen 1963an El Correo Español – El Pueblo Vasco egunkarian. Horregatik ezagutzen dugu.

# Eta beste bat 1943

Beste aeroplano bat? Bai horixe! Baina badirudi ordurako aspertuta zeudela Lekeitiarrak gerrako hegazkinak pasatzen ikusten. Kasu honetan ez zen bertso berririk atera. Baina argazki bat daukagu.

1943ko jazoera hau ere ondo dokumentata dago. Lekeitioko Udal Artxiboan ez dago honen konturako Udaleko dokumenturik, baina badago herritar anonimo batek kalean botata aurkitutako beste erakunde bateko dokumentu sortatxu bat. Herritar hari esker, orain dokumentu

haiek erabilita gertaeraren gorabeherak aztertu ahal izan ditugu eta Kuriken erakutsi. Vicente Talon kazetariak ere kontatu zuen gertaera 1963an. Kontatzen duen amaiera, baina, ez doa bat dokumentuetan irakurri dugunarekin. II. Mundu Gerra pilpilean zegoela, 1943ko irailaren 24an, "Reina de los Angeles nº 2" bapora arrantzan zegoen alban. Hipolito Gezuraga zuen patroia eta David Gabilondo armadore. Gerra zela eta marinelek itsasoan eta kostan edozelako hondakinak ikusten ohituta zeuden (minak, kautxuzko balak, gorpuk,...) baina, halako batean, Matxixakotik 70 milietara zeudela, arrantzaleek zerbait ikusi zuten itsasoan. Hasieran pentsatu zuten beste ontzi bat zela, baina... ur-hegazkin alemaniarra zen eta Hitlerren Luftwaffearen ikurra zeukan!!!

"Eztago iñorbe, eruan daigun Lequeitiara, sapra mandua daukaguta" dio Talonek esan zuela Jesus Anakabe Badiolak. Hegazkin barruan inor ez zegoen eta hau ere atoiaren ekarri zuten Lekeitioko barrara arte. Dokumentaziorik ere ez zeukan eta segurutik matxuratuta zegoen. Metrailadore bat zeukan popan eta, brankan, metrailadorea eta kanoia, biak antiaereoak. Komandantziko nagusiek zainduta egon zen Lekeition, irailaren 30ean Bilbora eroan zuten arte, aire autoritateek kargu hartuta. "Reina de los Angeles nº 2" bapora bera kargatu zen hegazkina Bilbora atoiaren erateaz. "Reina de los Angeles nº 2" baporeko tripulanteek, asko kostata, 1947ko apirilean kobratu zuten legez tokatzen zitzaiena, erantsitako dokumentuan ikus daitekenez.

# Beste aeroplano bat 1920



1943ko aeroplanoa

SR. COMANDANTE MILITAR DE MARINA DE BILBAO.

En cumplimiento de lo ordenado telefónicamente por V.E. se ha instruido el presente expediente de hallazgo de un hidro-avión trimotor marca Blohm & Voß, nº 1.037 realizado por la tripulación del vapor de pesca nombrado "REINA DE LOS ANGELES" nº 2, folio 1.145 de la inscripción de Rivedes y de uso en este puerto y de lo actuado resulta:

Que al encontrarse dicha embarcación el día 24 de Septiembre de 1.943 dedicada a las faenas de la pesca de bonito a setenta millas al Norte de Cabo Mendocino, observó que flotaba un objeto, que a gran distancia dio la sensación de que se trataba de un barco averiado, pero al acercarse a él se encontraron con el citado hidro-avión, totalmente abandonado, procediendo seguidamente a darle remolque hasta este puerto donde llegaron el día 25 a las once de la mañana, poniéndolo inmediatamente en conocimiento de esta Autoridad de Marina y quedando decididamente anclado en la bahía.

Acto seguido se dió conocimiento del hallazgo al Sr. Comandante Militar de Marina de la provincia y simultáneamente se surcaron dos oficiales; uno al jefe de la tercera Sección de la 23a Comandancia de la Guardia Civil de Costas y otro al Capitán que mandaba la Compañía del Rgto. de Infantería nº 54 de la defensa Costera. Al primero se le suplicaba que por fueros a sus órdenes estableciese una guardia permanente a bordo del hidro-avión y al segundo que custodiara el hidro-avión desde tierra, impidiendo todo acceso de personas al mismo.

Así permaneció el hidro-avión hasta el día 30 de dicho mes, fecha en que se presentó el Coronel Jefe de la Zona Territorial de Industria nº 5 Sr. Escosa acompañado de algunos Jefes y Oficiales, entre ellos el Comandante de Aviación de la Escuela de Vuelos sin Visitación de Salamanca, D. Carlos Pombo Somoza, éste con órdenes para hacerse cargo del hidro-avión en representación del Ministerio del Aire. Por considerarse que no ofrecía este puerto o bahía, suficiente garantía de seguridad para el hidro-avión dispuso que fuese remolcado hasta el puerto lo que fué realizado por el mismo vapor de pesca "REINA DE LOS ANGELES" nº 2. Al folio 3 va unido el escrito suscritos por el referido Comandante Sr. Pombo, naciéndose cargo del hidro-avión.

A los folios 6 al 11 se ven los datos de las declaraciones del Patron y tres tripulantes del vapor "REINA DE LOS ANGELES" nº 2 y ninguno de ellos renuncia a la parte que pudiera corresponderles por el hallazgo.

Al folio 13 va unido el escrito del Excmo. Sr. General Jefe de la 5ª Región en el que se hace constar la valoración dada al hidro-avión, siendo este de UN MILLON SEISCIENTAS MIL Ptas. (1.600.000 pts.) a su salida de la fábrica pero que dicha cantidad debe ser reducida en un 50 % al estar en servicio y por tanto se estima que el valor actual del hidro-avión será de OCHOCIENTAS MIL Ptas. (800.000 pts.).

Con respecto al precio de Armadores y halladores, si se considera que...

- A C T A -

En Lequeitio a nueve de Abril de mil novecientos cuarenta y siete. Ante el Sr. Ayudante de Marina del Distrito comparecen el Armador y tripulantes del pesquero "REINA DE LOS ANGELES" nº 2 con objeto de proceder al reparto del premio de hallazgo del hidroavión alemán, que asciende a la cantidad de OCHENTA MIL PESETAS (80.000), presentando el Armador justificantes de gastos habidos con ocasión por el referido hallazgo, cuyos gastos ascienden en total a la cantidad de SEIS MIL DOSCIENTAS TREINTA Y SIETE Ptas. CINCUENTA Cts. (6.237,50) por la cual se hallan conformes todos los tripulantes, quedando un remanente líquido para el reparto de setenta y tres mil setecientos sesenta y dos pesetas con cincuenta cts. (73.762,50), efectuada a prorrateo la liquidación que corresponde a cada uno las siguientes cantidades:

Armador.....	50 %	36.881,25 Ptas.
Patron, Hipólito Quezura	1	2.783,48 "
Salvador Anasabe	1	2.783,48 "
Teodoro Echevarría	1	2.783,48 "
Victoriano Ituarte	1	2.783,48 "
Alfonso Aramburri	1	2.783,48 "
Rafaelino Egüía	1	2.783,48 "
Jesús Anasabe	1	2.783,48 "
José Anasabe	1	2.783,48 "
Juan Chopita	1	2.783,48 "
Agustín Balazategui	1	2.783,48 "
Juan Izarra	1	2.783,48 "
Pedro Orpegui	1	2.783,48 "
Pedro Ituarte	1	2.783,48 "
Filix Goitia	1/4	1.391,74 "
Rafael Izarra	1	2.783,48 "
		36.881,25 "

Efectuada por el Sr. Ayudante la entrega de las cantidades expresadas anteriormente y hallándose todos conformes, firmas todos los comparecientes la presente acta por cuadruplicado y a un solo efecto en la fecha arriba expresada.

David Jabilanduz Salvador Anasabe  
Hipólito Quezura José Izarra

## Eta gainerako bertsoak?

Amaitzeko, Lekeition beste bertso batzuk kantatzen ditugu musika berdinarekin, sarritan aurreko kantekin nahastentzuz.

Kantu honek, baina, ez dauka zerikusirik aeroplanoekin; bokartaren arrantzari egiten dio erreferentzi, antxoan manjuari, hau da, egunez traina erabiltza eta ixurdak lagun egiten den arrantzari (bestela ere gauzez egin daiteke, ardorean edo trainagaz).

Rufok Atxurak azalduta, gorri ederra antxoaren ugaritasuna da. Bapor Klotildek etxadia egin eta txikotetik eskapata, arrinketa galtzeko zorian dago... Orduan, San Pedro bapora agertu eta azpitik botata salbatzen dau arrinketa.

Bestela ere, arrantzan, behin etxadia eginda, etxadiaren biribila zarratu orduko beste baporen bat agertu ezker, arrantza biontzako izan behar zuen.

GOIXEKO SEI TT'ERDIETAN  
GOIXEKO SEI TT'ERDIETAN  
IXURDAK BRAUNPARAKA (bis)

KE TA KE  
TALAJERUA KE TA KE (bis)  
TALAJERUA  
BAPORAK URTEK ARTE.

LELENGO  
BAPOR CLOTILDE LEHELENGO (bis)  
BAPOR CLOTILDE  
ETXADIA EITTEKO.

BOTATA  
GORRI EDERRA BOTATA (bis)  
GORRI EDERRA  
TXIKOTETIK ESKAPA.

SAN PEDRO  
BOTAIAK AZPITTIK SAN PEDRO (bis)  
BOTAIAK AZPITTIK  
DANAK LEKITTORAKO

Eskerrak: Rufo Atxurra, Maria Luisa Céniga, Juan Mari Endeiza, Iñaki Laka, Iñaki Madariga Vidal eta Jose Ignacio Murelaça.

Honako nahasterik!!!

Batetik Loiu baino aeroplano gehiago eta bestetik Miren Begoña dala, Clotilde dala, Nueva Magdalena dala, Reina de los Angeles dala... briskan egiteko beste atzo... atsuak zirian ala baporak?




Bapor "Clotilde" Donostiako portuan. 1917



Aeroplanoa Lekeitioko barran, 1917. Argazkia: Luis Céniga.

Hara zer ageri dan  
Quincoceseneko etxien parian,  
Solanoarren etxe ederra!





# Auzokuak

## Mendexa: Solanotarren etxea

Egilea: Aitor Iturbe

### Solanotarrak

Jose María Solano, Socorroko IV. markesa eta Carpioko IV. kondea, M<sup>a</sup> Nieves Adan de Yarzarekin ezkondu zen 1873an eta hiru seme izan zituzten: Jose M<sup>a</sup> Solano, 1880, Carlos Solano, 1882, eta Ramón Solano, 1887. Aita hil zenean 1912ko azaroan bere seme nagusia Jose Maria Solano egin zen tituluaren jabe, V. markesa. VI.a bere anaia Carlos izan zen. Ramón gazteena Carpioko V. kondea zen.

Aitarentzat izango zen etxe berri hori? Hala izan bazen ez zuen izan disfrutatzeko asti gehiegirik. "La construcción moderna" aldizkaria 1913ko urtarrilekoa da eta eraikina amaituta ikusten da. 1912an egindakoa dirudi, edozein kasutan 1907a dugu muturra.

Socorroko markesarena dela diosku aldizkariak eta 1936an Carlos Solano diputatua zenaren etxe honetan (1935ean Bizkaiko Buru Batzarreko kide aukeratu zuten) Euskal Alderdi Jeltzalearen kontseilu garrantzitsu bat ospatu zela irakurri dugu. 36ko irailean geunden, gerran, Gipuzkoa jausi berri eta lehendakaria izan behar zen Jose Antonio Agirre eta beste jeltzale batzuek Errepublikaren alde tinko mantentzea erabaki zuten. Tamalez etxea 1948an erre egin zen.

### Calixto Emiliano Amann

Jatorriz germaniarrak, Amannotarrak Bilbon negozio onak egin zituzten. Honen aita Isaac esaterako Neguriko urbanizazioa bultzatu zuen. Agian horregatik 1882an jaio zen Calixto arkitekto egin zen. 1907 amaitu zuen karrera eta 1909rako bere proiektuek "Club marítimo del Abra" eta "Sociedad Bilbaina"ko lehen sariak irabazi zituen. Bilbaina elkarte izango da bere proiekturik esanguratsuen, baina 1942an hil zen arte hainbat proiektutan parte hartu zuen. Jose M<sup>a</sup> Basterra, Ricardo Bastida eta German Agirrerekin elkarlanean ari izan zen eta Manuel Maria de Smith-ekin batera "Neo vasco" estiloa landu zuen, baina orduko arkitektura modernoa baztertu barik.

Solanotarrei eraiki zien etxean estilo erregional hori aukeratu zuen, agian Ramón Adan de Yarzaren Karraspioko etxea zuelako buruan sustatzaileak. Polita eta ederra egin zuen etxea lanean bost urte bakarrik zeraman gazteak. Antzekoak eraiki zituen Getxo aldean 20. hamarkadan.

Solanotarren etxearen orubean altxatu zuen J.M. Chapa arkitektoak (1959-62) Don Isidro Salinas mediku ospetsuaren txaleta.



Solanotarren Mendexako etxea

Fundada en 1903.




Tendencia plausible de los arquitectos vascos. — Influencia de las condiciones de la vivienda en la mortalidad tuberculosa de Madrid, por el Dr. Vicente Alvarez R. Villamil. — Notas bibliográficas, por G. — Se acompañan tres tipos de hoteles y el pliego segundo del folleto «Urbanización y tuberculosis».

## Tendencia plausible de los arquitectos vascos.

Desde fecha reciente, viene acentuándose una consoladora tendencia entre algunos arquitectos españoles á dar impulso á los diversos estilos nacionales, ó sea á desarrollar la arquitectura regional. Nada más lógico ni más plausible, en efecto, que trabajar con el entusiasmo que lo hacen los arquitectos catalanes, por ejemplo, por crear su estilo propio, peculiar, característico, de arquitectura, acomodando los preceptos fundamentales del arte, que se inspira siempre en la Naturaleza á lo que piden el suelo, el clima, las costumbres, el espíritu de aquella región, con sus naturales cambios y evoluciones.

Y esta adaptación, que debe constituir en todo momento norma de conducta del arquitecto enamorado de su carrera, es necesaria si se desea que cual debe ocu-

Casa estilo vasco, propiedad del Sr. Marqués del Socorro, en Lequeitio.




Fachada principal.

Arquitecto,  
D. Calixto Emilio Amann.

rir la Arquitectura patria, refleje en toda época, el modo de ser, no sólo de la nación, sino de sus distintas regiones. No se nos muestra, en efecto, la Naturaleza con los mismos en-

Casa estilo vasco, propiedad del Sr. Marqués del Socorro, en Lequeitio.



Vista de conjunto.

Arquitecto,  
D. Calixto Emilio Amann.

cantos en las mesetas castellanas, que en las costas andaluzas, ni dice lo mismo al verdadero artista en Cantabria, que en Levante; ni perduran las viejas tradiciones y costumbres en la capital de España, como en el país vasco...

Caben, pues, perfectamente dentro de la arquitectura española las arquitecturas regionales, y lo mismo que de hecho se extiende la arquitectura catalana, debe estimularse todo esfuerzo para ir definiendo y desarrollando la arquitectura castellana, la vasca, la montañesa, la andaluza... Bien claro lo proclamaba en la interesante conferencia dada con motivo del salón de arquitectura, el prestigioso maestro D. Vicente Lampérez, al hablar del *tradicionalismo* y el *ecolismo* en la arquitectura.

No hace muchos números, honrábase esta Revista felicitando al arquitecto de Santander D. Leonardo Rucabado, por la nota simpática que había dado, presentando al concurso de proyectos arquitectónicos abierto por la «Sociedad española de Amigos del Arte», el de palacio para un noble en la Montaña, trabajo que obtuvo por unanimidad del Jurado el premio de 2.000 pesetas, y por su concienzuda y meritisima labor para

Casa estilo vasco, del Sr. Marqués del Socorro.



Detalle de la puerta principal.

coleccionar cuantos elementos y datos pudo recojer, característicos de las construcciones levantadas en la Montaña en los siglos XVI, XVII y XVIII, sirviéndole como motivos de inspiración para no dejar en el olvido toda la belleza y hermosura que el arte arquitectónico montañés encierra, y acometer con tan sólida base el problema de la composición de diversos modelos de casas modernas de estilo montañés.

Hoy tenemos el gusto de ofrecer a nuestros lectores, una prueba de los esfuerzos de dos arquitectos bilbaínos D. Calixto Emilio Amann y D. Manuel María Smith, por resucitar la arquitectura vasca, de tan bellos recuerdos. Al primero de dichos señores se debe el edificio que los grabados reproducen, destinado en Lequeitio á residencia de la familia del señor Marqués del

CASA RURAL ESTILO VASCO



Fachada principal.



Luis Jauregi txoferra  
eta Carlos Solano  
Adan de Yarza beste  
batzuen artean.  
Kotxea protagonista.  
Oñatiko Udal Artxi-  
boa. OAA00290

# Tierra fria

Egilea: Aitor Iturbe

Erdi Aroa amaitzear zegoen eta mundua txiki geratu zen. Aurkikuntzen garaia hasi zen; portugesek eta espainolek -ingelesek eta frantsesek gutxixeago- itsaso guztiak zeharkatu zituzten. Euskaldunak, Gaztelako erregearen aginduetara, ez ziren atzean gelditu. Itsas arotz eta marinel trebeak, Fernando eta Isabelen erregealdian lehenik eta Inperio berriaren garaian geroxeago, ezinbestekoak bihurtu ziren.

Ordukoak dira Colonen bidaiak (1492-1504) eta Magallanesen -zergatik ez Elcanoren-lehen bidai munduaren inguruan (1519-22).

Gorteak esploratzaile ausartez bete ziren, asko eta asko Ekialde Urrunera, Txinara (Cay) heldu nahian. Portugaldarrek, denei aurrea hartuz, aspaldi bilatu zuten bidea Afrika inguratuz, baina ibilbide hori saihestu behar zen eta beste hobe bat topa. Ez zegoen beste modurik, Ipar Hemisferioko itsasoak –eta lurrak- esploratu behar ziren.

# 1527



# Abante Ternuara



Ternua hitza Piarres Etxeberrik jada 1677an, "Itsasoko nabigacionecoa" liburuan, toponimo bezala erabili zuen.



## Ternuaren aurkikuntza

**Terranova, Newfoundland, Terreneuve**

Bikingoek aspaldi aurkitu zutela dirudi, baina ahaztuta geratu ziren bidaia horiek. Colonen aurkikuntzak besteen gutizia piztu zuen eta Ekialde Urrunerako bide berriaren bila Ipar Amerikako lurraldeekin egin zuten topo behin eta berriro.

John Cabotekin hasiko gara. Giovanni Caboto italiarrak ingelesantzat egiten zuen lan eta 1497an Ternuara heldu zenean makailaua otzarekin harrapatu ahal zela esan omen zuen ("the sea there is full of fish that can be taken not only with nets but with fishing-baskets,"), baina historialarien ustez ingelesak ez ziren hara joan arrantzan, kala nahikoak eta hurbilagoak Islandian zituztelako. 1500 eta 1502an portugesen txanda heldu zen. Corte Real anaiak handik ibili ziren, baita galdu ere. Beranduago frantsesak eta espainolak agertu ziren: Jehan Denis pilotua 1506an eta Thomas Aubert kapitaina 1508an, eta Frantziako erregearen zerbitzura Giovanni Verrazano

1524an eta Jacques Cartier bretoia (1534-42). Amerika aurkitu berri zen eta espainolak lanpetuta zeuden. Espainiako erregearen aginduetara jarri ziren Juan Agramont lleidarra, 1511n ustezko bidaia egin zuena -antolatu bai, behintzat-, eta Esteban Gomez portugaldarra 1525ean abiatu zena. Horiek biak baino ez dira ezagutzen.

Michael Barkham Huxley historialariak dionaren arabera 1515erako portugesak, normandiarrak eta bretoiak arrantzan zebiltzan handik. Iparraldeko euskaldunak ere hurbilduko ziren Ternuara, baina 1520-21ekoak ditugu lehen dokumentuak. Hegoaldeko euskaldunen artean, berriz, errekorra 1531 eta 32ko bidaiak dute. Izan ere, 1531ko bidai horretako kapitaina lekeitiarra zen, Pero Ruiz de Avitera eskribaua eta mutrikuar baten "Trinidad" ontzia pleitatu zuen balea eta bakailao arrantzarako.

Harrezkero Ternuarako bidaiak ez ziren faltako.

## MAPAK

Mapetan antzeman daiteke gero eta hobeto ezagutzen zirela lurralde horiek. Lehenengo mapak, esaterako Continoren 1502koak, akats larriak zituzten. Nabigatzaileek kostalde horiek denbora gutxian hobeto ezagutu bazuten ere kostatu zitzairen Ipar Amerika Asiatik banatzea eta Ternua irlatzat hartzea. Kontuan izan behar da, baita, gehienetan mapak enkar-guz egiten zirela eta bezeroaren (Espainia, Frantzia...) komenentziara.

**1500**

Juan de la Cosa (espainiarra). Ez da Ipar Amerikarik agertzen Bezeroa: Espainia.

**1502**

Contino (egile anonimoa). Lehenengo agertzen da Ternua. Gaspar Corte Realek aurkitu zuela (eta bigarren bidaitik ez zela bueltatu) dio mapan bertan. Egilea portugaldarra zenez Tordesillaseko itunean adostu zuten marraren eskumaldean jarri zuen lurralde berri hau (Tierra del Rey de Portugal) Atlantiko erdian. Bezeroa: Portugal.

**1507**

Waldseemuller (alemaniarra) (Universalis Cosmographia). Lehenengo agertzen da America hitza. Gainera, kontinente gisa agertzen da, ez Asiaren zati legez.

**1507**

Johannes Ruysch (holandarra). Ternua Asiarekin lotuta agertzen da. Bakailaoa aipatzen da. Arrakasta eta hedapen handikoa izan zen.

**1529**

Diego Ribeiro (portugaldarra). Esteban Gomez 1525eko bidaiaren oinarritua. Bere garaian onena, baina oraindik Ternua ez da irla legez agertzen. Tierra de Labrador, Tierra Nova de Corte real, Tierra de Estevan Gomez... agertzen dira. Ez zebilen gezurretan: *Tierra Nova de Cortereal en la qual no hay otro provecho que pescaria de bacalhau xxx mucha madera de pinos/ Tierra del Labrador la qual descubrieron los yngleses de la villa de bristol en la qual no allaron cosa de ningun? provecho.* Bezeroa: Espainia.

**c. 1542-44**

Dauphin edo Harleian (egile anonimoa). Dieppeko eskolakoa. Cartierren bidaietan oinarritua. Cartierrek irla zela frogatu zuen. Bezeroa: Frantzia.

**1504**

Pedro Reinel (portugaldarra). Ez da zehatzegia, baina Continorena erraz hobetzen du. Latitudea agertzen den lehenengo mapa da hau. Bezeroa: Portugal.

**1506**

Nicolo Caveri (italiarra). Seguruenik Continoren mapan oinarritua.

**1513**

Piri Reis (turkiarra). Colonen mapa batean oinarritua. Bezeroa: Turkia.

**1527**


Visconte Maggiolo (italiarra). Verrazanoren 1524ko bidaiaren oinarritua. Ternua ez da irla legez agertzen. Bezeroa: Frantzia.

**1546**

Pierre Descelier (frantsesa). Dieppeko eskolakoa. Hainbat munduko mapa prestatu zituen: 1543, 46, 50, 53, 58.

**1547**

Vallard chart (egile anonimoa, antza kartografo portugaldarra). Dieppeko eskolakoa.



## Ternua eta euskaldunak

Euskaldunak bale -eta bakailao- arrantzan aitzindariak izan zirela ukatzen duena gezurretan dabil, baina Colonen aurretik Ternua ezagutu arren, ezkutuan mantendu genuela dioena ere ez dabil hobeto. Eztabaida antzua da dokumentazioak ez du halakorik baieztatzen eta. Ez duela ezeztatzen aukerak ez du balio. Posibilitate eta hipotesien erreinuan, zer ez da posible bada! Gizaki guztiok dugu premia hori, citius, altus, fortius! Gu geu ere, Lekeitiarrok lehengotariok izan ginela ezagutaraztera gatoz, hori bai, eskuan dokumentuak dakartzagula.

Euskaldunon -eta euskaldunak ez zirenen- meritua ez zen aurkikuntza izan. Horrenbeste meritu zuen, gehiago agian, orduko ontzietan eta halako eguraldi erasokorrari aurre eginez etxetik milaka miliatara arrantzan egitea. Eta ez ziren biziak bakarrik arriskuan jartzen zirenak; dirutza handiak zeuden jokoan, astronomikoak, andaluzak bezain esajeratuak bagina.


Barkham Huxley ama-semeak ikertu dute Ternuako epopeia hori. Epopeia, bai, gerrako balentrien pare. Gaur egun ere ez zen abentura makala izango!

Hasiera batean bakailaoa zen arrantza nagusia, baleatan ere egiten zen arren. Nao edo galeoi hauek, bakailao-ontzizat hartuko ditugu, ez ziren handiegia, Irlandarako joaten ziren berberak, akaso tripulazio haiziagoarekin.

Pixkanaka balea-arrantza nagusituz joan zen. Irabaziak handiagoak ziren, baina kostuak ere bai. Ontziak handitu egin ziren eta balea-arrantzarako espezializatu ziren aurrerantzean. Kanpaina bi antolatzen ziren beraz: bakailaotan (martxo edo apiriletik irail edo urrira arte) eta baleatan (baleatatik hile bat edo bi beranduago bueltatzen ziren). Ez gara luzatuko, lehenago ere hitz egin dugu Ternua eta bale arrantzaz eta. Gehiago jakiteko Barkham Huxley-ren lana duzue eta propaganda apur bat baimentzen badiguzue Kurikeko lehen zenbakiko “Beha kaleko altxorra” gomendatuko genizueke.



Shackletonen bidaia, Endurance izotzean preso, 1914. Hego Poloa.



1579an Martin Oiarzabal kapitain ziburutarrak bere itsas-gidan Ternuari buruzko lehen datuak bildu zituen, "Les voyages aventureux du Capitaine Martin de Hoyarsal, habitant du çubiburu". Pierres Detcheverryk 1677an osatu eta hobetu egin zuen informazioa eta gainera euskaraz idatzi zuen, "Liburu hau da ixasoco nabigacioneoa".

*Ternua da montu hotza,  
Enemu triste annotza,  
Labonateen ez den lunnua,  
Neguan bethi elhunna.*

*"No contento con lo de la tierra, van cada año sus naturales con muchas naos destes puertos para Terranova, partiendo por el mes de Abril, y tornando por el de Setiembre, y buelven cargados del pescado, llamado Vacallao, del qual aun la tierra mesma de Terranova, es llamada de otro nombre, tierra de Vacallaos. De donde tambien, aunque un mes o dos mas tarde, vienen muchas naos cargadas de grassa, llamada comunmente azeyte de Vallena, por hazerse del unto de las Vallenas en calderas derretido. De las quales ay en aquella frigidissima tierra, grande abundancia, con que no solo algunas tierras de España se bastecen, para alumbrarse y labrar paños, y para otras muchas cosas, pero aun las de Flandes e Inglaterra, y otras grandes provincias, y aun este azeyte es muy medicinal, con que aviendo hecho algunas experiencias, se ha hallado bien".*  
"Compendio Historial" Esteban de Garibay, Amberes 1571



Esteban Garibai historialaria, (1533-99). "Compendio historial" Esteban de Garibay, 1571.

## Ternua eta lekeitiarrak

Aipatu izan dugu lekeitiarrak Ternuan izan ginela. 1531an Pº Ruiz de Avitera lekeitiarra, eskribaua eta kapitaina bera, Mutrikuko ontzi batean joan zen bertara.

1532an hemengo ontzi bat joan zen. Nieto batxilerraren (medikua) eta Juan Vergararena zen. Elizako liburu kontuetan lehenengoz agertuko den lehenengo aipamena da (byaje de bacallaos).

Hurrengo urtean (1533-11-22) Kofradiako dokumentazioan lehenengoz agertuko da Terranoba hitza. KOFRADIA L1D23 "otrosy en quanto a las naos o nabios o carabelas que de adelante fueren a la pesca de yrlanda o aran o Tierra noba ayan de pagar e paguen el mareaje de San pº a medias..."

1531, 32, 33... Ez dago, beraz, dudarik hamarkada horretan handik ibili ginela, eta orain badakigu, eta jakiteko zara, 1527an ere joan ginela. Baten batek Coloni aurea hartzea pentsatu badu hor konpon! Baliteke 27a baino lehentxoago joan izana, baina ez dago **dokumenturik** hori baieztatzeko.

Baliteke diogu, ez dugulako dokumentazio guztia, esaterako 1523, 24, 25, 26, eta 28ko notaritza protokoloak galduta daude. Gainera, eskribau baten dokumentuak bakarrik heldu zaizkigu, eta hainbat eskribau zeuden lanean orduan.

Hala ere, ezin da ukatu heldu zaigun dokumentazioan (Elizako, Udaleko Kofradiako edo Notaritzako paperetan) ez dela Ternuarik agertzen.

Horrez gain, badaukagu beste arrazoi batzuk pentsatseko —ez baieztatzeko— ez ginela goizegi ibili handik.

**Gerra.** Gerrak ez dute laguntzen (1521-26ko Frantziaren kontrako lehen gerra), baina egia da, baita, 1527an lekeitiarrak Ternuan hotzak akabatzen zeuden artean erromatarrak bero-berotan zeudela.



"1527ko Erromako sakeoa" Dirck Volckertsz Coornhert (Maarten van Heemskerck jarraituz). 1555. Grabatua.

**Zergak.** Lekeitioko portura sartzan-irteten ziren produktu guztiei zergak ezartzen zitzaizkien. Ezagutzen ditugun zerrenda guztietan, 1463, 1468, 1519, falta da bakailoa. Badakigu kanpoan saltzen zela, baina hona grano bakar bat ere ez heltzea!

**Tierra Fria.** Hitz hori erabili zuten 1527ko kontratuan eta bera ere txarto idatzi zuen eskribauak (Tierra Firme), lehenengoz entzun zuela leku horren izena seinale. Sarri edo lehenago joan izan baziren Ternuara, kostaldeko eskribau lekeitiarrak ezagutuko zuen.

**Izurritea.** Izurritea agertu zen 1523an eta ez zen edozelakoa izan. Aldi-

ro suertatzen zen izurriteren bat, ohituta zeuden, baina San Juan Bautista egunean agertu zen hura oso gaiztoa izan zen. 1523, 24 eta 25ean bizirautea zen lekeitiarren jarduera bakarra. Baina badakigu (LUA-R52) 1524an eta 25ean ere Irlanda eta Ingalaterratik ibili zirela lekeitiarrak, "show must go on", euren artean Rodrigo Arrieta Xirgoyrako arrantzan.



"De triomf van de Dood" (Heriotzaren garapena) xehetasuna. Pieter Brueghel zaharra, c. 1562. Museo del Prado. Oleoa.

1524an geunden Lucia Arteita eta senarra Francisco Ibarra izurriteak jota hil zirenean Ipidegi baserrian. Lekeitiotik alde egin zuten, baina...

*...en su caseria de ypidegui... donde estaban huydos e ausentados desta dha villa porque en ella a la sazón habia grand pestilencia y moria mucha gente ny como morieron de la dha pestilencia nynguna persona quiso enterrar ny tocar a sus cuerpos por que no se ynficionasen contagiasen de la dha pestilencia y por que se enterrasen en sagrado y no comiesen los perros e infuzionasen a la otra gente sus parientes y el pueblo de la dha anteyglia mandaron que los cuerpos de los dhos francisco e dona lucia fuesen enterrados debaxo de tierra aunque se hubiese de pagar grand cantidad de dineros a los enterradores y como nynguna persona les quiso tocar ny enterrar por no se ynficionar de la dha pestilencia la dha maria ochoa de la rreneria y catelina de aldaola ya defunta se atrebieron a amortajar y enterrar los dhos cuerpos finados... los truxieron al cementeryo de la yglia de nra senora santa maria desta dha villa con grandisimo peligro y trabajo de sus personas y ende los enterraron debaxo de tierra porque a la sazón la dha villa no consentia enterrar semejante cuerpo finado dentro la dha yglia y saben...*

ARCHV, Sala Vizcaya, Caja 640/3

### 1527ko bidaiak

Ez da marka makala 1527rako Ternuara joan izatea. Hemengo historialari batzuen ustez, Mariano Ciriquiain Gaitzarro euren artean, 1520. hamarkadako erdialdean hasi ziren hegoaldeko euskaldunak Ternuara joaten, baina ez da egon dokumenturik hori baieztatzeko, bakar-bakarrik auzi batean testigu batek gogoratzen zuena.

Marianok bere "Los Vascos en la pesca de la ballena" liburuan zioen: "Hernando de Mena de 70 años, vecino de San Sebastian, con 55 de navegar, dijo que en su tiempo se había descubierto el trato y viaje de de Terranova, podía hacer 35 años poco mas o menos, y de 20 a aquella parte se seguían estos viajes a Terranova por la mucha ganancia que secaban, más que a otras partes donde solían ir". Ez diot meriturik kendu nahi Mariano Zirikiaini, baina honek komeni izan zitzaion testigua aukeratu zuen, beste testigu guztiek beranduago joan ginela zioten.

Hemen gatoz, berandu, lekeitiarrak gara eta, horien laguntzan. 1527ra arte heldu gara, hurrengo, nork daki, ondarrutarrek edo bermeotarrek marka hobetu dezakete.



1567ko "posterra", Nuremberg-ko bertsioa. Ternuan harrapatutako inuit ama eta alaba-txoaren erakusketaren iragarkia. Lehenengo "benetako" deskribapena izan arren, makina bat gezur kontatzen dira istorioa erakarkarriago bihurtzeko.

Senarra, 12 oineko erraldoi kanibala eta hiltzailea zen. 12 gizon hil zituen 12 egunetan -jateko asmoz-. Lana izan zuten honekin akabatzen, gezia, ezpatak...

Emakumeak nahiago izan zuen bizia galdu alabatxoak bakarrik utzi baino, beraz biak ekarri zituzten Europarantz, Amberesera. Bitartean frantses apur bat ikasi zuen eta gizon ugari jan zituela kontatu zuen. Jantziak, foka-larruz eginak eta tatuajeak ere aipatzen dira. Gorputza berriz, horixka iluna zuten erdi moroen antzekoa.

Gizajale, basati, ellijigabeak, kristautu egin behar ziren.



# Bakailaotan

Arrantzan egiteko sistema bi zeuden eta beste bi kontserbatzeko:

**Arrantza sedentarioa** (pesca sedentaria). Itsasontzi nagusia ez zen erabiltzen arrantzan egiteko. Horretarako pinazak erabiltzen ziren kostaldetik asko urrundu beharrik ez zegoelako. Arrantza portura ekartzen zen eta han prestatzen zen arraina. Gatz, pazientzia (50 bat egun irakurri dut) eta airea behar ziren bakailoa ondo sikatzeko. Lekeitiarrok beste ezer ez, baina pazientzia soberan izan dugu betidanik. Curado, curadillo deitzen zen bakailo mota hau, "dry cod" ingelesez, eta badirudi lekeitiarrok aukeratu genuen sistema izan zela.

**Arrantza ibiltaria** (pesca errante). Itsasontzi nagusitik egiten zen arrantzan eta bertan prestatzen zen bakailoa, hau da, garbitu eta gatzetan jarri. Normala denez bakailoa ez zen sikatzeko behar beste eta horretatik ingelesek "wet cod" edo "green cod" deitzen zioten. Gaztelaniaz pasta hitza erabili izan da, euskaraz bakailo umela edo bustia deitu beharke genioke.

Bazituen bere abantailak: dena egiten zen bizkorrago, ez baitziren lehorreara bueltatu behar egunero. Horrela kostaldetik urrun zegoen bakailo ere harrapa zezaketen -arrantza sedentarioan ez zen halakorik posible-, eta arrantza bako egunak gutxitu. Akabuan arrantza ugariagoa lortzen zen. Eragozpenak: baliteke inbertsio handiagoak eskatzea, ontzi handiagoak, hobeto prestatuak... eta bakailo "busti" hori. Ezin zen bakailo sikuaren kalitatera heldu, baina irakurri izan dut Europako iparraldean merkatu ona aurkitu zuela. Antza denez, Europako Hegoaldean arrakasta gehiago zuen bakailo lehorrak, kontserbatzeko aproposagoa zelako.



Herman Mollen bakailaotako eszena 1715 ean argitaratua bere "The world described" liburuan. Nicolas de Fer-en 1698ko Amerikako mapatik kopiatuta.



"Traité général des pesches..." Duhamel du Monceau, 1772.

**Bakailo bustia** Frantsesak, ez dakit hastapenetan hala zen, arrantza ibiltaria erabili zuten. Grabatuan tina antzeko tramankulu batzuk ikus daitezke karelean. Marinelek horietatik egingo dute arrantzan, ondo babesturik. Kontuan izan behar da grabatua nahiko berria dela 1772koa ("Traité général des pesches..." Duhamel du Monceau), eta ez dakigula sistema hau hasieratik erabili izan bazen ala hobetuz lortu bazen. Lana ontzian bertan egiten zen, horretarako gatz franku behar zen.

**Bakailo siku** Alboko grabatuan beste era agertzen da. Bakailoa lehorrean, bertan Ternuan, sikatzeko da. Ingeles erabili zuten sistema hori, antza, gatzik ez zutelako, gaztelaniaz "hacer de la necesidad virtud". Frantsesak eta espainolak ez zuten arazorik, gatz soberan zuten. Marc Lescabortekek bere "Historia de la Nueva Francia" liburuan, 1609an, lehenengoz deskribatu zituen teknikak.

## Captains corageous

Ruyard Kipling idazlearen kapitain ausarta Disko Troop zen, gureak Domingo Ibarra eta Rodrigo Arrieta ziren. Ez zuten horren izen dotorea, baina bai haren balentria. Zer dakigu haien kontura? Tamalez askorik ez. Ez ziren ospe handiko gizonak izan, lantxo honetan ari gara ezagutarazten.

Ez da lan erraza izan. Ez du laguntzen esaterako XVI. mendearen erdira arte Elizako sakramentu-erregistrorik ez egoteak edo notaritzako protokoloak urriak izateak. Gainera izen abizen arruntak dituzte (makina bat Domingo Ibarra eta Rodrigo Arrieta aurkitu ditut,) eta lustre bakoak dira (ospea eta aintza akaso oraintxe lortuko dute).

Egia esan, aurretik jarri ditut aitzakiak datorkizuen nahaste-borrastea zuritzeko.

Zer esanik ez da, esango dena ez dela behin betikoa eta ez dudala eskurik sutan jarriko, ez esaten dena gezurra delako, Domingo Ibarra eta Rodrigo Arrieta bat baino gehiago egon zirelako.

### 1520koak

Badirudi sasoi hartan beste askoren legez Irlandatik zebiltzala. Domingo Ibarra delako bat 1521ean pinaza-maestre legez Aranera (Irlanda) joan zen arrantzan Donostiako kapitain batekin. 1524an Rodrigo Arrieta delako bat (azkenengoz erabiliko dut **delako** ditxoso hori) Xirgoyra (Irlanda) joan zen Lope Ibañez Renteria (ondarrutarraren?) ontzian.

Gero gure kapitainak desagertu egingo dira (dokumentaziotik, jakina) 1527ko dokumentu horietan agertu arte. Ordurako kapitainak dira, lehen txoago Domingo behintzat pinaza-maestre legez agertzen zen. Kapitainak dira, baina ez eramango duten ontziaren jabeak. Ez da txikikeria, zenbat eta ondasun gehiagoren jabe zaren dokumentazioan agertzeko aukera gehiago duzu.

### 1530koak

1531n R<sup>o</sup> Arrieta da San Pedro kofradiako maior-domoa. Urte berean Elizako kontuetan agertzen da, berak eta konpainiak bale-mihia erosiko dute. 1532an testigu legez agertuko zaigu Rodrigo Arrieta eta 33 urte zituela kontuan badugu, 1499 aldean jaio zela esan dezakegu.

1532an Domingo Ibarra kapitaina agertzen da Irlandarako bidaia bat prestatzen; 117 dukat utzi dio Juan Arrietak.

1536ko alardean biak agertzen dira. Urte horretan Rodrigo Arrieta sardina sasoiaren señoero eta saltzaila (bentero) modura agertzen da. Kontratu horretan testiguen artean Juan Arrieta Rodrigo Arrietaren semea agertzen da. Zenbat Rodrigo Arrieta zeuden?

Hamarkada horretan aipamenean bat agertzen da

Elizako kontuetan, mesura atalean, gatzarekin dabilta.

Hamarkada amaitzean "Yten fui a Vermeo por mandado de los señores del cabildo e rregimiento con una carta a me conçertar sobre la lengoa de valena que de halli truxo para esta fabrica RRodrigo de Arrieta e no me pude conçertar..."

### 1540koak

Rodrigo Arrieta 1541ean Martin Curruchiagaren ontzian doa (Irlandara), 1542an bere ontzian (jabe legez agertzen da, baina ez dut uste hala zenik, *amanuensearen* akatsen bat izango zen), 1545ean Juan Learen karabelan (Irlandara) eta 1549an Juan Andracaren ontzian.

1548an badakigu (LUA-R44, 177r) R<sup>a</sup> Arrieta Irlandara joateko zela Castro Urdialeseko Sancho de Loyzagaren naoan, baina ontzia oraindik Lekeitiara heldu barik zegoenez, bitartean 9 ardo beltz upel eta 7 Rochelako ardo zuri upel deskarga nahi zituen gurasoen etxean, Arranegiko arrabalean. Aipamen honi esker ezagutzen dugu bidaia hori, Elizako kontuetan ez da agertzen eta. Irakaspena edo moraleja, fida zaitez Elizako kontuekin.

1549an Rodrigo Arrieta Lekeitioko alkatea da eta bere sinadura daukagunez, CSIkoen teknikak erabiliz eta sinadurak konparatuz 1527ko Rodrigo dela baieztatu dezakegu. Aurrera egin zuen duda barik, alkatea izatea ohore handia zen.

### 1550koak

1552rako hil da Rodrigo Arrieta (374 marabedi zuten dio Elizari).

Bitartean Ibarretarra galdu zaigu. Ez da Elizako paperetan agertzen, baina horrek ez du esan nahi ez zebilela arrantzan. Batek daki!

1570-71ko auzi batera jo dugu Ibarretarrak eta Arrietatarrak agertzen baitira. Familia biak senidetuta zeudela berresten digu. Domingo Ibarra delako bat Ana Arrietarekin ezkondu zegoen (Ana, 1558an testamentua egin zuenerako, alarguna zen) eta bi seme izan zituen, Juan Arrieta eta Domingo Ibarra (hau 1566an hila). Gure kapitaina Ana Arrietaren senarra zelakoan gaude. Domingo Ibarretak 1527ko bidaian, pinaza-maestre modura Juan Arrieta delako bat eraman zuen. Juan Arrieta hau agertuko da testigu legez eta baita armadore legez ere enpresa hartan (ez zen edonor, bazekien sinatzen). 1532an ere Juan Arrieta izan zen Domingori diru dexente utzi ziona. Egari zor, Juan eta Arrieta ziren garai hartan lekeitiar guztiak. Rodrigo kapitaina ere Arrietatarra zen. A zelako txokolatea! Jakingo dugu gehiago, denbora kontua izaten da. Bostehun urte egon gara ezertxo ere jakin barik, ez gara orain estutuko.

## Furacanaren furia Ifernuco iduria Satan beltac darabilla untcien galtcen dabilla.

## Dokumentuak

### (Al margen: Sacado)./Contrato de entre Domingo de Ybarra e su conpañã de para Tierra Firme./

En el nonbre de Dios e de la Virgen Gloriosa Señora Santa Maria, su madre, amen.

Sepan/quantos esta carta de contrato vieren como en la villa de Lequetio, en casa de Domingo de/(tachado: Roma) Ybarra, **a dies e syete dias del mes de febrero de mill e quinientos e veynte e syete** años, en presençia de mi, Ochoa Vrtis de Olea, escriuano de la çesarea magestad y catolicas/ altesas del rey e de la Reyna, su madre, nuestros señores, en la su corte y en todos sus/ Reynos e señorios, e del numero de la dicha villa, e testigos de yuso escriptos, de una parte Domingo/de Ybarra, vesino de la dicha villa, capitan, que plaziendo a Dios **yra en la nao de Lope Yvañes/de Renteria, vesino de Ondarroa**, para la **pesca de macallaos** (interlineado: **e vallengas**) a **Tierra (tachado: Fyrme) Frya** que/ dizen; e de la otra, Juan de Arrieta e Pedro de Hendaydi, el moço, e Ochoa de Cortaçar,/ vesinos de la dicha villa, e Juan Peres de Urrexty, vesino de Ondarroa, como (tachado: pinaçeros de) maestros/ de pinaças; e dixieron que heran concordados e ygualados para que con la ayuda de Dios/ los sobredichos maestros pinaçeros con sus pinaças ayan de yr e bayan con el/ dicho Domingo de Ybarra a la dicha pesca e lugar con sus pinaças, y en cada pinaça/ quatro conpañeros; e las condiçiones que pusieron entre sy son las syguientes:/

Primeramente, que los sobredichos **Juan de Arrieta e Pedro de Hendaydi e Ochoa de Cor/taçar e Juan Peres de Vrrexty, maestros de pinaças**, ayan de yr e bayan con el dicho/ Domingo de Ybarra para la dicha pesca de Tierra (tachado: Firme o) de Fria con sus pinaças,/ **y en cada pinaça quatro conpañeros mareantes**, pescadores suficien-tes, e aparejadas/ **las pinaças con sus aparejos suficien-tes e con sendas estachas de para vallengear**./

Yten, que **han de ser seys pinaças** con la pinaça que da el maestre. Y que **el maestre con/ su pinaça aya de servir de cosas e serviçios que el esguife (sic) a la nao deve servir**. E que **la/ pinaça (tachado: aya) del maestre aya de traer e traya en la dicha nao de buelta** para (tachado: esta) estas partes a riesgo e ventura del dicho maestre dueño de la pinaça, en el traer asy sy/ con tormenta echaren e dexaren a mal a la dicha pinaça. Este capitulo paso absente el maestre./ Yten, **que las otras çinco pinaças ayan de quedar e queden** (tachado: para) **en Tierra** (tachado: Fyrme o) **Fria** que dizen. E que el dicho Domingo aya de dar e **de por las pinaças, allende/ de la soldada de sus personas, sendos mareajes de todas ganancias** que Dios les/ diere (tachado: e allende por las personas suyas e trabajo oviese de dar e/ diese a los dichos maestros de pinaças aya de dar e de sendos mareajes/ para) **de la terçia parte** que los maestros de pinaças e marineros han de aver,/ e se reparten a los marineros por marineros, e los gormetes por gormetes, e los/ moços por pajes; e que asy se les reparta a cada uno lo que le cabe e viene.//

## DOMINGO IBARRAren bidaia



Kontratua otsailaren 17koa, Ternuara martxo aldean joaten zirelako.

Domingo Ibarra lekeitiarra da kapitaina, baina ontzia Lope Ibañez de Renteria ondarrutarrarena da. Ez da gure kapitaina ontziaren jabea eta ez dirudi beste dokumentu batzuen araberako ontzi jabea izan zenik. Pinaça jabea bai seguruenik.

Bakailaotan eta baleatan doaz. Halakoak ziren hasierako bidaiak, mistoak.

Tierra Fria Tierra Firmerekin nahasten du, seinale eskribauak sekula ez duela entzun izen hori. Nik neuk ere ez dut inon ikusi Tierra Fria hitza. Dena dela, Terra Novaz ari dira, beranduxeago bidai bereko beste dokumentu batean hitz hori erabiltzen baita.

Obligacion de Domingo de Mutyo./ En Arranegui, rebal de la villa de Lequetio, a diez e ocho dias del mes de febrero de mill e quinientos e veynte/ e syete años, en presençia de mi, Ochoa Vrtis de Olea, escriuano de su magestad e catolicas altesas del rey e/ de la Reyna, su madre, nuestros señores, e del numero de la dicha villa, e testigos de yuso escriptos, Domingo de Ybarra,/ capitan que yra, plaziendo a Dios, Nuestro Señor, en la nao de Lope Yvañes de Renteria para **Tierranova**/ a la pesca de macallaos, dixo que...

Lau pinaça-maestre kontratatuko ditu eta pinaça bakoitzean lau lagun (maestreakin 5 lagun bakoitzean?). Hala ere sei pinaça izango dira guztira.

Pinazak ondo hornituta baita baleatan egiteko ere (estachas de para vallengear).

Bostgarren pinazak, hau maestrearen kontura, ontzi nagusiari zerbitzua prestatuko dio (esguife). Ternuatik bueltan ekarriko dute.

Seigarren pinaça bat ere egon badago, arrantzan egingo du, baina ez dakigu zeinek jartzen duen. Arrantzan egiten duten bost pinazak Ternuan geldituko dira, antza.

Pinaza-maestreek euren soldataz aparte pinazak eramatearren marea bat irabaziko dute irabazien herenetik.

(Fol.rº) Yten, que la conpañia e marineros de la dicha nao ayan de aver e llebar e lliaven/ e gozen de la terçia parte de todas ganancias de pesca de macallaos e de vallas/ e de mastes (interlineado: e ganancias de trobaduras que Dios les diere); y que desta terçia parte sean pagados el **capitan**, contando **dos ma/ reajes**; y el **maestre**, (tachado: contando dos mareajes) **vn mareaje**; e todos **otros ofiçia/les, sendos mareajes**, eçcepto el capitan, que llieva e aya de llevar dos mareajes;/ con que **toda costa de baxilla** que se hisiere y entrare para las vallas **sea obligado de/ pagar el dicho capitan; e asy mismo de fazer las armas** (interlineado: e arpones) **de para vallenear** syn costa/ de los maestros pinaçeros e marineros e conpañia. E que asy mesmo, **las ventajas quel/ tonelero y el escarpero** llievaren afueras de sendos mareajes ayan de pagar e **pague/ el capitan** syn parte de la conpañia de la dicha nao./

Yten, que los **dos pilotos** que fueren en la dicha nao ayan de entrar y entren con sendos/ mareajes en el terçio de la conpañia; e que todas otras **ventajas que ovieren de aver**/ e llebar aya de pagar y **pague el dicho Domingo de Ybarra, capitan**; y que el vno/ de los dos pilotos aya de yr e baya a la pesca./

Yten, que el **barvero** que ha de yr en la dicha nao aya de llevar e **llieve vn mareaje del terçio**/ que ha de aver la conpañia, asy como otro marinero./

Yten, que ayan de yr e bayan en la dicha nao **veynte e nueve onbres marineros de messa/ e seys servientes de gormetes e pajes, que son treynta e çinco personas**; e que **sy/** allende e mas de las treynta e çinco personas que han de yr **el dicho capitan metyere/ otras personas, que el dicho capitan les aya de pagar** e pague de su propia hazienda las/ soldadas, syn parte alguno del terçio de la conpañia; e que las treynta e çinco per/sonas de suso ayan de llevar e lliaven el terçio de todas ganancias que Dios les diere,/ asy de **pescadas** como de **vallas e de mastes**, entrando en el dicho terçio las ganancias/ e mareajes de las pinaças; y que el capitan llieve dos mareajes, e todas otras/ personas e ofiçiales de la nao, sendos mareajes.

Yten, que los sobredichos maestros pinaçeros, con sus pinaças e aparejos e marineros sufi/çientes, ayan destar e esten prestos y aparejadas de oy en ocho dias primeros siguientes./

Yten, en quanto a los **derechos que tienen** (interlineado: e han de aver) **Santa Maria de Ondarroa** (tachado: e d) e **Santa Maria de Lequetio/ e Sant Pedro de Lequetio**, que alli do se allare que es de razon de pagar los derechos, alli sean pagados./

(Fol.vº) Yten, que al dicho Domingo, capitan, sean obligados los sobredichos maestros de/ pinaças e marineros dellos (interlineado: de servirle) desde que hisieren vela desta costa fasta llegar en/ Tierra Fria, y en ella fasta la voluntad del capitan; e que fecha su pesca/ e servido **el viaje de buelta ayan de yr e bayan a Yrlanda a tomar la platya./ e dende a Bristol, e de Bristol a Henantes, y de Henantes a la Rochela**; y que/ en todo este tiempo **el dicho Domingo**, (tachado: aya) **capitan, aya de dar e de de comer e beber/ e todas cosas de mantenimientos nesçesarios por tienpo de seis meses**. Y que a cada maestre/ de pinaça aya de dar e de para sy e para su conpañia **doze libras de azeyte**. E mas, que/ **llegados en Rochela para Tierra Fria aya de meter e meta el dicho Domingo en la dicha nao, de vino, segund que otros hizieren**./

*Irabazien herena erabiliko da soldatak banatzeko: Kapitainak marea bi, maestreak marea bat, beste ofizialak marea bat. Hala ere, kapitaina baleatako arma (arpoiak esaterako) eta "baxilla"-z arduratu beharko da eta upelgile eta "escarpero"-en sariak ere bere patrikatik ordaindu beharko ditu.*

*Piloto bi joango dira bidaian eta horien sariak ere kapitainaren kontu. Pilotoetatik bat arrantzan joan behar da, pinazaren batean?*

*Barberoa, ziruñaua daramate. Ez dut uste Irlandarako bidaietan eramango zutenik, luxua dirudi, baina Ternua oso urrun eta arriskuz beterik zegoen. Honek ere marea bat.*

*35 lagun guztira, 29 gizon (marineros de mesa) eta 6 mutil-txiki (gormetes e pajes). Kapitainak jende gehiago eraman nahi izango balu bere kontura/lepotik.*

*Pescadas, vallas, mastes.*

*Ondarruko eta Lekeitioko elizak aipatzen dira. Arrantza eskubideak zituzten (ehunena) eta ontzi honek Ternuatik bueltatuz gero, Ondarrun, ontzia hangoa zelako, eta Lekeition, kapitaina hemengoa zelako, ordaindu beharko luke. San Pedro kofradiak ere bere eskubideak zituen.*

*Bueltako bidaiia (plana noski) ezagutzen dugu: Ternua- Irlanda- Bristol- Henantes (Nantes)- Rochela- ETXERA.*

*Jana eta edana kapitainaren kontura. 6 hilabeteko bidaiia! Pinaza bakoitzeko 12 libra olio.*

*Rochelan erosiko du Ternuarako ardoa (segun que otros hizieren). Beste batzuek egiten dutena egiten gaude, ez gara lehenak!*

Yten, **que los marineros e maestros de las dichas pinaças** al dicho Domingo **ayan de ayudar/ e faboresçer en adresçar e linpiar e salar las pescadas e vallas** en todo lo que pu/dieren cada vez que fuese nesçesario, y el (tachado: les) dicho Domingo, capitan, les mandase, e/ e (sic) para lo de suso aya de quedar una pinaça e conpañia della en la nao, e sy mas fuere/ nesçesario, mas tambien. E que asy cunplan so pena de çinquenta ducados doro, para la camara de su magestad/ los medios dellos, e la otra mitad para la parte o partes ovedientes./

E para las cosas susodichas asy tener e guardar e conplir e pagar e todo lo contenido en este con/trato y escriptura, e para no yr ni venir contra esta carta ni contra lo en ella contenido en tienpo alguno/ nin por alguna manera so la dicha pena, dixieron que el dicho Domingo, capitan, se obligaba contra los/ dichos maestros de pinaças e conpañia, e los dichos maestros de pinaças e marineros de suso nonbrados contra/ el dicho Domingo de Ybarra, capitan, obligaban con sus personas e bienes, muebles e rayzes, avidos e por/ aver, so la dicha pena, e de los dapños e costas e menoscabos que se le syguieren (tachado: en los cobrar) a cabsa de no conplir/ lo contenido en esta carta a la parte o partes que se le syguieren.

E para que asy les hisiesen conplir, daban e dieron poder conplido/ e bastante sobre sus personas e bienes a todos juezes e justiçias de sus magestades e de otros qualesquier reynos e señorios de/ qualesquier partes, reynos e señorios (interlineado: sometiendose a las jurisdicçiones dellos, renunçiando su propio fuero, jurisdicçion e domicilio), para que a pedimiento de la parte o partes que guardaren e conplieren este contrato e condiçiones/ del en la parte o partes que no guardaren e conplieren; y en sus personas e bienes mandasen haser e hisiesen entrega y exsecuçion por la dicha pena e costas e dapños, e los bienes exsecutados los mandasen aforar, rematar e vender, e de su presçio e valor/ mandasen haser e hisiesen buen pago de prinçipal e pena del doblo e costas e dapños e menoscabos a tan bien e/ conplidamente como sy fecho entre partes devido proçeso ante juez competente por su sentençia definitiva fuesen, a conplimiento/ e paga de todo lo de suso condepnados; (tachado: a conplimiento e paga de todo lo de suso) e la tal sentençia fuese por ellos consentyda e pasada/ en cosa juzgada e della no oviese lugar apelacion ni otro remedio alguno.

E sobre lo que dicho es dixieron que/ renunçiaban e renunçiaron de su fabor e ayuda todas leyes, fueros e derechos, vsos e costumbres e prematycas, franquezas,/ libertades e previllejos e ferias de pan e vino e sydra coger y enbasar, e dias feriados e mercados francos e por/ franquear y exçeçiones e defensioniones e buenas razones que contra esta carta en favor dellos fuesen e pudiesen ser/ que no les valiese en ningund tienpo; espeçialmente dixieron que renunçiaban la ley del derecho que desia que general renunçiacion de leyes que ome faga non vala./

Testigos que fueron presentes, Pedro de Ateguen, vesino de Ondarroa, e Martin de Elormendy e Martin de Sorarte, vesinos/ que dixieron ser de Guetaria. E conozco a los otorgantes, e firmaron Juan de Arrieta e Juan Peres de Vrrexti por si;/ e por testigo, Pedro de Ateguen./

Juan de A/rryeta (rúbrica). Pedro de Ateguen (rúbrica). Juan Peres de Vrrexti (rúbrica).// LUA-DJ001-04

*Pinazak arrantzaz arduratzen dira, baina kapitainak eskatuz gero arraina garbitzen eta prestatzen lagundu beharko dute; gutxienez pinaza bat horretan ibiliko da. Gatzaz erabiltzen zuten (salar), besterik ez dugu esaten.*

*Irakurtzen ez den zati horretara heldu gara (gaur egun letra txikia deritzoguna).*



*Ondarruko eta Getariako testiguak agertzen dira, seinale enpresa ez zela edozelakoa (35 lagun, 6 hilabete, milaka miliatara). Ternua urrun geratzen zen, arriskuz beterik zegoen eta ez zen ondo ezagutzen.*



(Fol.vº) **Contrato de entre Rodrigo/ de Arrieta e su conpañā./**

En el nonbre de Dios e de la Virgen Gloriosa Señora Santa Maria, su madre, amen.

Sepan quantos esta/ carta de contrato vieren como en Arranegui, en casa de Rodrigo de Arrieta, a **veynte e quatro dias/ del mes de febrero** del nascimiento de Nuestro Salvador Ihesu Christo de mill e quinientos e veinte e syete/ años, en presencia de mi, Ochoa Vrtis de Olea, escriuano de la çesarea magestad y catolicas altas del/ rey e de la reyna, su madre, nuestros señores, e del numero de la dicha villa, e testigos de yuso escriptos:/ de una parte Rodrigo de Arrieta, capitan, que plasiendo a Nuestro Señor Dios yra **en la nao de Sancho/ Martines de Apioça, e Juan Peres de Apioça, vesinos de Vermeo**, para la pesca de Tierra Fria; e de la otra, / **Pedro de Ormaegui e Juan de Arostegui e Pedro de Alça e Pedro de Leçama e Martin de Vrìbe/ e Amador de Elexate e Martin de Motrico (interlineado: e Martin de Liconā)** (tachado: e dixieron que heran igoalados entre sy para/ yr a la pesca de macalaos e vallenas a Tierra Fria, e las condiçiones que pusieron son/ la syguientes) e **Juan Nuel, piloto, e Domingo de Çea e Domingo de/ Trumaya e Domingo de Leçama e Sancho de Ocabio, vesinos de Lequetio; e Juan Peres de Goyena, vesino de Gardata,** / que presentes estavan; e dixieron que heran ygoalados entre sy para que en uno ayan de yr e bayan a la / **pesca de macalaos e vallenas a Tierra Fria.**

E las condiçiones que pusieron entre sy capitan e/ conpañā son las syguientes://

(Fol.rº) Primeramente, que ayan de yr en la dicha nao **çinco pinaças con el batel** (interlineado: para pescar que), y que/ **el capitan les aya de dar e de el batel syn mareaje**, franco; e **los maestros/ de pinaças le ayan de dar e den prestos e suficiētes (interlineado: de todos sus aparejos) e con sendas estachas de ballenear.**

Yten, **que el dicho capitan aya de llevar e llieve dos mareajes** por su persona/ e que todos **otros ofiçiales, maestro e pillotos e otros, ayan de llevar/ e llieven sendos mareajes** e no mas, e que todas **otras ventajas que ovieren/ de aver les pague el capitan a sus ofiçiales de lo suyo./**

Yten, que el dicho capitan les aya de dar e de **a la conpañā la terçia parte/ de toda pesca de macallaos e vallenas, e de las ganancias de mastes e/ de sayn e toda otra trobadura** que Dios les diere; y que desta terçia parte el/ capitan de sus mareajes, (tachado: dos) y los otros ofiçiales ayan de ser pagados, e la/ conpañā e todos los marineros de sus mareajes; e los gormetes e pajes de lo/ que han de aver; y que sean e **ayan de ser veynte e syete personas** mayores e menores, / vno mas o menos; e que de la terçia parte de la conpañā se ayan de pagar los mareajes de las pinaças./

Yten, que el **dicho capitan les aya de dar de comer e beber suficiēte-mente,** / del dia que partieren e hisieren vela fasta servido el viaje, fazer manta/ mayor de **pan e vino e sidra e carne e azeyte** e otras cosas neçesarias, e/ que aya de meter en la nao **çinco pipas (interlineado: de vino) para la conpañā e una pipa para sy el dicho capitan./**

Yten, que (interlineado: los marineros e conpañā) al dicho capitan ayan de servir e sirvan en todo lo posible dende que/ **hisiesen vela desta costa fasta llegar en Rochela e dende en Tierra Fria; e fecha/ la pesca fasta llegar de buelta en Yrlanda; (interlineado: e si paz ouiere, dende a) en Henantes e Rochela o Ruan;/ e (interlineado: sy ouiere guerra, a Bristol; e)** que sy fuere menester **los conpañeros de las pi-**

**RODRIGO ARRIETAren bidaia**

Otsailaren 24koa da kontratua, Domingorena baino as-tetxo bat beranduagokoa. Martxoan joateko asmoa izango zuten hauek ere.

Rodrigo lekeitiarra da kapitaina, baina ontzia Bermeokoa da. Badirudi lekeitiarrek ez dutela ontzi apraposik horretarako edo oraindik ez zaiela interesatzen halako enpresa arriskutsuak.

Hainbat lekeitiar agertzen dira: Pedro de Ormaegui, Juan de Arostegui, Pedro de Alça, Pedro de Leçama, Martin de Vrìbe, Amador de Elexate, Martin de Motrico, Martin de Liconā, Juan Nuel, piloto, Domingo de Çea, Domingo de Trumaya, Domingo de Leçama eta Sancho de Ocabio eta gardatar bat Juan Perez de Goyena

Hau ere bidaia mistoa, baleatan eta bakailaotan. Eskribauak ikasi du Tierra Fria toponimoa, ez du hutsik egiten.

6 pinaza eramango dira beste bidaian legez. Kapitainak batel bat eraman beharko du bere kontura eta irabazi bari-rik. Badirudi ibarraren bidaian maestreak eraman behar zuen pinaza ere batela izango zela.

Pinaza- maestreak pinazez arduratuko dira, ongi horni-tuta egon beharko dira (prestos e suficiētes): aparailuak (aparejos) eta sokak (estachas de ballenear)

Partila: kapitainak marea bi, ofizialak (maestreak eta pi-lotoak euren artean) marea bat. Sariak baleude kapitaina-ren kontura.

Soldata guztiak irabazien herenetik datoz. Ez digu kon-tratu honek argitzen beste bi herenak nola banatzen ziren. Bakailao, balea, maste, lumera eta trobadurak aipatzen dira.

27 lagun guztira; bat gora, bat behera. Domingorenean 35 ziren.

Kapitaina arduratu behar janariarekin. Ogia, ardoa, sa-gardoa, okela eta olio aipatzen dira. Bost pipa ardo tripu-lazioarentzat (conpañā) eta bat kapitainarentzat.

Bidaia: Euskal Heritik Rochelara (Arroxela), hemendik Ter-nuara. Ibarra kapitainak ere Rochelan erosi behar bazuen ar-doa norabide berá hartu zuen. Ternuatik bueltan lehenengo Irlandara, gero bakea egonez gero Frantziara, Henantes, Rochela edo Ruanera eta gerra ba-lego Ingalaterrara, Bristolera. Gerra aipatzen da, garai hartan Frantziaren kontrako gerra edozein momentutan piztu ahal zen. Orduan ingelesekin hobeto konpontzen ziren.

**naças de una o de dos o tres/ pinaças se queden syn yr a la mar fasta adresçar e linpiar e salar pescadas/ y vallenas** e otras cosas./

Yten, que (interlineado: el dicho capitan) aya de dar e de a cada maestre de pinaça **para su conpañā doze libras/ de azeyte;** y que **la conpañā le este presta para de oy en çinco dias syguientes**, los maestros de/ pi-naças con sus pinaças e aparejos, e los marineros con sus personas, ropas e aparejos./

Yten, que sy **servido el biaje de la pesca de Tierra Fria de buelta**, llegados en Yrlanda o en/ Bristol o en Rochela, o doquiera que hisiere la dicha nao derecha descarga e manta mayor/ (tachado: que to), sy no se concerta-ren con el maestre para yr a otra parte (interlineado: a servir otro viaje) e oviere la nao de bolver para/ España, **que los marineros sean obligados de le ayudar e servir a traer la nao para España, con tal/ que los marine-ros puedan cargar e carguen en la dicha nao** la terçia parte (tachado: que hayan de aver) por sus soldadas/ e mareajes, es a saber, **la terçia parte de la nao** que puedan cargar e no mas.//

(Fol.vº) (Tachado: E para conplir esta escriptura e condiçiones, obligaron so pena de çinquenta ducados doro, medios para la camara/ de sus ma-gestades e medios para la parte o partes ovedientes).

Yten, que de **toçino aya de llebar e lliebe el dicho capitan** (borrado: de toçino) (interlineado: en la dicha nao) **tanto quanto llevaren/ los de San Juan de Lus en semejantes naos./**

Yten, que **aya de traer e traya una pinaça de buelta el dicho capitan** en la dicha nao, en riesgo/ e ventura del duepño de la pinaça./

E para las cosas e condiçiones susodichas asy tener e guardar e conplir, mantener e pagar en todo e por todo, / segund e de la manera que dicha es de suso, el dicho Rodrigo de Arrieta, capitan, contra los sobredichos e consortes/ e marineros que han de yr con el, e los dichos marineros de suso nonbrados, contra el dicho Rodrigo, dixieron que obligavan/ e obli-garon con sus personas e bienes, muebles e rayzes, auidos e por aver, so pena de çinquenta ducados doro, medios/ para la camara de sus mage-stades e los otros medios para la parte o partes que guardaren e conplie-ren este contrato e condiçio/nes del, e allende de pagar todos dapños, costas e menoscabos que seguieren a la vna parte o a las otras por falta de no/ conplir este contrato.

E para su conplimiento y exsecuçion, por esta carta daban e dieron po-der conplido e bastante sobre sus/ personas e bienes a todos juezes e justiçias de España e de todos otros reynos e señorios, sometiendose a las jurisdiciones/ de cada vno dellos, renunciando su propio fuero, jurisdic-ion e domicilio e la ley sit conbenerit, para que a pedimiento de la parte/ o partes que guardaren e conplieren este contrato, en las perso-nas e bienes de los que no conplieren e guardaren, mandasen haser e hisiesen entrega/ y exsecuçion; e los bienes exsecutados los mandasen aforar e rematar segund fuero do acaesçiere; e de su valor manda/ haser buen pago de prinçipal e pena del doblo e costas (tachado: a tan bien) e dapños e menoscabos que se les syguieren e recresçieren, a/ tan bien e conplidamente como sy sobre lo de suso, fecho debido proçeso entre partes ante juez competente, fuesen condepnados e la/ tal sentençia fue-se por ellos consentyda e della no oviese lugar apelacion.

E dixieron que renunçaban todas leyes, fueros e derechos, vsos/ e cos-tumbres e prematycas, franquezas e libertades e preuillejos de su fabor, e la lei del derecho desia que general renunçacion de leyes non vala./ Testigos, Juan de la Plaça e Juan de Goyo e Furtuño de Artaçabiribill e Domingo de Baquio, vesinos de la dicha villa./ Juan Nuel (rúbrica). Rodrigo de Arrieta (rúbrica). Juan de la/ Plaça (rú-brica). Juan de Aros/tegui (rúbrica). LUA-DJ001-04

Pinazetako marínelek esku bat bota behar zuten arraina pres-tatu (adresçar e linpiar e salar) behar zenean eta hori leho-rraan egiten zen, ez itsasontzian (se queden sin yr a la mar). Interesgarria da jakitea gatza erabiltzen zela kontserbatze-ko (beharbada Rochelan erosiho zuten). Badirudi lehorrean prestatzen zuten arraina sikatzen jartzen zutela (dry cod).

12 libra olio pinazako.

Bost egun bakarrik dute arrantzaleek gertu egoteko. Ibarre-nak gehitxoago, zortzi egun, baina Arrietarenak beranduago dabilta. Pinazak, aparailuak eta arropak aipatzen dira.

Bueltan Irlanda, Ingalaterra edo Frantziako porturen baten deskarga egin ondoren, ontzia Espainiara bueltatu behar izanez gero marínelek lagundu behar zuten. Horren truke ontziaren herena kargatu lezakete

Urdaia Donibane Lohitzunekoan erara eramango dute, sei-na-le hangoek egiten dutena gu geu egiten gaudela, baina be-randuxeago. (tanto quanto llevaren/ los de San Juan de Lus en semejantes naos).

Kapitainaren pinaza agertzen da, bueltan ekarri behar dena. Besteak, beraz, badirudi bertan geratuko direla. Pinaza hura kontixu lehenago aipatutako batela izango zen, beharrezkoa jendea porturatzeko, mandatuak egiteko...

Gero zigorrak datoz.







# Kabanak

Testua: Amaia Apraiz Sahagún

**I**rakurriko duzuen artikulua 2000. eta 2004. urteen artean Amaia Apraizek egin-dako doktorego-tesiaren laburpena da. Tesiak, **Bizkaiko kostaldeko kontserba-fabriken artea eta arkitektura: Bermeo, Lekeitio, Ondarroa** zuen izenburu eta 2005ean defendatu zuen. Egunak eta egunak eman zituen zoragarria deritzon industria-ondareari buruzko tesia idazten. Garai hartan, Lekeitioko Udal Artxiboko dokumentu eta paper-sorten artean eman zituen hilabete batzuk eta gure herriari buruzko hainbat gauza ikasi zituen, artikulua honetan plazaratu nahi dituenak. Datozen paragrafoak, beraz, Lekeitioki eta bere artxiboari eskaini nahi dizkio, dagoeneko Amaiak berak ere bere historiaren zatitza baititu.



Antxoa "Engraulis Encrasicolus"

kontserbazio-prozedurak ere ikasi zituen, Euskal Herrian ezartzeko asmoz. Ahalegin guzti horiek Euskal Herriko lehenengo kabanaren eratzean gauzatu ziren; 1772an hasi zen lanean Ajangizten.


Dena den, adibide horiek salbuespenak izan ziren: kontserbagintza kofradien kontrolpean egon zen 1841era arte. Orduan, lehenengo karlistaldan amaituta, Euskal Herriko aduanak kostaldera lekualdatu zituzten eta ekonomia liberalizatzen hasi zen. Hori zela eta, gazitze- eta eskabetxe-fabrikak edo kabanak agertu ziren: 1852tik aurrera hasi ziren lanean delako "escabecheros al margen"; hau da, kofradien agindua jarraitzen ez zituzten eskabetxe-egileak, arrain-kontserbak ekoizteko industria berri hori Euskal Herriko portuetan ekonomia garatzeko aukeratzat hartu zutena.



## Sarrera

Kabanak, arrain-kontserben fabrikak, kontserba-industria, Euskal Herriko ekonomiaren motorea izan dira. Gure lurraldearen eta historiaren berri eraman dute munduan zehar: Bermeo, Ondarroa eta Lekeitio beste latitude batzuetan ezagunak dira arrain-kontserbei esker. Erreparatu etiketei: gure portuen publizitaterik onena dira.

Aro Modernoan zehar, XVIII. mendera arte, arrantzale-kofradiak baino ez zuten arrain-kontserbak egiteko eskubidea: produkzio-baliabideak eta merkatu-prezioak zituzten kontrolpean. Kontrol horri aurre egiteko lehendabiziko ekimena 1733an agertu zen, non eta Lekeitio: urte hartan Frantzisko Barandikak, Jose Galdonak, Antonio Meauriok eta Marina Amistegik, bertoko eskabetxe-egileek, Kontserba-Konpainia sortu zuten, alde batera utzita San Pedro Kofradiak agintzen zuena. Beste ekimen batzuek jarraitu zioten inizatiba horri: Euskal Herriaren Adiskideen Elkarteak Arrantza-Konpainia sortu zuen 1771ean eta Irlandako



San Juan Osinaga eta Kofradiaren arteko akordioa. Kofradiak eskabetzerako bisigua salduko dio merkatari honi. BFAH NO12/475,1590.

### Aurrekariak

Zer edo zer ikasi banuen artxiboan emandako egunetan, zera da: Lekeitioko kabanen historiaz jabetu nahi badugu, hiribilduaren historiari egin behar diogu so, hortxe baitaude XIX. eta XX. mendeetako ekonomia ulertzeko gakoak. Has gaitezen, beraz, Erdi Arotik. Maria Diaz Harokoak, Bizkaiko Andreak, sortu zuen Lekeitio hiribildua, 1325. urtean. Hiribildua izateak aukera ekonomiko handiak ekarri zizkion Lekeitori: izan ere, Erdi Aroan eta Aro Modernoan zehar Bizkaiko Jaurerriko porturik garrantzitsuenetakoa izan zen. Esaterako, XVI. mendean Lekeitio zen arrantzarako porturik inportanteenetakoa, bigarrena Bermeoren atzetik. Garai hartan, hain zuzen ere, hasi zen San Pedro Kofradia eskabetxeak egiten. Era berean, 1799an Wilhem von Humbolt bidaiariak bisitatu zuen herria eta harrituta geratu zen arrain-azokak zuen garrantzia ikusita. Lekeitio “arrantzaleen errepublika” zela idatzi zuen, herritar guztiek arrantza baitzuten ogibide nagusia; halaber, “Bizkaiko Golkoko

herririk atseginena eta alaiena” zela esan zuen. (Humbolt, Wilhem von. Los Vascos (Donostia: Herritar Berri, 1999), 205-206).


Zergatik zeukan hain garrantzi handia kontserbagintzak Lekeitio garai hartan? Oinarrizko arrazoi birengatik: alde batetik, Lekeitio bide nagusietatik urrun zegoen, beraz, arraina kanpoan saltzeko mandozainen bidez egin behar zen; beste alde batetik, eskabetxea aproposa zen atuna eta bisigua (hau da, arrantzaleek orduan gehien harrapatzen zituzten espezieak) kontserbatzeko, mami gogorreko arrainak baitira. Beraz, kofradien monopolioa amaituta, XIX. eta XX. mendeetan zehar, arraina kontserbatzen jarraitu zuten lekeitiarrek: kabanen garapenak hiribilduaren historiaren funtsezko kapitulu bat idatziko zuen. Izan ere, Aro Garaikidearen hasieran, herriaren eta kabanen historiek lotura handia daukate. Lekeitio egindako hobetze-lanek industria garatzeko aukerak ekarri zituzten; era berean, industria egoteak hobetze-lanek egiteko ahalmena eman zion herriari.

Hala, gaur egun ezagutzen dugun herria (kaia, zabalgunea, azpiegiturak) kontserba-industriarekin batera garatu zen. Adibidez, Amado Lazarok 1858an portuan egindako berritze-lanak aipatu daitezke. Edota, Paskual Abaroa bankariak ordainduta, XIX. mendean egindako hobekuntzak, Lekeitio “hiribildu eder eta pintoresko” bihurtu zutenak: kaleen argiztapena, estolderia, kale berriak, eta abar (Corella, Laura G. Historia de Vizcaya a través de la prensa, III: 1883-1898 (Bilbao: La Gran Enciclopedia Vasca, 1977), 637).

Lan guzti horien artean, azpimarratzekoa da 1884 eta 1888ren artean herriko industrialariak bultzatu zituzten lotura-bide bat egitea, gerora Paskual Abaroa etorbidea izango zena. Ordura arte, errepede bi zeuden

Lekeitiora ailegatzeko: Durangokoa, Atea kalean amaitzen zena, eta Ondarroakoa, basilika ondoan amaitzen zena. Errepide horiek lotzeko, kale berri bat egin zen, Paskual Abaroa etorbidea Atea kaletik Talara arte. Bestalde, Abaroa kalea zabaldu egin zen, Eliza atzetik Paskual Abaroa etorbide berrira arte. Paskual Abaroa etorbideak alde zaharra inguratzen zuen eta hortik kanpo, Lekeitioko zabalgunea sortuko zen. Alde zaharrean zeuden lantoki gehienak zarratu egin ziren eta etorbide berriari zehar kabana modernoak eraiki. Orduan amaitu ziren antzina eskabetxeak egiteko guneak eragiten zituzten eragozpenak: kiratsak, garraio-arazoak, zaratak... (normalean herri-etxeetako beheko lonjak). Etorbizuneko hirigintza ere etorbideak baldintzatu zuten.

Lekeitioko Udal Artxiboa.



## Kofradiaren eskabetxe-etxeak

Arrantzale-kofradiak kontserbagintza kontrolatzen zuen garaietan, eskabetxe-lanak herriko etxeetako beheko parteetan egiten ziren; horretarako, lonjak alokatzen zituen Kofradiak.

Instalazio propioak edukitzearren 1783an Kofradiak Arrieta izeneko etxea erosi zuen Txixarro kalean, eta hobetze-lanak egiten hasi zen. Bertan, arrantzaleen anaikide-egoitza eta batzar-gelak egoteaz gain, eskabetxea egiteko upelak eta arraina sikatzeko gelak ere bazeudelakoan gaude. Arrieta eskabetxe-etxea toki estrategiko batean zegoen, portutik hurbil, arraina erraz ekartzeko moduan. Aparte, kofradiak Jose Ignacio Untzetaren eskabetxe-etxea (Cayburu) alokatzen zuen, gaur eguneko Keleria.

Arrieta etxea txiki geratzen ari zitzaion Kofradiari eta pentsatzen hasi zen eraikin handi bat egitea, kanpoko ekoizleak erakartzeko asmoz ziur aski. Kofradia, bada, etxeak eta orubeak erosten hasi zen gaur egun ezagutzen dugun eraikin monumentala egiteko. Adibidez, Arrieta etxea permutatu egin zuen bere intereseko inguruan zegoen beste etxe bategatik.


Gainera, Kofradiak azkenik Untzeta etxea ere erosi egin zuen eta hortik aurrera “Kofradia zaharra” edo “Untzeta etxea” legez ezagutuko zen; horrelaxe agertzen da kofradiaren kontu-liburuetan. 1903an sute batek Untzeta etxea kiskali egin zuen eta bertan gaur eguneko Keleria eraiki zen.

Ikaragarriko Kofradia (Kofradia Zaharra gaur egun) eraiki baino lehen, arraina garbitzeko silarrizko erreka bat egin zuten bertan inguruan. 1802an amaituta zegoen.

Eraikin berria egiteko (1803), Kofradiak Madrilgo San Fernandoren Errege-Akademiaren arkitekto bat ekarri zuen: Manuel Bizente Laka, Mutrikuarra bera. Eskarmentu handiko arkitektoa zen; izan ere, Mutrikuko Mezetakua eskabetxe-etxeko planoak egin zituen, besteak beste.

Kofradia egiteko egur asko behar izan zuten, eta herri-basoetatik ez ezik, Debatik, Ispas-terretik eta Natxituatik ere ekarri zuten; halaber, harria, igeltsua, teilak, adreiluak... lantzeko langile espezializatuak etorri ziren Lekeitiora (harginak, igeltseruak, errementariak, jorنالariak...). Hori zela eta, bertan behera utzi behar izan zituzten lanak hainbat alditan, neketsuak eta garestiak baitziren. Hain gastu handia ordaintzeko (200.000 errealek kuarto) Kofradiak eraikin berria alokatu egin behar izan zuen 1808tik aurrera, eraikuntza-obrak amaituta. Urtero 1.400 edo 1.500 errealek kuartoren truke alokatzen zen etxea. 1864ra arte 10 industrialari ezberdinek alokatu zuten: Donibane Loitzuneko Ribet anaiek, Emilio James eta Jorge Dumas frantsesak, esaterako.

Horren etxe haundi eta dotorea eraikitzea gertaera garrantzitsua izan zen Lekeition eta, beraz, lanen amaiera ospatzeko meza eta letaniak eskaini zitzaizkion Antiguako Amari.



Kofradia zaharra. Argazkia: Kiñuka



Kofradia zaharra. Argazkia: Kiñuka

## Zelan egiten zen eskabetxea?

Baina, zelan egiten zen garai hartan eskabetxea (hau da, arrain-kontserba)? Bada, Jose Navarrete XIX. mende amaierako idazleak zehatz-mehatz deskribatzen du *Galería Humorística. Norte y Sur. Recuerdos alegres de Vizcaya y de mi Tierra* izeneko bere liburuan:

*Digamos ahora cómo se escabechan el bonito y el besugo:*

*Los bonitos se destripan en la mar y les quitan las cabezas, en el muelle, mujeres que lo hacen sin salario, quedándose con la mitad de aquéllas, cuya grasa utilizan para alimentar los candiles en los caseríos. Llegado el bonito a la fábrica, se trocea con machetes, sobre unos bancos muy toscos, siendo de notar la rapidez y la destreza con que lo ejecutan dos ó tres hombres, sin discrepar en una línea los gruesos de unos trozos á los de otros. Estos se salan, lavan, secan, frien, tornan á secarse, se meten en barriles de haya con flejes de castaño ó de avellano, se les echa el vinagre, se prensan un poco, poniéndose una mujer de pié sobre una tabla que cubre el bonito en el barril, se cierra éste y queda listo para su exportación, siendo los principales mercados Valladolid, Palencia, Zaragoza, Haro, Burgos y Madrid, en cuyas pescaderías figuran, á la puerta, en primer término, los barriles de escabeche.*

*Los besugos, cuando llegan á la fábrica, se escaman, descabezan, destripan, salan y lavan perfectamente, y (...) se tienen secándose antes de freírlos y echarles el vinagre en los barriles, un par de días, ó más si es preciso, colgados en los ganchos de que están llenos los enrejados de madera [en los desvanes de las fábricas] que forman unos listones verticales, cruzados por otros horizontales clavados á ellos...*

Portu zaharra 1880. hamarkada bueltan. LUA.



## Kontserbagintzaren liberalizazioa

Lehen aipatu dugun bezala, hasiera batean eskabetxe-egile guztiak Kofradiaren lokaletan egiten zuten lan. Hala izan zen 1852ra arte; urte hartan Castro Urdialeseko eskabetxe-egile batzuk etorri ziren Lekeitiora. Horietako bat Juan Presilla Acha zen, herrian “el castreño” ezizenez ezagutua, Castrok kabana baten jabea. Bera izan zen Kofradiaren lokaletatik kanpo lanean hasi ziren lehenetariko bat. Bost urtera, 1857an, beste eskabetxe-egile aske bi aipatzen ditu dokumentazioak: Juan Frantzisko Arana eta Eusebio Urriz; 1875rako hamar izango ziren euren kabuz lan egiten zutenak eta, XX. mendera hurbildu ahala, gora joko zuen kopuruak.

Gainera, 1880tik aurrera Europako eskabetxe-egile ugari hasi zen Eskal Herra etortzen. Izan ere, urte haietan gertaera bi suertatu ziren: alde batetik, sardinaren arrantzak beheara egin zuen Italiako eta Frantziako portu guztietan; beste alde batetik, Espainia eta Frantziaren arteko aduana-zergak nabarmen jeitsi ziren, Frantziako kontserba-egileen etorrera erraztuz. Hala, ohikoa zen industrialari frantsesak Lekeitiora



etorri, kontserbak egin eta Frantziara eroatea, produktua bertan saltzeko. Egia esan, batzuk aurrez etorritakoak ziren: gorago aipatu ditugun Ribet anaiak, edota James eta Dumas industrialariak, kasu, Kofradiako lokalak alokatzen zituztenak 1860. hamarkadan. Etorrerarik nabarmena, baina, XIX. mendearen amaieran izan zen: orduan konturatu ziren industrialari kanpotar asko Lekeitio irabaziak egiteko aukera ezin hobea zeukatela. Hala egin zuen 1896an “Brieu & C.º” sozietateak. La Croix Roux kontserba-marka famatuaren jabea zen eta Lekeitio egon zen lanean 1932ra arte, izen ezberdinekin baina: “Lanusse & Beitia”, “Iñiguez & C.º”, etab.

Italiarrak laster gehituko zitzairen frantsesei. Siziliarrak ziren etorritako gehienak eta fabrika berriak sortzeko aukerak ikusi zituzten Lekeitio. Lekeitiarrek bazekiten kontsebak egiten eta, beraz, erraza zen eskulana lortzea. Horrez gain, antxoak eta sardinak merkeagoak ziren Sizilian baino eta –beren negozioetarako are interesgarriagoa– ez zegoen inbertsio handirik zertan egin behar; lonja asko ziren aproposak arrain-kontserbak egiteko. Artxiboko dokumentuek aipatzen duten lehena Manuel Pedemonte da. 1892an etorri zen Lekeitiora Siziliatik eta kabana txiki bat ezarri zuen portuan. 300 metro koadroko orube batean adreiluzko teilape xume bat egin zuen. XX. mendean zehar beste siziliar batzuk etorri ziren: Salvador Cusimano, Sparaxino Alioto, Angelo Cefalu, Pietro Marino, Juan Billante... Normalean udaberritik udazkenara egiten zuten lan eta neguan Italiara bueltatzen ziren egindako kontserbak saltzera. Italiar gehienak 1930. hamarkadan joan ziren Lekeitiotik; batek iraun zuen 1964ra arte: Angelo Parodi. Parodik kabana zuen Bermeon eta Lekeitio Kofradiako lokalak alokatzen zituen.

Frantsesak, italiarrak eta baita Holandako industrialariak ere etorri ziren Lekeitiora. XX. mende hasieran etorri ziren gehienak, 20. hamarkadara arte: Theis de Rok, Jay Neÿzen, Enrique Bloem, Wed S. J. Groen... Baina holandarren lan egiteko era ezberdina zen: esan bezala, frantsek eta italiarrek kontserbak Lekeitio bertan egiten zituzten eta gero Frantzia eta Italia saldu; holandarrek, ostera, arraina gatzetan ipini eta kupeletan sartzen zuten kontserbak Holandan egiteko.



M. Brieu enpresaren orriburua. Hau zen Gipuzkoako kontserbagintzako enpresa garrantzitsuen mende honen hasieran. Untzi Museoko artxiboa, Donostia.



Emakumeak lanean Francesco eta Angelo Galioto anai italiarren Lekeitio kabanen. 1927



Emakumeak Angelo Parodi kabanako nagusiarekin. Euren artean Carmen Sustaita lau seme-alabekin. c. 1923



## Kontserba-industriaren berezko arkitektura: lantokiak

Tesia egiteko eman nituen urteetan, ikerketan aurreratu ahala ezusteak izan nituen, pozgarriak gehienak, izan ere, ezagutzen ez nituen krokisak eta planoak aurkitzen nituen egunero. Euskal Herriko portuetan eraiki ziren kabanen kantitatea ez ezik, kalitate arkitektonikoa ere adierazten zuten planook: industrialak izateko diseinatutako eraikinek lantokiak ez ezik, arkitektura-eredu ederrak ere baziren.

XIX. mendearen amaieran aurrerapauso kualitatibo itzela egon zen kabanen arkitekturan orokorrean: herriko etxeetako lonjetatik –harriz eta egurrez eraikitako esparru txiki eta txarto aireztatuak ziren horietatik– porlanez eginiko fabrika moderno, ondo aireztatu eta argizatuetara egin zen pasoa. Eboluzio ikaragarria eman zen, beraz, lantokietan. Are gehiago, eboluzio praktikoarekin batera bilakaera estetikoa ere eman zen: antzinako kontserberiek herriko arkitekturaren itxura berbera zeukaten; kabana berriek, berriz, garaiko estilo arkitektonikoak (historizismoa, eklektizismoa, Art Deco, arrazionalismoa...) erakusten zituzten. Ohiko etxe-arkitekturatik industria-arkitekturara aldatze horrek arrazoi komertziala


zeukan, zalantza barik: garai haietan eraikuntza bera industri produktuen kalitatearen adierazle bihurtu zen.

Industria arkitekturak ohiko estilo artistikoak eta eraikuntza-mota berriak batu zituen. Fabrika bihurtu zen, orduan, garaiko arkitekturaren adierazlerik egokiena: arkitektura-lengoaia berriez jabetu ziren, lantegietarako berezko identitatea eta irudia lortzearren.

Lekeitioko kabanen arkitektura ez zen salbuespena izan joesora horretan; XIX. eta XX. mendeetan lantegi ederrak eraiki ziren herrian.

Kabanek, beraz, berezko tipologia zeukauten. Normalean lantegia eta jabearen etxea eraikin berean zeuden: lantegia beheko solairuan eta horren gainean etxebizitza. Izan ere, kontserberiek ez zuten makina gehiegi behar: arraina egosteko upelak, zatitzeko lanabesak eta ontzietan sartzeko lan-mahaiak. Bazuetan, ostera, goiko solairuko etxea ez zen jabearena, arduradunarena baizik; kasu horietan lantegiaren ondoko etxe handi edo txalet batean bizi ziren jabeak, beti ere kabanatik hurbil.

Gregorio Odiagaren etxea eta fabrika, Castor Uriarte, 1927. LUA-U1403/01 (Paskual Abaroa etorbidea, 26)



## Lekeitioko industria-arkitektura

Lekeitioko industria-arkitektura erakusteko, hiru adibide aztertuko ditut. Zoritzarrez, hirurak desagertu dira, herriko kabana guztiak desagertu diren moduan. Orrialdeok omenaldi txiki bat nahi dute izan. Gure industria-ondareari buruzko go-goeta egiteko balio dezatela.

### LA ACTIVA 1865-1991

Garavilla familiarena zen Lekeitioko fabrikarik zaharrenetako hau, Atea kalean zegoena. Garavillatarrena kontserbagile-familia bat zen. Antza, 1842rako herrian zegoen Cesareo Garavilla Izagurre eta Ribet anaien kabanen merkataritza-agente egiten zuten behar. Baina laster hasiko zen lanean bere kabuz. 1856an Esperanza izeneko iturriaren ura erabiltzeko baimena eskatu zuen, agian eskabetxea egiteko lokal txiki bat zeukalako inguruan.

Lantegi berria sortzea 1865ean erabaki zuen Cesareo Garavillak. Horretarako Durangoko erre-pide ondoko orube bat aukeratu zuen, gaur egungo Atea kalean, harresitik kanpo. Horrela helburu bi bete zituen: alde batetik herrian zeuden kirats arazoak arintzea; bestetik, komunikazio zuzena herriko sarbideekin. Leku aproposa zen, beraz, kabana bat eraikitzeko eta bertan ekoiztuko zizuten Garavillatarrek La Activa markako kontserbak. Pedro Etxanobe lan-maisua ekarri zuten eraikin berria diseinatzeko: solairu bikoia zen, beheko partean lantokia eta goikoan etxebizitza zeuzkana. Urteak joan ahala eraikin xume hura handitzen joan zen, eta 1917rako 6 etxek osatutako industria-gune bihurtu zen. Lantokia ez ezik, familiarentzako esparrua ere bazegoen bertan: esate baterako, kabanako eraikinetako batean





"El pueblo vasco" 1922-09-13



Angel Garavilla Atxabal margolariak bere pintura-gela zeukan. Geroago, 1920an, Castor Uriarte arkitektoak biltegi berri bat diseinatu zien Puertotarren dorrearen ondoan.

XIX. mendearen amaieran sortutako eraikin multzoak 1979ra arte iraun zuen. Urte hartan hasi ziren eraipen lanak, eta 1991rako guztiz desagertuta zegoen fabrika. Desagertze horrek Lekeitioko industria-ondarearen adierazpen bat ezagutzea eragotzi digu.





## LA UNIVERSAL 1891-1970

Bonifacio Okamikak Pascual Abaroa etorbidetik hurbil eraiki zuen bere kabana XIX. mende amaieran. Enpresa sortu aurretik, Bonifaziok Emilio James frantse-sarekin egin zuen lan Kofradiako eskabetxe-etxean. Lantegi berria hornitzeko, Bergara kalean zegoen iturriko ura erabiltzeko baimena eskatu zuen Okamikak: horrela hasi zen lanean La Universal izeneko kabana, Basoaldea inguruan. Eskabetxeak eta kontserbak egiten zituzten bertan, eta latak egiteko makinak ere bazeuzkaten.

Lekeitioko beste kontserberetan legez, Okamikatarak fabrikan bertan bizi ziren hasiera batean; 1920an, baina, Ezpeleta kaleko txalet batera alde ziren.



FABRICA DE CONSERVAS DE PESCADOS, ESCABECHES Y SALAZONES

LEQUEITIO (VIZCAYA)

LAS MEJORES CONSERVAS DE PESCADOS

**OCAMICA**

Esmerada preparación de Pescados del Cantábrico

Pida en todas partes Conservas

**OCAMICA**



## CONSERVAS AMAYA GARAVILLA 1934-1979


Garavilla familiarena zen, baita, Paskual Abaroa etorbidean eraiki zen kabana. Hasiara batean "Viuda de Cesareo Garavilla" zuen izena; geroago "Cesarea Garavilla" izenez ezagutu zen; eta, azkenik, "Conservas Amaya Garavilla" izango zen. Eboluzio hau ulertzeko, historiara jo beharko dugu.

Cesareo Garavillak, "La Activa" enpresaren sortzaileak, Juana Egiluz zuen emazte. Juana hil zenean, Frantziska Alberdirekin ezkondu zen. Frantziska Alberdik lotura estua zeukan kontserba-negozioarekin: Bermeoko eta Ondarroako kontserba-industrialari askorentzat egin zuen beharra komisionista legez. Gainera, Ezpeleta kaleko kabana baten jabea izan zen 1924 eta 1933 artean.

Cesareo Garavilla hil zenean, 1933an, beste fabrika bat eraikitzeko baimena eskatu zuen Frantziskak, non eta Paskual Abaroa etorbidean. Kabana berria, Jose Manuel Etxeita ingeniariak diseinatutakoa, 200 metro koadroko harrizko eta egurrezko eraikina zen, bi isuriko teilatua zeukana. Kanpoko hormak harrizkoak ziren eta zutabeak eta zertxak egurrezkoak. Kanpotik deigarri zuen aurrealdea: eraikina baino garaiaoa zen eta, horrela, teilatua izkutatzen zuen frontis baten atzean. Frontis horretan enpresaren izena zegoen idatzita.

Eraikin honek beste industria-eraikin mota bat erakusten digu: funtzionalagoa, argiztapen handiagokoa eta gune zabalez osatua. Eredua, ostera, ez zen berria: eskualdeko beste kabana batzuetan ikusten zen XX. mendearen hasieratik; esaterako, 1917ko Bermeoko "Conservas Garavilla" eraikinean.

Atea kaleko kabana legez, 1979an eraitsi zen. Gaur egun bere gomuta baino ez dugu; artxiboko planoek eta familiak gordetzen dituen argazkiek erakusten digutenaz gain.



Argazkiak: Nere Garabilla Arrinda, Maria Jesus Garabilla Ajubita, Isaias Gezuraga, Iaki Madariaga Valle eta Juanita Izendia. Planoak Lekeitioko Udaf Artxibokoak dira.



### Konklusioak

Industria-arkitektura –1769an lurrun-makina perfektionatu zutenetik Industria Iraultzarekin batera garatu zen eta gaur egungo industria-guneetan indarrean dagoen hori– euskal ondarearen atal garrantzitsua da. Hori dela eta, sarritan eraikinak desagertu diren arren, defendatu, kontserbatu eta zabaldu behar dugu oroimena, datozen belaunaldiek ere ezagutu dezaten.

Euskal Herriko kostaldea kaiz eta portuz josita dago: kostaldeko herrien historiak, hirigintzak eta arkitekturek lotura estua daukate itsasoarekiko, marinellerriak dira, zalantza barik. Kostaldeko biztanleek betidanik ezagutu dute itsasoa, eta kapaz izan dira bere baitan lan egiteko. Horrela, itsasori begira, gizakia eta bere inguruaren arteko harremanak sortu dira, horrela garatu da gizakiaren lana eta bizitza. Eta horrela hartu du bere garrantzia kontserbagintzak: ekonomia-zikloaren parte da baina, are garrantzitsuago, marinellerrietako gizonen eta andren bizitza-zikloaren zatia ere bada. Gure bizitza-zikloaren zutabe izanda, halaber, ondarearen gako bihurtu behar dugu: kontserbagintzari lotuak daude hirigintza, arkitektura, kaiaren estruktura, arrantzaleen nekea, langileen zeregina... lanaren memoria, azken baten gure memoria.

Lekeitiori buruzko gogoeta hau idazteko, ondare eta memoria aldarrikatzea izan dut ardatz; herriko Industria Iraultzaren harira, ondareak eta memoriak ez baitute zentzurik geureak sentitu ezean.



Bakailaoa goza eta bakailaoa behera...  
Bakailaoa egiteko errezeta bila ibili naz eta Miren Eigurenek (1924-2010) idatzi eban errezeta liburu batez egin dot topo. Hamen daukabez errezetok, Mirenen eskuz idatzita, asmoa izan ezkeru zeuk be ahalegintzeko. Miren sukaldaritza irakasle be izan zanez, zuzen bategi batek baino gehiagok eza gutuko dozuez.

# On egin!

**H**aritik tiraka..., Miren urte askotan ibili zen beharrean bere familiakoena zen Santi tabernan. Jatetxe aparta zen!

Mirenen alaba Miren Bengoetxeak ikusten dituzuen argazki dotore hauek utzi dizkigu. Bere birramuak sortu zuen Santi taberna, Miren Eigurenen amamak.

Eta hara nondik gure lagun Tere Osesek (Tere Txilenia, alabatzen hartutako Lekeitiarra 1976tik) idatzita dituen Miren Eigurenek kontatuko pasadizo batzuk, eta utzi egin dizkigu... XIX. mendera eroango gaitue...



## Bacalao a la vizcaína

### Salsa vizcaína:

**Ingredientes:**  
1 cebolla grande, 1 puerro, 3 dientes de ajo sin pelar  
Aceite de oliva, corteza de pan, 1 lata de tomate natural  
Poner a ablandar primero la cebolla y el puerro y un poco. mas tarde los dientes de ajo (para que no se quemon.  
Cuando empiece a ablandarse echarle la corteza de pan y doren bien. Despues un lata de tomate natural y los pimientos que habiamos puesto a remojar, agua y una chondada de vino blanco.  
Dejar la fuego unos 3 cuartos de hora, bajar el fuego y cuando empiece a hervir poner y echarle azucar y sal segun le haga falta. Pasa la salsa.

Tener a remojo el bacalao unos 30 horas y si está duro ponerlo con un poco de agua en una caguela y cuando empiece a salir la espuma apartarlo del fueo. Dejar enfriar y colocarlo en una caguela de barro con la piel para arriba y quitarle las espinas.  
Echarle por encima la salsa y ponerlo a fuego bajo, que hierva unos 10 minutos, probar y en caso de que le haga falta echarle mas sal.  
Adornar con pimientos rojos en tiras y presentar con un trapo atado alrededor de la caguela.

Miren Eiguren Mendigurenen (Miren Banda) errezetak.



## Bacalao al pil-pil

### Ingredientes:

Bacalao bien remojado (cantidad a gusto)  
aceite de oliva, 10 dientes de ajo

Descaamar el bacalao y ponerlo en agua fria; calentarlo y retirar cuando le salga la espuma (que no hierva)  
(Reservar algo de el agua de la cocción)  
Freir los ajos troceados a lo largo en abundante: este dejan ab que se doren y despues pasan todo a una caguelita para que se enfrie (El bacalao lleva aceite frio, ya que con caliente no se sale la gelatina)  
Quitar las espinas al bacalao y ponerlo en la cag con un poco de aceite en el fondo y echando poco a poco el aceite que habiamos dejado enfriando y a fuego bajo, mover el bacalao hasta que engorde e ir añadiendo aceite y algo de agua como antes  
Se adorna con los ajos y con un pimiento choricero  
[La ceta le da mas gelatina]



# EN CASA DE SANTI

## "SANTI TABERNA"

Memorias de Miren Eiguren, recogidas por Tere Osés.

*En casa de Santi  
hay buen sitio allí  
hay una cocinera  
que se llama Antoni*



Cuando oí que los hombres cantaban esta copla por la calle, me puse a llorar sin consuelo. Antoni era mi abuela y me dolía que se mofaran de ella; me hubiera gustado salir a defenderla, pero no me atrevía; nadie haría caso de una niña de seis años. Corrí entonces a la cocina y junto al fuego entre sollozos conté lo que había escuchado. Para mi sorpresa, mi abuela se enfadó conmigo, diciéndome que era una niña tonta. Creo que mucho tiempo después comprendí que la copla lejos de insultar a Antoni, la alababa como cocinera. Porque eso era ella: una hábil cocinera que supo conquistar el estómago, y también el aprecio, de su clientela.

Este episodio, sucedido según mis cálculos hacia mil novecientos treinta, es el primer recuerdo que guardo de mi abuela, que entonces aún no tenía sesenta años y que para mí era una anciana venerable, de cabello gris, enérgica y mandona.

Mi abuela, Antonia Onaindia Barrutia, nacida en 1872, hija de José María y María Dominga, era markinarra, del caserío Meabe de Xemein. Su madre murió muy joven dejando siete hijos pequeños y su padre se volvió a casar. Mi abuela contaba que fue muy pocos días a la escuela, porque nada más comenzar las clases cogió viruelas, al igual que todos sus hermanos, tres de los cuales murieron entonces. Ella recordaba que alguien les dejaba la comida en la puerta de la cuadra mientras estaban enfermos. También contaba que, de joven, bajaba en burro desde las estribaciones del monte Oiz, con hielo de los neveros para vender (entonces se le llamada nieve – edurra-).

Al morir el padre, los hermanos fueron repartidos entre parientes. Antoni se fue a vivir a Markina con unos tíos que regentaban una taberna, en donde mi abuela comenzó a trabajar a la edad de diez años. Para unas fiestas del Carmen llegó a Markina una cuadrilla de lekeitiarras, entre ellos uno que tocaba la flauta. De taberna en taberna, llegaron hasta aquella en la que Antoni trabajaba con sus tíos y o bien el flautista encantó a la tabernera con su música, o ella con su gracia y desplante encantara al músico, pero lo cierto es que el encuentro terminó en boda, que se celebró hacia 1894. El afortunado flautista era mi abuelo, Santiago Mendiguren Zabala, hijo de Daniel y María Ignacia.

La pareja se instaló en la calle Azpiri de Lekeitio. Santi era carpintero de profesión, pero además trabajaba para un farmacéutico de Arranegi que fabricaba gaseosas. Al parecer, por razones políticas se produjo la



Antonia Onaindia Barrutia eta Santiago Mendiguren Zabala.

ruptura laboral, porque el farmacéutico quiso forzar a Santi para que diera su voto a un determinado candidato. El abuelo Santi, muy firme en sus ideas, hizo caso omiso de tal orden, por lo cual, fue despedido. Fue un descalabro para la situación de la familia, aunque Santi se las arreglaba como podía, haciendo las cuentas en la Cofradía y para el barco Nuestra Señora del Socorro.

Pero hubo una persona de buena voluntad, que se ofreció a prestarle dinero para que comprara la maquinaria que necesitaba para fabricar él mismo las gaseosas. Era toda una aventura el negocio, pero finalmente lo aceptó y comenzó con su empresa, que se instaló en un local alquilado en el nº 6 de la calle Azpiri. Para abaratar gastos, decidieron arreglar esos locales como vivienda, con habitaciones y cocina, y allí se instalaron mis abuelos con sus hijos: Basilisa (1897-1981), que fue mi madre, María, Benito y Daniel.

Fue allí, en ese sitio, donde se inició lo que más tarde se convertiría en el restaurante "Santi". Todo comenzó con unos cuartillos de vino para los marineros, que traían de casa algo de comer. Sugirieron a Antoni que les asara unos txitxarros y la animaron a comprar garrafas de vino, que más tarde fueron pellejos, y así pudo disponer de más género para una clientela que poco a poco iba aumentando. También la cocina sufría transformaciones, el fuego hecho con la leña que le traían las baserritarras, más adelante se encendía con carbón vegetal.



Antoni, Basilisa eta Maria barran eta bi bezero formal-formal mahaian.

En un comienzo Antoni solo contaba con la ayuda de sus hijas, Basili y María, aunque con el tiempo también las nietas nos fuimos incorporando al servicio del "Santi", además de personal contratado.

La abuela tenía unas ideas muy claras sobre lo que no quería en su taberna: nada de publicidad, ni letreros de ninguna especie. Era una convencida de que "ya vendrán si están a gusto". La verdad es que aunque muchos parecían "estar a gusto" había días en que la clientela mermaba y en esos casos ella montaba su peculiar reclamo publicitario. Comenzaba por ordenar que no se tiraran a la basura las cáscaras de gambas utilizadas para la sopa sino que se esparcieran por el suelo junto a la barra, lo que era una forma de demostrar a los que llegaban que por allí ya habían pasado numerosos clientes. Esta treta era infalible según ella, convencida de que nada atrae tanto a un hambriento como comprobar que otros ya han comido.

Entre los habituales estaba Juanito, un personaje muy popular de aquellos tiempos en Lekeitio, que siempre alababa cuanto mi abuela preparaba. Un día apareció por la taberna, diciendo que "don Carlos" tenía gran interés en ir a probar la cocina de Antoni. Ella se negó en redondo dando como razón que lo de "Santi" era una taberna de gente de la mar y no un restaurante de señores. Juanito no cejó en su empeño hasta que por cansancio Antoni claudicó y fijaron la fecha en que el interesado vendría a comer con sus amigos. Claro que había un problema gordo: la taberna

no tenía manteles y a ver cómo esos comensales iban a sentarse ante una mesa desnuda. Mi abuela recurrió a sus arreos nupciales y del fondo de un arcón sacó una sábana en la que ella misma había bordado las clásicas iniciales. Finalmente llegó el día en que don Carlos Solano y sus amigos disfrutaron de una gran comida en una mesa de mantel y Antoni recibió muchas felicitaciones por su excelente cocina. Habría que añadir que estos comensales llegaron a ser clientes habituales.

Fueron pasando los años y mientras en nombre de la casa de "Santi" adquiría fama, la abuela perdía fuerzas y muy a su pesar debió dejar el mando a Basili, mi madre, que continuó la labor de Antoni, fallecida en 1935. Cuando a su vez mi madre se retiró, fue mi turno el hacerme cargo de la cocina del "Santi". Para entonces la antigua taberna se había transformado, contaba con mayor espacio y mobiliario y, por cierto, cada mesa lucía su mantel.

En fiestas y en época de vacaciones atendíamos no solo a clientes habituales, sino también a veraneantes y turistas que subían la empinada calle Azpiri para degustar la comida del "Santi"; el trabajo por tanto aumentaba y nuestras jornadas resultaban largas y fatigosas, aunque nos sentíamos compensadas al comprobar lo satisfechos que quedaban los clientes. Los platos de mayor demanda eran sopa de pescado, bacalao a la vizcaína, txipirones, txangurro, langosta a la americana, carne a la jardinera, angulas, pimientos rellenos....



Mostradorean: Begoña Zuzaeta, Anastasia, Basili Mendiguren, Miren Eiguren, Ana Mari Trebiño eta Maria Mendiguren.

Recuerdo lo sucedido un verano, tal vez a comienzos de los años cincuenta, cuando uno de nuestros clientes vino a pedirnos la reserva de una mesa en una esquina tranquila, alejada del bullicio de la barra, para cinco señores que llegarían a Lekeitio en yate. Quedamos de acuerdo en la fecha y en los platos que se servirían, aunque nos llamó la atención lo ansioso que parecía el cliente en asegurarse de que todo resultara bien. El día señalado nos encontramos con la sorpresa de reconocer a uno de los miembros del grupo: era Juan de Borbón, conde de Barcelona. Lo que nos faltaba, me dije, con el comedor lleno de gente. Di de inmediato orden a las camareras de que se comportaran con naturalidad, sin aspavientos, que nadie demostrara sorpresa. Todo salió bien, por suerte, y "los del yate" disfrutaron muchísimo de su comida a pesar del nerviosismo que reinaba en la cocina.



Tabernaren atzealdea: Maria Mendiguren eskumara, Basilin arreba, "Gaseosas Mendiguren" enpresa sortu zuena. Alboan Manuela, laguna.

☀️ "Handiki horreek etorri ziranian, han negoan ni. Eta ondo dakit nik zertuk jan eta edan ebezan. Borboiak, Don Juanek jan, txangurrua eta tximiñoiak tintan. Edan ebanari ganian hoba ixilik egon. Ondo jan eta hobeto edan eta gero Giralda yate ederrera buelta ziranian, Carlos Barrera kazetariari Don Juanek esandakuak kontauko deusuedaz "Me habian dicho que aqui se come bien y veo que es cierto. He de felicitar al cocinero." Al cocinero diño honek, bazkaria prestatu eutsenak danak andrak izanda. Hortik atara kontuak tximiñoiari eta txangurruari sakatzeko zenbat botella eragin ebezan! Portzierto, años cincuenta diño Terek, baina Don Juan Lekittora etorri zan urtia 63º izan zan, egunagaz be akordaten naz, agorrillaren 28º."



Santineko atzealdean: Miren Eiguren, Jose Bengoetxea "Jose Banda", Karmele Eiguren, Juanillo, Benedicta, Basili Mendiguren eta Mari Angeles Arritola (Lopeznekua). Umea, Miren Bengoetxea.




Santiñeko bentanan: Miren Eiguren, Karmele Eiguren, Benedicta, Jesus Bengoetxea "Jesus Banda" eta bere emazte Begoña Zuzaeta.

Por fin hubo de llegar el momento en que nos pareció necesario dejar este trabajo, una decisión difícil pues significaba abandonar nuestro medio de vida y el hogar en donde habíamos crecido. Esas paredes albergaban los recuerdos de nuestra niñez y juventud y de los cientos y cientos de personas que durante años acudieron al "Santi" Fuimos tres generaciones de mujeres de una familia quienes mantuvimos encendidos los fogones del "Santi", hasta que en 1964 pasó a otras manos, si bien hasta hoy continúa abierto con el mismo nombre, en el mismo lugar, después de un siglo.

Tere Dsés, enero de 2016.

☀️ Badakizue Karmele Jaiok idatzitako "Amaren eskuak" nobelaren azal-lan agertzen dan argazkia Santi tabernan hartuta dagoa? Eta bertan agiri diran bi emakumiak Miren Eiguren (goian) eta bere aizta Karmele dirala? Izan be, Karmele Jaioren izeko eta ama dira Miren eta Karmele Eiguren, eta nobelako hainbat pasadizo Santi tabernako kontuetan oinarrituta dagoz. Nobelan ez da aipatzen Santi tabernaren izena, baina txikitxatik bere amari entzundako hango hamaika kontu erabili eban Karmele Jaiok bere nobela idazteko, gehienak sukalde barruan batzen ziran emakumienak Zenbat lan egin ete eben hareek emakumiak! Zenbat bakailao, arrain-zopa, intxaur-saltsa... Baina guzti honeguz batera, zenbat kontu, zenbat barre, zenbat alkar laguntza, zenbat konplizidade...




AMAREN  
ESKUAK  
KARMELE JAIOK

# Lea ibarra, ondare industrialala

Testua: **Goretti Fariñas**

Itzulpena: **Hori-Hori**

**E**usko Jaurlaritzak eskumena dauka Euskal Kultur Ondarea defenditzeko, hobetzeko, babesteko, hedatzeko eta sustatzeko. Bada, horretaz baliatuta 2014ko ekainaren 5ean ondoko hau argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian: Ebazpena, 2014ko maiatzaren 26koa, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearena; honen bidez hasiera ematen zaio Lea ibaiko Industria Paisaia Monumentu Multzoko kategoriarekin Kultura Ondasun Kalifikatu deklaratzeko espedienteari, eta espediente hori jendaurrean erakusgai eta interesdunen entzunaldipean jartzen da. Ebazpen horretan kultura ondasun kalifikatutakoa deskribatzen da, hartzen duen eremuaren mugak zehazten dira eta aplikatuko zaion babesaren araubidea finkatzen da. Ebazpena onetsi zenetik Lea ibaiko industria paisaia Euskal Kultur Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen babespean dago. Nolanahi ere, espedientearen izapide administratiboek aurrera egingo dute harik eta 2015eko udazkenean kalifikazioaren dekretua behin betiko onetsi arte.



Lea ibaiaren arroa Bizkaiko ipar-ekialdean dago, Lea-Artibai eskualdean. Ekialdean Artibai ibaiaren arroa du mugakide, mendebaldean Oka ibaiaren arroa eta hegoaldean Ibaizabalaren arroa. Lea ibaiaren iturburua Oiz mendian dago. 30 km-ko bidea egiten du Munitibar-Arbatzegi-Gerrikaitz, Aulesti, Gizaburuaga, Amoroto, Ispaster, Lekeitio eta Mendexan zehar eta Kantauri itsasoan isurtzen du ura, kostaldeko azken bi herri horien artean.

Arro honen bilakaera erduzkoa da Euskal Herriaren Antzinako Erregimenean, XIX. mendea nahikoa aurreratu egon arte, industriaren arloan zer gertatu zen ulertzeko, ohiko eskemaren adibide argia baita: ibaiaren indar hidraulikoaren etengabeko erabilera burdinola eta erroten bidez. Nolanahi ere, Lea ibarra berezia izan zen Bizkaiko beste ibar batzuen aldean, ez baitzuen jasan industrializazioaren ondoriozko eraldaketa. Eskualde honetan luzaro iraun du baserriari lotutako bizimoduak.

Hori dela eta Lea ibarrean burdinola-errota multzo askoren hondarrak daude, ondare-balio handikoak, heltzen gaitz den naturagune

eder batean barreiatuta. Ibarren goialdean Erdi Aroan goierrietan ohikoak ziren burdinolak daude, XIV. mendekoak: Agorria, Goikolea, Olatxu, Bengola eta Munitibar. Ibaiaren arroaren erdialdean XVII. eta XVIII. mendeetako burdinolak daude; burdinola horietan nabaria da garai hartan burdingintzan gertatu zen aurrerapen teknologikoaren eragina, produkziogune bakar batera bildu baitziren Erdi Aroan burdinola handietan eta txikietan bereizita zeuden jardunak. Ikusgarrienak Bengolea, Angiz, Lariz eta Erezako multzoak dira. Burdinolak ez ezik garai askotako ibai-errota asko daude, batez ere XVIII. mendekoak. Denborak aurrera egin ahala burdinolei lotutako errota batzuk beste jarduera industrial batzuetarako erabili izan dira, esaterako zerrategi-lanerako edo energia sortzeko. Ibarren behealdean, ibaiaren bokalean, Lekeitio inguruan, ontzigintzari lotutako industria egon da XIX. mendearen azken alditik XX. mendearen lehen herenera arte. Horren lekuko dira ibai-bazterreko ontziolak eta burdinaren inguruko jarduerak (galdaketa, salmenta eta garraioa Magdalenako kaitik) utzitako hondarrak.

Lea ibarreko multzo hidrauliko horiek eratzen duten paisaia ondare-balio handiko multzo kulturala da; Euskal Herriko kantauriar kostaldeko ibarretako industrializazioaren aurreko egoeraren erakusgarri ederra da, eta horregatik bakarrik babes berezi merezi du. EAEko burdingintzako beste multzo batzuk lehendik ere babespean daude edo ondare-birbalorizazioa aplikatu zaie: Pobaleko burdinola Muskizen, Mirandaola Legazpin, Igartza Beasainen eta Agorregi Aian. Denak ere baliotsuak dira, inolako ezbairik gabe, baina burdinola-errota multzo bakanak dira eta ez dute guztiz ondo islatzen nolakoak ziren industriaurreko garaietan ibar osoak hartzen zituzten produkzioguneak.

Lea ibarreko industria paisaiaren beste ezaugarri berezi bat da era askotako elementuak daudela. Ibar honetan gaur arte iraun duten produkzio-unitateetan erakinak daude, bate-tik: burdinolak, errota, ontziolak, zentral hidroelektrikoak eta zerrategiak; bestetik, azpiegitura hidraulikoak daude: presak, ura errotara eramateko erretenak, urtegiak edo antaparak, estoldak, tunel hidraulikoak, isurbideak, etab...



Leku batzuetan jardunerako ezinbestekoak ziren makineriako osagai batzuk ere badaude, esaterako turbinak, turtukiak, errotarriak, toberak, etab. Oso lagungarriak dira produkzio-prozesua nolakoa zen ulertzeko. Eraikuntza industrial horiekin batera produkzio-unitateetan era askotako elementu arkitektonikoak daude (baserriak, etxeak, eraikin erlijiosoak eta militarrik), biztanleria urriaren eta komunikazio-arazoaren adierazgarri direnak. Garai hartako komunikazio-bidetako obra zibileko elementu batzuek ere iraun dute gaur egun arte, zubiek.


Ondare katalogo honen balioa are handiagoa da elementu jakin batzuen berezitasunari esker: Isuntzako marea-errota, esaterako, oso bakana da, eta Munitibar-Arbatzegi-Gerrikaizko kubo-errota bikaina are bakanagoa, beste bat baino ez dago eta, Lasturkoa Deban (gainera kuboaren behealdea baino ez da geratzen). Monumentu-multzo honetan oso aipagarria da arkuez eta kontrahormez egindako presen garrantzi teknologikoa. Presa hauetan arku eskartzanoek haitz gainean oinarritutako kontrahormetara bideratzen dituzte uraren presio horizontalak. Honelako presak Pedro Bernardo Villarreal de Berriz ingeniari eta jaun ospetsuak diseinatu, eraiki eta zabaldu zituen. Pedro Bernardo Villarreal de Berriz Arrasaten jaio zen 1669an; eragin handia izan zuen Euskal Herriaren modernizazioan buru-belarri

esku hartu zuen mugimendu intelektualaren sorkuntzan, eta ikaragarriko lana egin zuen, batez ere presa hidraulikoak, burdinolak eta errotak diseinatzen. Hain zuzen ere, 1736. urtean ohar eta jarraibide praktikoak biltzen zituen eskuliburua argitaratu zuen: "Máquinas hidráulicas de molinos y herrerías y gobierno de árboles y montes de Vizcaya" (Errota eta burdinoletako makina hidraulikoak eta Bizkai-ko zuhaitz-mendien gobernu). Mariana Rosa de Bengolearekin ezkondu zen eta harrezkero oso lotuta egon zen Lea eskualdearekin. Hobeak egin zituen Bengoleako etxaldean: dorrea eta burdinola berreraiki zituen, bai eta Magdalenako etxea ere; etxe horrek portua eta ubidea zeuzkan, eta burdin mea gordetze-ko eta lantzeko barrunbeak ere bai.

Presetara etorrita, sistema berria, hots, arku eta kontrahormen konbinazioa, errotaren garaiak (batetik, paramentu leuna kontrahormekin; bestetik, arku bakarra) baino hobea zen hiru arrazoiengatik: horma-bular edo kontrahormen arteko distantzia handiagoa da, presaren gorputza arinagoa da eta kostua txikiagoa da. Aurrerapauso garrantzitsua izan zen Europako ingeniariak hidraulikoan. Villarreal de Berrizek ezarritako diseinurizpideetan hainbat gomendio enpiriko eman zituen zimenduez, gainaldeko lauzatxoak burdinazko grapez atxikitzeaz, arkuaren luzeraren



Bengolea, Gizaburuaga. Argazkia: Kiñuka.




eta presaren garaieraren arteko proportzioaz, estribuen eta dobelen tamainaz, junturak betuneztatzeaz, lehenengo urtegietako presak babesteko zurezko estalkiez, etab. Horiei esker mota honetako presak erraz eta segurtasunarekin taxutu eta eraiki ahal izan ziren, eta eredu azkar asko zabaldu zen Villarreal de Berrizek berak egindako lehen prototipoak abiaburutzat hartuta; izan ere, hain zabaldu zen asko ezen XVIII. mendeko presa-eredurik erabiliena izan zen eta ingeniari-tza hidrauliko modernoa sortu zuen. Esan bezala, eredu berriko presek berrikuntza teknikoak ekarri zituzten, baina horrez gainera bazuten beste ezaugarri bereizgarri bat ere: estetika aldetik ederrak ziren; alegia, proportzio zainduak, harlanduzko paramentuek eta, oro har, eraikuntza-kalitate handiak itxura ederra ematen zieten mota honetako presei.

Euskal Kultura Ondarearen Zentroan Euskal Herriko 996 burdinola-errotak multzo daude erregistratuta; haietatik 54tan bakarrik erabili zen arkudun presa azpiegitura hidraulikoan, horietatik 30 Bizkaian daude eta horietatik 10 Lea ibarrean (Goikoerrotakoari itxuraren arrastoa baino ez zaio geratzen), batzuk Villarreal de Berrizek eraikiak eta beste batzuk haren ereduari jarraituz eginak. Errota bi Villarreal de Berrizek berak diseinatu zituen inolako ezbairik gabe, lehen aipatutako eskuliburuan aipatzen dira eta (baten marrazkia ere badago): Errotabarri eta Errotazar, Gizaburuagan daudenak. Beste zazpi errota daude (Ibeta, Angiz, Bekoerrot eta Amulua Aulestin, Lariz-Oleta Gizaburuagan eta Errotabarri eta Artiñerrotak –desagertuta– Amoroton) eta denak Villarreal de Berrizek egintzat jo ezin badira ere, denak eraiki ziren hark finkatutako ereduari lotuz. Kultura balio handia dute, oso bereziak baitira, bai urritasunagatik, bai askoren eredu izan zirelako.

Horren ildotik, presen eraikuntzan bildutako esperientziak adoretuta Villarreal de Berrizek moila mota bat asmatu zuen eta Lekeition aplikatu zuen, Lazunarri deritzon malekoian: harlanduak erabili beharrean zuzenean harriak botatzea lubetara (“pedras echadizas”). Uste zuen horretara dika egonkorragoa izango zela eta lanak merkeagoak. Lehen malekoa XVIII. mendearen lehen erdian egin zen Isuntzako hondartza eta San Nikolas edo Garraitz uhartearen artean, ibai-ahoa lekuz aldatzeko eta itsasontzientzako sarrera hobetzeko; izan ere, hondar-mugimendu bortitzek sortutako barra oztopo handia zen eta itsasgoran zingotxo txikiko itsasontziak baino ezin ziren sartu itsa-

darrean. Gaur egun ikusten dugun dika egin zenetik igarotako denboraren eta egin diren konponketa-lan guztien ondorioa da; lan horietako batzuk arkitekto eta hargin ospetsuek egin zituzten (Lascurain, Antonio de Goicoechea...) eta beste batzuk ongile ezagunen bultzadaz egin ziren (José Javier de Uribarren). Horregatik guztiagatik balio historiko handia dauka. Villarreal de Berrizek asmatutako moilak, hala ere, ez zuen konpondu ibaiko urak kanpora ateratzen zuen hondarraren arazoa hura bizi izan artean. Aitzitik, gaur egun ezagutzen dugun malekoa beraren odoletan seme Francisco Joaquín jesuitak eraiki zuen 1740. urtean, lehen obraren balio zientifikoari segida emanez.



Elementu horiek guztiek Lea ibaiko industria paisaiaren erakarpina handitzen dute; izan ere, Lea ibarrean Euskal Herriko industrializazioa ulertzeko gako asko daude, eta horregatik bultzatu zen babesa ezartzeko espedienteak. Babesa ezarri aurretik Euskal Kultura Ondarearen Zentroak bazeukan prestatuta Euskadiko Industria Paisaien Inbentarioa; bertan fabrika eta meatze paisaiekin batera ibaietako industria paisaiak zehaztu ziren eta haietako bat zen Lea ibaia eredu eskualdea. Nolanahi ere, aurretik azaldu ditugun balioak direla eta Lea ibaia eredu kultura ondasunaren kalifikazioa (monumentu multzoaren kategoriarekin) jaso duen lehen ibai-paisaia industrialia da. Aurrerago, urte batzuk lehenago, kultura ondarearen babeserako nazioarteko erakundeek ezarritako lan-ildoari jarraituz Añanako Gatz Harana (Araba) eta Arabako Errioxako Mahastiaren eta Ardoaren Paisaia sartu ziren Euskal Kultura Ondarean.

1972ko udazkenean UNESCOk biltzar orokorra izan zuen Parisen, helburua bi joera uztartzeko modua asmatzea zela: kultura monumentuen artapena eta naturaren babesa. Biltzar hartan Kultur eta Natur Ondarea babesteko Hitzarmena onartu zen. Haren bidez ondarearen definizioa goitik behera eraberritu zen eta “kultura paisaia” kontzeptua aurreratu zen, azkenik kategoria moduan finkatu zena 1992ko Kultur eta Natur Ondarea babesteko Hitzarmena aplikatzeko gidalerro praktikoa. Horrela onartu zen kultura paisaiak “gizakiak eta naturak batean sortutako obrak” direla. Horrez gainera kultura paisaiek gizateriaren eta biziguneeen bilakaera historikoa islatzen dute, eta agerian jartzen dituzte nolako muga edota aukera fisikoak ezartzen dituen ingurune naturalek eta nolako eragina izan duten barruko zein kanpoko indar sozialek, ekonomikoek eta kulturek. Geroago Paisaiaren Europako Hitzarmenean (Europako Kontseilua, 2000 eta 2008) ikuspegi bera ezarri zen, honela azaltzen baita zer den paisaia: “lurraldearen edozein zati, biztanleriak hautematen duen moduan, zeinaren izaera natur edota giza faktoreen ekintzaren eta elkarreaginaren emaitza baita”. Horren ildotik, ondarea ere paisaiaren osagaia dela onartzeak berekin dakar natura ondasunaren eta kultura ondasunaren arteko bereizketa gairatzen beharra kulturaren eta naturaren arteko erlazio

egokia ezartzeko eta jardun publikorako esparru berria finkatzeko, hain zuzen ere ondarea lurraldearen antolamenduaren gidalerrotzat hartzen den esparrua.

Lea ibaia eredu dualtasun hori ageri-agerian dago, Batasunaren intereseko habitata eta espezieak egonik, ingurumenaren arloko legeriak ezarritako babesa daukan naturagunea baita: Batasunaren garrantzizko lekua - Lea ibaia ES2130010; kontserbazio bereziko eremua, urriaren 16ko 215/2012 Dekretuaren bidez (eskualde biogeografiko atlantiko hamalau ibai eta estuarioren Kontserbazio Bereziko Eremuak izendatzeko eta kontserbazio-neurriak onartzeko dena). Babestutako eremuotan ingurumen-jardun ona aplikatu behar da, jardueren arteko oreka oinarritzat hartuz: bioaniztasuna kontserbatzea eta paisaia bereziak eta haien funtsean dauden kulturak iraunaraztea, beste jardura sozial eta ekonomiko batzuek gainera.

Petrolioaren erabilera zabaldu eta laborantza intentsiboa nagusitu aurretik gizakiaren eta naturaren arteko harremanak askoz estuagoak ziren eta eragin argiagoa zuten paisaian eta lurraldearen egiturari. Kultura ondarearen eta natura ondarearen arteko loturaren galerak ezagutza oso baliotsua galtzea ekarri du. Beste alde batetik, ekosistemen funtzionamendu onari esker (are erabat eraldatuta egon arren beste oreka batera iritsi ahal izan dutenei ere) gizakiak mendeetan zehar naturaren baliabideak erabili ahal izan ditu, bai ohiko bizimodu gauza jakinetarako (elikagaiak), bai arloko ukiezinagoak diren alderdietan, esaterako hezkuntzan eta zientzian, kidetza sendotzea, higaduraren eta uholdeen kontrola, eta habitaten artapena. Beraz, ezinbestekoa da zerbitzu horiek ondo baloratzeko eta balio horiek kontuan hartzea erabakiak hartzen direnean.

Hain zuzen ere, Lea ibaiko industria paisaia babesteko aintzat hartu ziren faktoreetako bat izan zen ohartzea arrisku argia zegoela ondare hidraulikoa galtzeko Uraren Euskal Agentearen Euskal Autonomia Erkidego barneko arloaren plan hidrológicoaren proiektua gauzatzearren ondorioz, Batasunaren uraren esparruzentzara aplikatu ondoren. Izan ere, plan horretan ezarri zen arraintzako eskailerak edo ubide alternatiboak egin behar zirela, bai eta presa batzuk eraitsi behar zirela eta (osorik zein zati bat). Gaur egun EAEn hainbat sail

eta administrazio ari dira lanean erroten ondarearen babesa eta konexio biotikoak eta ibaien gaitasun hidraulikoaren hobekuntza bateratzeko politikak koordinatzen. Beste mehatxu batzuk ere badaude, eta ez txikiagoak gainera: ondareko elementu asko bertan behera utzita eta geroago eta narriatuago daude, haien gainean landaretza ugaltzen ari da, eta batzuk bizitegi bihurtu dituzte araukin bat ez datozen jarduketan bitartez eta ondorioz modu konponezinean aldatu dira barrunbeak, jarraitasuna eta sistemen edo makinaren ulergarritasuna.

Nolanahi ere, azken urteetan aurrera egin da kontrako bidean, Lea ibaia ingurunea lehengoratzeko eta ezagutarazteko jarduketak egin dira eta. Esaterako, Lea Ibarra Udal Mankomunazgoak Lea Ibilbidea deritzon bidezidorra egin du; bide horrek arloko ondare eta natura elementu guztien konektibitatea, gozamina eta birbalorizazioa aldeztu ditu.

Amaitzeko, Lea ibaiko industria paisaia kultura ondasun (monumentu multzoaren kategoriarekin) kalifikatzeko deklarazioaren oinarrian administrazio autonomikoak arloko bilakaera-prozesuaren emaitzak babesteko eta balioesteko hartu duen konpromiso irmoa dago. Gainera, badugu ustea espedienteak eskualdeko kultura ondarea zaharberitzeko ekimen publikoak eta pribatuak suspertuko dituela, bertako ondare-elementuen balio bereizgarriak zehazteak artapenerako kudeaketa-eredua hautatzen lagunduko du eta. Hain zuzen ere, monumentu multzo honetako kultura ondasun guztiak babespean daudenez gero, Eusko Jaurlaritzan kultura ondarearen arloko eskumena daukan sailak aldi-aldi Euskal Kultura Ondarea defendatzeko eta babesteko ematen dituen laguntzak jaso ditzakete.

Honen ildotik, Lekeition hainbat kultura balio berezi biltzen dira: batetik, estuarioaren paisaia ederra, ingurumen-sentsibilitate handikoa, eta bestetik, historian zehar egin diren industria jardura guztien aztarnak, desagertzeko nolabaiteko arriskuan daudenak. Hori guztia kontuan hartuta, abagune ezin hobea da paisaia hori aintzatezteko eta balioan jartzeko administrazioen eta agenteen arteko lankidetzaren bidez.

*Goretti Fariñas Egaña*  
Euskal Kultura Ondarearen Zentroko arkitektoa






Bengolea  
Ola eta presa



**BENGOLEA** (Okamika auzoa, Gizaburuaga). XIV. mendean bazen hemen ola bat 1650ean berregin zena, errota bat eta burdinola bi eraikiz. Pedro Bernardo Villarreal de Berrizek, 1694an bertako alabarekin ezkondu ondoren, multzo osoa berriz ere berregin zuen. Bengolean elementu guzti hauek batzen ziren: errota (presaren ondoan), burdinola bi, ikaztegia, dorretxea, ermita eta olagizonen etxebizitzak.



Bengoleako industriagunearen berregite historikoa.




Bengolea




Bengolea  
Errotaren mekanismoaren atal bat



Bengolea



"Maquinas hidraulicas de molinos y herrerias y gobierno de los arboles y montes de Vizcaya"  
Pedro Bernardo Villarreal de Berriz  
Errotazar. Lariz aurreko presa eta errotaren planoa





Marierrota  
2011ko berreraikitzearen ondoren

### MAREA ERROTA

Otxineko marea-erota, Isuntza, Mendexa. Itsasgoran, marearen presioak andelako konportak zabaltzen zituen eta andela bera urez betetzen zen. Marea behean, berriz, konportak itxita gelditzen ziren barruko ura errotara bideratzeko moduan eta horretara garia edo artoa ehotzeko moduan.




Marierrota  
Turtuki eta transmisio ardatza (arbol y rodezno)



Marierrota



Lequeitio - Rio Lea.



Marraskia: Jon Zubiatur

# ONTZIOLAK



Mendieta ontziola




Murelaga ontziola



Goiogana ontziola



Eiguren ontziola



Miguel no ha escrito.




Mendieta ontziola Isuntza hondartzan



Arropaingo ontziola



 Bengola dalakuan nago. Atzo egon nintzan bertan eta jauste-ko modura dago. Esanda daukatsuet katuok zazpi bidar zazpi bizi dogu zala, eta zuek gizaseme-alabok bat besterik ez, eta bera laburra. Ba, ura legez atzamarren artian iragazten dan bizi hori galdu nahi ez badozue, hoba dozue hona ez hurrreratu. Frantzia edo Ingalaterran holako jojarik baleukie ez pentsau guk daukagun paraderuan eukiko leukiarik.



"Unos molinos cerca de Lequeitio"  
Pedro Pérez Castro. c. 1852. Akwarela.



Elortza errota, Munitibar.  
Antaparadun errota



Errotazar (lariz aurre), Gizaburuaga  
Antapara bako errota hidraulikoa.

## ERROTAK ETA PRESAK




Kubo errota, Munitibar  
Kubo erako errota.




Errotabarriko presa, Gizaburuaga.  
Arku presa.



Bengoleako presa, Gizaburuaga  
Grabitate presa.



Isuntza zubia (Lekeitio)



Marraskia: Jon Zubiatur



Kaftzada zubia,  
Munitibar-Arbatzegi-Gerrikaitz




Bengolea zubia  
Gizaburuaga



Leagi zubia  
Mundutik-zubirik luzeena

# ZUBIAK



"Puente de Lekeitio"  
Anselmo Guinea, c.1887-88. Oleoa.




"Puente de Ysurza en Lekeitio" Pedro Pérez Castro, 1852.  
Akuarela eta plumila.  
Corunako Arte Ederretako Museoa

## LEA IBARREKO ONDARE-TIPOLOGIAK

### BURDINDIAK

Bengolea (Okamika auzoa, Gizaburuaga).  
XIV. mendean burdinola bat zegoen hemen, Bengolatarrena.  
1650 berregin zuten multzoa: errota bat eta burdinola bi.  
1694 Maria Rosa Bengolea, Pedro Bernardo Villarreal de Berrizekin ezkondu zen.  
Villarrealtarrak berriro berregin zuen multzo osoa, eta baita modernizatu.  
Infrastruktura: errota (presaren ondoren), burdinola bi, ikaztegia, dorretxea, ermita eta olagizonen etxebizitzak.





### ERROTAK Errota hidraulikoak

**Antapara bakoak**, Errotazar (Lariz aurre), Gizaburuaga.  
Presak ura desbideratzen du zuzenean errotara; errota presaren alboan dago.

**Antaparadunak**, Elortza (Munitibar).  
Presak ura desbideratzen du ubide batera; errota, presatik metro batzuetara dago.

**Kubo-errotak**, Kubo, Munitibar (ezohikoak Euskal Herrian).  
Antapararen ordez, ur-andela bertikala dute, gaztelaraz "kubo" deritzona.  
Euskal Autonomia Erkidegoan beste bat baino ez dago, lastur (Deba).

**Marea-errotak**, Marierrota (Mendexa).  
Itsasgora aprobetxatuz ur-andela betetzen da. Marearen ur-indarrak irekitzen ditu andelako konportak eta barruko uraren presioak zarratzen ditu. Mareak beheara egiten duenean, itsasbehera aprobetxatzen da ehotzeko.




## PRESAK

**Grabitate-presak zuzenak** Bengolea (Okamika auzoa, Gizaburuaga) Pedro Bernardo Villarreal de Berrizek egindakoa.  
Presak egiteko erarik zaharrena.  
Batzuetan kontra-hormak dituzte, korrontearek eusteko.  
Batzuk oso xumeak dira, besteak porte handikoak.

**Arku-presak**  
Aurreratuagoak, teknologia aldetik beren asmakuntza benetako iraultza izan zen.

Erresistentzia hobetzen dute.  
Eraikitzeke merkeagoak dira (material gutxiago behar dute).  
Mantentzeke ere errazagoak dira.  
Ingenieria hidrauliko modernoak sortzen da presak mota horrekin.  
Lea ibaian eraiki zituzten lehenengo aldiz Europa osoan.  
**Pedro Bernardo Villarreal de Berrizek** asmatu zituen.

Euskal Autonomia Erkidegoan 996 presak daude.  
54 baino ez dira arku-presak. Horietako 10 lea ibaian daude.  
Pedro Bernardo Villarreal de Berrizek 8 egin zituenaren susmoa dagoen arren bi baino ez daude dokumentatuta. Ibeta, Amulua, Angiz, Bekoerrota, Errotabarri (Amoroto), Artinerrota, Errotabarri (Gizaburuaga), Lariz-aurre.



## BESTE TIPLOGIA BATZUK

**Zubiak:** Kartzada zubia (Munitibar), Isuntza (Lekeitio)...  
**Dntziolak:** Mendieta (Lekeitio - Mendexa), Murelaga (Lekeitio)...  
**Moiak:** Lazunarri (islako moia) Lekeitio...

Datuak: Amaia Apraiz



# Musikoak

Testua: Sabin Salaberri

Itzulpena: Hori-Hori



R. M. Azkue Salamancako seminarioko abesbatza zuzentzen. 1887. Euskaltzaindia, Azkue Biblioteka. NAS-94951.

## Musikariak Lekeitioko Andre Mariaren Jasokundearen basilikan XIX. mendearen bigarren erdialdean

Historiako gertakarien joan-etorrian, batzuetan, ohiko bilakaera goitik behera astintzen duten loraldi miragarriak jasotzen dira. Musikaren munduan ere halakoak gertatzen dira: egunerokoa arruntean igarotzen da, harik eta, bat-batean, ohiko ibilbidea arteztu eta molde guztiz berriak jorratzen dituen bideurratzailearen bat agertzen den arte, kasurako, Beethoven.

Lekeitioko Andre Mariaren Jasokundearen basilikako korua aldi aparteko eta gogoangarri horietako baten lekuko izan zen XIX. mendearen bigarren erdialdean. Tenpluaren ganga gotikoen azpian eta bertako organo bikainaren inguruan, musikari garrantzitsuen sorta ederra batu zen oso denbora laburrean.

Hasteko, esan dezagun Andre Mariaren Jasokundearen basilikako koruan badagoela Parisko Cavaille-Coll etxeak iberiar penintsulan egindako lehen organoa. Lekeitioko José Javier Uribarren bankariaren oparia izan zen. Uribarrenek dirutza handia zeukan Bordelen eta Parisen.

Une hartan, Juan José Etxeberria zen basilikako organo-jotzaile titularra; Etxeberriak 23 urte emanda zituen organoa jotzen eta 30 urte baino gehiago beste musika-tresna batzuk jotzen; beraz, nahikoa zaharra zen. Uribarrenek izen handiko organo-jotzailea nahi zuen organo berria jo-

tzeko, eta horregatik, organo-jotzaile hori Lefébure-Wély-ren dizipulu Juan Maria Blas de Altuna izatea proposatu zien Lekeitioko agintariari. Artean, Altuna Lekeitioko josulagunen San Jose elizako organo-jotzailea zen. Merklin Schütze & Cie organo txikia zegoen orduan elizan, eta gaur egun basilikan gordeta dago.

Cavaille-Coll organoa basilikan instalatzeko lanak 1864ko irailetik abendura gauzatu ziren. Ordurako, Lekeitioko Udalak Altuna izendatu zuen organo-jotzaile titular, baina Juan José Etxeberriak parrokiako organo-jotzaile izaten segitu zuen. Gainera, organo-jotzaile bien arteko elkar aditzea errazteko, oinarri batzuk finkatu eta bakoitzaren eginkizunak zehaztu ziren.

1863ko irailaren 12an, Etxeberriak ezetza eman zion organo-jotzailearen plazari eta plaza lehiaketara atera zuten. Altunak eskuratu zuen, baina urte gutxi batzuk geroago hil zen, hain zuzen ere, 1868ko ekainaren 12an, 40 urte zituela. Resurrección María de Azkuek Blas de Altuna maisuaren hiletaz idatzi zuen. Azkueren hitzetan, musikarien bandak jotako hileta-martxaren egilea hildakoa bera zen.

José Javier Uribarrenek jaioterrian eman ohi zituen udaldiak, eta 1857. urtean, Lekeitiara bizitzera etorri zen, basilikatik hurbil eraiki zuen jau-

regi batera. Uribarren Parisen hil zen, 1861eko apirilaren 4an. Lekeitioko Udalak harrera egin zien ongilearen gorputzkiei hiribilduko sarreran. Bi urte geroago, Lekeitioko herritarren esker ona adierazteko, haren izena jarri zioten 1831. urtean udako egoitza hartu zueneko plazako kaleari.

### Juan María Blas de Altuna y Maskarua Durango, 1828 - Lekeitio, 1868.

Lehen musika-ikasketak Durangon egin zituen, Higinio Herrera organo-jotzailearen eskutik. Umearen gaitasunaz ohartuta, musika-irakasleak gurasoei iradoki zien Arrasatera eraman zezatela, San Frantzisko elizako organo-jotzailea zen Aita Larramendirekin ikastera.

Arrasaten, Altuna gogoz aritu zen organoarekin eta, gainera, konposatzen hasi zen. Durangora itzuli zen, organoa jo zuen jaioterriko parrokiari eta abesbatza sortu zuen bertan.

1849an, Madrilera joan zen Hilarión Eslava irakaslearekin ikastera. Azkenak Parisen ikasteko iradoki zion eta han gehiago ikasi zuen Prudent Herrensneider irakasle eta Lefébure-Wély organo-jotzaile entzutetsuaren eskutik.

Frantziako hiriburuan, musika-inguru bikainetan ibili zen eta ospe handiko piano-jotzaile eta konposatzaile bilakatu zen. Giro berezi horietan, Javier Uribarren ezagutu zuen. Uribarren euskal jatorriko bankari aberatsa zen eta, arestian esan dugun moduan, Cavaille-Coll organo eder baten finantzaketa izapide-tzen ari zen Lekeitioko parrokiara eramateko. Euskal Herrira eta Espainiara heldu zen etxe horretako lehen organoa.

Uribarrenek Altunari eskaini zion itsasaldeko hiribildu horretako organo-jotzailearen plaza. Altunak pozarren onartu zuen eskaintza; leku lasai batean bizitzeko grinaz zegoen, konposatze-lanei zalaparta handi barik ekiteko.

Lekeition, abesbatza sortu zuen eta erlijiozko musika ugari konposatu zuen: *Letrillas a la Virgen*, *Letaniak*, *Moteteak*... Gainera, musika irakasteko sistema sortu zuen.

Sarritan joaten zen Madrilera. Halako bidaia batean, akonpainamendua egin zion Iparragirre San Luis kafetegian *Gernikako Arbola* lehenengoz jotzen. Gogo handiz eztabaidatzen da Altunak partitura kopia eta koblakariari akonpainamendua egin zion ala, bestela, Iparragirrek testua egin eta Altunak musika konposatu ote zuen.

Cavaille Colle organoa Lekeitioko Sta Maria elizan.



Habiéndose dedicado con especialidad en París al estudio del órgano, D. Javier Uribaren, le indicó pasara a Lekeitio, provincia de Vizcaya, a fin de encargarse de un bonito y elegante orquestrium, que poseía en dicha villa este banquero español, invitación galante que aceptó nuestro artista, deseando ya retirarse a la vida privada.

La remuneración por tocar dicho instrumento, mientras se celebraba una misa rezada, se fijó por el mismo Sr. Uribaren.

Sin embargo, a pesar de retirarse Altuna a Lekeitio a descansar de sus tareas artísticas, no le permitió su actividad y el deseo de hacer bien a sus semejantes tiempo ni vagar; de modo, que formó al poco tiempo un coro bastante numeroso, el que bajo su dirección, y apenas iniciado en los secretos del arte, ejecutaba con perfección piezas de música de diversos caracteres y escuelas, y con frecuencia muy complicadas.

Sin miedo de ser desmentidos, podemos afirmar, que la música vocal de conjunto no ha sido interpretada con tanta precisión y esmero, como por el coro de jóvenes ensayados y dirigidos por Altuna.

El efecto que producía era asombroso y admirable, no solo para aficionados que apenas sabían los primeros rudimentos del arte, sino hasta para consumados artistas, mérito que nadie extrañaría al pensar, que lo que más caracterizaba a Altuna en su enseñanza, era un gran espíritu de observación, una perseverancia y una manera de hacerse comprender rara hasta por las inteligencias más limitadas. A mayor abundamiento, siempre procuraba tener a los niños en ejercicios continuos, estimulándoles, y hasta exagerando, si así puede decirse, la expresión para hacerse más comprensible.

En la parroquia principal de Lekeitio tocaba el grande órgano en las fiestas de precepto, y hacía oír piezas de música religiosa perfectamente concebidas, que llevan el sello de la inspiración más profunda, de una belleza real, y de la magnificencia más propia para elevar el espíritu de todo un pueblo al recogimiento y a la piedad.

¡Qué dulces emociones hacía experimentar el maestro Altuna en ciertas solemnidades, cuando trataba de mil maneras diversas, y hacía oír bajo las vastas arcadas del templo católico los cantos y las melodías sencillas de la iglesia!

Y no podía suceder otra cosa, con un docto músico, improvisador habil, que conocía profundamente todos los recursos de las combinaciones armónicas, los contrapuntos dobles, triples, cuádruples del estilo fugado, y el uso de los diferentes registros de su instrumento favorito, y que poseía, además, un gusto exquisito y una corrección de escuela notable, siendo una verdadera especialidad en el órgano moderno, y un artista sin rival en el armonium u órgano expresivo.

Pero tanta perfección y ciencia tanta no pudo resistir a los terribles embates de una afección pulmonar, enfermedad terrible que no perdonó jamás, y el 17 de junio fue arrebatado de los brazos de sus amigos a los 40 años de edad, en toda la plenitud de la vida, en la villa de Lekeitio.

Muchas son las obras que ha dejado el maestro Altuna, todas bellísimas, entre las cuales se hallan diversas composiciones de salón; otras de música religiosa a órgano y orquesta, y principalmente, una gran colección selecta de cantos populares del país vasco, y las que pensamos coleccionar en breve, pues por falta de vista, hacia las escribir a sus amigos y discípulos, y en la actualidad se hallan esparcidas por las provincias.

Entre sus más notables discípulos se cuentan el concertista de piano D. Pedro Bengoechea, el Sr. Orvieta y el malogrado José Antonio Lucusagarrri, hijo de Lekeitio, verdadero reflejo del talento d

El Artista, 14-7-1868 (Madrid).

## Vicente Goikoetxea Errasti Aramaio, 1854 – Valladolid, 1916

Aramaion hasi zen musika ikasten, Benigno Aristegi organo-jotzailearen eskutik. Gero, Gasteizera joan zen Batxilergoa ikastera, eta musika ikasten jarraitu zuen hiriburuan José M<sup>a</sup> Abad irakaslearekin, hau da, San Migel eta San Bizente elizetako organo-jotzailearekin. Mateo Moraza legelari itzaltsuak estimu handia izan zion Goikoetxea gazteari, eta ikaslearen musika-trebetasuna ikusita, bere pianoan ikasten utzi zion, eta azkenean, oparitu ere egin zion.


Goikoetxeak Legeak ikasi zituen Oñatin, eta gero Lekeitiora joan zen Manuel Valdés –Julio eta Alejandroren aita– koinatuari laguntzera, Ibáñez de Aldekoa senar-emazteen Olalde lantegiko administratziolanak kudeatzen. Handik gutxira, Joaquín Velasco Barinagarrementeria organo-jotzailearekin, hots, Blas de Altunaren ondorengoarekin, harremanetan jarri zen eta laguntzeko eskaintza egin zion. Hala, koruan kantatu zuen eta, batzuetan, zuzendu ere egin zuen. Gainera, lehen saiakera egin zuen konposizioaren alorrean.

Andre Mariaren Jasokundearen basilikako koruan, Goikoetxeak Resurrección M<sup>a</sup> de Azkue ezagutu zuen. Bien arteko adina gorabehera, lagun minak izan ziren biak ala biak bizirik egon ziren artean. Azkue-aren esanetan, bera abadegaia zela, paseoan irteten zen egunero-egunero Goikoetxearekin udako oporraldiko arratsaldeetan eta hizketaldi mamitsuak izaten zituzten.

1888an, 36 urte zituela, Valladolideko apaiztegia sartu zen eta, bi urte geroago Metropoliko Katedralaren kapera-maisuaren lanpostua lortzeko lehiaketa irabazi zuen. Hurrengo urtean, lehen meza eman zuen Lekeition, eta meza horretan –ezin bestela izan–, beraren lagun handiak, Resurrección Mariak, predikatu zuen. Hala ere, beste bi urte eman zituen abade-ikasketak amaitzeko.

Valladolideko katedralean zeukan katedratik, Goikoetxeak ahaleginak eta bi egin zituen kantu sakratuak berrezartzeko. Aita Nemesio Otañok honela deskribatu zuen Goikoetxea: “Mundu guztia jakitun da Valladolideko katedralaren musika-kapera zuzentzen duen maisuak, atrilaren atzean ostentzeko ahalegin bizia egiten duen arren, ezin izan duela saihestu Espainia osoak bere balio eta gaitasuna aintzat har ditzan... meritu oneko maisu horrek argitaratu dituen musika-lanak... nik neuk egiaztatu dut, lan horiei buruz jardutean, herrialde guztietako nazioarteko aldizkariak mirespen handiz hartu dituztela, eta harriurazko erabatekotasunez, musika sakratuaren Espainiako eskola gazte eta aintzagarriaren nagusi izendatu dute. Gazteok gure nagusi eta gure maisutzat daukagu. Bera dugu nagusi espirituala artearen arloan: hauteskunde batek ere ez du horrela izendatu; egunkari batek ere ez du horrela aldarrikatu. Guk geuk, geure baitan, buru jarri eta maisutzat hartu dugu haren lanak ikusi ditugunean. Eta zorionekoak izan garenok, hots, bere ezpain zuhurretatik irakaspen bikainak entzun ditugunok –eta zuhur diot, ez karitate faltagatik, ezpada, neurritz gaindik apaltasunagatik–, ondo dakigu bera ez besterik izan dai-tekeela Espainiako eskola gaztearen nagusi eztabaiaezina”.

“Haren nortasuna bezalakorik ez dut aurkitu Alemaniako edo Italiako zeziliar eskoletan, ez Parisko ‘Schola’ delako ikaspenetan, ezta erlijiozko musikaren biziberritze modernoari gutxi-asko lotutako gainerako eskoletan ere. Gure maisuaren berezko moldea, artearen



Vicente Goikoetxearen gutuna. 1899- 3-6. Euskaltzaindia, Azkue Biblioteka.

nahiz bizimoduaren ikuspegitik, hauxe da: zuhurtasuna, kristauen neurritasuna; barrenez barrenean handia, maitasunez eta bere arteko bizitzaz beterikoa, ‘iruditzeaz’ baino, ‘izateaz’ arduratua. Bar-ka diezadala gure maisuak, une batez esan txarreko dizipulua izanik, beraren gainean hitz egitegatik, nahiz eta egindakoaren ordainean errieta zakarra hartu”.

Goikoetxeak lan ugari idatzi zituen eta bere lan-moldeak kontrapuntu klasikoaren zorrotzasuna eta sen harmoniko guztiz euskalduna ezin hobeto uztartzen ditu. Goikoetxearen lanetatik, ondokoak aipatuko ditugu: *Nona de Ascensión*, *Misa en honor de la Inmaculada Concepción*, *Miserere mei Deus*, *Christus factus est*, *Te Deum laudamus*; eta motete asko, besteak beste, hainbat *Tantum ergo*, *Ave María* eder bat eta lbabeko Andre Mariari (Aramaio) eskainitako *Salve Regina* bat.

## Resurrección M<sup>a</sup> de Azkue (Lekeitio, 1864 - Bilbao, 1951)

Azkuearen etxeko giroa musikaz blai egon zen: aitak txirula jo eta kantatzen zuen, baita Alfontso anaia zaharrak ere. Azkue anaiek solfeoa eta pianoa ikasi zuten Juan María Blas de Altunarekin.

Batxilergoa ikasi zuen Bilbon, eta ikasketa horiek amaitutakoan, 1881eko irailean, Gasteizko apaiztegia joan zen, eta han ere musika ikasi zuen. 1885etik 1888ra, Salamancako apaiztegia ikasten jarraitu zuen eta, bertan, elizako ikasketak egiteaz gain, musika-gaietan ere aritu zen: bigarren organo-jotzailea eta koruaren zuzendaria izan zen; lan batzuk ere konposatu zituen.

1897. urtean, sei zarzuela idatzi zituen: *Colonia Inglesa*, *Pasa de Chim-bos*, *Vizkaytik Bizkaira*, *Eguzkia nora*, *Aitaren bildur* eta *Sasi-eskola*. Azkuek berak esandakoa aintzat hartuta, “zarzuela horiek harmonia ikasi barik eta haien lagunen bizkar konposatu ziren, musika-konposizioan trebatzen behartu baitzuten”.

Geroago, sakonago ikasi zuen José Sainz Basaberekin, hau da, Bilboko Kontserbatorioaren zuzendariarekin. Mendearen hasieran, musika-eskolak jaso zituen Parisko *Schola Cantorum* delakoan, eta orduan ezagutu zituen José María Usandizaga eta Jesús Guridi. Gainera, azkenaren ardura hartu zuen Parisen egon bitartean, Guridiren gurasoen eskariz.

Hiztegia argitaratu ostean, Bruselara joan zen eta Errege Kontserbatorioan matrikulatu zen 1906-1907 ikasturtean. Baina Kolonia zuen helmuga, eta hiri horretara heldu zen 1907an, harmonia eta kontrapuntua ikastera. Aurreko musika-ikasketen inguruko egiaztagiririk ez zeukanez, Kontserbatorioan sartu ahal izateko, haren konposizio-lanen bat erakusteko eskatu zioten. La cuna vacía eta *Colección de melodías populares armonizadas* izeneko lanak aurkeztu zituen. Steinbach zuzendaria, konposizio- eta zuzendaritza-irakaslea, harri eta zur geratu zen eta, hizkuntzaz ohitu eta letra haiek itzuli bezain pronto, jendaurreko kontzertu batean aurkeztuko zituztela agindu zion Azkueri. Azkuek pozaren pozez hartu zuen agindua, Kontserbatorio hartan eskaintzen ziren kontzertuetan izen handiak baino ez baitziren agertzen: Beethoven, Mozart, Saint-Saëns...

Kolonian, irakaslearen eskariz, ondoko lanak konposatu zituen: *Sonata para piano*, *Ave María* bat bakarkako ahotsentzat, Palestrinaren eran, eta *Benedictinus* bat 6 ahotsentzat. Era berean, *O Jesu*, *Dir in trene* bat konposatu zuen, *Daniel* izeneko oratorio bat bakarlarari, koru eta orkestrarentzat (lan horrek lehen sari jaso zuen Koloniako Lore Jokoak zirela eta antolatutako lehiaketan) eta *Ritter* izeneko balada bat, tenor eta pianoarentzat. 1909an, berriz, *Lamindano* sinfonia konposatu zuen. Azkuek berak, geroago, poema sinfonikotzat hartu zuen, European sasoi hartan egiten ziren musika-piezekin bat etorrita.

Musika-arloan, Azkue ezaguna dugu, batik bat, *Herri kantutegia* edo *Cancionero Popular Vasco* lanagatik. Lan horri esker, Gipuzkoako, Bizkaiko, Arabako eta Nafarroako foru aldundiek euskal kantak biltzeko helburuz deitutako lehiaketaren lehen saria irabazi zuen Azkuek 1915. urtean.

Azkuek euskal antzerki lirikoaren berreskurapen eta sustapena aldeztu zituen beti. Hala, antzerki lirikoan erabiltzeko *Ortzuri* eta *Urlo* operak idatzi zituen. Bi lan horietan, European ikasitako musika-moldeak eta teknikak eguneratu zituen, eta folkloreako gaien indarberritzearekin



Vizcay'tik Bizkai'ra zarzuelaren zuzendaria eta antzezleak, 1898. Euskaltzaindia, Azkue Biblioteka. NAS-96447. Eserita, bigarrena, Sabino Arana Goiri; alboan Resurreccion Maria Azkue.

uztatu zituen bere musika-konposizioen oinarrietan. *Ortzuri* operari gagozkiola, lehen atala baino ez zen estreinatu Bilbon, Itsasora izenburua zuela. Entzuleek txaloka hartu zuten emanaldia, baina iritzi kontrajarriak azaldu ziren: batzuei ez zitzaion batere gustatu opera-molde hori, astunegia zelakoan kantu-errezitatuaren terrenteriatatik; Beste batzuek, ordea, kemen handiz goratu zuten, Wagnerren eskolaren zorioneko emaitza zela aldarrikatuta. Bigarren operak, *Urlo*, kritika gogor-rrak jaso zituen estreinaldian, germanikoegia zela iritzita.

Kide aritu ohi zen orfeoi-lehiaketen epaimahaietan, eta txapelketa nahiz sariketa askotan parte hartzen zuen, eta horietan guztietan laguntzen zuen folklorista legez. Bestetik, hainbat biografia idatzi zituen Labor argitaletxearentzat, 1941eko *Diccionario de Música* lanean argitaratzeko. Musika tradizionalari buruzko lanak ere aipagarriak dira: *La Música Popular Baskongada*, *La Música Popular Vasca*, *La Tradición en nuestra música popular religiosa* eta *La Música Baska*, “Los Baskos en la Nación Argentina” izeneko lanean txertatuta.

Charles Bordesek, Parisko *Schola Cantorum* delakoaren sortzaileetako batek, 1897ko ekainaren 7an idatzitako gutun bat gordeta dago Bilboko Azkue liburutegian. Gutun horretan, Bordesek estimu handia agertu zion Resurrección M<sup>a</sup> de Azkueri: “Plazer handia hartu dut zure konposizioak irakurrita eta zorionak eman nahi dizkizut lan horientatik. Ez dizut esango guztiz perfektuak iruditu zaizkidalara; baina ez duzu nire zintotasuna txarrean hartuko, ezta? Izan ere, lan horiek musika-sen ezti-eztia erakusten dute eta etorkizun oparoa iragartzen dute. Itxura guztien arabera, gogor lan egin beharko duzu, baina gogorregia litzateke lan hori ez egitea”.





## EL NERVION A LEQUEITIO

En el vapor remolcador «Algorta», que ha salido esta mañana de nuestro puerto con destino al de Lequeitio, han ido la mayor parte de los jóvenes que compondrán la orquesta, así como los actores que han de tomar parte en la función de esta noche y la de mañana, que se verificará en el teatro de Lequeitio.

En ambos días, se representará la zarzuela vascongada titulada «Bizcaytik Bizkaira», escrita en idioma euskara, cuyo autor es el presbítero don Resurrección María de Azcue, la cual se estrenó en el patronato de los obreros de la calle de Iturrubido, en el mes último de Diciembre.

Su autor, según hemos oído, ha introducido en la obra ciertas reformas necesarias, completándola de esta manera las deficiencias que encontró el día del estreno.

Los mismos elementos que en esta villa tomaron parte en la función, se han prestado gustosos y en obsequio al autor de la obra, á ir á Lequeitio, así que auguramos desde luego que la interpretación de la misma alcanzará los mismos linsojeros resultados que los aquí obtenidos.

El bonito teatro de Lequeitio, situado en el interior de una fonda, es capaz para unas doscientas ó trescientas personas y según nuestra noticias, tal es el entusiasmo que reina en aquella villa, que apenas quedan billetes disponibles para atender á los compromisos de las personas que desean acudir á presenciar esta función.

A instancias reiteradas de sus amigos, el maestro señor Valle se ha encargado de la dirección de la orquesta; para lo cual saldrá de esta villa en el tren de la tarde.

Varios entusiastas vascongados de esta villa se han trasladado á Lequeitio, con objeto de asistir á estas representaciones.



Zabalekua hotela XX. mende hasieran.



"Bizcaytik Bizkaira" zarzuela, Resurrección M<sup>a</sup> Azkue. 1894an egin, 1895ean estreinatua zen.



### CARTA DE LEQUEITIO.

24 de mayo, 1887.

Sr. Director de EL NOTICIERO BILBAINO.  
Lenengo bi barkuen kapitanak, kapitan zaarrenak, Paskual eta Arrinda izan ziran. Baiña, bi kapitan auen pillotu guztiak, lenengo kanpaiñakoak alegia, amar urte baiño leen, barku baten kapitan ziran.

Agirre zan (Begoña'ko semea bera) Arrinda'ren lenengo pillotua. Irugarren urterako bera ere kapitan.

Zortzi lendabiziko PYSBE'ren kapitanak, zortzirik bi lenengoko barkuetan alkarrekin ibilliak.

Alkarren malezi guztiak zekitenak:

— Agirre, (Arrinda Eustakio'k radioz) zenbat asi zerate arrapatzen... ?

—Lau sare-botaldietan amalau saski bakaillau.

—Entzun dok (Arrinda'k bere pillotu lekeitiar Luis Goikoetxea «Oyes»e-



Arrinda kapitaina.

ri). Gezurretan ari dok. Amalau saski...? Amalau otar...? Amalau otzara...? Amalau tonelada bai seguruago.

Alkarri gezurretan amorratzen. —Bai, txo; etorri onera. Emen bakaillaua area baiño ugariago... ondarra baiño geiago...


—Ez ari joan, iñundik ere... Gezurreta dok eta...

## KAPITAN

### ZAARRAREN AZKENA

PYSBE'ko Alfonso X III, Euskal-erria, Galerna, Tramonta- eta Abrego izan ziran kapitanaren barkuak. 1943'tik aurrera 1957'arte Abrego'ko kapitana izan zan. Eta Abrego'k orduan egin- dako arrantza-marka ez du iñork menperatu...

70 urte zituen kapitanak, Kanada'ko hospital batera eraman zutenean. Pulmonia arrapatu zuan itxasoan...Andik bizirik etorri zan etxera; baiña, ez zan geiago Terranoba'ra kresalari begira...aurrera, gogoia itxasoan eta oiñak Deba'n abiatu. Andik 1967'an, Maiatzak 4, eman zuan bere azken arnasa kapitan zaarrak. Berrogeita amar urte itxasoan eta oietatik ogeta amar Terranoba'rako bideak egiten. Gutxienez 54 aldiz Terranoba'rako joan-etorria egiñ ondoren, legorreen, Euskalerrian arkitu zuan bere azkena. Ona emen bere eriotz-orogarria:



"Kapitana, pratikorik nai?" Nolan ez ba? Pratikorik gabe portura sartzen zailli!"  
Etxeko zurubil lizean kandela argiak eskuetan. Tiliñ otsa kalean. Kapitan zarra, Jaunaren zai mairdere zuri artean Aspaldiko lagun zarrak Pratikoa ta Kapitana "Torizu nere timoial Aizkeneko singladura zure eskuetan, Jauna! Zenbat bidar egindako lana! Beñ bat geiago erexa da. Goazen, Jauna, Portura!"

Itxasotik Zerural Illunetik argiral Burukatik Pakera, Betiko Zorioneral "Zeñen dan ituna bera bear aul" Ez da ez eguna biurtuko gaul.

Deva'n, Maiatzak 4-1967

Arrinda kapitainaren oroitgarria, 1967.




"La Voz de Guipuzcoa" 1927-8-25.





# Errezetak



50

P Y S B E

## Bacalao a la Vizcaína (3)

Bacalao PYSBE. Una cebolla,  
manteca de cerdo. seis pimientos choriceros.

### Procedimiento:

Desalado y cocido el bacalao PYSBE, se pone para la salsa mitad de aceite y mitad de manteca de cerdo, con bastante cebolla picada, y se fríe con cuidado. Cuando la cebolla está dorada, se echa una corteza de pan tostado y un poco de caldo; se tienen cocidos de antemano unos seis pimientos choriceros, habiéndoseles antes quitado las venas y el polvo. Su carne rallada se unirá a la cebolla frita, echando una cucharada de harina y pasando todo ello bien exprimido por un colador, de manera que quede una salsa bastante espesa; se introduce en ella el bacalao, sin espinas gruesas, y se hace que hierva ligeramente. Luego se sirve.



BACALAO EN SALSA

41

## Bacalao al Pil-pil

Bacalao PYSBE, un kg. (2 cajitas de filetes),  
seis jícaras de aceite,  
seis dientes de ajo.

### Preparación:

Se cuece el bacalao PYSBE. Aparte, en una cazuela de barro, se ponen tres jícaras de aceite y tres dientes de ajo; en una sartén se ponen las otras tres jícaras de aceite y los otros tres dientes de ajo. Se deja que se fríen los ajos, cuando están fritos se sacan. Se ponen los trozos de bacalao en la cazuela y se les echa encima una taza de caldo donde cocló el bacalao PYSBE, haciendo que todo hierva a fuego lento. Se mueve la cazuela hasta que engorde la salsa procurando que no se agarre, advirtiéndole que el aceite que está en la sartén hay que ir añadiéndolo muy poco a poco y que la salsa ha de ser gruesa como una mahonesa y bien unida al aceite. El cocimiento de la salsa dura unos 15 minutos.



"Pysbek" argitaratutako errezeta liburua "Pysbe, recetas de bacalao", 1936.



# Txikiak handi, handiak txiki

Egilea: Aitor Iturbe

Sarritan gertatzen zait zer baiten bila joan eta esku hutsik bueltatzea, asto joan eta mando etortzea. Eta halako zorian egon nintzen Eustakio Arrindari buruzko ikerketa zela-eta familia bat bisitatzera joan nintzenean istorio baten bila eta beste batekin bueltatu nintzenean etxera, bi baten prezioan. Kontatu zidatena Hollywooden baino ez da gertatzen, baina pelikula horietan protagonista ez da Lekeitiarra izaten, eta urakana, olatuak eta itsasontzia ez dira benetakoak izaten, kartoizkoak baizik.

Ez dut *sumariñorik* aipatuko —*airplanoekin* nahiko dugu momentuz ez eta Nemo kapitainik. Hogei mila legoako bidaia itsaspetik ez, baina itsasgoitik hori eta gehiago eginak zituen belauntzi baten istorioa kontatuko dizuet eta han soldadutza egiten zegoen bigarren marinel batena.

Familiaz aldatu beharrik ere ez dut izan Arrindatarrak eta Txakartegitarrek senidetuta zeudelako. "Itsasoa zermatela zainetan" eta halakoak idaztea ez da originala izango, baina oraingoan apropos da; hiru odoleko lehengusu eta hirurak kapitainak ziren, Manuel Arrinda Badiola (1883an jaioa), Eufemio Txakartegi Arrinda (1884 j.) eta Eustakio Arrinda Aranburu bera (1885 j.).

Hala ere, beste lehengusu bat dugu protagonista gaurkoan, Txakartegi Arrinda gaztea. Cruz Txakartegi XX. mendearekin batera jaio zen 1901ean eta gazte-gaztetatik itsasontzietan ibili zen. 1921ean Nautilus itsasontzian (buque-escuela) soldadutza egiten zebilela ezagutu zuen zikloi edo hurakan ikaragarria sekula ez zuen ahaztuko.

Nautilus

## Nautilusen historia

1866an egin zuten Carrick Castle ontzia (clipper) Glasgow-en: 1.500 tona, 59 m. eslora, 3 masta, 34 bela. 1886an Espainiako Armadak erosi zuen eta ontzi-eskola modura egokitu zuen, aurrerantzean Nautilus (korbeta) izango zena. Hainbat bidaia egin zituen 1922an erretiratu zuten arte (Galatea eta geroago Juan Sebastian Elcano ontzi-eskolak ordezkatu zuten). Agian ezagunena 1892-94ko zirkumnabigazioa (munduari buelta) Fernando Villaamil kapitainaren agintean. Bere azkenengo kapitaina Manuel Mendivil y Elio izan zen; donostiar honi egokitu zitzaion zikloia. Lau laureada (Real y Militar Orden de San Fernando, ejerzitoan lor dezakeen medailarik gorena) lortu zuen ontzi bakarra izan zen, hiru 1913an 470 gizonen osatutako ontzia Finisterren ia hondoratu zenean eta bestea 1921ean, Karibean zikloiak harrapatu zituenean.

1921eko zikloia Nautiluseko Manuel de Mendivil y Elio kapitainak kontatuta.

# La vida a bordo de la corbeta Nautilus

M. Pastor y Fernández de Checa

Navegaba nuestro buque-escuela desde Fort de France (Martinica) hacia Santander, en julio de 1921. Estaba entonces la corbeta dedicada a la instrucción de aprendices marineros y la mandaba don Manuel de Mendivil y Elio, ilustre jefe que, a sus cualidades de marino intrépido y decidido, unía las de notable escritor.

El parte de campaña correspondiente a esta navegación puede considerarse como un modelo, dentro del obligado laconismo de los documentos militares, para los que deben rendirse en situaciones críticas. A continuación reproducimos la parte que consideramos más interesante:

*La anochecida del 26 (julio 1921) fué sucia; momentos después se estableció una brisa del SE que fué refrescando; con ella pude gobernar y ponerme a rumbo, pero el cariz me disgustaba, la salida de la luna fué alarmante, y aunque el viento no era sino bonancible, mi escama iba en aumento, como lo demostré quedándome en aparejo de gavias, metiendo por consiguiente, las velas altas.*

1967]

617



No llegué, sin embargo, a sospechar todo el horror de lo que me aguardaba; a las 14 horas, el barómetro tuvo un brusco descenso de 3 m/m, el viento refrescó, y la presión continuó descendiendo a razón de 1.2 m/m por hora. El ciclón más espantoso que yo he presenciado se me vino encima con una violencia aterradora; a las 16,30 metí las gavias, a las 17 metí las mayores y a las 18 (el barómetro había bajado ya 8 m/m largos desde las 14), mandé envergar la trinquetilla: el viento era de tal violencia, que la lluvia lastimaba el rostro y la gente se mantenía con dificultad en el castillo, donde las rachas lo barrian todo; por lo mismo fué asombroso que el Cabo de mar Jesús Vicente Castro pudiera cumplimentar mi orden como lo hizo, dando un alto ejemplo de disciplina y pruebas de un valor escalofriante, porque en pie sobre los estays de trinquete parecía que el huracán iba a segarlos. El viento, que había comenzado a soplar SE, se fué rolando sucesivamente al ESE, E, ENE, NE, NNE, etc., y ello, y la bajada continua del barómetro, que seguía descendiendo más de 1 m/m por hora, me convenció de que si continuaba la capa mura Er, iba irremisiblemente a dar en el vórtice del ciclón, y que mi pérdida sería inevitable; por ello, jugándome el todo por el todo, aunque el viento era huracanado y la mar imponente de veras (los calificativos oficiales de gruesa, muy gruesa, gruesísima, no podrán dar idea cabal de aquel espeluznante hervidero), decidí arribar y correr en doce cuartas Er, huyéndole así al vórtice; arribé, en efecto, a las 17,15, con la mala fortuna de que, al pretender dar el trinquete para caer de arribada, volara hecho pedazos, y sucesivamente se me hicieron también tiras dos foques y el estay de gavia, quedándome sin más vela a proa que el velacho bajo. Conseguí arribar a pesar de todo, y a las 17,30 corría ya francamente, pero no mucho después, cuando el viento adquiría su máxima intensidad, superior al número más alto de la escala; y la mar me despedazaba los botes y amenazaba con arrancarme las batayolas, el velacho bajo se hacía, a su vez, tiras, y sus relingas eran como unos terribles latigazos, a los que no había medio de acercarse. Pude entonces izar la trinquetilla, que resistió, pero no bastaba, y vista la tendencia del buque, a partir de orza, que nos llevaría sin remisión a atravesarnos y perdernos, ordené subir a picar las relingas del velacho despedazado, para envergar incontinenti el de respeto. Claro que mi orden produjo un temeroso asombro; la gente miraba acobardada la verga en que su muerte aparecía segura, y vacilaba estremecida, pero aquel instante de vacilación lo dominó el primer Contramaestre don José Vigo, diciendo a gritos: Si nadie sube a picar las relingas, subiré yo, y tomó decidido la tabla de jarcia: cayeron sobre él entonces los Contramaestres don Santos Díaz, don José Rodríguez Seoane y don Francisco Navarrete, exclamando: No, usted no; antes, nosotros, y seguidos del marinero Cruz Chacártegui treparon por la jarcia, salieron al velacho y, en momentos de angustia y horror indescriptibles, cuando la naturaleza parecía deshacerse, aquellos cuatro bravos, aquellos cuatro héroes, con desprecio absoluto de sus vidas, picaron las relingas sin que les ocurriera el menor contratiempo, porque Dios protege con especial predilección a los valientes. Yo, Excmo. Sr., presencié atónito la escena; olvidé hasta lo crítico y angustioso del trance (angustioso de verdad, pues juro por mi honor que nunca he visto ni veré la muerte más cerca), y aunque por separado enviaré las propuestas a favor de esos y otros individuos que se distinguieron, he de decir aquí, que todas, aún las más altas recompensas, me parecerán pequeñas si han de premiar un acto que rebasa los límites de lo

heroico. Picadas las relingas del velacho bajo, pudo envergarse el de respeto, faena en que tomaron parte voluntaria el Contramaestre don Julio Labisbal y el operario velero Abelardo López, cuyo proceder, digno del mayor encomio, he de recomendar también a V. E. lo más eficazmente que me sea posible. Corrí, pues, en 12 cuartas por Er, con trinquetilla, velacho bajo y gavia baja a un andar de once millas las primeras horas, lo cual ayuda a formarse idea de la enorme fuerza del viento. La maniobra tuvo el éxito feliz que esperaba; a los treinta minutos de iniciarla, el barómetro subía ya, y desde ese instante subió a razón de 1 m/m por hora; el viento cedió también, pero a media noche era muy duro, y además la mar me obligó a continuar corriendo hasta las ocho de la mañana del 28, en que pude dar las gavias altas y el estay de gavia, para quedar a rumbo a las dos de la tarde con aparejo de juanetes y viento del NW, que tendía a calmarse.

Las recompensas propuestas fueron concedidas, y una de ellas, la más valiosa, es decir, la Laureada de San Fernando, fué la que se otorgó al Contramaestre don Francisco Navarrete Ceniza, que, desde entonces, en sus informes, figura con valor marineroy y militar calificado de heroico.



No sé si habré reflejado en este artículo, con la debida amenidad, algunas de las más interesantes facetas de la vida a bordo de la Nautilus. Podrían añadirse multitud de episodios, pero ello obligaría a aumentar el volumen del trabajo en forma inconveniente.

Que las modernas promociones de Oficiales, de Subalternos y de Marinería sepan encontrar en estos deshilvanados relatos el estímulo que tan indispensable es en nuestra carrera.



**E**l durísimo temporal que sufrimos el pasado día 27 fue ocasión que aprovecharon algunos individuos (muy pocos por fortuna), para abandonar sus obligaciones con pretextos fútiles, haciendo deshonroso alarde de tener mucho miedo, tanto como poca vergüenza. Los conocemos perfectamente, y nada he de decirles esta vez; esos hombres tímidos saben que todos conocemos su cobardía, y en el desprecio con que los miraremos siempre, si aún conservan alguna dignidad, encontrarán su mayor castigo.

En cambio, para su satisfacción y la satisfacción general, hubo también buen golpe de hombres esforzados, resueltos y animosos que, en ruda competencia de arrojo, decisión y gallardía, se excedieron en dar remate a sus obligaciones, rebosaron en su ardimiento los límites que el deber les marca y escribieron una admirable página de disciplina, de valor y de gloria». Vayan en primer término los contramaestres don Santos Díaz, don José Rodríguez Seoane y don Francisco Navarrete, y el marinero Cruz Chacartegui que, con heroicos arrestos, viril abnegación y absoluto desprecio del peligro, subieron al velacho bajo y picaron en instantes de angustia las relingas de la vela rifada, único medio de poder envergar la de respeto, como nuestra seguridad exigía». Distinguida en el más alto grado fue también la conducta del contramaestre don Julio Labisbal y el operario velero Abelardo López, quienes motu proprio subieron al velacho, haciendo ostentación de valor sereno y ostentoso derroche de virtud militar y marinera.


El primer contramaestre don José Vigo, se multiplicó, dirigió todas las faenas, y estuvo en todas partes, atendió a todo, no escatimó trabajo ni fatiga procediendo con su diligencia habitual, y su también habitual competencia». Merecen especialísima mención los cabos de mar Francisco Grueiro, José María Rivero, Jesús Vicente Castro y Eduardo Rodríguez que afrontaron todos los peligros con absoluta sangre fría y cumplieron como hombres de empuje y como valientes de verdad sus difíciles cometidos, y otro tanto debo decir de los marineros Ambrosio Arizmendi, José Tubio, Luis Fernández, Ventura Barros, Andrés Goya y José Piñeiro, para cuya abnegada conducta no puedo encontrar elogios suficientes. Se distinguieron, en fin, los aprendices de segundo año Leopoldo Costas, Antonio Difuain, Nicolás Benítez y Rafael Robles, y los de primer año Higino Domenech y Manuel Vázquez Tasende. Todos en suma obedecieron ciegamente mis órdenes, sacaron al buque del crítico trance en que se hallaba y a ellos se debe el satisfactorio resultado. Yo quiero felicitarles, felicitándome al propio tiempo por la suerte que me cabe de tenerlos a mis órdenes; quiero darles las gracias con la efusión más grande y poner su noble conducta como ejemplo que todos deben imitar, como espejo de honores en que todos deben mirarse.

Daré conocimiento a la superioridad de lo acaecido y formularé la propuesta de recompensas que a mi parecer merecéis en justicia, pero tened presente que ninguna será comparable a esta íntima satisfacción que ahora sentís, a ese convencimiento que tenéis de haberos ganado nuestra admiración y nuestra gratitud, que para cualquier hombre de honor no hay recompensa que valga lo que vale, vuelvo a decir, la íntima satisfacción del deber cumplido.

Finalmente, al daros a todos la enhorabuena, he de proclamar, muy alto, que mientras viva conservaré vuestro recuerdo, y que siempre, siempre, tendré a gala y orgullo el haber sido vuestro comandante.

Firmado, el Comandante Manuel Mendivil

## Laureada




Sariak banatzeko orduan kapitainak bereziki aipatu zituen hiru kontramaisu eta marinel bat Cruz Chacartegui, baina antza ez zegoen orduan denentzako laureadarik. Eman ziren ematekoak 1913an. Gure lekeitiarra laureada barik gelditu zen, Francisco Navarrete kontramaisuari eman ziotelako 1924an. Familiakoek badakite nork merezi izan zuen ohore hori, bera izan baitzen kontramaisu horren aginduak jarraituz brankako mastara igo zena eta arlingak (relinga) askatu zituen. Bizirik atera zen, miraria (Dios protege con especial predilección a los valientes) eta abilezia, eta bizirik atera ziren beste guztiak ere.

Navarrete horri lehena izatearren eman zioten domina (...en tan difíciles circunstancias fue el primero en acudir al sitio de mayor peligro...), baina ganibeta eskuan zuela, soka moztu zuen zoroa lekeitiarra izan zen, bergak itsasoan sartu eta irteten ziren artean. Baina marinel triste bat zen, bestea ofiziala.



Argazkian Maria Cristina erregeordea eta Martinicako heroiak. Ofizialak dotore jantzita eta marinela, Cruz Txakartegi, ortozik. Ez da erraza izan behar laureada irabaztea oinutsik dabilen batentzako.

Cruz blanca del Merito Naval de 1ª clase 26-04-1941



Zumaiako tren istripua, 1941-02-15.

Azkenean 1925ko abuztuaren 12an, lekeitiarrari heldu zitzaion txanda. Cruz Txakartegik zilarrezko medaila bereizgarri gorriarekin lortu zuen (cruz de plata del Merito Naval, con distintivo rojo) eta hileko 12,5 pesetako pentsioa, beste bi kontramaisuek lortu zutena, baina horiek 25 pesetako pentsioarekin. Mendibil kapitainari bigarren mailakoa medaila eman zioten (cruz de segunda clase del Mérito Naval con distintivo rojo).

Ez zen bueltatu beraz, esku hutsik, etxean oraindik irabazi zuen medaila dute eta ez da irabazi zuen bakarra. Beste bat ere lortu zuen, Zumaiaren trena ibaira jausi zenean 1941ean eta hainbeste jende salbatu zenean.

Lehengusuaren antzera katuak baino bizi gehiago izan zituen. "Balears" korazatuan zebilela ere zortea izan zuen, Lekeition zegoen hondoratu zenean eta. "Diciembre" ontzia Pasaian hondoratu zenean bera zen patroia eta ia emaztea eta alabatxoa ito ziren... Beste kontu batzuk dira.



# Gure txitxiñak



## 2015eko Urruzuno literatur sariak.

Karmele Garatea “Ordua da” eta  
Ainhoa Gojenola “Azken hatsa” prosa atalean,  
Olatz Martiartu “Maite nau” poesia atalean

## GADUS MORHUA

Gadus Morhua. “Cod” izenez ezagutzen da ingelesen artean eta frantsesek “Morue” deitzen omen diote. Italiarren nahiago dute “Merluzzo” deitu eta portugaldarrek “Bacalhau” deitura jarri diote. Euskaldunok makailaoa.

Gure planeta urdina izen horrekin ezagutzera eramaten gaituen lekuan bizi diren makailao guztien artean, bada Maritxu deituko den bat. Maritxu bere arrautza osatzen zuen olioak lagunduta, itsas azalean mantentzen izan da. Orain ordea, itsas hondoa aurkitzen da, goialdean zeukana berriz ez ikustearen presioaren ondorioz, goibel. Itsasoak “Cod” aren arrautzaren gainean sortutako presioak itsututa.

Izan ere, Maritxuk oraindik ez daki bera bezalako beste “Morue” batzuekin elkartzean, bere ametsetako goialde horretako izakien berri izango duenik. “Merluzzo” horiek, izaki erraldoi horiei eduki beharreko beldurraz jakinaraziko dute, hausnartaraziko dute.

Zoritxarrez, Maritxuri bere lagun “Bacalhau”ek inoiz ez diote esango bere izen berbereko Homo sapiens sapiens bat ilusioz beteriko marrazkian begi txiki eta aho handiko Gadus Morhua bat marrazten ari denik bere aita arrantzalea itsasoan dela alaba buruan izan eta bihotzean gorde dezan, be-raiek ere ez baitakite. Maritxu umeak ere ez daki gaurkoari jarraitzen dion egun batean, bere marrazkiko lagunak eta aitak lehia bizian diharduko dutenik. Elkarri begietara begiratzera helduko dira eta etorkizuneko momentu horretan gertatutakoren inguruan bakoitzak bere ipuina asmatuko du, arrantzale eta makailao narratzaile bihurturik.

Karmele Garatea



Olatzek aurten be irabazi egin dau. Karmelek eta Ainhoak ihaz lehenian be irabazi eben. Lekeitiarrak izango ete dira epailiak?



“Cabeza y dos manos”  
Oswaldo Guayasamin.

## ITSASOARI BEGIRA

Itsasoaren usainak gomutarazten dizkidan oroitzen ematen ditut orduak herriko kaian eserita. Uraren zurrumurrua entzun bitartean inoiz ahaztea ezinezkoak egingo zaizkidan momentuak gogoratuz. Behinola ene lagunik maiteena izan zen hark barrenean sortarazten didan zurrumbiloa ezin lasaituz. Itsasoaren beldur zen amaren begiak kaian aurkitzeak eman ohi zidan sententzioak ene bihotza apur bat gehiago tristatuz. Egunetik egunera nostalgiaren labirintoan harrapatua den preso bilakatuz, itsasoak ene zeldako giltzak gero eta urrunago ezkututzen dituela jakin badakien preso.

Gogoan dut itsasora joan nintzen lehen aldia. Aurretik ere egunero ikusten nuen; hala ere, oso desberdina da itsasoaren ondoan bizitzea edo itsasoa etxe bezala izatea. Gogoan dut amaren begietan nabari nezakeen kezka. Bere hatz finekin hileak nahasten zizkidan hain gogoko nuen makailaoa azken aldiz dastatzen nuen bitartean. Agurraren zaporea nabari nezakeen ahokada bakoitzean, baita amaren laztan bakoitzean ere. Banekien beldur zela; hala ere, ezin nezakeen esan zerek sortzen zion beldur hori. Ni itsasoaren biktima bihurtzeak? Bakardadeak? Gehiago bueltatuko ez nintzen susmoa nabaritzeak? Momentu hauetan hautaketa bat egitekotan azken galderak beldurtzen zuela uste dut. Hala ere, ezin dezaket ziurtasun osoz esan, ez bainintzen bueltatu. Ama bizirik zela ez bahintzat. Eta orain damu naiz. Damu naiz amari eman nion azken muxu hark ez baitzuen azkena izan behar. Kaian ni agurtzen zela eskaini zidan begiradak ez baitzuen azkena izan behar. Agurtu aurretik jan nuen makailao hark ez baitzuen azkena izan behar, ezta bere hatzek ene hilea nahasten zuten bitartean senti nezakeen maitasunak.

Hala ere, berandu da damutzeko. Beranduegi ene malkoak itsasoan isurtzeko edota amari barkamena eskatzeko. Horregatik igarotzen ditut orduak herriko kaian eseririk itsasoari begira. Berak lapurtu zizkidan azken aldi guzti horiek errekueratu ahal izango ditudan itxaropenarekin. Amaren barkamena sentitu ahal izateko esperantzaz. Merezi dudana zigorra betetzeko beharrez. Hainbeste urtean ene lagun izan zen horregan lasaitasuna berriz aurkituko dudana ilusioz.


Zure brisak gomutarazten dizkidan oroitzen ematen ditut orduak herriko kaian eserita. Zure zurrumurrua entzun bitartean inoiz ahaztea ezinezkoak egingo zaizkidan momentuak gogoratuz. Behinola ene lagunik maiteena izan zinen horrek barrenean sortarazten didazun zurrumbiloa ezin lasaituz. Zure beldur zen amaren begiak kaian aurkitzeak eman ohi zidan sententzioak ene bihotza apur bat gehiago tristatuz. Egunetik egunera nostalgiaren labirintoan harrapatua den preso bilakatuz, zuk ene zeldako giltzak gero eta urrunago ezkututzen dituzula jakin badakien preso.

Hala ere, ez naiz gehiago zure preso izango. Ez naiz zuk eskaintzen dizkidazun plazeraren menpeko gehiago bihurtuko. Ez naiz zu bisitatzera sekula gehiago agertuko. Zaharra bainaiz eta heriotzak ene eskuak goxoki hartu eta berarekin eramango nauen momentua hurbil baitago. Honek ez du esan nahi maite ez zaitudunik. Aske izan nahi dut hiltzerako momentuan. Besterik ez. Eta aske izango naizela senti dezaket; izan ere, edozer gertatuta ere badakit zu beti hortxe egongo zarela.

Ainhoa Gojenola

## IHESLARI SENAZ KORRIKA

Zenbatetan esan ote dizute zeure martxara joateko? Zenbatetan entzun ote duzu inguruko enerritmoaren gatibu ez bihurtzeko? Zenbatetan, hasi eta soilik helmuga erdiesteko? Azken iristearen beldur ez izateko? Dirudienez, gairiditu duzue erlojuaz ez ardura-zeko garaia, taupaden erritmo geldoaz gozatzeko sasoa. Handitu da fisikan denborarekiko espazioa, areagotu da azalerarekiko indarra, jada zeuen gain da Londres bezalako hirietako martxa.



“Flying fish”  
Alexander Calder, 1957.

Zaintzen nindutela  
“ur gaziaz goza”  
zen,  
independentziarekin  
bihurtu zitzaidan iheslari  
sen.

Harritzekoa da etxetik urrutzeak dakarzkizun mina, tristura, aitaren etxearen defentsa, Arestiren ahotsa. Sinestezina da aldaketek dakarzkizuten hondamendia, buruhaustea; sinestezina den bezala gidaria eskuinean ikustea, autobusera ezkerretatik igotzea, bi peniko txanpona bi poundekoaren aldean bikoitza izatea. Ezinezkoa da ezinezkoa deritzozunari posible itxura hartzea, argi gorriari begira ez aspertzea, eta gero zebra bidea bi segundotan gurutzatzea.

Txikienak irentsi  
erregelak hautsi.  
Baina banabil suntsitzaile  
supergizakiagandik  
ihesi,  
aldaketak ditut hesi.

Dominoko piezetako bat izan behar zara metrora bidean, bidaian, lurpetik itzultzean. Inurrien antzera zoaz ilaran, milioika ilehorik aurreratzen zaituzten bitartean, Londresko jendetzaren zurrumbilotik ihes egin nahian, Tamesis bera bailitzan. Lehen inurriak behar bezala lan egiten ez badu, bigarrenak aurreratuko ote? Ez, irudi hori inoiz ikusteko zortekoak izan al zarete?

Printzesen filmetan  
dorretik jaistean  
ez da apurtzen izara.  
Atlantikoko martxan  
azken hatsa ere usaintzean  
ez da apurtuko taldea, geure izara.

Kaleko atea gurutzatu, giltzatu. Autobusera ingeles inertziaz sartu. Azeleratu. Abiadura aldaketatik lekua hartu. Ia-ia erori zarela onartu. Lasaitu. Supituki izutu. Zuzen. Ezkerrera. Zuzen. Eskuinera. Balazta! Argiak! Klaxona! Buila! Barearen ostean ekaitza ez dator ba? Hara! Iritsi zara klasera, lanera, metara. Baina ez ahaztu etxera itzuli beharko zarela, eta biharko kontua ere badela. Gauaren atzetik eguna datorrela. Eguna gauak jarraitzen duela. Uste duzu infernu horri eusteko gai zarela?

Etxean eskua sartuz  
milioika gutariko egiten dituzte  
beren.  
Arriskuak nonahi  
Eta norbera jakinaren gainean.  
Otoitza.

Ez da ukatu behar balitekeela ohitura kontuaz hitz egiten aritea. Hala ere, astebetean ezinezkoa da atleta britainiarren erritmora egokitzea, baina bai lehen inurri geldoaren lekua hartu eta lasterketari ekitea. Gogoratu kostata lortzen duzunak zapora gozoagoa duela, lehoiak zoon pozik buka dezakeela, pauso bakoitzean abiadura handiagoa daroazunean inguruko enerritmoarekin gustura sentituko zarelara, sufrimenduak plazera dakarrela. Londresko karraketan irauteko modu bakarra korrika egitea duzula.

Iheslari senaz  
supergizakiagandik ihesi  
izarari tinko  
otoitzean.  
Atlantikoan irauteko asmoz  
euskal bakailaoa naiz korrikan.

Olatz Martiartu

# Atabaka

## Garraitz 25 edo ondarea herriratzen

Testua: Atabaka Elkarte

Lekeitiar askok dakizuen bezala egurrezko kutxatxo bat da atabaka (arrantzaleek euren aparrijoak gordetzeko erabiltzen zuten hala-koa), hautesontzi modura erabiltzen zena.

ATABAKAK bere tapan etxea ezkerretan eta txalupa eskumaldean marraztuta zituen eta bakoitzaren ondoan zulo bana, barruko sail edo atal bakoitzari zegozkienak. Etxea “LIOR”, txalupa “ITXASO”, patro bakoitzak irizten zion zuloan bolatxo sartuta erabakitzen zuten guztiok batera itxasora irten ala ez.



Atabaka

Elkartekook hainbat arrazoirengatik jo genuen izen horretara: berez, gure etnografiaren elementua delako, bai arlo materialean, bai arlo kulturean; talde batean erabakiak hartzeko moduaren adierazgarri ederra delako; eta Lekeitiokoa bertokoa delako, nahiz eta jatorrizko kutxa

Bilbon egon (oraingoz; ikusiko dugu aurrerago).

Ondarea ez da ezagutzea bakarrik; ez da erakundeak eta teknikariak bakarrik. Hor ez dago herririk, eta herria beharrezkoa da; herriaren estimu argi eta etengabe barik, ondarea hil egingo da. Begiratu, bestela, zelan daukagun Europako herririk zaharren honen ondare historiko-kulturala: guztiz bertan behera utzita. Eta hori, besteak beste, ondarea jakintsu, ikertzaile eta teknikarien gaia dela pentsatu dugulako da.

Gure sorreraren azalpen arina emateko, esan behar dugu ordura arte gutariko bakoitzak bere iritziak eta ikuspegiak zituela Lekeitioko ondareaz eta bakoitza noizean behin eta bere aldetik arduratzen zela arazoaren inguruan. Ondorioa beti izaten zen berdina: oker egindako zerbaiten aurrean, kexa hutsean geratzen zen edo aintzat hartu gabeko eskabidean.



“ONDAREA EZ  
DA EZAGUTZEA  
BAKARRIK;  
DENOK PARTE HARTU  
BEHAR DUGU”



Baina 2011n zerbait larria gertatu zen Lekeition, gure uste apalean, eta egoera hark eraman gintuen indarrak batzera; betiere, kexak alde batera utzita, gure lana eraginkorragoa eta zuzenagoa izateko asmoz. Aurrerantzean, onbidean egingo genuen lan.



Urte hartan, Santa Katalinan berritze lanak egiten ari ziren, eta halako batean luzaroan bertan egondako XVIII. mendeko gotorleku militarra hondatu egin zuten, haren ordean orain ikusten den hormigoizko eta altzairuzko baranda jartzeko.

Non zeuden ezagutza, erakundeak eta teknikariak, hain astakeria galanta egin zenean?

Arazoa berez zen larria, baina askoz larriagoa gure horri balio kultural handiagoa ematea zegoenean oinarrian. Ez dago esan beharrik zer adierazten zuen horrek: ezjakintasuna eta eginbide txarra.

Baina orain arte esandakoa ez da txarrena: gure kexen aurrean, zer egingo eta jatorrizko hormaren antzekoa egin zuten, baina zerikusirik ez zuena. Kanoi-zuloa besteletara jarri zuten: itsasora begira barik, barrura, lurrera. Itsasontziak Otoiotik etorriko zirelakoan edo!!! Lehenengo atsekabea.

Huraxe izan zen akabukoa. Horregatik, lagun batzuk batu eta 2011ko ekainaren 27an Atabaka kultur alkartea sortzea erabaki genuen, Lekeitioko eta Bizkaiko ondare historikoa zabaldu eta haren alde lan egiteko. Egunen batean kanoi-zuloa bota egin beharko genuke (hobe jakin ez zenbat balio izan zuen egiteak), eta, jatorrizko harriak aurkituz gero, berregin.

Mahai gainean izan genuen hurrengo proiektua Ondarزابal izan zen. Ez gara askorik luzatuko, baina Atabakatik argi utzi nahi dugu ahalegin itzela egin genuela itsasontzia salbatzeko: azken momentura arte proposatu genituen aukerak (batzuk oso berritzaileak), Lekeitioren itsas ondarearen elementu nagusienetakoak gure artean irauteko. Ezinezkoa izan zen. Laster izango dugu txaluparen hutsunea. Beste atsekabe bat.



Ondarزابal itsasontzia.





# Garraitz 25



Lekeitioko Garraitz irla. Marrazkiaren egilea: Jon Zubiaur.

Luze joko luke proiektuaren xehetasun guztiak emateak, eta, horregatik, uste dugu onena dela Alberto Santana Bizkaiko Foru Aldundiko Ondare Etnografikoaren arduradun teknikoarekin batera iazko azaroan irlara egindako bisitaren nondik norakoak kontatzea. Santanarekin batera, Lekeitioko alkate Koldo Goitia, Arantzadiko Alfredo Moraza arkeologoa eta Atabakako lagun batzuk egon ginen.

Egia esan, bisita hori bera egin nahi genuen irlan aurten auzolanean ibilitako guztiarekin eta irlarekiko interesa erakutsi dutenekin. Ezin izan da oraingoz, eta horregatik jarri nahi dugu KURIken. Badakigu zuzenekoak balio handiagoa duela, Santanaren azalpenak emateko modua aberatsa eta indartsua delako, baina edukia, behintzat, geratuko da eta horixe da garrantzitsua.

Izan ere, Santanak ondo baino hobeto daki zer daukagun eta zelan egin ahal dugun; inork baino hobeto daki eta esan egiten du; berton esaten digu, ideia egingarriak bideratu ahal ditugunoi, eta apurka-apurka herriratzen ahaleginduko gara. Azken batean, gure lanerako gidoia da, ondare historikoa zabaldu eta babesteko asmoa duen elkartearena.

Gure iritziz, Garraitz 25 izena jarri diogun proiektu hau izan daiteke Lekeitioki datozen urteetan landu dezakeen lerro estrategikoetako bat. 25 hori 2025 urtearekin lotuta dago: urte horretan 700 urte beteko ditu, eta ordurako irla bere onera ekarri eta aztarna arkeologikoak sendotuta egotea nahi dugu, baita inguru natural eta kultural paregabea izatea ere. Irlarena ondo badoa, beste ondasun batzuekin gauza bera egin daiteke, eta sinistuta gaude ondarean eta kulturaren oinarritutako ekonomia bihurtu daitekeela gure herriaren etorkizunaren ardatz nagusia.

Lazunarritik heldu gara irlara. XVIII. mendean egin zuten, erreka Karraspiorantz bideratzeko eta portuaren erabilera egokia ziurtatzeko. Pinuak hartzen gaituzte lehenengo: tente baina lehortuta daude asko, eta Aldundikoek botako dituzte hilda-koak. Bizia dutenak utzi egingo dira, eta birlandaketa egingo da, pinu biziak bertoko zuhaitz batzuk gehituz (arteak, gurbitzak, ereinotzak, basolibondoak...). Batzuek besterik pentsatu arren, ez dugu ikusten geratzen diren pinu zahar biziak zertan bota behar diren; izan ere, geriza-tokia sortzen dute eta itxura berezia ematen diote irlari.

Arbola hilen eta birlandaketa-planen kontuak oinarria garatzea: zer egin nahi dugun irlan. Gure ustez, bisita erabakigarria izan da, eta gauzak argiago ditugu.

Hasi da azalpenak ematen Alberto: "Garraitz: Lekeitiorako eta Bizkairako ikurra, ikonoa; Lekeitioko beti izan da oinarritzkoa Bizkaiko historian, herrikoen ekarpen intelektualagatik eta hori sasoi bakoitzean garatzen jakin zuelako; baita turismoaren modernitateari ateak ireki zizkiolako ere (ez zuten gauza bera egin Ondarroak, Bermeok...). Horregatik da gaur egun den modukoa eta horregatik eusten dio edertasunari, hirigintza zein natura arloan.



Alberto Santana, Alfredo Moraza eta Koldo Goitia.

Nire ustez, irlan egin dezakegun onena hauxe da: **aztarna eskegiak dituen parke historiko etnografiko naturala, bisitagarria**. Horretarako, oso ondo ikusten ditut aurten egindako lan guztiak. Horiek gehiago ikertu eta sendotu egin behar dira, leku batzuetan “sendatze-teknika” arinak erabilia eta beste batzuetan berritze zientifikoko teknikak (badiara horretan adituak direnak). Ermitaren iparreko aldean, sendotzelanak egin behar dira, dauden zantzuak eta lekukoak kontuan hartuta; hegoaldean, betetze- eta berreraikitze-lanak (berriztatzeko erabiltzen den morteroaz osatuta eta hormari tentsiorik sortu gabe). Azken batean, guztia berriztu hormaren kotaraino. Zuzendaritza-lanetan aditua behar da, baina lana bera edozein igeltserok edo harginek egin dezake arazo handi barik.

Hormaren aurrean jarri da. Albertok argi du lehenengo lerrorainoko lanak (harri eta lauza txikiko mailan amaitzen da) herri xeheak egindakoak direla, hau da, orduko lekeitiarrek; eta oso ondo, gainera. XV. mendean izango zen: “Hor daude harriboloak, oso ohikoak gotiko beranduko sasoiari”.



Santana ermitaren hormaren aurrean.

Goiko aldea geroagokoa da, XVII. mendekoa: frantziskotarrak egingo zuten orain ikusten duguneraino, ez hain ondo (erre egin zela ikusten du): “Harri erreak daude horma luze honetan, zati zaharreen. 1,80 metro ingururaino ermita da; hortik gora, komentua”. Gogorra dezagula diosku, 1795ean egindako bisitan, arduradunak berak agindu zuela komentua konpontzeko edo desegiteko eta santuak gordetzeko lapurretatik salbatzearen.

“Bai, ermita lekeitiarrek egingo da, eta ondo, gainera” dio berriro. “Esandakoa: behin hegala berregindakoan, horma guztia sendotu goiko aldean, bertoko harea eta karea erabilia, urari bidea ixteko. Oraintxe konturatu naiz: kan bi falta dira; lau hauen ganean jarrita egongo zen atea”.

Ea zergatik frantziskotarrak galdetzen dio baten batek. “Ez dakigu, baina komentu bat desegiten zutenean, leku elkorrean egon behar izaten ziren denbora batean. Sasoi hartan, Izarokoa bertan behera utzi zuten. Horregatik etorri ote ziren hona?”.

Irla Lekeitioko lazaretoa zen, baina ez derrigorrez lepra-etxea. Izurriteak izaten ziren beti, hori bai, baina gehiago peste bubonikoa (beltza, kolera...). Bertan kutsatutakoak ez; Flandesen eta beste leku batzuetan hartuko zituzten gaixotasun horiek itsasgizon lekeitiarrek, eta, bertora heltzen zirenean, irlara bidaliko zituzten. Izan zen 1558an Getarian halako kontu bat: ontzia aztertu eta zerbait sumatzen bazuten, irlara; gero, medikua eta zaintzak. Bai, Garraitz Lekeitioko lazaretoa izan zen. Gauza bera gertatzen zen New Yorken, Menorcako Maónen...

Abiada hartu du, eta zaila da azalpen guztiei jarraitzea: “Hemen daude ermitaren hiru aldareak: San Nikolas, San Sebastian... eta, seguruenik, San Frantzisko. Ordenaren santuak presbiterioa izango zuen, alde er-

lijosoa eliztarrengandik banatzeko. Zorua ez da ikusten; lurrak estalita dago orain, baina adreilu etzanez osatutakoa izango zen, arrain-hezurduraren antzera jarria (Sienan moduan). Hortxe azpian egongo da dena, 40-50 cm-ra edo. Dena azalerraten duzue, horrelako adreiluak beharko dituzue (Levante aldean egiten dituzte).



Ermitaren iparraldeko horma.



Eremu militarera sartzeko atea.

Aurrera goaz berehala. Eremu erlijiosotik militarera sartu gara. “Hara non dauden atearen beheko hegaletako oinarriak: ate sendoa, burdinazko euskarriekin. Eta horma ere sendoa. Seguruena, hormaren goiko aldean, ibiltzeko bidea izango zuten soldaduek. Donibane-Garazikoan moduan”. Ingelesak ondo gordeta dituzte sasoi hartako gorabeherak. Borroka ugari izan ziren irla zaintzen zeuden frantsesen eta Lekeitio askatzera zetozen ingelesaren artean. O’Reilly teniente ingelesaren kroniketan agertzen denez, medailak eman zizkieten soldadu eta ofizial batzuei. Kontatzen du baita gauerdian eta marea erdian heldu zirela irlara eta kanporatu egin zituztela frantsesak, nahiz eta hiru kanoiko bateria eduki. Pelikulakoa dirudi kontaketa. Behin irla hartuta, 20 milia ingurura zegoen itsasontzi nagusiari jakinarazi zioten irla hartuta zeukatela, baina defendatzea zaila zela. Ofizial nagusiak, orduan, irla uzteko agindu zien eta kanoiak itsasora botatzeko, hurrengo bueltatuz gero, arazorik izan ez zezaten. Pasadizo horretan ez dago milizia lekeitiarren berririk, Getariakoena edo Gipuzkoakoena baino. Bai, bertokoek lagundu zuten, hain zuzen ere, mendexarrek, artilleria idien bitartez mugitzeko. Horixe da 1813ko gudaldiaren pelikula, Ingalaterrako artxiboetan jasota dagoena.

Eraikin hauek 1740ko ingeniari militarren arabera dira. Orduan, kanoikadek kilometro bat inguru hartzen zuten, kalibrearen arabera (22/24 cm-ko bolak). Tontorreko gotorlekuan harrizko hormaren metro bat falta da gutxi gorabehera; barrurantz jausita dago, lurraren itxuran igarri daitekeenez. Estalitako gunek ere sumatzen da, haitzezko horma bi erabilia egindakoa. Egia esan, erdi lurperatutako harribolo landuak ikusten dira.

Alfredok ondo dakien moduan, gotorleku hauek Bizkaiko Jaurreriko Batzar Nagusiek erabaki eta antolatzen zituzten; gatazkaren garrantziaren arabera, gehiago edo gutxiago hornitzen zituzten (bolbora, munizioa, tropak). Adibidez, Konbentzio Gerran (1795), frontea ez zen egon itsasaldean. Soldadu frantsesak Markinatik etorri ziren, eta ordukoak da Lumentzako bateria: ez dago itsasora begira, barrura baino”. (Beste proiektu bat Atabakarentzat: Lumentza tontorrera joan, sastraka garbitu... Batzuetan latsa sentiarazten du Lekeitio inork zergatik ez duen hor ezer egin, bertako ikuspegi zoragarria erakusteko. Zer egingo diogu, bada!).



Tontorreko gotorlekuaren aztarnak.

Aurrera goaz berriro. Hurrengo eraikinera heldu gara, goarniziora. “Hementxe biziko ziren soldaduak; hornidurak ere hementxe gordetako zituzten. Tximinia falta da”. Uste du zorua metro bateko sakoneran egongo dela eta aztarnak agertuko direla. Hain kezka handia sortu digun hegoaldeko harrizko zutabea dela eta, berak argi du eraikinaren goiko aldera igotzeko zatikoa dela. Zati horretan, gora (ganbarara edo) igotzeko arrapala egongo zen. Ikus daitekeenez, arrapala sendoa zen, pisu handiari eusteko modukoa. Ura upeletan batuko zuten; ez da derri-gorrezkoa ur-biltegia egotea. Iparraldeko haize-zuloaren ingurua (lizarren ondoan dagoen “geiser” antzekoa) presoentzako kartzela izango zen, bere iritziz (hamar-hamabost inguru). Zentzuzkoa da goarnizioaren ondoan kartzela estalia egon zitekeela pentsatzea. Presoak lekeitiarrek edo ingurukoak ziren; irlan bertan lan behartuak egiten zituzten (hormak eta behar zen guztia). Emazteek edo familiakoek emango zieten jaten (atunopilak eta); ezinezkoa da soldaduek eurek horrelakorik egitea. XVII. mendeko ohiko presoentzako da. Lau bat soldadu egongo ziren; presoak ere bai; eta boluntarioak. Komunik ez da sumatzen, baina egongo ziren...



Kuartela edo guarnizioa.



5



Bolborategia.

Muturrera jo dugu, bolborategira. Alfredoren berbetan, Euskal Herrian dagoen bakarra; harribitxi historikoa. Egoera onean iraun du. Alberto ere bat dator Alfredorekin. Barrura sartu eta kupula faltuan jarri du arreta: “Horixe da haizari etekina ateratzea!”. Margoren bat ere egongo dela dio. Eta hala da: gure elkarteko lagun Jon Zubiarek erreparatu zion, baita argazkia atera ere. “Garrantzitsuena da ondo iraun duela, eta orain zaindu egin behar dugu”. Kanoien gunera heldu gara. Alfredok zein Albertok tramankulu horien nondik norakoak azaldu dizkigute: noraino heltzen ziren bolak; arbelezko zoruaren gainean jarrita zeudela, errazago erabiltzeko;... Egia esan, auzolanik ez dugu egin hemen, nahiko txukun dagoelako. Baina lekua ikusgarria da...

6



Isla muturreko bateria.

Amaitu dugu ibilbidea. Bueltarakoan, Albertok dio: “Arduratuta nago bidearekin zer egingo duzuen. Txukundu bai, apurtxo bat egokitu, alboak garbitu... Enbor hilak erabiliko ditugu. Garrantzitsuena hondatzea geldiaraztea da. Jarraitu aztertzen, ikertzen. Erabaki neurri sendoak eta jarriak 2025era begira; herriratu lana, herriratu irla interes handiko tokiak izan daitekeela, betiere jatorrizko balioak (natura, paisaia...) galdu barik. Apurka-apurka, baina eten barik”.



Boluntarioak auzolanean.



Soldadu frantsesak.



Mendieta ontziola egoera tamalgarrian.

Eta ezin isildu, ezin. Mendieta ontziola. Ederra itxura duena! Euskal monumentu historiko izendatuta dago, eta ia jaustekotan. Atabakan konbentzituta gaude ezin garela besoak gurutzatuta egon, nahiz eta arazo administratiboak ugariak izan. Uste dugu erakunde guztiek (Udala, Diputazioa, Jaurlaritza, Estatua) bat egin behar dutela monumentua berroneratzeko. Neurri batean, eroso daude bata besteari errua botatzen, baina ezin da geldirik egon. Borondatea behar da.

Atabakatik ekin egingo diogu: monumentu historikoa da; Lekeitioren etorkizunaren zati bat da, garrantzitsuena, asko eta asko oraindik konturatu ez arren. Zerbait egingo dugu. Batetik, zuzeneko ekintza bat: beste auzolanegun batean, pieza garrantzitsuenak sendotuko ditugu, ingurua garbitu, herritarrak kontzientziatu. Bestetik, administrazioen utzikeria salatu, euren arreta lortzeko. Eurak dira ondarea babesteko arduradunak, eurek izendatu dute monumentu.

Honetan ere badu zer esanik Albertok. Berak proposatu zuen maila teknikotik monumentu izendatzea 1984an.

Azken hausnarketa bat, irla dela eta. “Denak ez daude ados irlan egiten ari zarenarekin. Heldu zaigu kritikaren bat edo beste, ez zuzen-zuzenekoa”. Batzuk beldur dira irla ezagunegi egiten bada, aztarnen kalterako izan daitekeela (harriak eraman edo antzeko astakeriak). Gu geurera. Hori egiten duenaren ardura da.

Normandian, Eskozian, Galesen, Fiorentzan... ez da horrelakorik gertatzen. Hemen zergatik? Eskegitako aztarnen parke etnografikoa egitea lortu behar dugu. Bestela, inork ez du jakingo laster irlan XV. mendean ermita egon zela, XVII.ean frantziskotarren komentua eta lau mendetan zeharreko hainbat sasoiaren gotorlekua. Huntzak dena jango du”.

Ados egon gara. Horregatik, Atabakatik zuzentzeko jokatu nahi dugu, baina horrek ez du esan nahi dena zegoen-zegoenean utzi behar denik. Erakundeekin batera lan egingo dugu, baita teknikari adituekin ere. Lekeitio denboretara egokitzen dela erakutsi nahi dugu eta argi daukagu proiektu honek asko lagunduko duela Lekeitio KULTUR PAISAIA arloan erakargarrtasun handiena duen ITSAS HERRIA izaten. Gu ez gara adituak, baina herritar arduratuak bai. Ez dugu ezagutza hutsean geratzea ondarearen arloa; parte-hartzea bultzatu nahi dugu, beste herritarrekin eta erakundeekin batera.



Eta hortik, UNESCOra, izendapena lortu arte.

Hurrengo pausoak: aurten, 2016an, Paisaiaren Ekintza Plana amaituko dugu (PEP); bagabiltza horretan —Jaurlaritzak onartuta dauka egitasmoa—. Esparru egokia da aurrera begirako lanak zehazteko. Teoria zati handia du, baina garrantzitsua da irizpideak ezartzeko. PEP horren barruan, Garraitzena unitaetako bat da. Eta aukera hori aprobetxatuko dugu behin betiko proiektua eztabaidatu eta erabakitzeko. Partehartzea bultzatuta, jakina.


PAISAIA IBILBIDEA izango da orain hasitako lanaren fruitua: irla, Mendieta, Lumentza, Santa Katalina, portua, Lea... ezagutzeko bisita gidatuak.

Bisitaren ondoren, konbentzituago gaude irlak zein balio handia duen; zuzeneko ekintza erabilita, zein lan txukuna egiten ari garen; zein egokia izango litzatekeen aztarnak sendotzea eta berroneratzea, aztarna eskegi erako itxura emateko. Azken batean, Garraitz goi-mailako parke historiko-etnografikoa izango dela, jatorrizko balioei eutsiz. Eskozian moduan, aztarna eskegi bisitagarria.

Albertok berriro: “Kasu bakarra ezagutzen dut Bizkaian, erakunde guztiek proiektu batean batera lan egin dutena: Gaztelugatxeko San Juan. Eta Garraitz haren bikia da.

Zuek ekin; nik lagunduko dizuet. Kanpotik begiratzen digutenean, geure onena ematen dugu”.

Horregatik, animatu gure elkartera etortzen, gurekin parte hartzen. Ez dugu konpromiso handirik eskatzen. Azken batean, **ondarea denok gara; lekeitio ondarea da; ondarea etorkizuna da** ideiekin ados egotea baino ez.





**iHOLA! VIAJES**



Hola aldizkaria.  
"Hola Viajes" 18. zenbakia, 2013ko uda.

**50** EXCURSIONES ÚNICAS  
de fin de semana por la  
**ESPAÑA** más bella y **DESCONOCIDA**



# Liburuak

Testua: Iñaki Goigana

## Azkue. Bilbotar ezezaguna, Jurgi Kintana Goiriena, Erein, 2015

2014an Resurreccion Maria Azkue jaio zela 150 urte bete ziren, urteurren hori aprobetxatuz edo, Jurgi Kintanak Konpainia elizaren aurrean dagoen etxe baten jaio zen gizon handiaren biografia idatzi eta Bilboko Udalak urtero antolatzen duen Miguel de Unamuno saiakera sarira aurkeztu zuen. Aurkeztu eta irabazi. Ondoren, 2015ean, Erein argitaletxeak kaleratu zuen lana.

Liburuak irakurrita laster nabaritzen da Kintanak intentzio osoz aurkeztu zuela bere lana Unamuno Sarira. Izan ere, liburuak helburuetako bat da Azkueren eta Unamunoren bizitzak eta bataren eta bestearen ekarpen intelektualak alderatzea eta, ondorioz, lekeitiarrak eta bilbotarrak izan duten publiko, kritika eta gizartearengandik lorturiko oihartzuna papereratzea. Liburuaren sarreratik bertatik nabaritzen du Kintanak Unamunok mundu nabalean eta gurean izan duen eta duen onarpena eta Azkuek pairatu behar izan duen, mespretxua izan ez denean, gutxiespena edo aipatu bera ere ez egitea. Laster ikusten da liburuan, Azkueren lanaren handia ia euskaltzaleen artean bakarrik, eta ez beti, goraiatu izan dela, hortik kanpora ezer ez edo gutxi.

Oker hori, zuzendu daitekeen neurrian behintzat, zuzendu nahian, justizia egin guran, datorrela esango liburu hau, Azkueren ekarpen oparoa baztertu edo aintzakotzat hartu nahi izan ez duten gure arteko txikikeria eta eztabaida antzuek nabarmentzeko asmo barik, nahiz eta hauek ukatu gabe, Azkue beraren handitasuna huts-hutsean erakutsiz.

Unamunoren eta Azkueren bizitzak, biak ala biak 1864an sortuak, bata bestearen ondoan jarriz, eta hauei Sabino Aranarena alboan ipiniz, azken hau urte bete gazteagoa, idatzi du Kintanak liburuak. Hala eta guzti ere, hiruren biografiak neurri handi baten paraleloak izan baziren ere, hona dakargun lana Azkueren biografia da, eta bilbotar bien garrantzia eta lekeitiarraren izan zuten eragina txikiagoa edo handiagoa izan da ere, liburuan nabarmentzen dena Azkueren handia da.

Izan ere, hori da Kintanak erakutsi nahi duena Azkueren ekarpen itzela eta, bide batez, berari buruz esan diren txatxukeriak nabarmen utzita, zein gutxi ezagutzen dugun gure pertsonaia eta berak egina.

Gutxi konturatzen gera gaur egunekoak orain dela mende bateko euskararen egoeraz. Ez dut esango gaur egun bizi duguna zorionekoa denik, ezta gutxiagorik ere, baina orduan gure hizkuntzak elebakarrez





osaturiko lurraldeak izan arren, bere gain zuen onarpen soziala hutsaren hurrengo zen, baserritarren, arrantzaleen, gizartean mailarik behekoena zutenen berbetea. Aukeran, ia inork ere egin nahi ez zuen hizkuntza.

Egoera hori iraultzea izan zen Azkueren, eta beste batzuren (ez horren besteren), lana. Menditik kalera, hirira, ekartzea, hain zuzen. Baina horretarako ia-ia dena zegoen egiteko, hiztegia, gramatika, literatura, prentsa, eskolak eta zer ez. Azkuek ez zuen denetan parte hartu, baina askotan bai eta sarri askotan ondo.

Profanoa naiz honetan baina entzunda neukan Azkueren hiztegiaren maila zenbatekoa den, entzunda baita ere horretaz gain euskararen gainean burutu zituen lanei buruzko laudorioak, esku artean inoiz izan ditut berak kaleratutako aldizkarien ale batzuk, urteak dira *Vizcaytik Bizkaira* zartzuela Lekeition antzeztu zenean bertan parte hartu izana, *Euskalerraren yakintzaren* ederra ere ikusitakoa naiz eta abar eta abar. Oraingoan, berriz, Kintanaren liburuak irakurrita, guzti hori hasi besterik ez da egin, guzti hori Azkuek zelan egitea lortu zuen Kintanak ederto erakusten duelako. Erakutsi ere, pausuz pausuz kontatuz eta detailerik txikiena bera ere baztertu barik.

KURIK herri aldizkari bat da eta Azkueren maila, berriz, Euskal Herri zabalera eta mundu osoraino heltzen den figura batena. Orriotara badakargu liburu hau arrazoi bienegatik da, lekeitiarra izan zelako eta mundu mailakoa, duda barik gure herriak eman duen handienetakoa. Eta poztzen gara hain liburu hona Azkueri buruz irakurtzeko modua izateaz, ez da eta ugaria gure bibliografia. Nahiz eta lehenagotik izan Azkueren figura lantzen duten liburuak, Kintanak berak eginak batzuk, batik bat Azkueren pentsamendua lantzen duena, *Azkue. Bilbotar ezezaguna* hau denbora luze baten Azkueren "biografia" bihurtuko delakoan nago eta ez du horretarako merezimendurik falta.

Irakurle, Azkueren gainean eta sasoi hartako Lekeitio eta Euskal Herriaren berri jakin nahiez bazaude, heldu liburu honi hamaika gauza ederrez jabetuko zara eta. Ikusiko duzu zelan, esaera zaharrak dioen legez (Gibel egiok ekatxari), ezintasun guztiei, ekaitzari, lepoa emanda aurrera ekin zion Resurreccion Maria Azkueren lana zein urrutira heldu zen.



## La cueva de Santa Catalina (Lekeitio): La intervención arqueológica. Restos vegetales, animales y humanos. Kobie. Bizkaiko Arkeologi Idusketak (BAI) 4. Zenbakia, 2014.

KURIK honetan bertan duzu irakurle Santa Katalinako koban egindako indusketen berri, bertan zuzendari lanetan jardun duen Eduardo Berganzak berak idatzita. Lerrootara dakarguna ez da besterik koba horretan urteetan zehar egin diren lanen emaitza zientifikoaren argitalpena baino, lehen zatia, hain zuzen ere.

Lekeitio eta inguruak zorianeko dira gorde dituzten paleolito eta mesolitoko aztarnategiengatik. Lehenagotik genekien Lumentzak emandakoa zelakoa zen, lehendik ere beste koba batzuk, gure herriak hurbil daudenak, gorde digutena harik eta arkeologoak bertara hurbildu diren arte. Gure aldizkariaren lehen zenbakian, Lumentzan aurkitu zen marrazkiaren berri eman genuen eta asteak, eta ez asko, besterik ez dira igaro Atxurrako koban aurkitu dituzten paleolito aroko marrazkien berri zabaldu dela. Honako albiste pozgarri gehiago ere entzungo ditugulakoan gaude. Zenbat eta gehiago diren, guk nahiago.

Emaitza guzti hauek aldizkari eta monografia zientifikoetan izaten dute isla eta honako hau horixe besterik ez da. Izan ere, Santa Katalinako koba, metro koadrotan "ziztrina", hain suertatu da emankorra eta hain da aberatsa bere emaitza, bertan aurkituak, argitaratzera-koan, Kobie aldizkariaren zenbaki bitan ematera behartu baitu. Lehen zenbaki honetan bildu diren artikuluek arrasto begetal, animalienak eta gizakienak erakusten dituzte. Bigarren zenbaki baterako utzi dituzte Santa Katalinan bizi edo haitzulo hartaz baliatu ziren pertsonek sorturiko industriaz jardungo duten ekarpen zientifikoak.

Ez da beraz, honetara dakargun liburuak dibulgaziorako idatzirikoa liburuak. Horretarako, gorago esan legez, irakurri KURIK-en datorrena. Liburu zientifiko bat da hau, gure herrian egindako indusketa arkeologiko bat erakusten duena. Baina, a ze emaitza eman duena!

Lekeitioko kultur etxean Santa Katalinan urteetan zehar egindako lanen berri Berganzak berak eta bere zuzendaritzapean aritutako teknikoei emandako azalpenen arabera, Santa Katalinako kobak eman duena ez da beste hainbat kobak eman dutenaren antzekoa. Hala baino garrantzi handiagoa da Santa Katalinako. Hain handikoa, Santa Katalinako aztarnak eredu modura erabiliko dira europar kosta atlantikoan kokatutako aztarnategi garaikideak aztertzerakoan. Beraz, Otoiopean dagoen zulo horrek eman duena ez da edozer, eta edozer ez delako zaindu egin behar genuke bertan hemendik urte batzuetara beste arkeologo batzuek, beste teknika batzuekin eta beste hipotesi batzuei erantzun ahal izateko lan egiteko modua izan dezaten, orain dakiguna baino gehiago jakin dezagun.



## La emperatriz Zita y Lekeitio.

### Jose Maria Arriola Arana, Autoedizioa. 2014.

Erregina bi izan genituen Lekeitio XIX eta XX. mendeetan, eta ez bak ez besteak ez zuten zorte onik izan beraien karguetan. Lehenengo, Espainiako Isabel II.a, 1868an "La Gloriosa" izenez ezaguna den iraultzak tronutik aldenitu zuen Lekeitio oporretan zegoela, eta gobernuak erbesteratzeko jarri zion gerrauntzi baten alde zuen Frantziara. Bigarrena, Zita, Austriako enperatriz eta Hungariako erregina. Isabel erregina-erregina izan zen harik eta kanporatu zutenera arte, Zita, berriz, enperadore ohiaren alarguna. Azken honek, behar bada gure herriaren berri bertora etorri arte sekula izan ez bazuen ere, gurean 1922tik 1929ra bitartean egon zen Espainiako errege Alfonso XIII.ak gonbidatuta eta Zita bera, bere seme-alabak, gorrea eta guztientzako alokatu eta atondu zen Uribarren jauregia mantentzeko gastuei aurre egiteko eratu zen elkarte batek ordainduta.

Lerrootara dakargun liburua, berez, Jose Maria Arriola Gernikan jaiotako lekeitiar notario ezagunak Sociedad Bilbainan eman zuen hitzaldi baten du jatorria. Ordurako prestatutako testua argazkiz jantzi eta paperera pasatu du eta 50 orrialdeko liburuxka bat bihurtu. Arriola ez da historiagilea, baina nago historiari kontatzen badakiela liburu hau erraz irakurtzen delako, sekula haria galdu gabe. Kasu honetan, gainera haria hainbat pasadizoz eta gertakariz beteta dator.

Liburu honek argia ematen digu Zitaren Lekeitioko urteez. Halanda be, hemen enperatriza izandakoaren gaineko kontu batzuk baino ez ditu irakurleak aurkituko, gaztelaniaz "bihotzeko aldizkariak" deritzenetan aurkitu daitezkeen albisteen antzekoak. Bestelakoak, politikoak edo tankera horretakoak, gehienez ere azaletik ukituta.

Egileak gauza naturaltzat eta normaltzat ditu, ez ditu kritikatzeko behintzat, niri gutxienez harridura sortzen didaten kontuak. Hala, esaten du Zitaren seme Otto behin baino sarriagotan hartu zuela Francok, eta halako baten diktadoreak Carlos III.aren Ordenako Gurutze Handia eman ziola, baina Lekeitioko udalak ordainduta. Normalak izango ziren sasoi baten honako gauzak, baina... ez dakit ba.

Bada baina pasarte bat, nire ustez behintzat, ondo erakusten duena liburuaren tonua. 35. orrialdean Arriolak dio zelan hainbat lagun enperatriz ohiaren Lekeitioko bizitza zoriontsua egiten ahalegintzen ziren arren (eta hor aipatzen ditu Bruno Larrazabal alkatea, Adolfo Urquijo Zita Lekeitiara ekarri zuena eta Wilhelm Wakonigg, Austria-Hungariako kontsul ohia Bilbon 1936an espioitzagatik Jaurilaritzak fusilatuko zuena) Zitaren Lekeitioko bizitzak oso gogorra, "durisima", izan behar zuela, zergatik eta Vienan enperatriz baten modura bizi izaten ohituta zegoelako eta Lekeitio, berriz, bere kulturako pertsona bat bera ere barik zeinarekin hitz egin.

Hau eta honako esaldiak irakurrita guretartuta dugun Iñigo Aranbarriaren *Txanton Garrota* agertokitik jaisi zen eguna (Pamiela, 2016) liburua etorri zait gogora. Bertan, Aranbarrik Urolako bailaran XVIII. mendearen azken laurdenean izan zen matxinadaren berri ematen digu hainbat agiri eta literatura lan aztertuz. Handikien bizimodua eta herriar xumeen sufrimendua, baina, batez ere, guzti hori goikoek zelan kontatzen duten, gaur egun bolo-bolo dabilen hitz bat erabiliz, agintean daudenek batzuen eta besteen arteko hartu-emanen gainean egiten duten errelatoa.

Guzti hau esanda, gehitu nahi dut Arriolaren liburuak gauza interesgarriak eta jakinagarriak erakusten dituela, baina bere erara eta gehiago jakin guran uzten bagaitu, hutsune oiek besteren batek bete beharko lituzkeela.



Zita enperatrizaren seme-alabak Uribarren jauregiko parkean.

## In memoriam



R.M. Azkueren jaiotzaren mendeurrena Don Paco alkate zela, 1964.

## Francisco de Ocamica y Goitisoló Don Paco, 1920-2016

Ez da Lekeitio historia kontuetan zaletuak diren artean inor izango Francisco de Ocamica y Goitisoloren, don Pacoren, liburuen berri ez duenik. Eta ez bakarrik zaletuen artean. Garai baten, gure herriaren iraganaren berri izan nahi zuen edozeinek, ez zuen besterik don Pacoren liburuetara jotzea beste biderik. Horrela, nago Lekeitioko etxe askotan beste liburu askorik ez, baina don Pacoren baten bat ez dela faltako.

Ez zen gure herriaren lehen historiadorea izan, XIX. mendekoa dugu Cavanilles, XVIII. mendekoa da Lekeitio deskribatzen duen kronika antzekoa, eta han-hemenka, noizean behin, argitaratu izan dira artikulu aipagarriak. Halanda be, gerraostean eta urte luzez horretan jardun zuen bakarra, edo ia bakarra, bera izan zen. Gainera, Cavanillesena albo batera utzita, bere lana da Lekeitioko historia osorik hartu zuen lehen lana; aitzindaria ere izan zen neurri baten don Paco.

Ez zen baina don Paco historiagile profesionala izan, zaletua baino. Ogibidez medikua

izan zen, Lekeitio lehenengo, don Isidro, Arriola, eta Goitisoloren denboretan, eta gero Bilbon.

Garai bateko familia liberal-kontserbadore bateko semea, bere aita Leon Ocamica arrain fabrika baten jabea zen eta herriko alkate ere izan zen Alfonso XIII.aren sasoiaren. Beraz, familia oneko semea zen, bai aita partetik eta bai Goitisolotarren partetik ere.

Herriko semea eta familia onekoa, medikuntza ikasi zuen eta, esan bezala, Lekeitio eta Bilbon jardun zuen. Posizio horretan eta jatorri politikoak lagunduta, bere aita legez, herriko alkate ere izan zen eta bere lanen artean daude Ateako herriko-eskolak eta ur ekarria ere.

Baina guri, edadean aurrera joan arren erretirako dozena bat urte inguru falta zaizkugunoi, don Paco bere liburuengatik zaigu ezaguna. Liburuak eta, baita bere lastozko kapelengatik ere.

Eskolan genbiltzanean edo unibertsitatean ikasle denboran irakurri genituen don Pacoren liburuak. Eta orduan ez genituen bere balioan neurtu lanok. Behar bada idazteko moduagatik, akaso ez zirelako espero genuen mailakoak

edo agian gaztetan, adinaren harrokeriakultzatuta edo, hurbileko eta nagusien lanak baztertze joera handiegia izaten delako. Kontua da, gure nagusiek hain gustura irakurtzen zizuten gauzak guk albora botatzen genituela neurtu barik lanon balioa.

Orain, geuk ere ordenagailua piztu eta gauzak idazten hasten garenean, badakigu zenbat kostatzen den lan hau eta ikusten dugu don Pacoren lanaren balioa.

Pasa den otsailaren Sean hil zen Francisco de Ocamica y Goitisoló, berak idazten zuen modura bere izena, herrian don Paco esanda edozeinek nor zen esango zukeena. 96 urte zituen zendu zenean eta bere lan profesionalaz aparte, *La villa de Lekeitio (Ensayo histórico)*, 1966; *Hombres de Vizcaya, Vulcano, Bilbo*, 1973; *Diez lustros en la villa de Lekeitio (1925-1974)*; *Lekeitio neure jaiotzerria. Lekeitio mi pueblo natal eta Lekeitio gure erria* liburuak kaleratu zituen. Hauetaz gain, artikulu historiko zenbait ere argitaratu zituen, besteak beste, *Lekeitio* eta *Gaceta médica de Bilbo*.

Goian bego don Paco, herriko historialaria.

# Perlak

Egilea: Aitor Iturbe



## Gure perlak




Aurreko zenbakian manikulak ezagutu genituen, bitxiak benetan. Aurtengoan ere artxiboan ibili gara liburu artean bitxi gehiagoren bila eta hemen zuen gozamenerako, eta norberenerako, jakina, perla eder hauek. Ez da asmatu eta ez da asmatuko horiek gaudituko duen liburu elektronikorik!

LUAko dokumentuak dira denak bat ezik, atzekoalde modura erabili dugun lehenengoa, Lekeitioko Dominiketako arxibokoa da.





# MARQUES



# Estropadak

“como la cuestion es de honra de los marineros...”

Egilea: Aitor Iturbe



“Los remeros” Manuel Losada c. 1912. Bilboko Arte Ederren Museoa. R. M. Azkueren dohaintza.

**B**igarren Kurika eta *ondiño*ko Ondarrutarrak agertu ez izatea ez da normala. Entzunak ditugu herri bietako marinelen arteko drogak eta jendeak horiegi zen jakin nahi izango du. Ez dugu nahi berriro haserre horiek piztu, baina ez legoke txarto, ahal den neurrian, arrazoiak jakin. Ez da izango erraza, ez diogu konplexotasunik ukatu nahi, baina hemen gure apostua: estropadak. Kirola osasungarria dela diogu, baina haserre espektakularrak sortzeko ere gai da. Oraingo honetan 1865eko estropada dakarkizuegu. Bergarako akordioaren urteurrena (1839-8-31) ospatzeko antolatuta zen eta Erregina eta printzea zeuden ikusleen artean. Sariak ere oparoak ziren eta lekeitiarrak ez zuten irabazi. Txarrago oraindik, ondarrutarrak nagusitu ziren estropada handian. Ondarrutarren poza, lekeitiarren atsekabea.

Ezin dut, ez dut nahi gauza gehiago aurreratu. Irakur itzazue batzuen kexa eta beskeen erantzuna eta saia zaitezte ondorioak ateratzen, ahaztu barik eta kontuan izanda, ez ni ez zuek, zorionez, ez ginelan han egon.



Biba bizkaitar arrantzaliak,  
zar ta gaztiak batzandurik;  
biba giputzak, euren lagunak,  
biba euskaldunak alkarturik.

Nun estaldu ete dira  
Kastroko batelak?  
Osorik ete daukez  
erremu ta belak?

Euren gallardeteko  
lau milla puntadak  
askatu ete dituez  
iru axe fugadak?

*Eusebio M<sup>o</sup> Azkue*

Azkuetarren etxean estropadak  
zutela gogoko dirudi. Ez dago dudarik  
orduko futbolaz zela. Eusebio aitak idatzi  
zituen bertsoak pasioz eta nola ez,  
burlaz beteak.



## REGATAS EN LA RIA DE BILBAO

EN  
PRESENCIA DE SS. MM. Y AA.

EL DIA 31 DE AGOSTO DE 1865,

ANIVERSARIO DEL CONVENIO DE VERGARA.

Se admiten para la lid todas las embarcaciones de los puertos del litoral cantábrico ó de otro cualquiera, comprendidas en las clases siguientes:

**LANCHAS TRAÑERAS** de 40 á 45 piés de quilla, montadas por 12 á 15 hombres.

**LANCHAS** de 30 á 35 piés de quilla, montadas por 10 á 12 hombres.

**BOTES** de 20 á 25 piés de quilla, montados por 5 hombres.

Estas lanchas y botes se presentarán para las 9 de la mañana del día 31 de Agosto frente á la villa de Portugalete y de la casa conocida con el nombre del Consulado, sita en la playa de Guecho, para empezar la estrepada entre once á doce de la mañana del mismo día.

Las lanchas trañeras serán las primeras que tomen parte en la lucha: seguirán las de 30 á 35 piés y á estas los botes.

Reunidas en un grupo las primeras, y entregado á cada una un banderín con su número que ha de colocar en la proa, se sortearán cuales han de entrar pareadas en lid, de manera que por el orden del número que les corresponda, arrancarán á un mismo tiempo, previa una señal que se dará al efecto.

Cada dos trañeras saldrán con un intervalo de cuatro minutos.

Las segundas y los botes se sujetarán á las mismas condiciones estipuladas para las trañeras. La distancia que han de recorrer estas embarcaciones, es la comprendida desde una boliza colocada en el medio del rio frente á la casa del Consulado hasta otra colocada cerca del Puente de Luchana, y su regreso hasta la que servirá de término, situada frente al pabellon en que se coloquen SS. MM. y AA. en la inmediacion de la casa del Consulado. Las lanchas seguirán indispensablemente la banda derecha al subir el rio, y la izquierda al bajarle, dando la vuelta por detrás de la boliza de Luchana, para evitar de este modo choques y embarazos en la carrera.

Los premios que se ofrecen á las embarcaciones que recorran en **MENOS TIEMPO** la distancia espresada, consisten en

Un premio PRIMERO de **4,000** reales á la trañera de 40 á 45 piés.

Un premio PRIMERO de **3,000** reales á la lancha de 30 á 35 piés.

Un premio PRIMERO de **1,500** reales al bote.

Un premio SEGUNDO de **1,500** reales á la trañera de 40 á 45 piés.

Un premio SEGUNDO de **1,000** reales á la lancha de 30 á 35 piés.

Un premio SEGUNDO de **800** reales al bote.

Dos premios TERCEROS de **500** reales á las trañeras.


Dos premios TERCEROS de **500** á las lanchas de 12 remos.

Se nombrará un jurado compuesto de personas imparciales y peritas al que se sujetarán y obedecerán los patrones y tripulantes de las embarcaciones que quieran tomar parte en la lid. El mismo jurado ha de disponer el orden en que se ha de celebrar la regata y las señales de partida, y publicará los números de las lanchas que hayan salido victoriosas. Los premios se adjudicarán despues de concluida la estrepada.

Bilbao 26 de Agosto de 1865.

El Presidente de la Comision de festejos,

Serruñ de Urcola.



Disen que viene Erreina bisitan Bilbora,  
la prínsipe txikito con ella benira... JSJS

BFAH, Administracion de Bizkaia, Gobierno y asuntos eclesiásticos, AJ0162/090, 1865.



## Ondarrutarren kexa

Ylmo. Señor

La cofradia de mareantes de esta Villa de Ondarroa en reunion que presidida por la autoridad correspondiente ha celebrado en este dia, ha creído de su deber el acordar, como lo ha hecho, que se ponga en el superior conocimiento de su V.S.Y. el atentado mas bajo é injustificable, de que ha sido obgeto la lancha trañera San Juan de esta Villa al regreso desde esa Villa a la de esta el dia dos del corriente mes.

Sabido es, que en el regateo que dispuesto por V.S.Y. para festejar a S.S.M.M. se celebró el 31 del ultimo mes de Agosto en la ria de Portugaleta á Bilbao salió triunfante y mereció el premio primero la indicada lancha trañera de esta Villa de Ondarroa.

La tardeada del dia primero del mes actual despues de colocar al tope la bandera de honor, que la comision de festejos nombrada por V.S.Y. dispuso, salió de esa Villa la referida embarcacion, cuyos tripulantes pernoctaron pacificamente aquella noche en la Villa de Portugaleta y á la madrugada del siguiente dia salieron de aquella Villa en la misma trañera y trayendo al tope la bandera indicada en la propia forma que el dia anterior.

En ésta disposicion vinieron caminando en el

estado mas silencioso y pacífico; pero al llegar al parejo dela barra de la villa de Lequeitio le encontraron con cinco lanchas, cuatro de ellas de altura y la otra la misma trañera que de ella asistió á la regata indicada tripuladas con marineros y algunos particulares de la dicha Villa de Lequeitio, entre los que parece que se anuncio uno con su baston de autoridad haciendo cargos á la trañera San Juan por la autorizacion con que traya la bandera indicada. Los tripulantes de esta en la forma mas fria y urbana le dieron el veridico y exacto descargo en el particular; mas en el entretanto prorrumpieron los Lequeitianos en improperios y amenazas mas soeces contra los tripulantes de la trañera San Juan llamandoles ladrones y diciendoles, que traian la bandera robada, y que les iban á tirar á pique. Su conducta en este momento fue tan violenta, que levantaron unanimamente los remos y descargaron golpes contra los tripulantes referidos de San Juan y tambien contra la misma embarcacion, que recibió diferentes golpes, con uno de los cuales abrieron en la parte superior de uno de los costados un agujero. Acto continuo rodearon a esta y la amarraron por la proa y por la popa diciendo siempre, que la iban á echar a pique. En estado tan violento tuvieron á los tripulantes de aqui por un rato hasta que uno de los pasajeros que venia en la trañera San Juan se dirigió a quien se anunciaba en una de las lanchas Lequeitianas como autoridad, espresandole que en la mano tenia un

revolvers de seis tiros, y que en propia defensa se veria en la sensible necesidad de hacer uso de él toda vez que no cesasen las injustas violencias y tropelias, de que eran obgeto, y toda vez que pacificamente no permitiesen caminar á la trañera San Juan á esta Villa de Ondarroa. Despues de esto consiguieron los tripulantes de esta última embarcacion el cortar y desatar las sogas, con que por la proba y popa estaba amarrada y presa, y de esta suerte pudieron conseguir el salir de entre las lanchas Lequeitianas siguiendo la rumbo á esta Villa de Ondarroa despues de un buen rato, que perdieron en el acto de las injustas vejaciones y tropelias de que en la forma antedicha fueron obgeto en el percance aunque levemente fueron heridos algunos tripulantes de la trañera San Juan, y se está instruyendo la correspondiente sumaria por la autoridad local de esta dicha villa, para que los hechos referidos sean averiguados con toda exactitud y á su tiempo sean juzgados por el tribunal competente.

Esta Cofradia há creído de su deber el poner este sensible percance en conocimiento de V.S.Y. como autoridad superior, que tan dignamente lo es de este M.N. Y M.L. Señorío.

Dios guarde á V.S.Y. m.a.

Ondarroa y Setiembre 3 de 1865

En nombre de la cofradia de mareantes su mayordomo sustituto

Fernando de Ituarte (sinadura)

Decreto= Trasládese el precedente



Ondarrutarrak irabazitako bandera 1865eko estropadan.

## Lekeitiarron erantzuna

Ylmo. señor

En la comunicacion que el gremio de mareantes de Ondarroa ha dirigido a esa Diputacion, denominando un hecho que tuvo lugar el dia 2 del presente mes al frente de este puerto, se consignan hechos y se hacen apreciaciones altamente equivocadas, revelando desde luego una profunda y grosera intencion de refinada malicia hácia las personas que tomaron una viva y activa parte parte, en el hecho que toda esta poblacion lamenta como el que más; pero que por desgracia no tuvo el menor conocimiento de lo que iba á sobrevenir, hasta que se presento el peligro con todas sus funestas consecuencias.

Preciso se hace pues que yo ponga en conocimiento de V.S.Y. los hechos claros tal y como pasaron, sin que me deje llevar de la pasion hácia este pueblo, porque ante todo no puedo desconocer, que el tanto de culpa ó el todo de ella la tuvieron los marineros de esta poblacion, si bien es justificable hasta cierto punto, atendiendo al carácter, á la indole y tosca educacion de la marineria de todas partes, que arrastrados por impresiones del momento desconocen la razon y la prudencia, lanzándose ciegamente á reparar agravios que suponen inferidos á su dignidad y honra como sucedió en le caso presente.

Pues bien, el caso es, que el dia 2, de doce y media á una de la tarde, estando pasando el rato como de costumbre en uno de los asientos que tiene a su costado esta casa consistorial, los señores D. Fabian de Abaroa, Don José M<sup>a</sup> de Ezpeleta, Don Juan Presilla y Don Bruno Lopez de Calle, se presentó una muger llorando y demandando con toda urgencia la presencia de la autoridad en el puerto.

Al suponer estos Señores que por aquella parte de la poblacion habia algun conflicto ó altercado grave, se dirigieron precipitadamente hácia el puerto, y al ver la confusion, el desorden y los llantos de las mugeres, preguntaron cuál era la causa que motivaba tanta alarma; y cual fue su asombro, cuando supieron que tres lanchas tripuladas profusamente habian salido del puerto, al saber que en aquellos momentos debian pasar las de Ondarroa por frente de esta barra.

Desde luego estos señores conociendo la gravedad del caso y las funestas consecuencias

que pudieran sobrevenir de semejante encuentro, no titubearon un momento en cumplir con un deber imprescindible, preparando inmediatamente una lancha bien tripulada, con el fin de dar alcance á las que habian salido ya y hacer que con su influencia, con su palabra, con su prestigio, y valiendose de todos los medios que estuvieran a su alcance, conseguir el que desistieran de de tan temeraria resolucion, cuyas consecuencias sobradamente conocian que necesariamente tenian que ser funestas.

Efectivamente habian conseguido darlas alcance ántes que se presentara la de Ondarroa, cuando el Señor Alcalde, sabedor de lo que ocurría, se presento en el sitio y todos con sus esfuerzos habian conseguido tranquilizar los sobreescitados ánimos, haciéndoles comprender la razon; y ya se preparaban á regresar á sus casas, tanto que dos de ellas habian ya tomado el rumbo al puerto, cuando la fatal casualidad hizo que en aquel instante se presentara la lancha de Ondarroa, dando la vuelta al cabo de Sta Catalina, ondeando su bandera y tan arrimada á tierra, que no parecia sino que habia salido de una de las pintorescas endiduras que forma aquel cabo.

Al ver esto, se verificó una reaccion de ira y de encono tan profunda en estos impresionables marineros que todos, como heridos por por un alambre eléctrico, gritaron á la vez: "¡Abajo la bandera no ha debido ser de ellos, sino nuestra! ¡nos ha sido robada por los amaños y la astucia como tiene de costumbre esa gente! ¡a quitarles la bandera!"

Aqui puede comprender V.S.Y. cuál seria la situacion del alcalde y de los demas señores de esta villa y cua redoblados y supremos debieron emplear en aquellos momentos, que á riesgo de caerse al mar saltaban de lancha en lancha, suplicando unas veces, amenazando otras y siempre haciéndoles comprender que ellos no tenian derecho para arrebatarles una bandera que les habia sido adjudicada por un jurado que tenia el caracter de autoridad.

No? fueron vanos tantos esfuerzos y ya se pudo conseguir que ninguna lancha se moviera de su puesto y que tan sólo la que montaba el Señor Alcalde se acercara á las de Ondarroa, no en son de amenaza ni en aptitud hostil y agresiva, como torpe y groseramente pretende la Cofradia de Ondarroa, sino que con

buenas y urbanas formas les suplicó, que una vez que aquella bandera era la causa de la irritación general que se notaba en los ánimos de los marineros de Lequeitio, tuvieran á bien bajarla hasta pasar el frente de Lequeitio, con el loable objeto de evitar un conflicto y que despues la lebantaran é hicieran lo que mejor les acomodara. Mas á esta amonestación tan prudente, tan conveniente y tan amistosa, uno de los tripulantes de la de Ondarroa, acostumbrado á las refriegas de los combates, como militar que ha sido, creyo que con amenazar torpe y ligeramente á la autoridad y á toda la tripulación con un revolver de seis tiros que tenia consigo, impondría silencio, no tomando en consideración los prudentes y amistosos consejos del Alcalde.

Ante esta aptitud tan difícil, tan grave y tan trascendental, y ante este desacato tan repugnante como agresivo, hecho, no al que como ellos dicen con el mayor cinismo al que se suponía o se hacía de autoridad, sino á la autoridad misma; porque ellos y el que especialmente empuñaba el arma, bien conocía á la persona y veía que ante sus ojos tenía el baston como emblema de autoridad, se complicó de una manera tan sensible la situación, que al conocer las lanchas que quedaron á bastante distancia, que algo extraño ocurría á la lancha del Alcalde, dieron la voz de socorro a nuestros compañeros y se lanzaron presurosos al sitio del conflicto.

Efectivamente cuál fué el asombro de los Señores que montaban estas lanchas y cuál la irritación y la rabia de los marineros en general al ver la pistola, que uno de los Señores, conociendo la gravedad de una situación tan comprometida y que no se presentaba medio alguno para salvar á los de Ondarroa, acaso de una muerte cierta si se verificaba algun disparo, hizo que su lancha se pusiera al costado de la de Ondarroa y saltando á ella, estrecho la mano del que empuñaba la pistola, con toda la efusión de su corazón y le suplicó que retirara la pistola, objeto de la ira general; y que le diera su palabra de no volverla a sacar.

Así lo hizo y ya todo se tranquilizó, sin que se causara á nadie lesión de ningún género ni se levantaran remos como equivo-

cadamente suponen los de Ondarroa, sino que en aquella revuelta general de voces, de improperios y de amenazas de todo lo que V.S.Y. puede comprender de jactancioso y fanfarron, cayo un marinero de Ondarroa al suelo, de la que resultó un ligero rasguño en una de las mejillas.

No deben pues los de Ondarroa jactarse como lo hacen, de que gracias á su pistola habrieron paso y se libraron del peligro que corrieron ese día, no: gracias pueden dar á que Dios hizo que los Señores indicados y el Señor Alcalde pudieran llegar á tiempo para intervenir con su influencia conjurando el peligro, que de otra suerte no me cabe duda y ésta es la creencia general, que ni tan sólo uno de los tripulantes de Ondarroa, hubiera ido á contar el lance a su pueblo, pues de tal manera estaban irritados los ánimos de estos marineros.

La causa de esta animosidad estaba basada en el incidente del choque que ocurrió cuando arrancaron en la estrepada a disputarse el premio; choque, que los marineros de esta no lo dan por casual é imprevisto, sino por muy premeditado y muy combinado, porque además del choque, dicen que los de Ondarroa se agarraron de los remos de la lancha Lequeitiana, para hacerla perder su rápida marcha.

Estos son los hechos, Yltma. Diputación general. que ocurrieron el espresado día 2 entre las lanchas de esta y las de Ondarroa y en conformidad á ellos, tienen ya evacuada su declaración los señores antes citados, ante el juzgado de primera instancia de este partido, al cual se dirigió el Alcalde de este pueblo tan luego como tuvo lugar el acontecimiento.

Dios guarde a V.S.Y. m.a.

Lequeitio y Setiembre 12 de 1.865  
El 2º Teniente de Alcalde  
Pedro de Abaroa (sinadura)  
Yltma. Diputación del M.N. y  
M.L. Señorío de Vizcaya



Santa Catalina faroa. Argazkia: Kifuka.

Santa Katalinan gertatu zena argiegi ez egon arren ezin da ukatu ez zela halakorik gertatuko lekeitiarrak ez baziren ondarroatarren bila joan.

Baina zer gertatu zen Portugaleten halako haserrea erakusteko?

Badakigu ez zela lehenengoz lekeitiarrak eta ondarrutarrek elkarren kontra aritzen zirena.

1851an desafio ikaragarria prestatu zuten, Lekeitioko Santa Katalinan hasi eta Getariara artekoa. Lekeitiarrak irabazi zuten, baina ondarrutarrek ez zeuden konforme. Resurrección María Azkuek Hondarrabian entzun eta batu zituen bertsoek lekeitiarren garaipena abesten zuten:

*Ondarrutar oriek egin dute plana,  
egin bear dutela egun artan lana;  
amurratzen jarri da Lekeitio dana,  
aurten urrikari da oien kontra dana.*

*Estropadan asi ziran biak alkarrekin,  
aurrera joan zitzaion bentajearekin;  
«Ea, nere mutil maiteak, piska bat egin!»  
San Antonera orduko biak ia berdin.*

*Zumaiara artean aurretik ederki,  
nobedade egin zaio tostartean bati:  
erremuratutzeko Felipe jaun ori  
San Antonera orduko ukatuta geldi.*

*Ondarrutar oriek zuten pantesia,  
olatua popatik txalupan grazia;  
atzetik or eldu da txalupa bestea,  
gaizki egin zaioten popatik eltzea.*

*Popatik eldu eta arrauna kentzera,  
orduan artu zuen txalupak bestera;  
oiek baiñon gutxiago gu bat ere ezker,  
zer lotsa daramaten oiek erbestera!*

*Erbestera joanda endrerruan asi,  
ederrak ematea zutela merezi,  
apostu irabazten oiek ez nai utzi;  
Lekeitiarrak ziran Getarian nagusi.*

Zainak 33, 2010 "Legendarias regatas de traineras..." Ojeda San Miguel, Ramón erabili izan dugu norgehiagoka horretaz gehiago jakiteko. "El Clamor Público" egunkarian agertu zen estropada hau.

Ondarrutarrek, haserre, (ez zitzairen egunkariaren ikuspuntua gustatu, antza) erantzun zuten luze, luzeegi (largo y tendido). Laburtu egin behar izan dugu baina interesa duenak Ramón Ojedaren lana erraz aurkituko du interneten.

### Regata famosa

En agosto último un joven capitán mercante, de la matrícula de Lequeitio (provincia de Vizcaya), mandó construir en el vecino puerto de Ondarroa una lancha toda de pino con el fin de que haciéndola con este material de menor peso, fuera más veloz en la pesca de la sardina y anchoa, para cuyo objeto la pensaba exclusivamente destinar. En tan buena relación resultaron las dimensiones de quilla, eslora, etc., que, previo ensayo a remo con las más ligeras del puerto de Lequeitio (a las que aunque fue corta la carrera aventajó notablemente), no titubeó su dueño, en cuanto la carenaron, en bautizarla con el nombre de "Ariñena" (la más veloz). Como existe de tiempo inmemorial la continua lucha entre los puertos pescadores de la costa de Cantabria, por querer ser cada uno de ellos el primero en asuntos de esta naturaleza, ofendese el amor propio de los ondarroanos al oír que se jactaba un lequeitiano de ser dueño de la lancha más ligera, que sostendría la justicia de su nombre con cualquiera otra de la costa, y construyen otra con las cualidades o requisitos que según los más inteligentes debía llenar para el objeto; apellidándola, concluida que fue, con el título de más veloz que la que por más se tenía, o sea que la "Ariñena". El resultado de estos piques, como puede presumirse, fue verificar una apuesta de 15.000 rs., que ganarla la que en un tiempo dado llegase antes al punto donde entrambas se dirigiesen.

El día 24 de diciembre, aunque el Océano agitaba fuertemente sus embravecidas olas, los intrépidos cántabros embárcanse en sus respectivas lanchas, tripulándolas con número igual de valientes y esforzados marineros de ambos puertos, y emparejadas en el cabo de Santa Catalina, parten a la vez furiosamente impelidas tan solo por el uniforme y vigoroso empuje que les comunicáran los robustos brazos de los diestros remeros, ansiosos de alcanzar, no el mezuino premio de la apuesta, sino el renombre y la gloria que cree cada uno merece con justicia el puerto a que pertenece. Largo trecho surcan sin ventaja notable, lo cual origina nuevas apuestas entre la multitud de espectadores que puebla la parte de costa paralela al camino que recorren, hasta que uno tras otro tres marineros de la lancha de Ondarroa, abandonando sus remos caen rendidos de fatiga y exánimes entre los pies de sus compañeros. Esta pérdida de fuerza parece que recordándoles la inferioridad de su número, en vez de desmayar su ánimo, da nuevos bríos a sus nervudos brazos, y la desventaja en que se colocáran en el primer momento, la recuperan en el siguiente, logrando caminar de nuevo a la par con su antagonista, que al poco rato pierde también otro marinero por igual motivo, cuando próxima se hallaba al puerto tan deseado de Guetaria.

En este momento decisivo el patrón de la "Ariñena" con un discurso que habla al alma del marinero cántabro y en el idioma vascongado, arenga a su tripulación para conseguir de sus fatigados y ya ensangrentados miembros, el último esfuerzo, que para siempre debe dar o quitar la gloria de la victoria a su querido pueblo, y secundando con la obra sus palabras, abandona su puesto, ase el remo vacante y logra llegar al término convenido de la carrera, momentos antes que su competidora.

Las apuestas de este género bastante frecuentes en la parte de la costa cántabrica comprendida entre el cabo Iguer y Machichaco, creemos, que si bien son útiles para estimular y esforzar al marinero en su penosa y dura carrera, deberían verificarse en distancias mucho más cortas que las de 4 leguas que ha medido la presente para no tener que lamentar la pérdida de los mejores hombres de la industria pesquera.

El Clamor Público, n.º. 2303, miércoles 7 de enero de 1852.

## Ondarrutarren erantzuna

Muy señores nuestros: Tan luego como en su apreciable periódico de 7 del último mes vimos la relación que hacían con el epígrafe de Regata Famosa, nos habíamos propuesto deshacer inmediatamente las muchas inexactitudes y de grandísimo bulto que contiene...

...En primer lugar la lancha del ex capitán mercante de la matrícula de Lequeitio no fue construida en este puerto, como Vds. aseguran, sino en la inmediata de Motrico, y prescindiendo de sus buenas o malas relaciones en las dimensiones de quilla, eslora, etc., antes que se construyese esta que se acaba de decir, tenían proyectado los de esta villa construir otra y otras, como continuamente sucede. El ex capitán de Lequeitio, más orgulloso aun que joven, y que por casos idénticos a este ocurridos a él o alguno de su familia anteriormente tenía lección bastante para haber sido más cauto y prudente, en esta misma villa tuvo la osadía por el mes de agosto de provocar a esta clase de lid o regata, diciendo, que si los de Ondarroa quisiesen jugar contra su lancha, podría a su favor doble contra sencillo...

... pero es muy de advertir que la provocación proferida por el ex capitán de Lequeitio, de que pondría doble contra sencillo, se la tragó como píldora dorada...

... Una de las cláusulas principales que tenía este papel, pedida por el ex capitán, y concedida por los de aquí, era la de que cada cual pudiera hacer a su lancha las reformas que gustase; en fuerza de la cual, la rebajó el puntal, quitó las tostas y puso otras más ligeras y más bajas arreglándolas a su conveniencia; le quitó los curvatonos, la dejó sin fierro alguno, la adelgazó, y en una palabra, hizo en ella todo lo que su imaginación le sugiriera y lecciones que le diesen los muchos inteligentes de aquella villa, y a su vez a la de aquí ni aun se tocó en su casco, y salió a la estrepada según se votó al agua del astillero, adelgazando únicamente los paneles por quitar parte de su peso...

... Antes de pasar adelante en la relación de los hechos, debe consignarse aquí uno muy singular, que tanto enaltece la nobleza y orgullo de los de esta, comparado con la bastardía y modo de proceder que tuvieron los de Lequeitio. Por no faltar bajo su empeñada palabra a estar en el punto de partida para la hora señalada, salieron los marineros de esta villa precipitadamente, por que no se quedasen en seco por falta de marea, con el mezquino desayuno que hubiesen tomado a las siete de la mañana, y sin más alimento ni provisiones se presentaron en el cabo de Santa Catalina, del puerto de Lequeitio, distante dos leguas de aquí, antes de las nueve y media de la mañana del mismo día 23; y obsérvese bien la conducta y nobleza de unos y otros, que los de Ondarroa, después de andar la distancia y en la disposición que se ha dicho, estuvieron allí para las nueve y media, y los de Lequeitio, a pesar de ser su puerto, no salieron al lado de su competidora hasta las doce dadas de medio día; faltando a lo pactado solemnemente y con el designio sin duda de ver si podían conseguir, lo que de otra manera no, en fuerza de dejarlos allí exánimes de debilidad y de frío...

... A pesar de todo, los de Ondarroa que podrían haber echado a andar a la hora señalada y cogerse el dinero en Guetaria, tuvieron la gran paciencia y nobleza de esperar a los lequeitianos que iban después de comer y beber bien, y además provistos de todo lo necesario...

... A las doce y media en punto... ...princió la corrida de las lanchas: y vaya otra tercera inexactitud.... ... antes de un minuto se adelantó la de Ondarroa a la de Lequeitio; razón por la que quedaron los lequeitianos enmudecidos y consentidos en haber perdido la apuesta, en términos de que ni aquellos, los que de entre la multitud coronaban los montes y que habían manifestado simpatías por aquellos, no querían ya apostar ni aún poniéndoles doble contra sencillo; y cuya ventaja fue progresivamente en aumento en toda la distancia, como lo observaron la grande muchedumbre de espectadores de toda esta costa hasta el Abra de Zumaya punto que dista media

legua al de la llegada en Guetaria, en cuyo paraje por la gran repompa que había no se podían valer los de Ondarroa tan bien como los lequeitianos por las reformas que a aquella se le habían hecho, y merced a esto empezó a acercarse aquella a la de aquí, y no por haber caído (cuarta inexactitud) desfallecidos tres marineros...

... Sin embargo de todas estas ventajas por parte de la lancha de Lequeitio, siempre seguía la de aquí por delante, y al llegar al punto de San Antón de Guetaria, como la mar estaba picada, según se ha dicho antes, el patrón de la de Ondarroa, que entonces era el marinero que tuvo que abandonar su remo, dirigió su lancha por la franqla, separándose del rompiente por evitar un naufragio; en cuya vista el de Lequeitio, por acortar la distancia y ganar la desventaja que llevaba, se dirigió al rompiente; observado lo cual le imitó el de aquí, llevando siempre la delantera a pesar del rodeo que habla dado. Vuelto ya el monte de San Antón en la misma disposición, o lo que es lo mismo, yendo por delante la lancha de Ondarroa, tres azares, que tanto como perjudicaron a ésta, favorecieron a la de Lequeitio, fueron la causa de que ésta se acercase a aquella impelida con la lanzada de la primera ola a la intermediación, y con la segunda a su contacto; y como los de Lequeitio viesan que del mismo favor de la ola iba a participar la de Ondarroa, la agarraron para detenerla; en cuyo caso principió entre los tripulantes de ambas lanchas una lucha a brazo para hacerles soltar a los de Lequeitio la lancha que tenían asida, como en efecto se les hizo dejar. Finalmente, muy próximos al punto destinado de llegada del muelle de Guetaria caminaban ambas lanchas yendo delante y como siempre por la parte de tierra la de Ondarroa, cuando la tercera ola la echa encima a la de Lequeitio, poniéndola al costado de la de Ondarroa, y media lanchada corta tras de ella, y agarradas nuevamente en este punto, y remando tan solo cinco hombres de los de proa de la de Ondarroa, entraron en el muelle llevando a remolque la de Lequeitio a vista de todo el público de Guetaria. Así fue como llegó delante de la de Ondarroa, saltó también uno de los tripulantes de ella a la escalera del muelle, a mas de otro marinero que, cuando el último choque, saltando en la peña, se presentó en el muelle a pedir la bolsa; y he aquí la más garrafal y quinta inexactitud que es el utrum de la dificultad. Estos son los hechos, y aun cuando a la llegada de Guetaria se acercó como se ha visto la lancha de Lequeitio a la de aquí, no es debido a la habilidad de aquella, sino a los azares y contingencias de las olas. Si en virtud de estas verdades incontestables es fuerza confesar que la de Ondarroa ganó indisputablemente la apuesta, es otra verdad también que el señor alcalde de Guetaria habiendo presenciado la lucha que había ocurrido entre ambas tripulaciones, tuvo por prudente aconsejarles que cada uno cogiese su dinero y se volvieran a sus pueblos por causas que todos sabemos, y los de Ondarroa, sin embargo de que estaban penetrados de la justicia que les asistía, aconsejados además por sujetos amantes de la paz, convinieron en el consejo que hablan recibido, por evitar los disgustos y dispendios...

... Sirvanse ustedes, señores redactores, de dar cabida a esta comunicación en uno de sus inmediatos números, en cumplimiento de la ley, con lo que se ofrecen con toda consideración sus atentos seguros servidores Q. B. S. M. - A nombre de la comisión,

Domingo de Lemer - Francisco de Idueta.

Ondarroa y 12 de febrero de 1852

El Clamor Público, número 2476, Domingo 15 de agosto de 1852

Madarikatunari, laburtuta be kabidu bez!!!

1851ko estropada agian ikusgarriagoa izan zen. Irakurri duzue egunkarian esaten zena eta ondarrutarren erantzuna. Ez daukat duda izpirik, 1865eko estropadan gertatutakoa honen ondorioa izan zela. Ondarrutarren haserre batak da. Lekeitiarrak irabazte suertatu ziren, bertsoek eta egunkariak hala diote, baina ondarrutarrak ez zeuden konforme. Beste estropada bat egiteko asmoz batzartu ziren, baina, ondarrutarrak diotenez, lekeitiarrak ez zuten hori posible egin. Desafio hura lekeitiarrak irabazi zuten seinale da hori, errebantxa eskatzen duena galtzaile izaten baita beti, eta ukatzen diona irabazlea.

Ondarrutarrak kontatzen dutenaren laurdena egia bada, norgehiagoka hori euren izan beharko zen eta hor doiaz beren kexak hurrenez hurrenez: bi legoa gehiago egin zuten; goiz-goizetik altxatu ziren; armosu triste bat janda abiatu ziren; itsasoaren egoera lekeitiarrei komeni zitzaizkien; euren arraunlarietako bat handiegia ei zen eta patroi jarri behar izan zuten; ongi prestatu gabeko trainerua eroan zuten; hainbat olatu euren kontra; lekeitiar iruzurrak tranpatan eta amaitzeko lehen heldu arren, salto eginda moilara lehenago igoko duen marinel lekeitiar azkar bat. A zelako zerrenda!

## INTERIOR.

Al Escalduna le han dirigido la carta siguiente; la publicamos como una muestra del carácter pundonoroso de los marinos vascos.

BILBAO 31 de Agosto de 1865.

Muy señor nuestro y de toda mi consideracion: como sabrá V. ya a estas horas, en las regatas celebradas esta mañana en Portugalete ante sus M.M. y A.A. han ganado los dos primeros premios las lanchas de Ondarroa, pero todo el público que asistía a este bellissimo espectáculo, ha visto la lancha núm. 2, que salió con la de Lequeitio número 8, tropezar con esta, perdiendo en este percance, de minuto a minuto y medio; saliendo por último la lequeitiana con 30 segundos menos que la primera ondarrera.

Conociendo que el triunfo, sin este percance, era de los lequeitianos, el que suscribe, comisionado de la lancha de Lequeitio, encargó al señor D. Bartolomé Godó, propusiera al comisionado de la lancha ondarrera una regata con la lequeitiana, con las mismas tripulaciones para hoy mismo, mañana y hasta pasado mañana, ante el mismo público que hoy a presenciado el regato y hasta aprovechando el viaje de S.S. M.M. de Santurce y jugándose la cantidad que gustaran.

Los comisionados de la lancha Ondarrera se han excusado de aceptar la propuesta a pretesto, primero, de que la gente se halla cansada y después diciendo que se vaya a arreglar el asunto a Ondarra.

Como la cuestion es de honra de los marineros, de ningun modo de dinero, ruego a V. se digne insertar esta manifestacion en su apreciable periódico, en lo que dispensarán favor a su seguro S. Q. R. S. M.—Pascual de Larrazabal—Fausto de Arauci.



Aurelio Artetaren koadro batean oinarritutako kartela. 1930eko Donostiako estropadak.

Aitzakiak ala egiak? Ez da erraza galtzea, ez zuten 1851an ondarrutarrak galtzen jakin eta 1865ean lekeitiarrei heldu zitzaizkien txanda. Orduan ondarrutarrak kexatu ziren, hurrengoan lekeitiarrak. Orduan ondarrutarrak errebantxa eskatu zuten, ez zioten onartu; hurrengoan lekeitiarrak eskatu zuten eta ondarrutarren ezetza aurkitu zuten.

Argi dago ohorea eta ondra besterik ez zutela marinelek, eta 1865ean Erreginaren aurrean gainera, ondarrutarrak mendekua hartu zuten. 1851eko estropadan lekeitiarrak haien trainerua jo zutela eta beren arraunek ondarrutarrenak kolpatu zituzten kexa egin zuten (bertsoak eta egunkariak ez dute hala esaten, baina ez diegu orduan galtzaile izan zirenei hori ere kenduko), 1865erako ikasia zuten lezioa. La España egunkarian topatu dugu gertaera horren berri. Lekeitiarren haserre antzeman dugu, nolakoa izango zen ondarrutarren poza irabazitako bandera oraindik kofradian gordeta edukitzeko. Harrezkero, onartu behar da ondarrutarren palmaresak erraz gaudituz zuela lekeitiarrena.

# BERSO BERRIAK

## Burgoak jarriak

- 1.º  
Mata bederatzi egunda  
etasei garrenian  
aren bostian izan  
an Donostiko errian;  
i chalupa juntatu dira  
atzeko arraunian.  
ki gabe jokatu dute  
na baten aurrian.
- 2.º  
zpi chalupa oyetatikan  
ziraden Bizkaitik;  
arrutarra aurretik bayetz  
esa bazan gogotik;  
a franco erabili da  
aitarraren aldetik;  
zak ederki ustutakuak  
a Guipuzkuatik.
- 3.º  
endabizitik jokatzera  
ziraden atariak:  
arabiya eta Pasaya  
ostia ta guriak;  
puzkuarrak uste zuen  
ak zirala obiak;  
ai onetan ezaguta da  
diran arraunlariak.
- 4.º  
au chalupa oyek Koncha orretan  
otikan dira saya,  
ro askar isildu ziran  
ostiarren kanpaya;  
n orretan Gaztelutikan  
uden jente lasaya;  
miorako guelditu ziran  
arrua ta Pasaya.
- 5.º  
remio ori jokatu zana  
laren amabiya,  
aitarrak beretzat uste  
larik es dago iya;  
a aurretik etorri zaye  
e etzuten erbiya;  
puzkorako au izangoda  
in señalagarriya.
- 6.º  
Aspalditikan ojuka zeuden  
Gurekin jokatzeko,  
Despreziorik asko izan da,  
Ez degu ukatuzeko;  
Donostiarrak afro zebiltzen  
Gure indarrak neurtzeko;  
Egun alaya etzan izandu  
Kayako achuentzako.
- 7.º  
Oguei ta zortzi urte dirade  
Konchan jokatu zutela;  
Orduan ere arraunerako  
Etzan kuadrilla ustela;  
Gastiak ere gogor egindu  
Lenago zarrak bezela:  
Bigarren aldiz ekarri dute  
Guipuzkoako chapela.
- 8.º  
Desaide asko aditu degu  
Bizkaiko portu batetik  
Aserre samar gaur ere dira  
Ez dakit ori zergaitik;  
Zer kulpa degu arraunlariak  
Zuek ez izanagaitik?  
Emengo kastak ateratzeko  
Bialdu pare bat ortik.
- 9.º  
Premiorikan asko badegu  
Irabaziak bakian;  
Oraiguanbe kontentu gaude  
Beste danakin batian;  
Mingañarekin balientiak  
Zuek, or zagos atian...  
Biria libre izango dezu  
Juan datorren urtian.
- 10.º  
Premio onak izaten dira  
Alde batetik bestera;  
Ezagutuko zaituzte noski  
Ara juaten bazera;  
Amabi milla peseta eta  
Sedaskua zan bandera  
Ondarrutarrak irabazita  
Ekarri dute echera.
- 11.º  
Desprezio au aitzen guenduen  
Makiña bateren agotik  
Or jolazian ibilli gabe  
Ekarri Guipuzkoatik;  
Aurten Konchara etorri guera  
Askoren esanagaitik  
Juan naiduanak kontrariorik  
Ezdu izango gugaitik.
- 12.º  
Guri beguira gustora zeuden  
Ere Erreala,

111

GOBIERNO CIVIL DE VIZCAYA

SECRETARÍA GENERAL

Negociado 2.º Núm. 1157

Con esta fecha impongo al vecino de Ondarroa José Burgoe Pagats, la multa de cien pesetas por publicar una hoja impresa sin mi autorización y otras cien pesetas por los conceptos que emite en la estrofa 8.ª de la citada hoja, vejatorias para el vecindario de esa localidad.

Procure que reine la armonía necesaria entre ambos vecindarios.

Dios guarde a Vd. muchos años.

Bilbao 5 de Octubre de 1926.

El Gobernador Civil,

W. Alcalde Presidente del Ayuntamiento de LEQUEITIO

LUA-U2114/06

LUA-U2114/06

111

SRAS. SCHIVARELLISTA, ( don Roman), Ocasica, (Alcalde), Amusatogui, (Diputado) y don Antonio Martinez, (Secretario)

LEQUEITIO.

Muy S. os. mios y amigos:  
De corazon me adhiero al hermoso acto de solidaridad cristiana y de aproximacion amistosa de pueblos vecinos y del mismo origen étnico: Ondarroa y Lequeitio.

De verdadero corazon me adhiero y con toda pena lamento que la imposibilidad de aplazar un acto tan de mi simpatia y de mi admiracion no me permita estar mañana domingo entre vosotros, cuando, con goce de ojos y de alma, de los hermosos actos que esplendidos y generosos habéis organizado.

Porque ello me hubiera prestado oportunidad de hacer pública renovacion de mis amores a Lequeitio y a Ondarroa, que, ni mas sano concepto humano y religioso lo hizo siempre compatibles.

He dicho ni mas a Lequeitio.

Si, ni mas al gran pequeño pueblo donde nacieron o vivieron inspirados compositores, como Velasco, Zepirain, Valdés-Goiocochea (mi amigo de niñez, Julio), mi maestro de guitarra don Resurrección Maria de Azcue; de los celebrados cantores sagrados Euzkiza, Chopites, Basabe; de excelentes pintores, como Tellasche, Ibañeta de Aldacoa y Garavilla; de medicos como Anduiza, y otros hombres de ciencia y de arte cuyos altos servicios pertenecen a mi época, para no consignar los que señala la historia y los viejos recuerdos:

Mi amor al pueblo querido de mi querido abuelo don José Antonio, lobo marino y contrabandista, y de mi padre y de mi raza paterna; al pueblo donde pasó los mejores años de mi niñez, y donde aprendí las primeras letras en la escuela de Don Antonio Sacristan, sita en la Administracion de Correos, rostro de cuyo maestro y disposicion interior de cuya escuela aun no he borrado el tiempo en mi memoria:

Mi amor al pueblo mas bonito del mundo. He dicho el mas bonito del mundo y no rebajo ni un apico, porque esa afirmacion me la confirmaron mis andanzas por Europa y America; pueblo donde está todo colocado, de modo tan preciso y tan armonico, que si fuera posible cambiar de emplazamiento las playas para bravos y para señoritas, al calvario como piramide a picas, la diafana alameda donde miden los jilgueros, la isla como centinela avanzada, el limpio rio Lea, el alegre camino del faro, de Mendoja, de Arropain, de Gardata, etc., afeariamos, trastocaríamos y profanaríamos la obra del Gran Artista, del Gran Arquitecto; de Dios:

Mi amor, un fin a esa troita de arena, del Sol y de madroños verdes, que me inspiró una de mis mejores poesias, en la que, en alabanzas digo cosas que ~~entusiasmo~~ ~~maximamente~~ extendido por fama de la belleza Lequeitiana, vinieron muchos cetaceos desde janas zonas polares árticas y antárticas, y un gran monstruo de contrarraz con un rincón tan bonito, quedó petrificado de admiracion ballanto en la Isla de San Nicolase que en los estertores de lansó una suela, y esa suela es para el tradicional y legendario kordo. Poesia que terminaba diciendo que en LEQUEITIO quisiera do a las tres crucecitas de mi calvario, mientras escuchó los cantos y euskéricos de los nobles arantzales orquestados por el huracán de la pregonera que con voz sonora y varonil llamaba a la "Jasha Miguel": Juan Colmea-isonian jagaziteh".

Tambien he dicho ni mas a Ondarroa: al puerto tipico, y escondido en reliquia lanzada por un mar, al puerto encaramado en el cantido de blanca gaviota, puerto de los remeros vigorosos y estillado donde fui a alojar ni bella y virtuosa compañera de mi tan amada; al pueblo

Beste istilu edo droga handi bat ere ezagutzen dugu hainbat tokitan aipatua. 1926an Ondarroako Club Deportivo Aurrerak dena irabazi zuen, eta harro, harroegi, lekeitiarren gizentasuna zailantzan jarri zuten. Irabazten ere jakin behar da. Ramon Solanoren trainerua zela eta ez zela berotu ziren animoak, baina Burgoaren bertsoek umore gutxi zuten eta malaletxe asko. Benetan entzun zituzten halakoak Lekeitioko bi emakume gaztetxok Ondarrun eta bertsoak hori aipatzera zetozen. Isuna jarri zioten Burgoari, baina kaltea eginda zegoen. Santiago Meabe jeltzalea erabili zuten bakeak egiteko eta karta hunkigarria idatzi zuen arren, haserre hotzak, gerra hotzaren antzean, luze iraun zuen.

Kirolean ez dago ezer hoberik galtzea baino -"we learn from failure, not from success" zioen Van Helsing doktoreak Dracula nobelan, beti ezin dira filosofo handiak aipatu- eta aspaldian bata zein bestea horretan hobeto dabiltzanez, herrien arteko haserreak baretu egin dira, jakintsuagoak eta akaso zoriontsuagoak bihurtu garelako galtzen ikasiaz. Galduta ikasten da, baina lehenago galtzen ikasi behar da. Amen.

Consejos vendo, para mi no tengo



# Sanpedruak eta Sanjuanak

Testua: Iñaki Irigoien

**L**ekeition garrantzitsuak dira San Pedroak. Santu hau herriko arrantzaleen kofradiako babesle eta jagolea izan da.


Ospakizunak antzinatik agertzen dira dokumentuetan. Honela, 1508. urtean, haragi hornitzaileen betebeharren artean zegoen *“traer para el día de San Pedro para correr, dos novillos y dos bueyes”*. Urte gutxira, kofradiako gastuen artean, zezenen eta dantzarien erreferentziak agertzen hasten dira.

San Pedroetan, bezperatik hasita uzta-laren 2ra arte (Andra Mariaren bisitazio eguna azken hau), kofradiaren nondik norakoak zuzendu beharko zituzten maiordomoak izendatzen ziren. Egun batzuk aurretik baina San Juan eguna ospatzen zen, Auriako (Audixo) oster eginez.

1595eko azaroaren 13an suteak herriko hiru etxetatik bi erre zituen, guztira laurhun etxe baino gehiago, tartean udal-txea, alondegia eta kartzela. Halere, honek ez zuen eragotzi, 1596an San Pedroak ospatzea, egin ziren gastuetan ikusi ahal denez (dantzarietzako freskagarriak,...).

Urtebete beranduago, 1597an, izurrite larri batek errematatu zituen herriaren ezbeharrak. Santa Maria elizaren fabrika liburuetan (kontu liburuak) ikusi daiteke urte haretan elizako ortuaren errenta ez zela jaso, bertan, izurriteak jota hil ziren bostehun lagunetik gora lurperatu zire-lako. Kopuru hau handiagoa da, kontutan hartzen badugu ortua ez zela ohiko tokia gorpuak lurperatzeko.

Dantzaria:  
Ignacio Murelaga, 1926.



## Mende bateko liskarrak


Zoritzarreko gertaera haien ostean, XVII. mende hasieran, liskar larria sortu zen, Martin de Lariz parroikiko bikarioa eta Calahorrako gotzaina, eta arrantzaleen kofradiako maiordomoen artean. Calahorrako gotzaiak jai hura debekatu egin zuen. Orduan, Kofradiakoek, errekurtsioa jarri zuten Bizkaiko Epailen Nagusiaren aurrean eta Valladolideko Chancilleriaren Lehendakari eta Entzuleen aurrean, beraien alde egongo zire-lakoan. Chancilleria garai hartako azken justizi instantzia zen.

Parroikiko bikarioaren eta bere nagusien iritziz, liskararen funtsa zen ospakizun zibil eta laikoetan eliz elementuak erabiltzen zirela. Kofradiak, aldiz, argudiatzen zuen erabilitako elementuak ez zeudela bedekatuta. Eta antzina-antzinatik, bakean eta arazorik gabe burutzen zirela ospakizunak; ez zirela irreberenteak eta elizgizon batzuk ere parte hartzen zutela.

Dirutza handiak xahutu ziren auzian, hala diotzo gotzain jaunak arrantzaleen ordezkariari Kaltzadako Santo Domingon. Kofradiako ordezkariak kontatzen du gotzainarekin izandako elkarriketan hark esan ziola uzteko auzi biziotsuak *“y que se quitasen de hacer ritos en hacerse Papas y asimismo que estaban descomulgados todos los de ese pueblo”* eta *“que por eso se le había quemado toda la villa”* urte batzuk aurretik.

Valladolideko Chancilleria-ko Artxiboan dagoen auzi honetan (1605-1607) eta XVII. mendeko beste hainbat dokumentutan oinarrituta, San Pedro eta San Juan jaiak zelan ospatzen ziren azaltzen saiatuko gara.

España. Ministerio de Educación, Cultura y Deporte. Archivo de la Real Chancillería de Valladolid. Sala de Vizcaya. Caja 2809, 2. 1606



## Auriako jaiak, San Juan eta eguzki dantza


Ospakizunak San Juan egunean hasten ziren. Kofradianteak... *“van juntamente con los cabildos eclesiástico y seglar de la dicha villa a un puesto que se llama Auria, junto al humilladero que está en la entrada de dicha villa, con ánimo de celebrar y festejar el día del señor San Juan y para tratar en el dicho puesto del modo y forma como, en el servicio de nuestro señor, se hayan de celebrar fiestas y regocijos en alabanza del señor San Pedro su patrón”*. Komitiba, prozesioan joaten zen arrosarioaren ondoren, arratsaldeko sei eta zazpiak bitartean, elizatik irten eta herriko kaletan zehar, Aurian (Audixo), intxaurrendoen parean zegoen egurrezko gurutze bateraino.

Aurian dantza egiten zen. 1656. urteko notaritza-akta baten arabera: *“vista la danza que según costumbre se compuso de hombres, se volvieron de la misma manera a la nasa y muelle del puerto”*. Ez ziren egiten gizonen dantzak bakarrik, auresku edo gizon dantzak legez ezagutzen ditugunak. Andrazkoen dantzak ere egiten ziren.

1682ko beste agiri baten hala ikusi daiteke. Azken hau da San Juan eguneko andrazkoen aureskuaz aurkitu dugun erreferentziarik zaharrena. XIX. mendearen erdialdean, andrazkoen dantzei buruzko datu gehiago aurkitu ditugu. 1856an, San Juan eta San Pedro egunetako goiz eta arratsalde bietako neskatxa dantzarietzako freskagarriak ordaintzen dira *“ohitura denez”*.

“Eguzki Jaiak” ere deitzen zitzaion, udako solstizioko egun nagusiko dantza honi. Orduan, dantza hiru bider egiten zen: lehena, albakuan, goizeko meza amaitu ondoren, setazko mantoiak sorbalda gainean eta herriko gizon ondradei dantzatzu: bigarrena, eguerdiko meza nagusia entzundakoan, jantzi dotoreekin eta krespoizko manto ederrak soinean; hirugarrena, arratsaldeko arrosarioa amaitu ondoren, eguerdiko jantziekin baina gaineko mantoiak aldatuta, katximir manto handiak erabiliz. San Juan egunarekin zuen lotura galdu egin zen baina.

Andrazkoen erritu garrantzitsu hau, bada, San Pedroekin eta kofradiarekin lotu eta erlazionatu daiteke oso antzinatik.



...y los moxachos yban cantando delante de la dicha arca y jente = **audala sancti san pedro** = **san pedroco caxea gustia urez** (urrez) betea. Y otros decian **“guztia paperez beta=** que en romance quiere dezir este es santo san pedro y su arca es llena de oro o papeles...



“Die Trachtenbuch” Christopher Weiditz, 1529. “Honela dantzatzun dute Bizkaian” dakar alemanez.



Basurtuko *Beti Jai Alai* taldeak aurkeztu zuen antzinako ohitura. 2009.

## San Pedro eta Kaxarranka

San Pedro bezperan hasten ziren santuaren omenezko ekitaldiak.

Alonso López Córdido, Valladolideko Chancilleriako errezeptorea, arrantzaleen aldeko gutun exekutatuzailea (1607-06-30) ekartzera etorri zen eta emaniko autoan irakur daiteke, eguerdi ostean hasten zirela prestaketekin, dantzariak eta apostoluak ordezkatu behar zituen pertsonak aukeratuz. Kofradiako kideak ziren San Pedro, San Juan eta San Andres irudikatuko zituztenak. Uztailaren bira arte prozesioetan ibiltzen ziren, agintari eta auzokideei bisitak egiten eta kalez-kale eta eliza edo sakristia aldetik dantzan.

Lekuko batek adierazi zuen: *“andaban danzando unos marineros con sus espadas desnudas en las manos y cascabeles en las piernas y traían por retaguardia a tres hombres, de los cuales el que venía en medio traía: una capa de coro, una llave grande en la mano, cubierto el rostro con una máscara y en la cabeza una insignia papal a manera de mitra. Los dos de los laterales: unas casullas de damasco puestas como sacerdotes, en las manos unos cetros de palos, enmascarados y en las cabezas unas diademas”*.

Lopez Córdidoren autoa Juan Irigoyenek transkribatu zuen Kaxarrankari buruz idatzitako artikulu baten (RIEV, 1927, XVIII. zkia.).

Dantzariak, marinela eurak, *“eran más de veinte estando con sus espadas desnudas, con que danzaban, en las manos”* lekuko batzuen esanetan.

1605. urtean, auziaren hasieran, alkateek (bi ziren orduan, bata bikarioaren anaia antza denez) dantzariei eta danbolina jotzen zutenei, dantzatzea debekatu zieten, San Pedro bezperan, arratsaldeko bostetatik aurrera: *“mandaban y mandaron a Juan de Licon, quien guía y es el primero de la dicha danza e a los demás danzantes que con él andan y a cada uno de ellos y tamborines no toquen, ni dancen”*. Dantzak eta mo-

zorroak, maskarekin zein maskara barik, ez ziren egin behar, ez oinez, ezta zaldiz, ez elizan ezta elizatik kanpo.

Dantzatzen zena, *Ezpata Dantza zen*, noski, buruzagi bat aurrean kokatuta. 1655ean dantzariei zuzendutako beste dekretu baten, aipatzen dira *“Martin de Ibieta y Juan de Goicoa danzantes primero y postrero”*. Ezpata dantzan ilara bakoitzeko azkenak duen garrantzia ezagututa, aurretik esandakoa indartu egiten da.

Jaietan, sarritan datzatzen zuten figuranteek. Izan ere, sakristian dantzatzen zeuden Salazar, eliz bisitatuzaileak, kapak eta maskarak kendu zienean. Lekuko batzuk adierazten dute bisitatuzaileak eskatu egin ziela joateko: **“con la dicha danza a casa de Zubieta y porque no lo quisieron hacer les ha mandado quitar las dichas figuras”**. Zubietan herriko jaun handikiena bizi zen, aldi berean prebostea zena, eta, antza denez, harekin auzi garrantzitsua zeukaten arrantzaleek. López Córdidok, berriz, lehen aipatutako gutun exekutatuzailean adierazten zuen, apostoluak irudikatzen zuten haiek, euren ikurrekin ibili ahal zirela jaietan, dantzariekin batera, *“sin que tengan obligación de acudir con tal danza e máscaras a parte alguna ni a casa particular”*.

Aurreko gertakizuna 1655. urteko akta baten dago jasota. Haretan, dantzariak izendatzen dira, *“los cuales suelen andar a pedir de casa en casa”* esanez. Eskean ibiltzeak auzokideen artean arazoak sortzen zituenenez, izendatutako dantzariak eskean ez ibiltzea agindu zen, salbuespen bakarra ondokoa izanik *“se les da licencia por la unión y la hermandad que tienen con la Anteiglesia de Mendexa, vayan a ella según es costumbre”*. Era berean azpimarratzen zaie *“que no acompañen a ningún particular de la dicha villa aunque sea cofrade sino solo a la Justicia y Regimiento della en comunidad”*.

Esan daiteke figurante eta dantzariak parte hartze handia zeukatela jaietan. Esaterako, 1606. urteko lekuko batek dio: *“andan en las dichas procesiones, así en las procesiones de la iglesia como en la que se hace otro día de señor San Pedro por las calles y el dicho día que se hace por las calles va el dicho hombre que representa a San Pedro con la dicha capa e insignia papal encima de la dicha arca”* eta *“a sus lados van también a pie los dichos dos hombres con las dichas capas”*. Eta lekukoak, guzti hau *“lo ha visto este testigo ser y pasar así de los dichos sesenta años a esta”*.

Kutxaren leku aldaketa zen jaiaren erritual garrantzitsuen: kargua uzten zuen maiordomoaren etxetik talaiko etxolara eroaten zen kaxa, kontu liburuak aztertzeko, eta gero kargua hartzen zuen maiordomoaren etxera eroaten zen. 1605ean bikarioaren kexa zera honetan oinarritzen zen: *“por los bailes deshonestos e disfraces escandalosos que en la iglesia, plaza y calles de la dicha villa hacen públicamente”*, eta herritarrek batzen zirelako, bai eliztarrak eta bai sekularrak, *“a manera de procesión suelen traer por las dichas calles una arca que no hay sino papeles viejos, causados de pleitos que han tenido y ordenanzas de los cofrades”*.

Cristobal de Amezqueta eskribauak egiten du garai hartako deskribapen zehatzena:

1608ko ekainaren 30ean izan zen. Egun haretan, bezperak egin ondoren: *“como a las tres horas después del mediodía, los cofrades mareantes desta dicha villa con sus danzantes y con ellos los dichos mayordomos nuevos y viejos, juntamente con la Justicia y oficiales Regimiento desta dicha villa y los mas hombres honrados della y otros que vinieron de fuera parte, con sus danzantes y tamborin y bandera de la dicha villa...”*. Maiordomo ohiaren etxera abiatu ziren, *“y estando la dicha caja en la calle, los mancebos le tomaron acuestas y sobre ella subió un hombre con su latría pontifical en la cabeza y una máscara de semblante de hombre anciano en su rostro y un manto a modo de los de la iglesia acuestas y una llave dorada en su mano y de esta manera, yéndole acompañando otros dos hombres a los dos lados de la dicha arca, que también representan a San Andrés y San Juan, con sus máscaras y capas como los de la iglesia, llevaron la dicha arca, con los dichos tamborines y danzantes y enmascarados y algunos hombres disfrazados, corriendo por las calles con cuartagos y tirando algunos arcabuces”*. Era honetara, kargua hartuko zuen maiordomoaren etxera abiatzen ziren, kutxa bertan uzteko.

Prozesioa garrantzi handikoa zen, lekuko batek esaten duenez: *“delante de la dicha arca danzando los dichos mancebos como si fueran y como suelen ir en una procesión solemne”*. Beste batzuk zehatzago: *“como si trajeran el Santo santorum con mucho aplauso”* edo *“como suelen en procesión delante el Santo Sacramento”*. Corpus eguneko prozesio ederraren parekoa omen zen.

San Pedro irudikazten zuen gizona nabarmentzen zen prozesioan eta bedeinkazioak botatzen zihoala: *“muchas gentes de poco saber e ignorantes se arrodillan viéndolos pasar por las calles dándose golpes en los*

*pechos”*. Ekitaldiaren kontra zeuden beste lekuko batzuk zehazten zuten: *“golpes en los pechos como si fuese algún santo”*.

1607an liskar larriak gertatu ziren, lekukoek kontaktzen dituztenak: eskumikuak, kartzelaratuak, kolpeak eta tratu txarrak... Martin de Lariz bikarioa, adibidez, elizatik konorte barik atera omen zuten. Urte haretan kaixa tokiz aldatzerakoan gertatukoak azpimarratu nahi ditugu: *“llevando la dicha arca en hombros mas de veinte marineros que iban con sus espadas y machetes y delante y detrás muchos enmascarados con chuzos y alabardas y otros géneros de armas, yendo todos como en guarda de la dicha arca e insignias”*. Antza denez, bikarioaren anaia ere jipoitu egin zuten kalean ikusi zutenean. Jaia defendatzen zutenek ere jaso zituzten erasoak.

Kaixaren prozesioa honela osatzen zen: -Dantzariak. Marinelen dantza dantzatzen, ezpata biluziak eskuetan, kaixaren aurretik dantzan.

-Kaixa eta hiru figuranteak. Kaixaren gainean San Pedro; San Juan eta San Andres alboetara. Jantziei buruzko aipamen batzuk: *“llevando en su persona sobre calzas y jubón una capa de coro”, “capas de iglesia”, “capa y dos casullas”, “insignias pontificales”, “capas pluviales”, “casullas coloradas”*.

San Pedrok buruan: *“mitra pontifical”* edo *“mitra de papa”*. San Juan eta San Andresek: *“capas de media seda”*. Zenbait lekukok diote kapak erretiratutako zaharrak zirela, *“txamelotezkoak”*, beltzak bi eta zuria bestea. Zuria San Pedrok zeraman. Honen buruko mitra, oso altua dela aipatzen da. San Juan eta San Andres irudikatzen dituztenenak, apostoluen intsigniak, *“como medias lunas”*.

Atzetik jende asko joaten zen, besteak beste, maiordomo zaharrak eta berriak, Justizia eta Erregimentua, apaizak, kofradiakide asko, gizon mozorrotuak..., zalditxoak, arkabuzak tiroka... Benetan ere, seriotasun eta ponperiaz desfilatzen zuten, beste prozesio batzuetan legez, adibidez Sakramentu Santuarena.

Auzi luze honekin amaitzeko, 1611n, kofradiak, Gotzaindegiko hornitzaile eta bikario orokorrari jaiak egiteko lizentzia eskatu zion *“y este mande al cabildo y beneficiados y servidores de la iglesia de la dicha villa que asistan sin hacer ausencias”* bai bezperetara eta San Pedro jaunaren mezarara, baita Auriako San Juan eguneko osterara. Aurreko urtean alde bien artean lorturiko akordioaren arabera, horretarako apezpikuaren aginduak bete beharko ziren: *“ningún cofrade, danzante ni otra persona alguna use en los dichos regocijos danzas y encamisadas de cosa ninguna que fuese dedicado al culto divino”*. Onartu zen eskaera eta erabakia bikarioari, abadeei, eta elizaren onuradunei jakinarazi zitzaien.

Ez dakigu zelan bete zuten kofradianteek hartutako konpromisoa. Izan ere, XVII. mendea ia amaitu arte, apostoluak irudikatzeko ohiturak jarraitu egin zuten. Beste alde batetik, zenbait apaizek uko egin zitoten, euren ustez laikoenak ziren ospakizunetan parte hartzeari.

Geroko datu batzuk aztertuta, ez dago argi kaixaren gainean zer zihoan, San Pedro irudikatzen zuen kofradiakide bat ala egurrezko irudi bat.



Basurtuko *Beti Jai Alai* taldeak aurkeztu zuen antzinako ohitura. 2009.



1655eko akta baten zera dakar: *“y habiendo así salido de la dicha iglesia con la imagen de señor San Pedro que le llevaban sobre una arca”*. Itxura denez, kaixaren gainean ez zihoan aurreko urteetan legez kofradiante bat mozorrotuta. Urte berean Mendiola doktoreari eskatu zitzaion diktamen baten arabera, era biek erabili ziren. Ordura arteko dokumentuak irakurri ondoren esan zuen kabildoa Auriako osterara agertzera behartua zegoela eta *“puede la dicha cofradía hacer su procesión al dicho día del señor San Pedro con su bulto de madera o con hombre revestido con casulla y mitra echando bendiciones”*. Bere iritziz alde biak elkar ulertu behar zuten eta, osterantzean, berari kontu eman.

1682ean amaituko zen figuranteen parte hartzea, kapa eta maskarekin. 1682. urtean, kabildoko maiordomo nagusiak protesta egin zuen Auriako osterara zela eta. Esaten zuen dantza baino ez zela egiten *“danza de hombres y mujeres”*, gai espiritualik ezer. Halaber, protestatzen zuen San Pedroren prozesioa era honetara egiten zelako: *“por las calles de la villa y al principio de ella van tres hombres inmediatos al cabildo y entre él y la imagen de San Pedro, los cuales van vestidos con capas pluviales y con unas máscaras o carátulas y en las cabezas llevan el de medio una tiara y en la mano una llave en representación de San Pedro y los de los lados además representando a San Andrés y San Juan”*. Azken aldian, hauxe izan omen zen parte hartzeko modua: santuaren irudia goian eta figuranteak behean. Apezpikuak, alegazioak ikusita, zera agindu zuen: *“no usen los seculares de capas pluviales, ni diademas, ni cetros yendo con carátulas”*. Hau izan zen figuranteek irten ziren azken urtea. Era berean, apaizek ez ziren joango gehiagotan Auriako osterara, joan beharra kendu zieten eta.

Lepe apezpikuaren, 1690eko bisitaldiko autoak, ez ditu figuranteak aipatzen, eta prozesioari buruz ari denean, andatan eramaten dutena hau dela esaten du: *“la arca del dinero que de su ejercicio aplican para dicha cofradía y la ponen en la iglesia la víspera del día glorioso San Pedro donde está hasta la tarde del día siguiente y de allí la vuelven en procesión a la casa del Mayordomo que nombran”*. Eta agintzen du *“que la dicha arca no se lleve en ninguna función de procesión ni se ponga en la iglesia de peana del santo”,* baita, *“que el cabildo eclesiástico de la villa no permita entre la dicha arca en la iglesia”*. Agindu honek, amaitzen du kabildo eklesiastikoaren partaidetzarekin lekualdatze prozesioan. Lepe apezpikuak ez ditu figuranteak aipatzen, irtetzen ez ziren seinale, bestela ez zen isilduko.

Lepe apezpikuak dio kaixa elizatik ateratzen zela prozesioa burutzen. Horrek 1655. urteko aktan agertutakoa baieztatzen du: *“y habiendo salido de la dicha iglesia”*. Antza denez, 1611ko itunaz geroztik, elizaren presio eta protesten ondorioz, kaixaren prozesioa aldatzen joan zen, guztiz desagertu arte. Azkenik kaixaren

lekualdatze zibila alde batetik eta San Pedroren prozesioa bestetik egin ziren, hainbeste urtetan batera egin ondoren.

1740ko deskripzio anonimoak, Angel Rodriguez Herrero 1970ean transkribitu zuena, 1690erako amaitutzat ematen du jaiaren aurreko urteetako moldeak: *“...a la tarde, de tiempo inmemorial, hasta el año mil seiscientos noventa, salían de casa del mayordomo viejo más anciano, donde estaba la arca celebrada y llamada de San Pedro, la dicha danza de espadas, el arca en hombros de muchachos, y encima el bulto de San Pedro, que se trae ahora en procesión, después iban tres marineros con máscaras, capas pluviales de terciopelo colorado la una y las otras dos de buena tela doble, sus coronas a modo de mitra en las cabezas, el del medio llevaba una llave grande de plata sobredorada y los de los lados sus cetros grandes dorados...”*.

Argi ikusten da San Pedro bizidunak aspaldian utzi ziola prozesioan kaixa gainean joateari. Gainera, jaia dela eta iraganean egiten da berba. Figuranteek ez zuten parte hartzen kaixaren lekualdatzean. Ekitaldi zibila bihurtu zen. Auriako intxaurrondoetara egiten zen osterara ere iraganeko gauza legez aipatzen da. Hau ere prozesio bihurtu zen. XVII. mendearekin bi erritual eder hauek desagertu egin ziren lekeitiarren ohituretatik.

Beste datu folkloriko garrantzitsu batzuk aurkezten dizkigu 1740ko deskripzioak. Kaixaren lekualdatzea honela antolatzen zela: *“en obsequio de tan gran patrón, forman danza de espadas con tamborines y caja”*. Oraindik Ezpata dantzak bizirik irauten zuenaren seinale.

1740ko deskripzioak beste dantza bat ere aipatzen du *“encamisada”* legez ezagutzen dena 1611tik: *“todos los días hacia el anochecer se hacía hasta ahora muy pocos años la célebre danza inveterada llamada “bizarracerretia”; tenía diferentes mudanzas de volatines, pelea puestos unos sobre otros encima de brazos y hombros y se remataban andando todos sobre un pié, y del otro iba agarrando el que subsegüía; el que guiaba traía en la boca un tizoncillo ardiendo y con esto en la postura sobredicha iba quemando a cada uno las barbas, y para esto la porfía y resistencia andando sobre un pié y agarrados del otro era para la gente que miraba de gran risa y complacencia”*.

Lehen aipatutako ezpata dantza ederra, hogeitaz dantzari baino gehiagok egiten zutena, herriaren ohituretatik desagertu egin zen. Azken erreferentzia, Cavanilles bidaiaariak 1857an aurkezten dizkigun hitz apurrak dira. Hauxe dio: *“Antiguamente se usaba una danza guerrera con espadas. La espata danza que se bailaba de tres en tres ha caído en desuso”*. Seguruenik XVIII. mendearekin amaitu zen, oraindino mende erdialdean irauten zuen eta.

Ezpata dantzaren ohitura Lekeition galtzen joan zen, baina Euskal Herriko beste zenbait lekutan aldairen bat kontserbatu da. Hauetaz Lekeition egiten zena susmatu genezake, eta ahal den neurrian, nolabaiteko urreratze bat egin eta antzeko zerbait birsortzen ahalegindu.

1740tik aurrera, XVIII. eta XIX. mendeetan kaixaren lekualdatzeari buruzko daturik ez dugu aurkitu. Kofradiako 1797ko eta 1800eko kontuak bakarrik ikusi ditugu. 1797an ordainketak agertzen dira *“por la mudanza del Arca de la Cofradía llamada de San Pedro”, “al tambor y tamboritero”* eta *“por la corrida”*. Kaixa konpontzeagatik ere ordaindu egiten da. 1800ean hauek gastuak gehitzen dira: *“por lo consumido en vino en los tres días de fiestas de San Pedro los bailarines”*. Ez dakigu, ordea, zer dantzatzen zuten.

1822ko Udaleko Jaunen gobernurako idatzitako urte guztiko jarraibidean aurkitzen dugu kaixa aldaketari dagokion deskribapen laburra baina interesgarria:

*“El día de San Juan Bautista hay procesión a la tarde y asisten a ella todos los Señores de Ayuntamiento en forma; Día 30 de junio: Hay procesión a las tres de la tarde y juntándose todo el Ayuntamiento en la Sala Consistorial van a la Parroquia en comunidad llevando el síndico la bandera de la Villa y con ella se asiste a la procesión como el día de San Antolín. Acabada se vuelve a la Sala Consistorial y se deja la bandera. A esta procesión asiste el nuevo mayordomo. Acto continuo va todo el Ayuntamiento con el tamboril por delante a las puertas de la casa que abita el mayordomo saliente y presidencia la entrega de la arca de la Cofradía al nuevo mayordomo sobre la que va un mozo bailando. Hecha la entrega de la arca sube el Ayuntamiento a la habitación del nuevo mayordomo y este le da un refresco con coste según costumbre inmemorial”*.


Kaixa aldaketaren modu zaharra beste era batera egokitzen da, gaur egun egiten den antzera. Hauxe da kaixa gainean dantza egitearen kontura aurkitu dugun lehen erreferentzia. Gaur egun Kaixarranka deitzen dena: *“gizon edo mutil bat dantzan eskuan bandera bat duela”*.

Baliteke, kaixaren lekualdatze modu berri hau XIX. mende hasierakoa edo aurrekoaren amaierakoa izatea. Honako ezer ez da 1740ko deskripzioan agertzen, ezta begiratu ditugun gastuetan. Bestalde, erabiltzen diren musika eta egitura batzuk ez dira hain zaharrak Euskal Herrian. Esaterako, fandangoa garai horretan zabaltzen da eta arin-arina, ez da zaharragoa. Bakarrik geratzen da San Pedroetako zortzikoa.

Bitxia da zortzikoaren soinuarekin gertatzen dena. Zenbait musikaririk bildu zutenean, erritmo baten jarri zuten, 5/8 notazioan; Azkuek ere horretara jarri zuen. Baina dantzatzeko orduan, gaur egun, 3/4, 6/8 erritmoan jotzen da (Miguel Arrietak egokituta), dantzariak honela eskatzen du eta. Aspalditik, Lekeitioko txistulariak, soinua era bietara erabiltzen dute, 5/8 erritmoan kalerik-kale jotzeko eta 3/4, 6/8an kaixa gainean dantza egiteko. Erritmo hau erabiltzen da Durangaldeko eta Oñatiko zenbait dantzetan; baita Bizkaiko beste zenbait herritan, batez ere aureskua andrazkoen aurrean dantzatzen denean. Bizkaia ondoko Gipuzkoako herri batzuetan ere jaso zuen R. M. Azkuek erritmo hau. Soinua nondik hartu zen ez dakigu, aintzinako ezpata dantzatik edo bertoko edo Durangaldeko beste dantza mota bat edo batetik (trokiuak edo makil dantzak,...).

XIX. mendean, bigarrenez, Azkarraga Regilek aipatzen du dantza, Juan Ramon de Iturrizaren *“Historia de Vizcaya”* handituta berrargitzen duenean 1885ean. Idazle honen gehigarrian, San Pedroren irudia Arranegiko ateko arkuaren gainean aurkezten da (errekreazio bat). Jaiaren izena lehenengoz ikusten dugu idatzita *“conocida con el nombre de Cacharranka, que quiere decir baile sobre la arca”*, jartzen du. Kontatzen du jaia ekainaren 30ean egiten dela; goizean beste formalidade batzuk egin ondoren: *“por la tarde después de vísperas, sale desde las casas consistoriales procesionalmente el Ayuntamiento, vestidos todos los concejales de frac y entre ellos, con igual uniforme los dos mayordomos, el entrante y el saliente y se dirigen a la casa de éste en busca del arca de los fondos del Gremio, la cual es llevada en procesión, en hombros de cuatro robustos pescadores, dirigiéndose toda la comitiva hacia este arco-portal ante el cual, y en presencia de esta imagen de San Pedro, un bailarín danza sobre*

*el arca, de cuyo baile procede indudablemente el nombre que se da a esta fiesta. Después continua la procesión con la misma solemnidad en dirección de la casa donde vive el mayordomo entrante y en ella se deposita el arca, sobre la cual no deja durante el trayecto de hacer piruetas y danzar el bailarín”*.



Kaxarranka. A. Guerequiz-en argazkia. XIX. mende amaiera. Hauser y Meneten fototipia. Biblioteca Nacionala, Madril.



## Andren Aurreksua




Andren aurreksua. Gerra aurreko argazkia. c. 1936.

### “Zerutxu”, Markinako dantza taldekoek berreskuratu

Andren aurreksua denbora tarte baten ez omen zen dantzatu baina gerra aurretik Batzokiko talde batek berreskuratu egin zuen.

36ko gerrarekin berriro ere eten zen eta, geroztik, 1974. urtean, Markinako “Zerutxu” dantza taldeko neskek berreskuratu eta dantzatu egin zuten lehenengoz San Antolinetan, Lekeitioko plazan. “Zerutxu” taldeko zuzendari ohia, Felipe Amutxastegi, eta ni neu, batu egin ginen eta... ikertzen hasi ginen.

## San Pedroak gaur egun



### Soinua

Dantza honen lehen aipamena José

Mari Egileorrek, Mundakako txistulariak, eman zigu-

gun, baita paperean idatzita zituen soinuak. Ama lekeitiarra zuen

eta askotan etortzen zen Lekeitiara. Lekeitioko txistulari Santi Zapiraineri magnetofoiarekin grabatu zizkion soinuak eta gero berak pentagraman idatzi. Esan zigun Zapirainek, gerra aurreko soinua hura zela.

Hasieran J. M. Egileorrek emandako soinuekin ibili ginen, gero, R. M. Azkueren paperetan, dantzaren musikari buruz zerbait idatziko zuelakoan. Azkenik, Azkuek zuzendutako Euskalzale aldizkarian soinu bat aurkitu genuen, “Neska dantzea”. Oinean hauxe dakar: “Bi edo iru gizatan eretzten da au. Ondoen deritxagunez azaldu nai izan dogu. Donia-ne-goizean Lekeition tanboliñak soiñu auxe ioten dabela, emakumeak aurreksu ta guztiko dantzea egiten dabe”.

Beste soinu bi falta ziren baina guk bageneukan haien berri, berak argitaratutako “Cancionero Vasco-canciones selectas”, bilduma berezian aurkituta. Azkenik, itsasoan lanean ibili ondoren lehorreratu zen Alberto Akarregi, gerra aurrean danbolintero izandakoa. Akarregik hiru soinuak pentagraman idatziak zituen eta hauek izan ziren dantzarako erabili zirenak. Azken biak Azkuek argitaratutakoekin bat zetozten, orduko txistulariei hartutakoak ziren seinale. Deigarria irizten zaigu R. M. Azkuek, lekeitiarra izanda, dantza honi buruz hain gutxi idaztea.

“La Gaceta del Norte”, 1974ko irailaren 4koa.



1975



Lekeitioko Etorkezuna Dantza taldea, 2010.



### Dantza

Lekeition, 1973an, orduko alkate Antonio Moralek lagunduta, bertoko emakume nagusiekin batu ginen eta harek, batzuk 1880ko hamarkadan jaioak, mende hasierako kontuak eman zizkiguten: gazte denboran hiru bider dantzaten zutela, dantza bakoitzeko erabiltzen zituzten mantoï ezberdinak... Esan ziguten, gerra aurretik, Batzokiko etxea inauguratu zenean dantzatu zela eta orduko dantzari batzuk bizirik zeudela. Horrela, eurek lagunduta eta apurka-apurka, pausuak ikasi eta biribildu genituen. Kontutan izan behar da hogei-ta hamar urtetik gora zeudela aurreksua dantzatu barik. Aurreksua dantzatu zuen emakumeak, Miren Edurne Erkiagak, bere izeba Luisa Atxabalengandik ikasi zuen. Hau ere aurreko mendean jaioa zen. Azkenik, “Zerutxu” taldeak dantza aurkeztu zuen 1974ko irailaren 8an Lekeition, San Antolinetan.

Harrezkero, urtero, hutsik egin barik, Lekeitioko emakumeak jarraitu egin dute dantzaten.

Ez daukagu “Zerutxu” dantza taldeak dantzatu zueneko argazkirik. Bai, ordea, 1975ean Lekeitiarrek egin zutenekoak.

Gaur egun, San Pedro eguneko eguerdi aldean, kaxarranka kofradian egin ondoren eta plazan egin aurretik, Andren Aurreksua edo Eguzki Jaia dantzaten dute “Etorkezuna” dantza taldekoek. Lehen ikusi dogun moduan, San Juan egunean Auriara egiteko osteraspaldi galdu zen.

Herriko plazan emakumeek daukate protagonismo guztia. Oso dotore jantzita dantzaten dute: mende hasierako jantzi ederrak soinean, mantoï dotoreak sorbaldan eta klabelin gorria paparrean. Dantza zahar honek, soka eta gizonezkoen aurrean dantzatzeko, txistuz jotako doinu aproposak ditu. Publikoaren txaloak ez dira faltatzen hain da dantza ederra; Euskal Herriak duen aurreksurik ederrenetarikoa.





Kilin-kala Sanpedropean.

## San Pedro eguna: Kilin kala eta Kaxarranka

Gaur eguneko protokoloa nahiko antzekoa da funtsez, batez ere kaxa gaineko dantzari dagokiona. Aldaketak izan dira baina.

Gaur egun San Pedroak guztion jaiak dira, ez bakarrik marinelenak.

Eguna aspaldi aldatu zen, arrantzaleek eskatuta, San Pedro egunera, ekainaren 29ra hain zuzen. Kofradiak maiordomarik ez duenez baizik eta zenbait urterako izendatzen den presidentea, 2006ra arte presidentearen etxe aurrean dantzatzen izan da. Ordutik, presidentearen etxe aurrean barik, kofradia aurrean egiten da bigarren dantzaldia, San Pedropean egin ondoren. Beste alde batetik, dokumentuak ez dira kaixan gordetzen bulegoetan baino, beraz, ondo gordeta egoten da kaixa urtean behin ateratzeko.

San Pedro egunean, prozesioan joaten dira Udaletxeko eta Kofradiako ordezkariak euren penoiekin Musika Bandak lagunduta elizara arte. Meza nagusia amaituta, prozesioa irtetzen da San Pedroren irudiaren atzetik. San Pedrope parera helduta Kilin Kalakoa egiten da moilan. Zeremonia bitxia da: Santuaren irudia daroatenek santua uretara botatzeko egiten dute, ur aldera eraginez santua. Kilin Kalakoa amaituta prozesioa kai ganetik igo eta Ezpeleta, Arranegi eta Uribarren kaleetatik elizara bueltatzen da.

Zenbait teoria dago zeremonia honen jatorriaren gainean. Fededunek, gaur egun, urak bedekatzeko egiten dela ulertzen badute ere, badirudi jatorrizko zeremonia paganoa izan zitekeela honelako hainbat kasutan gertatzen den legez. Arrantzan laguntzeko-edo zerikusia duen zeremoniatzat dago.

Inoiz santua uretara jausi ere egin da. F. Okamikak, adibidez, kontatzen du bere aita alkate zela, 1944an, irudiari grabitateak irabazi eta moilaren kontra jausi zela. Atunetako kanpaina uda hartan oso ugaria izanenez, batek baino gehiagok esan zuen santuaren jausiagatik izan zela.

Kilin Kalakoa eta prozesioa amaituta, denbora gutxira, San Pedropean, Kaixarranka hasten da.

Kutxa gainean dantzari bat aritzen da, orain berrehun urte inguru legez. San Pedroren ezaugarriak dituen banderaxo bat darama esku baten eta bestean buruko kapela dotorea; alkondara eta praka zuriak, gainetik frak elegante bat, XIX. mendean herriko agintariak kaxa lekuz aldatzerakoan joaten ziren erara; abarketak kenduta galterdi zuriak oinetan. Hiru tokitan dantzatzen du kaxarranka: kofradi zaharreko arkuko San Pedroren irudi aurrean, kofradiako egoitzan eta plazan, udaletxeari begira.

Kaixa, mahoiz jantzitako zortzi gizonen eusten dute eta beste zortzi gizon alboetara joaten dira, lau eta lau. Antzina marinelak ziren eta Kofradiak antolatzen zuen jaiak. Gaur egun Udalak antolatzen du eta kaixa eusten eta, Isuntzako arraunlariak eta dantzariaren lagunak joaten dira. Txalo eta irrintziak ez dira faltatzen eta emozioak pilpilean nabaritzen dira. Egun handia da Lekeitiarrentzako.



Dantzaria: Eusebio Akordarrementeria, 1929.

## XX. MENDEKO DANTZARIAK

Facundo Etxeberria Idoiaga

Teodoro Urkiaga

Eusebio M<sup>a</sup> Azkarraga

Zoiló Añabal

Ignacio Murelaga

Pedro Erkiaga

Pedro Urkidi

Eusebio Akordarrementeria

Pedro Murelaga Etxeberria

Vicente Bakeriza Azkarraga

Jose M<sup>a</sup> Bakeriza Azkarraga

Juan Manu Elorza

Pedro Murelaga Aretxaga

34 urte mando egin  
ebazan gure Pedrok kaixa  
ganian.



Pedro Murelaga Aretxaga, 1998 aldean. Arg.: Kiñuka



Asier Uskola Ibarra, 2012. Argazkia: Kiñuka



"Kareletik" aldizkarirako egina. Argazkia: Igotz Ziarreta, 2012





Lekeitioko kaxarranka "Un, dos, tres..." TVEko programan. 1982.



"Amalur" pelikulako fotograma. Fernando Larruquert eta Nestor Basterretxea. 1968.



Teodoro Urkiaga Iturraspe, 1903. Bilbo.



Eresoinka taldea Parisen. 1937.



Kukai dantza taldea Lekeitioko Kale Antzeki Jaialdian, 2014.



2016ko Dantzari eguna. 3.500 dantzari Lekeition!!!



"Kaxarranka" Carlos Solano.



"Kaxarranka" Ramiro Arrue, 1935.



### IÑAKI IRIGOIEN ETXEARRIA

Erdi lekeitiarra erdi deustuarra dugu Iñaki Irigoien Etxebarria, 1935ean Bilboko Abandon jaiotakoa. Gazte-gaztetatik maitemindu zen Iñaki euskal dantza eta folkloarearekin. 1952an Dindirri dantza talde mitikoan hasi eta, gerora, dantzarien irakasle eta dantza irakasleen maisu izan da.

Dantzarekiko maitasunak bultzatu zuen artxiboetara ikerketa lanak egitera. Honen ondorioz, dexente ikasi du euskal dantza eta folkloareaz; argira ere ekarri ditu galdutako hainbat dantza...

Euskal Dantzarien Biltzarraren sorreran ere ibili zen gogor lanean (Baiona 1966) eta baita lehen Dantzari Egunen antolaketetan. Aurten ere, Lekeition izanda, ez du hutsik egin. Elkartearen presidente ere izan zen eta bere agintaldia oso oparoa izan zen.

Bizkaiaiko Dantzarien Biltzarraren sorreran ere egon zen Iñaki lanean (1983).

2013ko apirilaren 13an omenaldi bero jaso zuen Bizkaiko Dantzarien Biltzarra, Bilboko Udala, Bizkaiko Batzar Nagusiak eta Bizkaiko Foru Aldundiaren eskutik, 50 urteko lana eskertzeko. Urte haretan, Lekeitioko Udalak ere San Antolinetako txupinazoa botatzea eskatu zion, gure herriko jai eta ohi-turak sakon aztertzeagatik esker ona adierazteko.

# Etahalaizanbazan

Testua: Koldo Leniz eta Aitor Iturbe

sar dadila



Se non è vero,  
è molto ben trovato



**Vero edo Ben trovato.** Hau izan zen KURIKeko lan taldeak pentsatu genuena gutun-azal marroi hartan zetozen egile ezezagunaren idatziak jaso eta irakurri genuenean. Hasieran, bat etorri ginen denok adar jotze bat izan behar zuela.

Lehen alean guk egindako txantxaren ordaina akaso? Merzitatkoa, edozein modutan.

Hala ere, badaezpada, halakoetan Sir Rotia Ebrutirengana jotzen dugu. Beti kanpokoak hobeak izatea... Eskarmentu handiko jakintsua, ondo baino hobeto ezagutzen du garai hura eta idatzi hartan agertzen diren pertsonaiak. Bere garaian lan neketsu eta luzearen ondoren lortutako datuak ezagutzen zituen egile anonimo horrek. Sinestezina iruditu zitzaion txantxa bat egiteko horrenbeste lan hartu izana.

Asko eztabaidatu ondoren, pentsatu dugu, gezurra nahiz egia izan, idatzi izenpetu gabeko haiek zuei eskaintzea. Erosi ditugun salneurri berean saltzen dizkizuegu. Hori bai, eskertuko genizueke egileari buruzko edozein susmo edo arrasto badaukazue, gu jakinaren gainean jartzea.

Jatorrizko idatziak gaztelaniaz idatzita dauden arren euskarara itzuli ditugu. Sarrera berriz, berak idatzitako berbeekin utzi dugu, jesuiten erretorikaz (erretolikaz Lekeition) goza dezazuen.

*A mis admirados creadores de la revista Curik (sic) de Lequeitio.*

*Permitidme antes de nada disculparme por el carácter anónimo de mi escrito. Pese a la proliferación de novelas y relatos de carácter conspirativo, pseudo-histórico y esotérico (me refiero a todas estas patrañas sobre templarios, hermandades rosacruceanas y logias masónicas, entre otras), lo cierto es que en la historia reciente y pasada se han producido conspiraciones reales que la han conducido tanto por derroteros imprevistos como por otros perfectamente dirigidos. Mi intención es develar una de estas conspiraciones. Algo que ha costado más de una vida en épocas pasadas.*

*La publicación que administráis, sencilla pero con un enfoque serio y veraz, según me cuentan, parece una providencia del cielo pues a Lequeitio me han llevado mis pesquisas y lequeitianos las protagonizan.*

*Dada mi proveya edad, no temo ya ni a la muerte ni al oprobio. Lo único que temo es no llegar al final de mi búsqueda. Evidencias que os quiero ofrecer como homenaje a mi hermano en la Societas Iesu, el lequeitiano Miguel de Ylbaseta, quien, como yo, tuvo que contravenir la codex legum que juramos cumplir en la Ratio Studiorum y demás Constituciones Ignacianas. Mi intención es restituir al archivo de los Licon los documentos sustraídos por falsos defensores de la fe, que acreditarían la verdadera genealogía del hombre Iñigo López de Loyola, escritos que no afectarían en modo alguno a la santidad de Ignacio pese a que algunos han querido verlo así. Si se confirman, no deslegitimarían en absoluto a nuestro padre fundador ni como hombre ni como leal servidor de Cristo nuestro Señor.*

*Empecemos pues nuestra historia....*

## Ibasetaren legatua

“Harri honen gainean eraikiko dut nire Eliza” esan omen zion Jesusek Pedrori.

Ezaguna izango duzue hainbat mendetan egin izan den ohitura hori, “fundazio harria jartzearena”. Hasieran eraikin erlijiosoetan bakarrik egiten zena, gaur egun zoritxarrez edozein motatako eraikuntzetan erabiltzen da. Jainkoak barka biezagu!

Fundazio harri hori, harkantoia, Lapis angularis edo Primarii Lapidis, mendebaldean jartzen zen. Zizel batekin marka jakin batzuk egiten zitzaizkion (gurutzeak eta bestelakoak) eta barrua hustua zuen bertan objektu batzuk gordetzeko, **denbora-kapsula**.

Zergatik luzatzen naizen hainbat xehetasunekin? Azalpenak gehiago atzeratuko luke istorioa, hortaz nahikoa duzue jakitea duela gutxi arte “garraitzen harkantoiaren hiru gorapilodun axubetan” esaldiak ez zidala ezer esaten. Banekien Lekeition zegoela enigma horren erantzuna, banekien frantziskotarrerekin zerikusia zuela (hiru gorapiloak), baina ez nekien nondik hasi, batez ere nire intentzioa galdera gutxi egitea zelako, zuhur agertze aldera.

Erantzuna 2015eko uztailean aurkitu nuen, Lekeitioko kaiko taberna batean kamamila bat edaten ari nintzela. Ustekabean, “Hitza” izeneko egunkari bat zegoen mostradorean eta azalean: “Garraitz proiektua blabla eta abar eta abar”. Artikuluak zer esan nahi zuen galdetu nion zerbitzariari. Horrela jakin izan nuen irlaren izena ez zela San Nicolas, Garraitz baizik, bolondres talde bat garbiketa lan izugarriak egiten ari zela eta, besteak beste, Frantziskotarren monastegi baten aztarnak azaleratu zituztela.

Miguel de Ibasetak utzi zidan igarkizunak forma hartu zuen bat-batean. Irlara joan nintzen, erraustutako monastegiko mendebaldeko hormaren aurrean jarri, garai batean atea egon zen lekuan, eta lurra aztarrikatzen hasi nintzen gurutzez markatutako harria aurkitu arte. Barruan, “denbora-kapsula” *capsula tempi* profanatuaren barruan, Ibasetak niretzat utzi zuen metalezko zilindro bat aurkitu nuen. Berak ere, nik baino berrehun eta hogeitau urte lehenago, monastegiak hondatutako lau horma eta zerua sabaitzat zituela, harkantoia hustu eta bertan gorde zituen paper eta agiriak. Mende bi eta erdi egon ziren nire zain.

Azkarregi ari naiz, oraindik aztoratuta, hunkituta nago. Arnasa hartu, baretu eta buelta gaitzean hasierara.

Kapsula-denboraren gaiak mesfidantzaz sor dezakela aitortu behar dut, “El código da Vinci” eta antzeko nobelatxo merkeek dute errua. Ez nator ni inozoak engainatzera, zuon basilika zoragarriak ere baditu (ziurrenik bat baino gehiago) bere lapis angularisak eta capsula tempiak. Hona hemen 1881ekoa:

*Por último acuerdo el Ayuntamiento se consignase en este acta el manuscrito que con motivo de la colocación de la primera piedra en las obras de la Parroquia, se encerro en un hueco de la misma el día 15 del corriente mes, con toda solemnidad y previa bendición de la obra por el Sr Cura Arcipreste de esta Yglesia. Dicho manuscrito, conmemorativo del acto á que se refiere decía así “El presente manuscrito tiene por objeto delatar en la memoria de las sucesivas generaciones la munificencia y caridad acendrada del benemerito patricio Sr. Don Pascual de Abaroa y Uribarren, digno imitador de los pios sentimientos que animaron a sus*

*finados tio y hermano respectivamente el Excmo. Sr. Don José Javier de Uribarren y Marcuerquiaga y Don José Luis de Abaroa y Uribarren, cuyos sentimientos benéficos emulando, costea, en obsequio á su pueblo natal, las importantísimas obras de modificación de la Yglesia parroquial Matriz de Sta. Maria de Lequeitio; llevados a efecto bajo la dirección facultativa de Don Casto de Zavala por el contratista Don Hilario de Arrinda; rigiendo el Orbe Católico la Santidad de Leon XIII en el reinado de Don Alfonso XII, siendo obispo de la Diócesis el Yltmo. señor Don Mariano Gomez, Gobernador civil de la provincia Don Andres Gazquez y Doral; Presidente del municipio Don José Antonio de Amias, Sindico Don Román de Urriz, Cura Arcipreste Don Toribio de Guerricabeitia y Mayordomo de la Cofradía de mareantes cuya inscripción cuenta veintisiete lanchas de altura y once traineras, Don José Maria de Bengoechea, Lequeitio 15 de Agosto 1.881”*  
18-8-1881 LUA Udal aktak



Garraitz irlako monastegiko aztarnak.

## Ben Trovato

Miguel de Ibaseta eta Juan Ramón de Iturriza dira gure ikerketaren protagonista nagusiak. Jakin badakizuen arren, hasteko, historiografia ofizialak bakoitzari buruz dioena kontatuko dizuet, labor-labor, batipat, itxura batean behintzat, gehiegi ez dagoelako esateko. Batez ere Ibasetaren kasuan.

## Miguel de Ibaseta

Likonatarren oinordeko edo premua Lekeitio (Bizkaia) jaio zen 1719ko maiatzaren 27an, eta egun berean baina 1737an, Jesusen Lagundian sartu zen. 1749an Ameriketara joan zen misioetara, Guajirako lurraldera lehenengo eta handik Venezuelako Orinokoko erredukzio jesuitarretara. 1755an bere arrastoa galdu zen eta hiltzat jo zuten.

Aipatzekoa da Otomakoekin, Orinokoko indigena tribu batekin egin zuen lana. Otomakoak taparita etniakoak ziren, eta Ibasetaren garaian Apure-ko lurraldean bizi ziren, Orinoko ibaiaren urertzean. Bitxikeria bezala esan dezakegu, Miguel de Ibasetak euskara eta otomakoaren hizkuntzaren arteko konparaketa bat idatzi zuela, "Ensayo de una comparacion entre el otomaco y el vasco". Zoritxarrez galdua dago.

## Juan Ramon de Iturriza

Juan Ramon de Iturrizari buruz dakiguna, edo dakigula uste duguna behintzat, zertxobait gehiago da. Iturriza, historialari eta artxibozain bizkaitarra zen, Berrizko Olakuetako San Antonio auzoan jaio zen 1741eko apirilaren 29an. Historia ofizialak dioenez Munitibarren zendu zen 1812. urtean 71 urte zituela.

Aita herriko maisu landatar xume bat zuen. 14 urte bete zituenean idazkari edo amanuense lanetan hasi zen batez ere artxiboetako izkribu edo kopiazaile bezala. 1760an Mexikora emigratu zuen, non bere osabarenean lanean hasi zen. Okina zen.

1769an Espainiara bueltatu zen. 1777ra bitartean bere arrastoa ez da argia, baina badakigu Burtzeña, Madril, Zaragozan, Santiago de Compostela eta Erroman ibili zela. 1777an artxibolari eta historialari lanetan agertzen zaigu berriro. Ez zen sekula ezkondu. 1812an zendu arte artxiboak ordenatzen eta ikertzen aritu zen.

Bitartean liburu erlijiosoak eta historikoak idatzi zituen. Hiruzpalau azpimarratzearen "Lucero Espiritual", "Manual cristiano", edo "Historia General de Vizcaya" entzutetsua. Beste bat aipatzekotan "Antigüedades de Vizcaya", 12 liburukitan banatu zuena nahiz eta 6 baino ez zaizkigun iritsi.





"El Orinoco ilustrado y defendido..." Joseph Gumilla 1791ko edizioa.



J. R. Iturrizaren Lekeitioko artxiboaren aurkibidea, 1796. LUA.

J. R. Iturrizaren lanaren kontua, 1796. LUA, R91.



## Vero

Hau da dakiguna, jakinarazi nahi digutena, baina bistan da hutsune eta akats ugari daudela bi biografietan. Iturrizarena, denok jakingo duzuen legez, berak eraiki zuen –idatzi baino egokiagoa da eraiki hitza–.

Miguel Ibasetarena oso-oso nabarmena da: nola liteke Likonatarren oinordekoa, bere erregaliak eta gizarte-maila bazter utzi eta fraide sartu izana, oinordekotza arrebari utzi ondoren. Garai hartan anaia bati utzi izan balio behintzat! Zer arrazoi handi zegoen gurasoek horretarako baimena emateko?

Juan Ramon de Iturrizari dagokionez berriz, hutsuneak ez dira txikiagoak. Nola liteke maisu txiro baten semeak halako gaitasunak izatea? Nola Bizkaiko familia boteretsuenen artxibozain izatera iristea? Ez zegoen Bizkaia osoan artxibo garrantzitsurik bere eskuetatik pasa ez zenik. Are gehiago, historialari eta ikertzaile ospetsuena izatera iritsi zen. Nola, Mexikora emigratu zuenean okindegiko labe batean lan egin behar izan zuen gizonak?

Jesusen Lagundian Teologia eta Filosofia ikasketak aspaldi bukatu nituelarik, historiako tesia prestatzen ari nintzen. Aukeratutako gaia Orinokoko eta Meta lurraldeetako "erredukzioetan" jesuitek egindako izugarritzko\* lana zen. Zuo! ez dizuet azalduko zer zen erredukzioa, idatzi hau argitaratuko bazenute, aipa iezazue "La misión" pelikula zoragarria irakurleei. Misiolariak eta indigenak elkarlanean bat egin da, zer ederra! Ez zaigu orduko dokumenturik falta, izan ere jesulagunen kanporatze miserablea Orinokoko misioetara iritsi zenerako, dena koba-zuloetan gordeta geneukan zorionez. 1814an Pio VII. Aita Santuak Jesusen Lagundiaren kanporatzea baliogabetu zuenean, *Sollicitudo Omnium Ecclesiarum* bularen bitartez, Lagundiak artxibo guztiak berreskuratu zituen gordeta zeuden haizuloetatik. Lagundia akabatuko duen agintaririk ez da jaio!

\* Improbable erdal testu orijinalan.



**Kobeagaren gutuna**

Eta agiri artean nenbilen gure artxiboko paper-mendi artean sartuta, galduta, eskutitz bat aurkitu nuenean. Eskutitz pribatua zen. Badirudi artxiboak arrapaladan gorde ziztuztenean bertan nahastuta geratu zela.

Beste lekeitiar bat aurkeztu behar dizuet, Juan de Cobeaga. Jakinmina sortu zidan hirugarren aktore honek. 1723an jaio zen Lekeition eta berandu baina jesuita sartu zen 1755ean, eta non eta Teplotzotanen, Mexicon. 1757an Habanara bidali zuten eta han harrapatu zuen 1767an jesuiten kanporatzeak. Miguel Ibasetaren laguna zela karta honek baieztatzen du. Karta 1768ko azaroan idatzi zuen Kobeagak. Ez dakigu nori, dokumentua egoera txarrean baitago, baina euskalduna zen hartzailea euskara gutxi baina erabili baitzuen.

Kobeagak bertan dienez Miguel de Ibaseta oso atsekabetuta iritsi zen urte batzuk lehenago Orinokoko misiora (fede-krisiren bat ote zuen uste zuen Kobeagak). Baina Ibasetaren izaera zabalari esker, laster lortu zuen otomakoaren konfidantza eta jarrera erabat aldatu zuen. Baliteke euskal

pilotaren antzeko otomakoaren joko batean oso trebea izateak lagundu izana. Baliteke baita euskararen eta otomakoaren arteko antzekotasunak haren egarri intelektual piztea. Filippo Salvatore Gilii jesuita eta linguista bikain italiarrak bazekien honen ahaleginez.

Otomakoaren ohiturak eta hizkuntza hobeto ikaste aldera erredukzioetik kanpoko herrirka otomako batera joan zen denboraldi baterako. Deabruaren tentaziotik ezin ihes egin eta haurdun utzi zuen Omawë izeneko emakume gazte bat. Fede handiko gizona bazen ere desmasia hura egin ondoren, Lagundiaren izen ona gehiago ez zikintzeko asmotan, abiturua uztea erabaki zuen. Ez zuen astirik izan, herrirka suntsitu egin zuten etsaiek. Kobeagak ez du argitzen Karibeak izan ziren, baina hala uste dugu Karibe tribuak eta Otomakoak etengabeko borrokan bizi zirelako. Miguel ez zuten hil, akaso erlijio-gizontzat hartu zutelako, baina bai Omawë eta herritar guztiak. Zorte handia izan zuen karibeek esklabu, poitos hango hizkuntzan, bihurtzen baitzituzten suntsitutako etsaiak gero holandeseei saltzeko asmoz.

Ibasetak zauri espiritualak eta fisikoak sendatu zituztenean Mexicora alde egin zuen. Bitartean "Inmaculada Concepción" misioan hiltzat jo zuten. Ez zitzaion interesa ezta komeni oker hori zuzentzea eta Tepotzotlanerantz abiatu zen bazeki-elako Juan de Cobeaga lekeitiarrak jesuita bihurtu behar zuela. Laguntza handia eman zion herrikideak garai latz horietan. 1757an Juan Habanako kolegiara bidali zuten eta Miguel Mexiko hiriburuan geratu zen San Ildefonso kolegioan. Zelan ez ziren konturatu "hilda" zegoela Miguel Ibaseta? la 6.000 kilometrok eta orduko burokrazia astunak hala-koak gertatzea errazten zituen.


Kobeaga eta Ibaseta lagunminak zirela ez dago dudarik. Sekretu guztiak kontatzen zizkion Ibasetak. Kontua da, azkenean ere, Iturriza agertuko dela istorio honetan. 1760an Mexicora egin zuen (geroago jakingo dugu bere asmoa zein zen) eta okindegia batean egin zuen lan. 1766an San Ildefonso kolegiara joan behar izan zuen eta han aurkitu zuen hilik egon behar zuen lekeitiarra. Miguelen gazte itxura ezaguna zen, 17 urte ez ziren haren aurpegia aldatzeko gauza izan.

Xantaia hasiera batean neurrizkoa izan zen, liburukote aspergarri bat "Lucero espiritual" otoiitz-liburua. Ibasetak idatzi zuen eta Iturrizak sinatu. Animatu egin zen Iturriza, gaztea zen, eta xantaia gogortzen hasi zen. Jesuiten kanporaketa heldu zen eta Iturriza, diru barik osabak ez baitzion ezer utzi, harrapakinaren atzetik joan zen Habanara. 1768an geunden. Gutunak ez digu argitzen Habanan gertatutakoa, baina dagoeneko sumatuko zenuten zer gertatu zen, jakina da xantaiek duten amaiera.

Izkina batean erdi ezkutaturik agertzen zen esaldi hura **"garraitzaren harkantoian hiru gorapilodun axubetan"**.



"Saggio di storia Americana" 1780-84. Filippo Salvatore Gilii (Gill) legez ere agertzen da) Ezkerraldean dagoen indigena baliteke otomako izatea. Manatia, krokodiloa...



"El Orinoco ilustrado y defendido..." Joseph Gumilla, 1741.

HISTORIA NATURAL. 105  
 en asueto, y holgueta, con la pensión cierta de que el día siguiente se siguen ellos à pescar, y à trabajar, para que descansen los que andan oy en el trabajo, y pesca. Luego concurre toda la gente residua à un hermoso, y muy limpio trinquete de pelota, que tienen en la cercanía de su Pueblo, algo apartado de las casas, doce de un vando, y doce de otro: ponen en deposito la apuesta que han de perder, ò ganar, y concluido aquel juego, se buelve à poner la apuesta para otro: no juegan solo por jugar, sino por el interés, y depositan, quando le hai, canasticos de maíz: à falta de este, depositan sartas de quantas de vidrio, y todo quanto hai en sus casas, si es menester, lo juegan alegremente. Hai sus Jueces viejos señalados, para declarar si hai falta, si ganó, ò perdió raya? y para resolver las dudas, y porfias ocurrentes: fuera de los que juegan en los dos partidos, la demás gente, dividida en vandos, apuestan unos à favor de uno, otros à favor del otro partido. Tienen su modo de jugar.

106 EL ORINOCO ILUSTRADO,  
 de mayor admiracion, al venir una pelota arrastrando, ver arrojarse aquel Indio contra ella con todo el cuerpo: al modo con que suelen arrojarse al agua para nadar, del mismo modo dan con todo el cuerpo contra el suelo, y con el hombro levantan por esos ayres otra vez la pelota. De este repetido exercicio crian callos durissimos en el hombro derecho, y juntamente una singular destreza en el juego. Jamàs pensè, que entre tales gentes cupiera tal divertimento, con tanta regularidad: y despues de escrito esto hallo, que en las Misiones de la Nueva España, los Indios Acaxeès, de la Serrania de Topia, que están à cargo de la Compañia de Jesus, tenian, y aún usan, el mismo juego de Pelota. (A)  
 Durante el juego hasta medio dia, se ocupan las mugeres en hacer ollas de barro muy fino para si, y para vender à las Naciones vecinas, platos, escudillas, &c. pero su mayor ocupacion es texer curiosa, y futilmente esferas, mantos, canastos, talegos, ò facos del cañamo, à esta que hacen de los...

## 1767ko Jesuiten kanporatzea

Beharbada ez da jesulagun umil hau aproposena gai honetaz idazteko, baina irakurleak ez luke ulertuko datorena ez badiogu garai hura azaltzen. Gu ginen XVIII. mende horretan ordena erlijiosorik garrantzitsuena, beste guztien inbidia pizten zuena. Bestalde Aita Santuari zor genion leialtasun itsua (laugarren botoa, obediencia) ez zen orduko agintarien gustuko. Politika erregalistaren aurka zegoen indar bakarra ginen. Esquilacheren motina, errege-hilketa sustatzen genuela... edozerk balio zuen gutaz libratzeko eta oraindik hemen gaude eta urte askotarako, Jainkoari eta Aita Santuari zerbitzatzeko.

1767an kanporatu gintuzten Espainiako lurralde guztietatik. Ezer lortu zuten? Bai horixe, milaka jesulagunen eta euren familien bizitzak suntsitu zituzten. Despotismo ilustratua, hipokresia maximoa. Fedegabe ilustratuak guri lezioak eman nahirik. Nork kristautu eta hezi zituen Indietan hango indigenak? Nork jesuitok baino hobeto? Nork defendatu zituen guaraniak Espainiako eta Portugaleko koroen kontra? Ordaindu genuen bai, larrutik. 1756an amaitu zen guaranien gerra hori, 1759an Portugaleko erregeak kanporatu gintuen, 1762an Frantziakoak, 1767an Espainiakoak eta 1773an Aita Santuak, Clemente XIV.ak, errematatu gintuen.


Misio horietan –“reducciones” hitza erabiltzen da– ibili zen gure Miguel Ibaseta eta Mexikon zegoen kanporatze agindua heldu zenean. Hego Amerika osoko jesuitak eraman zituzten Habanara abereak eramaten diren antzera, eta ez ziren gutxi izan gaisotu eta hil zirenak edo bere buruaz beste egin zutenak. Erregeak arditxoak nahi zituen eta arditxoaren dirua noski. Etsipena zen nagusi Habanan, Iturrizak ez zuen ondo kalkulatu.



Jesuiten kanporatzea. 1767. Gallica, BNF.



Garaiko dokumentuak, euren artean 1767ko Pragmatica Sanción ospetsua.



“La Misión” pelikula. Roland Joffé, 1986.



“Ensemble de gravures relatives à la suppression de l'ordre des Jésuites ...”, Montulay, François, 1759-64. Gallica, BNF.

## Jakin-mina, denbora-kapsula

Ez nuen orduan ulertu, baina zuen herriko egunkaritzo batek zabaldu zizkidan begiak. Hemendik aurrera kontatuko dizuedana Garraitz irlan aurkitutako “denboraren kapsulan” gordeta zeuden aitorten-eskutiztatik atera izan dut. Badakit esango dudana sinesgaitza dela, baina baditut zuen esku utziko ditudan frogak behar izanez gero. Errealitateak fikzioa gainditzen du!



Argi dago honet rokanrola\* ebala gustuko!

Juan Ramón de Iturrizak 8 urte zituen Miguel de Ibasetaren etxera morroi joan zenean, 1749a zen. Ordurako Ibasetak 11 urte zeramatzen Jesusen Lagundian. Lantzean behin joaten zen Lekeitioko bere oinetxera, batez ere Likonatarren artxiboetan murgiltzera eta Iturriza mutikoa laguntzaile bezala erabiltzen zuen artxiboan, azkarra baitzen, baita bere ustez, malezia-



Aragoiko Fernando II. Egile ezezaguna. c. 1500.

gabeko mutikoa. Iturriza txikiak Ibasetaren ondoan ikasi zuena urte eta erdian, eskolan 10 urte-tan ikasiko zuena baino gehiago izan zen. Mutikoa azkarregia zen, San Ignazio santuaren paperak non gordetzen zituen konturatu zen. Giltzapean eta oholpean, ez zen normala. Ez zen normala, ezta, etxe horretako gizonak biak abadeak izatea. Jakin-minak mugitzen du mundua. Iturrizarena eutsiezina zen. Zoritxarrez, ez zen gelditu misterio hura argitu arte. Jakin-egari horrek ondorio negargarriak ekarriko zituen. Jainkoaren bideak ezin asmatuzkoak dira. Familiak paperok agertu ziren eguna madarikatzen zuen.

1715ean ezkondu ziren Juan Fernando de Ibaseta Bustinzur-



Loiolako Ignazio deuna.

ria eta M<sup>a</sup> Micaela Olave Licona. Ezkontza ederra, diru eta lustredun familiar batzen zirelako. San Iñazio deunaren familia, ez gehiago ez gutxiago. 1718an Garcia Licona Azterrica, Loiolako San Iñaziori aititak, Likona dorrean zuela jatorria frogatu zuten. 1719an jaio zen oinordekoa Miguel eta 1727an Likonako dorrea dotoretu behar zela eta, ditxosozko obrak egin zituzten. Martin Azkarraga harginak aurkitu zuen kaxa zahar hura. Etxean irakurri zutena ez zuen sekula Miguelek ahaztu. Lur jota geratu zen familia. Ignazio Deunaren ama, Doña Marina Sáez de Licona, Likonatarra bera Miguel Ibaseta bezala, Aragoiko Fernando II-ak haurdun utzi zuen 1490. urtean. Bai, Fernando katolikoak, Gaztelako Isabel I-aren enarrak.

Ez zaitezte aztoratu, zergatik esango zuen Ibasetaren kalterako zen halako astakeria? Zergatik utzi zuten anaia biek oinordetza arrebaren eskuetan? Pekatuak garbitzeko, ezin zen ohorea galdu garai hartan.

Loiolako Iñigo 1491an jaioko zen. Horrelako kasuetan ohikoa zen bezala, familiar konponketa bat egin zuten isilean, hain zuzen ere, Fernando erregeak zehaztu gabeko diru kopuru bat eta erregaliak eskaini zizkion Beltrán Yáñez de Oñáz y Loyolari, Iñigori aitatasuna emango zion gizonari. Ildora bueltatuz, Miguelentzat, Trentoko Kontzilioaren ondorengo arau zorrotzetan hezitutakoarentzat, kolpe handia izan zen San Ignazio seme naturala\* zela jakitea. Erregearena zela jakiteak ez zuen kontsolatzen. Lekeitiok jesuiten kolegiotxo bat zuenez, berehala erabaki zuen jesuita izango zela. 1737an Villagarcía de Camposera joan zen jesuita izatera. Oinetxera bueltatzen zen bakoitzean, dokumentu madarikatu hura behin eta berriro begiratzen zuen; Ameriketara joan zen urtean, 1749an, Iturriza mutikoaren aurrean. Gero gertatu zena Orinoko aldean eta Mexikon dagoeneko ezagutzen dugu.

Bitartean Iturrizak probetxu gutxiko lantxoak izan zituen. Mexikora joan baino pare bat hile lehenago Likona dorrera bueltatu zen eta han aurkitu zuen aberats egingo zuen agiria. Zorua!

1760an Mexikora joan zen, osabaren okindegian lan egitera. Bazekien Juan Kobega Miguelen lagun hurkoa hara joana zela eta honen bitartez Miguel aurkituko zuelakoan zegoen. Ez bata ez bestea. 1766an, azkenean, aurkitu

\* hijo espureo testu orijinalen

zuen Miguel. Ez zen mutiko txarra Iturriza, baina ospea zuen gogoko, dirua ez hainbeste. Zorionez jesuitak 1768an Mexikotik bota zituzten, baina lbasetak pentsatu bazuen Iturrizaren xantaia amaitu egingo zela oker zegoen. Osaba hil eta diru barik ikusi zuenean bere burua, Habanara joan zen. lbasetak hil zuen, Jainkoak barka biezaio, eta Kobeagak lagundu. 1769ko otsailean Cadizera heldu zen. Iturriza berri bat bueltatu zen, ez zuen alferrik galdu bizitzak eman zion aukera. Kobeagak berriz, ez zuen zorterik izan eta Bolonian hil zen erbesteratuta 1775ean.

Hurrengo zortzi urteetan handik hona eta hemendik hara ibili zen. Zuhurra izan behar zuen. Aurrerantzean, 1812ra arte, hau da 93 urte bete zituen arte, Miguel de lbasetak Ramon de Iturrizaren izenpean Bizkaiaiko artxibo guztiak arakatu zituen bere sekretuaren aztarnarik ez zegoela ziur egon arte. 1795. urtea zen, gerran geunden frantsesen aurka, garai ilun eta arriskutsuak ziren, Ondarroa aurreko urtean erre zuten. Eta eginahalak egin arren sekretua azaleratzen bazen? Nork sinetsiko zuen jesuita hiltzaile eta maltzur baten hitza? Ez zegoen bere ohorea jokoan, familiarena baizik. Are gehiago, Jesulagunen Lagundia eta azken finean kristautasuna orokorrean zeuden arriskuan. Besterik ezean ahotik sekula ere ez, baina bere eskutik jakin behar zen istorioa. Bazekien non gorde dokumentuak. Garraitzeko ermita- komentua hondatu zen urte hartan. Tamalez, ez zen inozoa, erregearen dokumentua falta zaigu.

*El día diez de Septiembre de mil Hochocientos y doze á luego de media noche murió Dn Juan Ramon de Yturiza de edad de setenta y un años cumplidos (93 urte zerraldoa lbasetarena zela kontuan hartzen badugu) de estado celibato natural de Berriz (Lekeitio esan beharra egongo da), y parroquiano de esta, habiendo en su ultima enfermedad recibido los Santos Sacramentos de penitencia, Viático y extremauncion, y el mismo día por la tarde à disposicion del fisico fuè enterrado su cuerpo en esta Parroquial por mandato dela Tropa española, que prohibió enterrarse alguno en el campo, hasta que huviese otra disposicion del Gobierno español; tenía dispuesto su testamento cerrado, y por ser verdad firmè yo el infraescripto Beneficiado y Cura.*


[Firmado] Dn Manuel Guerricaveitia

[Al margen] Juan Manuel Yturiza

Cumplido

Bigarren honetan benetan hil zen Miguel. Gorpua aurkitzen dugunean, Likonatarrean lapurtu zuten dokumentua aurkituko dugulakoan nago. Gorpuk Lekeition egon behar du. Ez dugu testamendurik. Izan bagenu ere, ez zuen eskribauaren aurrean egia esango. Non dago gorpuzkia? Nire susmoen arabera, hiru lekutan egon daiteke: Santa Maria Jasokundearen basilikan, Jesusen Lagundiaren elizan edota Santo Domingo komentuan. Ez dakit misterio hau argitzeko denborarik izango dudan. Miguel de lbasetak bere eskutik idatzitako lerroetan egon behar du erantzunak. Jainkoak gida nazala!

Ez dugu txorakeriarik bultzatu nahi, baina jesuita anonimo honi laguntza eskertu nahi diogu, begira ezazu familiako Santa Ana kaperan.



Lekeitioko Santa Maria elizako plano. Pascual Abaroaren erreformaren aurrekoa.

## Erredakzioaren oharra

Rotia Ebrutiren laguntzaz dokumentu batzuk batu ditugu, Loiolako lñazio deuna seme naturala zenik burutik ere ez zaigu pasatu, baina lbaseta Iturriza zela ez da txorakeria bat.

Arrazioa du jesuita anonimo honek Iturrizaren gaitasuna zalantzan jartzen duenean. XIV. edo XV. mendeko dokumentuak, latinez askotan, irakurtzeko gai zela latinitateko eskolara ere joan ez zen mutiko bat? Okin bat errezu- liburuak idazten?

Zergatik agertzen da 1755ean hildakoaren izena Habanako 1768ko portuko zerrendan? Zergatik dago dokumentua apurtuta izena dagoen lekuan? Zergatik hainbesteko amorrua berriro ere erlijio ordena batean sartzeko? Eta zergatik ez zuten onartu? Jesuita izandakoa zelako?

Zergatik hainbeste erromesaldi? Pekatuak garbitzeko?

Zergatik joan zen Erromara, jesuitez betetako lurraldera? Kuasalitatea ote, Kobeaga 1775eko apirilean hiltzea eta bera maiatzean heltzea hara? Berandu heldu al zen gaisorik zegoen lagun-minari azken agurra ematera? Zergatik idatzi zuen beste otoitz-liburu bat “Manual Cristiano” 1774an?

Zergatik antolatu zituen Bizkaiko artxiborik garrantzitsuenetarikook? Zergatik Lekeitiokoa, Kofradiakoa, Likonatarrena eta Renteriarrena? Berrogeita hiru artxibo sailkatu zituen, zergatik ez Yarzatarrena? Akaso Erdi Arotik zetorren familia bien arteko gorrotoa mantentzen zelako. Badakigu Ramona Maria de Cénica, Fernando Adan de Yarzaren emaztearen papearak antolatu zituela. Bilboko etxea zapalduko zuen, Zubieta seguru ezetz. Santa Maria elizako eta Dominiketako artxiboak ez zituen antolatu. Baze-kitelako jesuita zela?

1795 Yten: el Archivo de la villa de Lequeitio en el de 1795 con 80 volumenes de escrituras y un indice escrito.

1796 Yten: la Papelera de Don Joseph Joaquin de Colmenares, vecino de Lequeitio en el de 1796, con 40 volumenes de escrituras y tres indices escritos.

1801 El Archibo de la Cofradia de Mareantes de Lequeitio en 1801, con 20 volumenes de escrituras y un indice escrito.

1802 Yten: La papelera de Don Joseph Agustín Ibañez de la Renteria vecino de la Villa de Bilbao el año 1802, con 8 volumenes de escrituras y un indice escrito. Non ete dago?

Zergatik Colmenares-Licona artxiboan desagertu ziren dokumentu guztiek Loiolako San lñaziorekin dute zerikusia? Ondarrutarren bat? Baliteke

Archivo Colmenares Legajo 1 nº 7

*Arbol genealógico de los Licona desde Martin Perez Licona que se estableció en la villa de Ondarroa en 1414 y fue bisabuelo de San Ignacio de Loyola...*

4 legajo desagertuta daude, lehenengo hau noski, eta 4., 5., eta 6. Denak Likonatarrekin zerikusia dutenak, beste familia edo maiorazgo batzuetakoak ez dira galdu. Ez diogu guk bakarrik, Alejandro Gomez Guerrerok 55. oharrean zera dio: *Yndice y extractos de las Esras. pertenecientes al Vínculo y Mayorazgo de Licona, fundado por D<sup>a</sup> Ana de Licona su hija en 21 de Abril de 1699, cuió actual posehedor es Dn Jose Joaquin de Colmenares e Iturralde vecino de la N. Villa de Lequeitio. Año de 1796. Este índice es, lamentablemente, la única referencia conservada en la actualidad de gran parte de los documentos notariales relacionados con los Licona. Salvo los libros correspondientes a los registros 2 y 3, el resto desaparecieron del archivo de la familia Colmenares a lo largo del siglo XIX. La abundancia de documentos relativos a la familia materna de San Ignacio de Loyola en los tomos correspondientes a*

*los registros 1, 4, 5 y 6, precisamente los no conservados, podría tener alguna relación con su desaparición.*

*Beste hau ere desagertuta dago: 1718 Entroncamiento del muy ilustre Dn Garcia de Licona y Azterrica abuelo materno de San Ignacio de Loyola y Licona en las muy ilustres casas y torre de Licona de la villa de Lequeitio y de Azterrica de las de Ondarroa.*

Zer egiten zuen Iturrizak Habanan garai hartan? Ezin izan zuen lehentxoago edo beranduxeago bueltatu etxera?

Nola zen posible zentimo barik bueltatu bazen etxera 5.649 erreal ematea arrebari dote bezala? 1768-04-03an osaba Gabriel de Zavala hil zenean ez zuen ezer hartu (de quien heredo unicamente una chupa vieja de tisu que vendio en el baratillo de Mexico en ocho pesos). Baliteke familia jakinaren gainean egotea eta akordio honekin erremediorik ez zuen gaitzari onura ekonomikoa behintzat ateratzea.

Gainera, denbora-kapsularen argazkia dugu. Analizatu ondoren badirudi garai horretakoa dela. Idazle anonimoari dokumentuak eurak eskatuko genizkioke. Hala baieztatuko genuke dokumentuok garaikoak eta benetakoak diren.

Bestalde Omawe emakumea agertzen den eskuizkribua ere ordukoa dela baiezza dezakegu. Inguruan agertzen den hiztegitxoa aita Lucenak, fraide kaputxinoa, prestatu zuenarekin konparatu dugu eta ez dago dudarik, otomakoa da. “Traducción de la lengua española a la otomaca” manuscrito 2.927. Padre Gerónimo José de Lucena, 1787. Biblioteca del Palacio Real de Madrid.

Beharbada hau ere lbasetaren ikerketaz baliatu zen.

Amaitzeko txikikeria bat:

1795ean hondatu zela komentua ez da edonork ezagutzen

duen datua, Iturriza-lbasetak

berak aipatzen du ohartxo batean.

Ezin izan dugu beste inon aurkitu datu hori.

Zelan jakingo zuen hori gure idazle anonimoak?

1795ean hondatu zen ermita/komentua.


Iturrizak hala dio “Deskribapen anonimoa”ri egindako ohar batean

“Se demolio dicha hermita el año de 1795 con el motibo de la guerra que ubo con el frances”

LUA R 48, 8r.



Badaezpada, hor duzue Likonatarren artxiboan ostutako legajoak izan behar-koto zuten itxura azalak ez badizkiote aldatu. Aukera bi antzematen ditugu: ondarrutarra ala jesuita, egon-egon, ondarrutarra eta jesuita?



“Contrato matrimonial del licenciado D. José de Iturralde y Aranguren, y D<sup>a</sup>. Manuela Josefa de Ibaseta y Olave, vecinos de la villa de Lequeitio”. 1739.08.08. Euskadiko artxibo historikoa, Colmenares-Licona artxiboa, legajo 5, 14.

### Gehigarria 1 Colmenares- Licona artxiboa

...yo el dho Hermano Miguel de Ybaseta digo que hallandome con la esperiencia y consideracion de los peligros del mundo y deseando pasar a vida mas perfecta entre Religioso en la Compañia de Jhs y he tenido en ella los dos años de Noviziado y porque segun las constituciones de dha Compañia puedo despues de los dos años hazer renununziar de mis lexitimas paterna y materna y demas derechos y acciones, que aora o en cualquiera tpo me puedan tocar y pertenecer para mejor se (sic) seguir a Christo Señor nro, desnudo en la Cruz de mi libre y expontanea voluntad sin que para ello aia prezedido persuazion de mis superiores ni de otra persona alguna, otorgo que zedo renunzio y traspaso hago grazia y donazion pura mera perfecta xxx que el dro llama ynterbivos de todos mis bienes muebles y raizes... en favor de d<sup>a</sup> Manuela Josepha de Ybaseta mi hermana maior para que pueda contraer matrimonio con el lustre y dezenia que pide su calidad...  
...y los bienes afectos a los Maiorazgos que me tocan... los zedo renunzio y traspaso en favor de Don Antonio de Ybaseta mi hermano...

... en esta villa de VillaGarzia de Campos a 30 días del mes de Junio de 1739...  
Antonio Ibaseta anaia ere abade egin zen, beraz baliteke familiako gizonek ohore zama horrekin kargatzea. Ez zen inondik inora normala erabaki hori.

### 2 Habanako portua

“Presencia y ausencia de la Compañia de Jesús en Cuba” liburuarren gehigarrietan azaltzen da Habanako portura heldu ziren jesuiten zerrenda. Euren artean ageri dira Juan Kobeaga eta Miguel Iba (apurtuta). Zelan egongo eta moztuta!



ANEXO 1

Lista que comprende las embarcax en que se conduxeron á este Puerto los Regulares de los de [-] departamentos [-] deq proceden, Colexos en que recidian y sus nombres, con los Buques q los [-] al Puerto de S<sup>a</sup> María con prevencion q la siguiente anota los muertos en esta Ciudad y esta los q trajeron [-] sus pasajes de los Puertos de los Reynos de q proseden y se expresan en la disp. sig.

Boques que los condujeron a este Puerto los Regulares	Ysla de Cuba	Embarcaciones en que navegaron a España.
	Colex de S <sup>a</sup> Ign. de la Hay	
P. R. Andres de la Fuente	Frag <sup>a</sup> SS. <sup>na</sup> Trinidad.	
P. Juan Man <sup>de</sup> de Araoz		
P. Juan Roset		
P. Thomas Butler		
P. Simon Larrazaval		
P. Miguel Ruiz		
P. Bartholome Casaña		
P. Lorenzo Chavez		
P. Jph. Cosio		
P. Jph. Romero		
P. Joschin de Zayas	Berg el Bello Yndio.	
H. Juan Baptista Frankenhaisen		
H. Juan Cobrera		
P. Pedro Palacios	Frag. <sup>a</sup> S. <sup>a</sup> Raphael	
P. Fran <sup>co</sup> Xav <sup>ier</sup> Villa Utrutia		Frag. <sup>a</sup> Tesis

Habanako portua. “Presencia y ausencia de la Compañia de Jesús en Cuba” Eduardo Torres Cuevas, Edelverto Leiva Lajara.

GENERALE DE LA HAVANE

Berg <sup>a</sup> Jesús Navarro	P. Martin Alcoer	
Frag <sup>a</sup> la Juno	P. Manuel Car (roto)	
	P. Jph. Mariano Soldevilla	Urca Perogina
		Urca Vizarr
S <sup>a</sup> Yldefonso de Mex <sup>ico</sup>		
Frag <sup>a</sup> Dorada	P. Fran <sup>co</sup> Xav <sup>ier</sup> Alegre	Urca S <sup>a</sup> Julian
Frag del Rey la [roto]	P. Juan Miguel Quintanilla	Urca Vizarr
Frag del Rey la [roto]	P. Mat <sup>ias</sup> Cosio	Urca Vizarr
Frag <sup>a</sup> S <sup>a</sup> Miguel et P. Mig <sup>uel</sup> Yba [roto]		Frag <sup>a</sup> S <sup>a</sup> Miguel et Vizarr
Vizarr		Frag <sup>a</sup> Buen Suceso
Frag <sup>a</sup> Buen Suceso.	P. Julian Parrilo	
		Tipostodan
Frag <sup>a</sup> Dorada	H. Jph. Peñalver	
Nancy	P. Miguel Cola (roto)	Urca S <sup>a</sup> Julian
Frag <sup>a</sup> Juno		

### 3 "Biblioteca de escritores jesuitas neogranadinos" José del Rey Fajardo, 2006 Bogota.

**IBASETA, Miguel (1719-1755)<sup>1</sup>.** (Etiam: IBAZETA).

I. Nació en Lequeitio (Vizcaya) el 27 de mayo de 1719 e ingresó en la Compañia de Jesús el 27 de mayo de 1737<sup>2</sup>. Realizó sus estudios de Filosofía y Teología dentro de la Orden<sup>3</sup>. Atravesó el Atlántico en 1749 en la expedición que venía a encargarse de la Misión de la Guajira<sup>4</sup>. Tras esperar algún tiempo en Cartagena fue destinado al colegio de Honda en 1751<sup>5</sup>. Pasó después a las misiones del Orinoco y en 1753 misionaba a los otomacos de la Inmaculada Concepción<sup>6</sup>. El 16 de junio de 1755 le sorprendió la muerte en las reducciones orinoquenses<sup>7</sup>.

#### II. Escribió:

A. *Ensayo de una comparación entre el otomaco y el vasco<sup>8</sup>.*

- 1 ARSI. N. R. et Q., 4. Catálogos de la Provincia del Nuevo Reino: 1751-1753.
- 2 ARSI. N. R. et Q., 4, fol., 314. Catálogo de 1753.
- 3 ARSI. N. R. et Q., 4, fol., 314.
- 4 AGI. Contratación, 5549. Expedición de 1749. Antonio JULIAN. *La perla de América*. Bogotá (1951) 231-240.
- 5 ARSI. N. R. et Q., 4, fol., 299. Catálogo Breve de 1751.
- 6 ARSI. N. R. et Q., 4, fol., 301v. Catálogo Breve de 1753.
- 7 ARSI. N. R. et Q., 4, fol., 332v. *Supplementum primi et secundi Catalogi Provinciae Novi Regni Societatis Jesu confectum a 25 Julii 1754 ad 15 Junii 1755 et ad 11 Julii ejudem anni.*
- 8 GILIJ. *Ob. cit.*, III, 131: "El P. Ibaseta, que era vizcaino y fue misionero de los otomacos, me lo dijo más de una vez. Aunque como murió al principio de su carrera apostólica, no pudo hacer una comparación completa".

### Egiari zor Azken momentuko albistea.

[Lista de los jesuitas expulsados de Indias, llegados al Puerto de Santa María. Puerto de Santa María, 30 de junio de 1769] Uruburu de Toro, Francisco 1769. BDH MSS/12870  
Miguel de Ybarburu delako bat San Yldefonso kolegioko kidea bera, agertzen da zerrenda horretan. Baliteke, hasiera bera dutenez, Ybaseta abizenarekin nahastea. Ez da baztertu behar aztarna hau, baina edozein modutan ez ditu beste argudioak ezeztatzen. Ibarburuz jakin nahi izan dugu, baina ez dugu apenas ezer aurkitu, arraro samarra kontuan badugu jesuitak biografiak idazten egoten zirela egun santu osoan. Kobeagari buruz ere antzekoa gertatu zitzaigun "Son muy escuetas las noticias que hay sobre la vida de nuestro Juan de Cobeaga...".

TO BE CONTINUED







# Talaiak itsasoari begira

Testua: Maite Garamendi

XIX. mendeko argazki eder baten zati honetan, beheko talaia oso ondo ikusten da. 1841ean berreraiki zen: “La casita será de la misma construcción que la última demolida y deberá edificarse sobre los cimientos anteriores continuando las paredes con el mismo grosor y siendo trabajadas con arte, buena piedra, buen mortero” (Lekeitioko Udal Artxiboa U000189/17).

**K**ostaldeko herriak itsasora begira bizi dira. Antzinatik, itsasotik etorri dira arrainak, jakiak, merkantziak,... baina baita galarrenak, ekaitzak, etsaiak,... Guzti hau kontrolatzeko eraiki ziren talaiak, gotorlekuak... Talaien kargu izan dira talaieroak eta seineroak, informazioa jaso eta dagokionari helarazteko. Gerora, komunikabideen eta meteorologiaren garapenak, barrualdeko errepideen hobetzeak... zentzu barik utzi zituzten talaiak eta XX. mendearen erdialdetik ez dira erabiltzen.

Lekeition, antzina-antzinatik, San Pedro Arrantzaleen kofradiak bere talaiak kudeatu zituen, baita eurentan aritu beharreko langileak ere. Aspaldiko denboretan, talaieroak aukeratzeko moduak hainbat izan ziren: kofradiako maiordomoak aukeratuta, lan hori betetzeko aurkezten zirenen artean zotz eginda, txalupetako patroiek aukeratuta, eta abar, baina beti ere urte baterako aukeratzeko zen talaieroa. Gutxi gora behera, 1870etik aurrera talaieroak urte bete baino gehiagorako aukeratzeko hasi ziren.

Lekeition izan diren arren hainbat talaia, (Santa Katalinan, Garraitz irlan, lehengo plazan, Lumentza mendiko tontorrean..., denak militarrek), kasu batzuetan oraindino arrastoak ikus daitezkeenak, San Pedro Arrantzaleen kofradiak kudeatzen zituen talaietaz arituko naiz.


Lekeitioko kofradiako talaieroez, antzina-antzinatik, hainbat zeregin bete behar zituzten adi-adi itsasora begira egonda, beharren artean ez zen garrantzi gutxienekoa baleak ikuskatzea eta honekin batera manjuiak ere bai. Obserbatzaile onak izaki, eguraldiaren gora-beheren berri jakitea ere eskatzen zitzairen eta gerra denboretan etsaien joan-etorriak jagotea ere bai. Seinero eta maiordomoekin batera, eretian parte hartzea ere tokaten zitzairen, hau da, arazoak zeudenetan txalupak portuan

sartzeko maniobretan, eta, zer esanik ez, ontziren bat atezuan ikusi ezker, abisua eman behar zuten. Hori guztiori talaiatik egiteko, batez ere, ke seinaleak erabiltzen zituzten, baina baita akustikoak ere. 1911n, guzti honi telefonoa gehitu zitzaion.


Talaiak noizkoak diren esateko ez dago datu zehatzik, baina susma daiteke gizakiak betidanik behatu eta zaindu duela bere ingurua, eta itsasoa hain aldakorra izanik, pentsatzekoa da marinelek lehorra utzi baino lehen beti begiratuko zutela itsasora eta itsasora ateratakoen zain geldituko zirela beste batzuk lehorrean. Funtzioa edo zeregina izango zen lehendabizi, gero moldatuko ziren eraikinak.



Francisco Coello eta Victor Munibe. 1857.



Normala denez, talaiak eta gotorlekuak edo defentsa postuak beti egon dira elkarren alboan. Batetik, etsaia zelatzeko eta, bestetik, aukeran, erasotzeko. Irakurri, esaterako, Bizkaiko Foru Agiritegi Historikoko 1780ko dokumentu hau BFAH-JTB 0916/020



San Juaneko ermita, inguruan zegoen gotorlekuko kanoiak eta bolbora gordetzeko ere erabili zen, 1803ko J.B. Belaunzaran arkitektuaren planoan ikusi daitekeenez BFAH-AQ00607/002). Hau dela eta izan zen istiluren bat edo beste Elizarekin.

Seguritik baseliza egon baino lehen, San Juan "Talako" (errepara izenagaz) ermitaren ingurua talaia legez erabili zen. Dokumentazioan gutxienez XVI. mendetik agertzen dira San Juaneko talaiaaren aipamenak. Esate baterako, 1529koa da Domingo de Amezqueta San Juan Talakoko ermitauaren testamentua (Bizkaiko Foru Agiritegi Historikoa). Bestalde, 1552ko Lekeitioko kontzejuak erabaki zuen gerra denboran guardiak egitea talaian eta beste toki batzuetan (Lekeitioko Udal Artxiboa – R44).

Itsasoak azpia janda edo, San Juaneko lehenbiziko ermita itsasora jausi zen XVIII. mendean eta orain ezagutzen duguna aurrekoa egoan lekua baino beheiago erakitzu zen, lur egonkorragoa zegoen tokian. 1735eko Deskripzio Anonimoak dioen legez: "... la de San Juan Evangelista caió a la

mar toda ella con su terreno el año 1715; se ha redificado otra, más abajo del paraje de antes, aunque pequeña decente, el año 1722; tiene una plazuela para fortín de artillería, en que y en la de la dicha cassilla de la Athalaya hay siete piezas...".

San Juan toki garaia da, proposa itsasoan gertatzen ari dena kontrolatzeko. Ermita bera ere, behar bada, erabiliko zen kontrolpostu legez, atari ederra dauka babesteko eta bertatik itsasoa begiratzeko...

Aurreko dokumentuan, 175. orrialdean, Lekeitioko San Juaneko goiko talaia eta behekoa non kokatzen ziren irakurri daiteke eta, hauekin batera, gotorlekuak ere bai. Hemen esaten den guztia bat dator Francisco Coellok eta Victor Munibek 1857an altxatutako planoarekin (174. orrialdea).



San Juaneko ermita, Pedro Pérez de Castro, 1856. Litografía.

## 1766ko ordenantzak

Lekeitioko Kofradiako artxiboa L4D1

Kofradiako 1766ko ordenantzak ondo baino hobeto aztertu zituen Ugartetxeak *De la pesca tradicional en Lequeitio: s. XVIII. (Anuario de Eusko Folklore, 1962)* artikuluan. Ikus ditzagun arau batzuk:

- Patroi gehienek aukeratutako maiordomoa ez bazuten gai ikusten itsasoa harro eta arriskutsu zegoen eretia zuzentzeko, hark bere kontura patroien konfiantza merezi zuen talaia bat izendatu behar zuen laguntzeko. Talaiaiak Lekeition bizi behar zuen San Andres egunetik Aratuste egunera bitartean "sin alexarse notablemente...". Baldintza hau eretia egiteko gai ziren maiordomoak ere bete behar zuten.
- Maiordomoak talaieroa proposatu behar ziren patroiei urriaren 10a orduko. Azken hauek, patroiek, finkatzen zuten talaieroaren soldata. Ordenantzotan, talaiaien eginkizunak zehazten dira eta lana hartu aurretik banan-banan irakurtzen zitzaien, inoiz ez zezaten argudiatu ezjakintasuna. Talaiaiak bere zerbitzua San Lukas egunetik Aingeru Guardakoen egunera bitartean bete behar zuen, hau da, urriaren 18tik martxoaren 1era arte.
- Goiko talaiaitik maiordomoak seinaleak egiteko agindua ematen zionerako talaieroak kea egiteko behar zen guztia izan behar zuen eskura, "argoma (otea) y séspides,..." esaten da agirietan. Eguraldi txarra iragartzen zenean, itsasoan ziren txalupak lehorrera egin behar zuten, osterantzean zigor ekonomikoa izan zezaketen.
- Talaieroak irismen handiko katalexo bat eduki behar zuen eta aldean eroan egunero talaia. Txalupak irten ezean ere, talaiaiak bertan egon beharko zuen, badaezpada.
- Herritik alde behar edo gaixotu izan ezker, ordeko talaiero bat bilatu beharko zuen, maiordomoaren gustukoa.
- Soldata hiru zatitan eskuratzen zuen: lehen zatia San Lukas egunean, bigarrena urtezahar egunean eta hirugarrena amaiera egunean. Talaieroaren soldata maria bati zegokiona zen.
- Txaluparen bat hondoratzen edo atezuan ikusi ezke-ro, abisua eman behar zuen txapela edo jakaren bat palo luze baten puntan jarrita.
- Eguraldi oso txarra egiten zuenean, normalean, txalupak ez ziren itsasora irteten. Baina, eguraldi txarra ontziak itsasoan zirela zabalten bazen, talaieroek bere tokira joan behar zuten. Talaiaiek beraien babeserako, egurrezko txabola batzuk izaten zituzten, urtero konpontzen zituztenak. Urteak aurrera, txabolen lekuan eraikinak egin zituzten, gero eta ho-beagoak...

19. ord.

...en igual congreso de Maestres y Chalupas les propondra el Sugeto de su maior satisfaccion para talaiero (cuias obligaciones assi bien iran prevenidas) y no conformandose la maioria de votos bolvera a nombrar otro, y si no se conformaren en este nuevo nombramiento la deveran hacer los mismos maestros de Chalupas, prevaleciendo su maioria, y en el mesmo Congreso les señalaran su salario... y su servicio comenzara en dia de San Lucas diez, y ocho del mes de Octtubre y concluire el dia de Angel de Guarda, primero de Marzo del año primero siguiente

36. ord.  
Otro si ordenaron y esttablecieron que el talayero consttittuido en la forma referida antes de dicho dia de San Lucas haia de hacer y tenga surtimiento de basttante argoma y demas necesario para hacer humo siempre que por el Mayordomo se le ordenare con la acostumbrada señal que le hara desde la Athalaya de arriba para cuio reconocimiento esttara despiertto y a la vista el thalayero, sin descuidarse siempre que prudencialmente jusgare?, assi le sera ordenado y esto se entiende por lo que mira a la borrasca y maretta de mar pero en quanto toca a las tempesttades terribles de viento, observandolas por si con cuidado especial haia de hacer y haga humo a tiempo que buenamente y sin peligro puedan puedan (sic) bolver las Chalupas...

37. ord

Ottrosi que el dicho thalayero tenga antteoxo de larga vistta a costta suia, y llebandole consigo todas las mañanas desde la de dicho de San Lucas hasta primero de Marzo haia de ir y baia sin detencion alguna a su acostumbrada Athalaya, luego que las chalupas salieren a la pezza, y en los dias , en que por xusttos motibos dexaren de ir sin embargo con la misma vigilancia haia de pasar dho thaliero a media hora o tres quartos de hora a lo sumo despues del toque de la Campana para la Misa de la Alba... ..buelba entonces a esta referida Villa, y se consttittuia en la Athalaya, donde suele esttar el Maiordomo, para asegurar la entrada de las Chalupas, y le acompañe a este fin

39. ord.

Assimismo ordenaron y decretaron que dicho thalayero tenga especial cuidado en reconocer y distinguir los peses maiores como Ballenas, Gibarttes, trompas y demas peses de semejante respecttiba calidad y assi distinguiendo alze en el monte y paraje que se pueda descubrir desde la Villa y assi para? partte de esta, como hasta aqui ha sido de uso, y costtumbre las respectibas señas de vanderá blanca o sabana que se le debera entregar por el Maiordomo y esto se entendera de Vallena y Palo seco para Gibarttes y trompas (aunque estas ultimas rara vez se suelen acercar, sino que comunmente se han experimentado de ttres o quattro leguas desde este Puerto) visible y assimso assi a la pertte de esta referida Villa para que se puedan divisar y distinguir y de este modo prevernirse cada tripulacion con las respectibas armas e instrumentos necesarios y salir del puerto los que quisieren...

... de la misma suertte en caso de que reconosca algun Navio, que jusgare prudencialmente quiere Pilotto que le dirija a algun Puertto o a estte quisiera venir lo mismo que Naos y barcos que andubieren naufragando o peligrasen haia de alzar en el mismo paraje que las demas señas la que hasta aqui se ha acosttumbado que es de sombrero o algun cascacion o chupa en la punta de un palo largo elevandole de forma que se pueda ver y distinguir con facilidad

40. ord.

Assi mismo ordenaron que aquentta de esta dicha Cofradia se componga en cada año y siempre que necesidad tubiese la Casilla de dicho thalayero, en que pueda guarecerse siempre que llueba, niebe o corra tiempo de mucha tormentta de viento... en la qual casilla pueda encerrar la argoma sespides y demas que necesitare para dicho efecto de hacer humo...



Blas Meabe Atxurra Mendexako talaian.

## Mendexako talaia

San Juan ingurukoez gain, Lekeitioko Arrantzaleen Kofradiak beste talaia bat izan zuen Mendexako lur garaietan. Hori jakina zen, baina argazki eder bi hauek ikusi genituenean... talaia honen historian pixka bat sakontzeko gogoia sartu zitzaigun.

Jose Miguel Ugartetxeak idatzita utzi zuen Artzabaleko harkaitzen gainean dagoen mendixkaren tontorrean bazegoela talaia bat, nahiz eta berak ez zuen ezagutu (*De la pesca tradicional en Lequeitio: s. XVIII.*)

Argazkian ageri den talaieroa Blas Meabe Atxurra da, 1883an jaiotako Lekeitioko semea. Baina ez dugu lortu jakitea noizkoa den irudia. Ematen du teleskopioa dela argazkiaren protagonista. Estreina zeneko argazkia ote? 1912koa? Kasu horretan, Blasek 29 urte zituenekoa litzateke. Baliteke...

Argazkiko eraikinaren antzinatasunari dagokionez, ikusten den etxola XIX. mendekoa izan daitekeela uste dugu. Alderatu Xabier Alberdi eta Jesus Manuel Perezek Mutrikuko talaierako proposatzen duten ereduarekin (Itsasoari so / Los ojos del mar. Eusko Jaurlaritza, 2009). XIX. mendera

arteko talaiaik, seguruena, egurrezkoak izango ziren, urtero konponketak behar zituztenak.

Edozein modutan, Mendexako inguru horretan bazegoen talaia bat gutxienez XVII. mendetik. Josu Erkorekak (*Análisis histórico-institucional de las Cofradías de Mareantes del País Vasco. Eusko Jaurlaritza, 1991*) datu interesgarri bat ematen digu: aipatzen du 1669ko pleito bateko dokumentuetan San Pedro Kofradiak talaia bat zeukala "Coalarra" mendian.

"Coalarra" izena ezaguna egiten zitzaigun eta, pleitoa ikustera joan ginen Bizkaiko Foru Agiritegi Historikora. Agiria aurrean, lehenagotik uste genuen legez, "Coalarra" barik "Ycoalarra" dakar dokumentuan. Ycoalarra edo Liconalarra badakigu gaur eguneko Likularra dela, Mendexako talaiaaren ingurua, hain zuzen. Honen ondorioz, esan dezakegu 1663tik gutxienez bazegoela Mendexan talaia bat, leku horretan bertan. Irakur dezagun zer dakarren dokumentuak:

"... siendo como es esta dicha villa dueño de las dos tercias partes del monte llamado yCoalarra en possession y propiedad y con muchos actos de dominio y possession y de tener en la cumbre del dicho monte una choça, garitta y atalaya para el albergue del hombre señoero y atalayador que dicha villa y la cofradia de mareantes de señor San Pedro suelen tener en tiempo de guerra para ver si parese por esta costa algún enemigo y en tiempo de hibierno para conoçer y ber las ballenas y haser seña al pueritto. Y también para en tiempo de tempestades para haser seña para que salgan a dar socorro a los barcos y nabios que passan en esta costa y se been en peligro...".

Aipatutako epai hau Lekeitioko kofradia eta mendexarren artean izan zen istilu baten ondorioa da. Baina, ez dugu gai honetan sakonduko, bakarrik anekdota legez esan, besteak beste, mendexarrek bertako talaia apurtu egin zutela behin eta berrito eta lekeitiarrek 40 dozana bisigu ostu zizkietela mendexarrei. Guzti horren atzetik gai larriagoak zeuden, esaterako, kofradiako ordenantzak betetzen ziren ala ez (arraina deskargatzeko erabili beharreko moilak, kanpotarrak ordaindu beharreko zergak,...) eta erregeek, haien erbesteko gudetan laguntzeko, eskatzen zituzten marinelak nortzuk eta nongoak izan behar ziren.

## Teleskopioa

Argazkietan ageri den teleskopioari dagokionez, esan 1912ko urtarrilaren 10ean ipini zela Aita Beobide, Zumaiako bikarioaren laguntzaz. Beobide, meteorologo-iragarlea, Igeldoko Itsas meteorologi behatokiko lehenengotariko informatzaile izan zen.


Hala dakar behintzat El Pueblo Vasco egunkariaren Lekeitioko kronikak:

"El expresado telescopio marino es de lo mejor que se ha instalado en el Cantábrico, por su gran alcance y perfeccionamiento; es de la casa Zeiss-Jena, con tres oculares de 32, 52 y 72 aumentos, y su funcionamiento, unido al teléfono instalado recientemente, hará que, no solo sirva para el anuncio de manjuas y otros servicios importantes, sino que, en más de una ocasión, salvará las vidas de la pobre gente de mar, como aconteció recientemente en otro pueblo de esta costa".

Usteak onak izanda ere, zoritxarrez, hile batzuk beranduago suertatuko zen galarrena madarikatuaren triskantzak saihesteko ez zuen balio izan. Gogoratu, 1912ko abuztuaren 12koa.




Blas Meabe Atxurra Mendexako talaian.




Xabier Alberdi eta J.M. Pérez "Itsasoari so"



BFAH-JCR 1474/14. 1669ko auzia.





BFAH Carreteras y caminos vecinales, 166

## Telefonoa

Telefonoa 1911n ipini zen Mendexako talaian. Bizkaiko Foru Agiritegi Historikoan dago bertan telefonoa ipintzeko marraztu zen proiektuaren planoak. Begiratu, zelan kofradia zaharretik luzatu zen kablea talaiaeraino.

2016ko apirilaren 10ean, joan ginen ikustera non kokatzen zen talaia zaharra, Asentzio Laka eta Mendexako Leixarra argazki taldekoekin. Asentziok tokira lagundu zigun; orain gutxi pinuak jo dituzte eta garbi-garbi geratu da parajea. Ziurtatu daiteke benetan toki ederra dela itsaso zabala eta kostaldea ondo ikuskatzeko. Aitzaki bat aipatzearen, esan behar pena dela Lekeitio alderantz landatuta dauden eukaliptoek eragotzita ezin dela ikusi oso-osoan San Juan Talako ingurua. Hori bai, ondo ikusi daiteke sasoi baten bertatik ederto ikusiko zela inguru hori. Penagarria bestalde, talaiaeren harri bat bera ere ez dela bere lekuan geratzen, ez zaigu eraikin zahararen aztarnarik gelditu, hori bai, tokia non dagoen ez zaigu sekula ahaztuko.

*Kontixu 1917an hamendik ikusiko ebezen aero-plano bixak pasaten Euzkadi egunkariko periodistak... Orduan Francisco Etxebarria egoan talaiero.*



Asentzio Laka eta Mendexako "Leixarra" argazki taldeko kideak Mendexako talaia egon zen tokian. 2016ko apirila.



Tomas Txopitea Iturbe.

## Likularretik Otoiora: Tomas Txopitea Iturbe (1898-1960)

Tomas Txopitea Iturbe, Mendexan egon zen azken talaiero izan zen. 1931ko martxoaren 2an izendatu zuten talaiero, zendu berri zen Fructuoso Etxebarrietaren ordeaz. Otoioiko talaia eraiki zutenean (1933), Tomas bertara pasatu zen teleskopio eta guzti. 36ko gerra iritsi zen arte... Gero ez zen bueltatuko.

Tomasen alaba Dolores Txopitea Barbaria-sengana jo dugu (Lekeitio, 1926) bere aitari buruz berba egiteko.

Doloresek gogoan du zelan Tomas aita, talaieri izan aurretik, itsasoan ibili zela eta gero izendatu zutela lan horretarako. Badaki, baita ere, Mendexako talaian hasi zela lan berrian,

baina bera orduan umetxoa zen eta hobeto gogoratzen ditu Otoioiko talaiko kontuak.

"Gure aitta beti, bueno, arinago izan zan itsasokua ta gero talaiero, baina umia nitzan ni, ta han egoan, Kurlutxuko handik goititik, talaia txikitxu bat, ta hor egin ebazan urte batzuk, eta gero Otoiora pasa zan... eta gu giñian lau ume baina, klaro, Otoiora juteko txikiñak giñian, bestelan, etxia eukan Otoioquak ederra, bere kuartuakin eta bañua, bueno bañua ez baina komuna eta horrek danak akordaten jaraz niri horrek danok baina peligrua zalez umientzako ba ez giñian hara juan..."

"Gu otoiora juten giñian, lagun batzuk bebai, gerra denporia etorri zalez, ba orduan ogirik eta be ez zan egoten, eta eurak han egoten zirian, gudariak, Lekittarrak eta, guardiak egiten ebena, horrek ondo akordaten jaraz, ta klaro juten giñian, ba ogia ta emotiagaittik, aittak eta emotiagaittik, ogitxua ta ba..."

"Gero etorri zan gerria, nazionalak eta italia-nuak eta sartu zirian da... ebakua zirian. Akordaten jat, jun zirian baporetan, da kontixu jun zirian ba Castrora edo paretik eta gero hortik etorri zirian hona baporak guztiak, jun zirinak, etxeratz, denpora gitxira, handik be ez eukan ezer da... ta klaro, etorri ta batera, tinglauan, persona batzuk detenidu egin ebezen eta erun ebezen Gamboeneko palaziora, han egoazan Guardia Zibilak, jefazuak, da han emon eutzezen paliza ederrak, horrek ondo akordaten diraz, ta gero Pepita Arranegiko botikakuak eta, egin eutzezen kurak, eta gero erun ebezen bertoko kartzelara... Gero Bilbora, lelengo Karmeloko elizako kartzelara, ta gero pasa ebezen Larrinagara... Gero erun ebezen handik Cadizera, Puerto de Santa Mariara, egon zirian Lekittar batzuk, asko, Miguel Garabilla ta, aitta ta, Sebero praktikantia ta, Santos Goitiz ta, Antonio Zubietakua (zaintzailia)... da gero eroan ebezen "a la Sierra Morena", da handik etorri


zirian gero etxera. "Pena de muerte" euki eban gure aittak baina kendu egin eutzen, bertoko... bakixu, txarra egitekuak baegoazan baina ona egitekuak bebai... geure aitten lengusiña batzuk egoazan krixada Artajonian eta harek kendu eutzen..."

Begiratu beheko dokumentuan Tomas Txopitearen kontura frankistek idatzi zutena 1941ean, erantzukizun politikoen epaitegitik informazioa eskatu zutenean. Bere sententzia ere eskuratu diogu Aranzadi Zientzia Elkarteari eta zera dio: *Procedimiento sumarísimo de urgencia nº 1.541-37 "... que el procesado Tomás Chopitea, afiliado a Acción Nacionalista Vasca y atalayero del Monte Otayo, recibió el encargo, que cumplió voluntariamente, de observar y avisar inmediatamente la llegada o aproximación a la costa de los Barcos de la Escuadra Nacional, trasladando en una ocasión el telescopio a un barco de guerra rojo para que desde allí fuese observada la línea del Ejército Nacional en las proximidades de Ondarroa; ..."*. 12 urteko kartzela zigorra eta erabateko gaitasungabetzea ezarri zioten.

"Gure aitta etorri zan da, talaiero beste batzuk egoazan da... patro ibili zan bajuran... Ramon Laka Agirre Likuzabalekuak justu bapora erosi eban beste batzukin batera, "Patriarca San Jose" eta aitta ibili zan bertan patro... Mendixan talaiero ibili zanetik eukan amistade handia... ta neu dei eitteko... Gero saldu egin eban bapora eta gure aitta beste barko baten ibili zan... Da gero euki eban okasiñoia Perura juteko, arranztan erakusten bertakuari, ta jun zirian nire osaba bat, astilleruetako arotza zana, ta gure aitten besuetakua Tomas, hirurok jun zirian. Nire aitta bertan geratu zan bertan hil zan da, eta beste biak etorri zirian, lelengo bat eta gero bestia..."

"Gure ama 40an gaizotu ta hil egin zan, 40 urtegeaz, aurretik 10 urteko neskatxua galduta... baina bueno aitta bajuran eta gu hirurok amuma ta tiagaz bizi giñian... horretxek gauza guztiak pasa genduzan... amumak ortutxuan egiten eban bihara eta kabanen bebai, Garabillenian... urten gendun aurrera..."

Hiru hamarkada aurretik, Dolorezen aittita, Juan Barbarias Arrieta, San Juan Bautista txalupako marineroa, 1912ko galarrenaren ondorioz itto zan, 32 urtegeaz. Eta dio Doloresek: "2012an Talan ipini zan panela be itsasuak eruban. Barrero ipini biharko litzateke..."





Otoioko talaia barrutik.

## Otoioko talaia

Otoioko talaia berriko lehen talaieroa Tomas Txopitea izan zen.

1931tik Kofradia, Otoioko aldean talaia berri bat eraikitzeko toki bila zebilen, Mendexakoak baino ikuspen hobea bilatu nahian. 1931ko maiatzaren 16ko aktan irakur daitekeenez Udalarari eskatu eta lortu egin zuten lursail bat erabiltzeko baimena.

1932ko udaleko aktetan irakurri daiteke zelan Lekeitiotik Madrilerara joan zen batzorde bat, Indalecio Prietorengana Otoioko talaia berria egiteko laguntza eske. Prieto, buruzagi sozialista, Gijonen jaioa izan arren, Bilbon hazitakoa eta, garai hartan, Lan Publikoetarako ministroa zen. Proiektua onartua izan zen eta Estatuak bere gain hartu zuen lana ordaintzeko konpromisoa, 17.870,56 pezetako aurrekontuarekin. 1933ko martxoan oraindino amaitzeko zegoen orduan ipini zen eta, oinaztuak ekiditeko tximistorratza eusteko postea; herriko argiteriarako erositako eta soberan geratutako bat. Tximistorratza, baina, geroago ikusiko zen moduan, ez ei zen onegia, ez eta 1934an ipinitako telefona ere.

Bertara bizitzera joateko modukoa egin zuten eraikina eta, berez, Kofradiako akta baten irakurri daitekeenez, 1933ko azaroaren 14an talaiera bizitzera joateko agindua eman zioten Tomas Txopiteari (Bizkaiko Foru Agiritegi Historikoa - Lekeitioko Kofradiako Artxiboa - Akta Liburua 1931-1937).

1960ko hamarkadan, ordurako beharrezko ez zela eta, utzi egin zen talaia erabiltzea. Azken talaieroa Gregorio Aju-ria izan zen.


Ajuariaren aurretik Txomin Txopitea Zugadi (1917-1987) izan zen talaieroa eta 1975ean *El Correo Español* - *El Pueblo*

Vascoko "Munitibar" kazetariak elkarrizketa egin zion. Garai hartan, bizirik geratzen zen azken talaieroa zen Txomin.

Harrezkero, birritan konpondu eta atondu da talaia eraikina beste erabilera batzuetarako, 1991ean eta 2010ean, baina bietan, beste zereginik barik, aspertuta edo, bizi diren batzuk, gogoz eta amorruz apurtu dute egindakoa. Negar-garria.

2010ean, Santa Katalinako Itsas Ondarearen Zentroa zabaldu zen eta proiektu horren barruan Otoioko talaia ere konpondu eta atondu zen. Jasan zuen erasoaren ondorioz, gehiago babestu behar izan zen eraikina (leihoak itxi eta ia-ia bunker bihurtuz). Eraikin barruan, panel batzuen bidez, talaieroa bizimodua azaltzen da eta ikusi nahi izan ez-keru, bisita gidatuak antolatzen dira. Guzti horren gainean, informazioa Turismo bulegoan eskatu daiteke.


Bestalde, orain urte gutxi, begiralekuko atea zabalik uztea erabaki zen larrialdiren bat suertatu ezkeru babesleku legez erabiltzeko. Bertako hormetan seinale eta kode ezberdinen azalpenak ikus daitezke.



LUA-UI233/1




## KE TA KE TALAJERUA KE TA KE TALAJERUA BAPORAK UR TEN ARTE



El Ayuntamiento, en sesión que celebró el mes en curso, adoptó entre otros, el acuerdo de inscripción de los terrenos como sigue:

«Dada cuenta de la solicitud que eleva el Posito de Pescadores-Cofradía de Mareantes de esta villa, interesando la cesión de un trozo de terreno comunal en el Monte Otoyo, para construir en él la Casa de la Atalaya, trasladándola del lugar en que hoy se encuentra, y en atención a la importancia del servicio que ha de beneficiar solo a la flota pesquera, sino a cuantos lequeitianos han yan de someterse a los riesgos de la navegación por estas aguas, siendo un deber del Ayuntamiento el contribuir a la más eficaz instalación de la Atalaya con objeto de que el vigía disponga de un bien orientado campo de observación que abarque la mayor extensión posible del mar lateral cundante, se acordó por unanimidad...»

Isaac Orue...



# Batean kale, bestean bale

Hemen gatoz berriro epaile lana betetzera. Esan beharrik ere ez dago ez dela gure gustukoa, baina ondarea babesteko balioko badu ondo legoke.

Behar bada, aspaldian astakeririk egin ez denez, bestetan baino hobeto gaudela ematen du. Halan da be, okerrik egin ez bada, ezer egin ez delako da. Hau da, astoari inork ez dio eragin ez arre esanez ez iso aginduz. Horretara, zirkirik egin barik, inor ez doa infernura, ez eta zerura be, baina purgatorioan lekua faltako da bertara joatea tokatuko zaien guztientzat. Gelditasuna, ez-egitea, arazo larri bihurtu da azken hamarkadetan, tse-tse sindromea. Lekeitiarra gustura, eroso sentitzen da daukanarekin, zergatik sasiartean sartu? Edertasunak -Lekeitto lako herririk ez dago inun munduan- geldiarazten gaitu. Hain herri ederra badugu zergatik ez ditugu bere balioak indartzen eta erakusten? Zergatik izan behar da kultura politikoen agendan agertzen den azkenengo hitza, K letra hamaikagarrena bada? Eurotan, zentimotan, neurtzen da gaur egun dena; ba, hara hortxe beste jarduera asko ere baino hobea, kulturen inbertitzea. Bergarako udal artxiboak oraintsu e-maila bidali digu beraien bosgarren liburu digitala aurkeztuz. Lekeitiarrok ez ete dugu historiari edo istoriorik kontatzeko?

Laster, 2025ean, bederatzi urte barru, Lekeitio uri bihurtu zela 700 urte beteko dira. Urtemuga borobila. Bederatzi urte barru gure herrian aginduko duten agintariak arineketan ibiliko dira ea zer egin daitekeen galdetuz. Erantzuna gaur egun bertan eman daiteke, ordura bitartean ezer egiten ez bada, gauza gutxi. Bitartean lana egiten badugu, nahi dugun guztia. Zergatik ez gaurtik

2025era kultura plan bat osatu orduan eta ondoren izango ditugun beharrei erantzuteko balioko diguna?

Amorotoko baserri baten, XVIII. mendean harrian idatzita, honako idazkun hau dago: Ogia nahi badok, egik biharra. Beste era batera esanda: Egik lo, eta jango duk mehe.

Kulturen inbertitzea, gezurra badirudi ere, inbertitzea da: hau da batzeko ereitea.

## Purgatorioa

Ezer egiten ez duena ez dela erratzen pentsatzen duena oso oker dabil, "the worst mistake is to not make any" eta horretan gabiltza lekeitiar guztiok aspaldian. Ez dugu ezer egiten eta gure arbasoek egin zutenetik bizi gara, goitik behera etorritako familia nobleen antzera. Hemen amaituko dute hainbat proiektu interesgarri: Elizako paperak, 2025erako dagoeneko martxan egon beharko ziren proiektuak, ikerketak... Laster purgatorioan ez da lekurik egongo.

## Infernua

Nahi eta ezin!!! Hor dabil Mendieta ontziola, burokrazia madarikatuaren atzaparretatik ihes ezin eginda. Ematen du gure alderdi politikoei, arazoa konpondu nahi dutela, baina behin eta berriro "Costas" madarikatuarekin topo egiten dutela. Costas barik, kosta dela dirudi. Zeinek askatu behar du korapiloa? Eta ontziola jausten bada, nori botako diogu errua? Madrili, noski. Zergatik ez da bitartean egitura sendotzen? Tempus fugit.



*Esperantza badaukat zedorrek emana, kumplituko dedala desio dedana.*



"De aetatibus mundi imagines" Francisco de Holanda, 1545. B.D.H.

Zerua



Azkenerako utzi dugu onena. Ez da dena txarra izango. Txaloa edo olatua egitea -gure gazteen hizkuntzan- merezi duten ekintzak ere egon dira.

**Lazunarri** malekoia konpondu dute eta, bide batez, azterketa arkeologikoa egin da. Hurrengo Kurikean izango dugu horren berri.

**Garraitz 25.** Atabaka elkarteak sustatuta Lekeitioko irlan dabilta auzolanean hainbat lekeitiar eta ez lekeitiar. Lan ikaragarria egin dute eta ziur asko datozen proiektuen eredu bihurtuko dela.

**Santa Katalinako kobazuloa.** Aspaldian kobazuloak dira poztasun iturri nagusia. Lumentzako bisonteari eta zaldiari beste hainbat irudi gehitu behar dizkiegu, Atxurrako kobazuloan aurkitutakoak eta ez dira azkenak izango. Hurrengo Kurikean baietz horretaz berba egin? Santa Katalinan 1982an hasi ziren lanean eta 2000ra arte induskatu zuten. 2014an argitaratu zena ikerketaren atal bat baino ez da. Oraindik lanean dabilta! A zelako pazientzia! Besteok alfer hutsak baino ez gara!

**Lekeitioko Udal Artxiboaren katalogazioa.** Artxiboak ez badira antolatzen ez dute balio, ez dute existitzen. Beraz, eskertzekoak dira gure artxiboak egokitzeko egiten eta egingo diren esfortzu guztiak.

**Argitalpenak:** "Ezkutuko amandrea", "50 urte brankaz, R.M. Azkue lkastola", "La emperatriz Zita y Lekeitio" "Azkue. Bilbotar ezezaguna", "La Cueva de Santa Catalina (Lekeitio)" eta nola ez "Kurik 2". "Escolatik eskolara" liburua ateratzear dago. Ez dago txarto!

Amaitzeko, Lekeitioko Dominikak aipatu nahiko genituzke. Artxiboan izan ginen eta primeran hartu gintuzten, koplak barik. Egun Handian, Josafateko zelaian gure testigantza behar badute, laster izango dute san Pedroren baimena zeruan sartzeko, inork irabazita badu eurok dira eta.

# Artxiboko Kontuak

Lekeitioko Udaleko artxibo zerbitzua 1989. urtean sortu zen. Gai hartan, hankaz gora zegoen dokumentazio guztia, batetik, bulegoetan artxibatze irizpide zehatzik ezarrita ez zegoelako eta, bestetik, udaletxeko gauza guztiak mugitu egin zirelako eraikina goitik behera berritzeko (1982-1986). Dokumentazioaren lekualdaketa birritan egin zen, lehenengo artxibo osoa kaxetan sartu eta Dominiken komentura eroan zen eta gero ekarri. Honako jarduerak arriskutsuak izaten dira: dokumentu batzuk galdu egin daitezke, kontu handiz egiten ez bada. Artxibozainak ez dituzte tokialdaketak maite. Hala ere, Lekeitioko udal artxiboko dokumentazio historikoa nahiko ondo kontserbatu da, aurretik egon delako ondo antolatuta. 1796an J.R. Iturrizak dena koadernatu eta aurkibide bat egin zuen. Gerora, errepublika denboran, horrelako zerbait egin nahi izan zen baina

erdizka geratu zen lana... 1989tik egin barik geratu zena berreraikitzen saiatu gara.

Udal dokumentazioa sailkatzen hasi ginenean ikusi genuen bazegoela kaxa handi bat dokumentu soltez betea eta dokumentuok, zentzu zehatzean esanda, ez ziren udal dokumentuak.

Notario-agiriaren itxura hartzen genien..., bazeuden pleitoak ere..., baina ezin zen ondo ulertu zehazki zer zen bilduma hura. Orduan, urteka antolatu genituen dokumentu solteak, pentsatuz aurrerago banan-bana katalogatu beharko zirela. Urteka antolatuta egonda eta deskripzio barik, ez da erreza izaten nahi dena aurkitzea, interesatzen den sasoko dokumentu guztiak begiratu behar direlako eta horretarako pazientzia handia behar da. Halere, ikertzaile batzuk ibili dira agiriok arakatzen.

Beharrezana ikusita, urteka ordenaturik egon diren dokumentu horiek katalogatu egin dira 2014an. Katalogatze lanak Jose Garcia Ereño adituak egin ditu.

Lanaren emaitzak ezin hobek izan dira, dokumentu interesgarriak dira eta, azkenik, funtsari bere koherentzia ikusi zaio. Ikus ditzagun, bada, emaitzak.

735 espediente katalogatu dira 1487tik 1929ra artekoak. Batez ere espediente judizialak dira, pleitoak. Baina badago, baita, bestelako dokumenturik ere, notario-agiriak hain zuzen. Holako dokumentuak egotea ez da arraroa, normalean auzilariak epaiketarako frogak legez aurkeztutakoak izaten dira.

Tipologiari begiratu ezkerre, hau da, zer klasetako dokumentuak diren, honakoak dira agiriak:

Epaiketa zibilak eta beraien gaineko izapideak: 390 espediente

Zentsu edo maileguak eta hipotekak: 90 espediente.

Testamentuak: 47 espediente.

Inbentarioak eta ondasun partizioak: 33 espediente.

Hartzekodunen lehiaketak: 29 espediente.

Epaiketa kriminalak: 28 espediente.

Hutsegite epaiketak: 27 espediente.

Notario-protokoloak: 21 espediente.

Ezkontzeko kapitulazioak: 15 espediente.

**Epaiketa zibilak**, batez ere, lekeitiar eta inguruko herrietako jendeak izandako zorren gainekoak dira. Kriminalak, berriz, herritarren arteko irainak, kalteak eta genero indarkeriari buruzkoak. Ikusten denez, gaur egun eguneroko-eguneroko entzuten ditugun notizien antzeko kontuak.

Auzi potoloak ez direnez, epaiketa gehienak lehen instantzian ikusita-koak dira, hau da, kontzejuan, herriko alkatearen aurrean. Antzina alkatea zen ohiko epailea, lehen instantzian Lekeitioko kasuan, Zubietako jauregian ikus zitekeen arren, Busturiako Merindadeko foru-alkatearen aurrean. Mendek geroago, XIX. mendean, sortu ziren Markina eta Gernikako epaitegiak.

Maite Garamendi  
Lekeitioko Udal Artxiboa

Tel. 946034122

artxiboa@lekeitio.eus

**Ondasun inbentarioak eta hartzekodunen lehiaketak** herriko biztanleen artekoak dira eta baita eskualdekoeen artekoak ere. Bitxia da 1828an hartzekodunen lehiaketa herriaren ondasunen kontra izan zela. Frantsesen kontrako gerra zati handi bat, herriaren ondasunen gainean egin zen, eta honek guztiak herri askoren hondamendia ekarri zuen, Lekeitio horretarako bat besterik ez zen izan.

**21 notario-protokolo** daude 1520tik 1688ra artekoak. Protokoloa eskribau batek urte betean egindako eskritura bilduma da. 1520ko protokoloa bilduma honetan transkribatuta dago: *Fuentes documentales medievales del País Vasco nº 40: Colección documental del Archivo Municipal de Lekeitio 1514-1520. Eusko Ikaskuntza, San Sebastian, 1992.*

Eusko Ikaskuntzak bultzatutako Udal artxiboetako dokumentuen transkribatze lan hura, 1520. urtera arteko agiriak hartuz egin zen.

Dokumentu guztiak aztertu ondoren ikusi da 735 espedientetik, 402 Juan Rafael de Algorta Lekeitioko eskribauarenak direla.

Juan Rafael de Algorta Garamendi Lekeition jaio zen 1777an eta 1846ean hil. 1801ean Ana Maria Lopez de Larruzea Urionarekin ezkondu eta 10 seme-alaba izan zituzten. Eurretari bat, Andres Avelino de Algorta Larruzea, eskribaua izan zen, Lekeition bertan. Beste bat, J. Claudio, Ana Abaroa Uribarrenekin ezkondu zen, familia indartsu bi haiekin lotuz.

Lekeitioko beste eskribau birenak dira gainerako gehienak: Otxoa Ortiz de Olearn 11 protokolo ditugu (1520-1555) eta beste 3 Nicolas de Jauregirenak (1559-1578).

Konklusio legez eta esandako guztia kontutan izanda, pentsa daiteke orain katalogatu berri den funts hau, Juan Rafael de Algorta Garamendiren eskribautzak sortutako notario eta judizio-dokumentuen artxiboa dela, eta honi dokumentazioa pilatu egin zaio bai aurretik eta bai ondoren (kronologiari dagokionez).

Dokumentazio mota hauek (notariala eta judiziala) biltzen duten informazioa oso aberatsa da: auzietan parte hartu zuten pertsonen gaineko informazioa ematen dute, baita euren ondasun eta negozioei buruzkoak, eguneroko bizimodu eta ohituren gainekoa eta abar luze bat.

Eta, ikusi dugun moduan, paperotan ageri diren harremanak ez dira bakarrik lekeitiarren artekoak, inguruko herrietako bizilagunak ere agertzen dira. Esate baterako, 39 dokumentutan Mendexa edo mendexarrak agertzen dira; 70etan Amoroto edo amorotarrak; 81 agiritan Gizaburuaga edo gizaburuarrak eta 147tan Ispaster edo ipaztarrak; etab.

Udal artxiboko beste altxor bat.




1539ko dokumentua, LUA-DJ001-16

# Zazpi akatsak

Okerrak dira... zuzendu ahaztu bariki!

Irudia



## 'Warrior' ontzia eta tripulazioa

Warrior ontzia, goiko argazkian, eta tripulazioa, behean. Warrior ontzian, besteak beste, Mutriku, Ondarroa eta Lekeitioko marinelek lan egin zuten. 1920an ekarri zuten Euskal Herrira, eta Goizeko-Izarra izena ipini zioten (Ramon de la Sotak). Espainiako Gerra garaian, herritarrak estatutik ateratzen lan egin zuten ontziak. WARRIOR-GOIZEKO IZARRA

## Gutunak



### 'Warrior' ontziko tripulazioa, ez 'Vita'-koa

Lekeitioko Kurik urtekari ederrean agertu den informazio okerrak bati buruz hitz egin nahi dugu.

2014an argitaratu zen Kurik urtekariko 130. orrialdean, Lekeitiarrak gerran. Zertzelada batzuk El tesoro del 'Vita' izenburua duen artikuluan, itsasontzi bateko tripulazioaren argazkia azaltzen da, eta argazki oinarriko tripulazio hori Vita itsasontziko delako. Baina ez da horrela, tripulazio hori Warrior izeneko itsasontziko delako, bertako gizonen arropetako Warrior hitzak azaltzen duen bezala.

Mutrikuko laupabost senide ibili ziren itsasontzi horretan, bai Warrior izena izan zuen bigarren aldia (1937-39) bai eta aurretik ere. Argazki horretan, adibidez, alboz eta zutik dagoen gazteena Iñaki Arrizabalaga Lizardi Martintxiki mutrikuarra da. Hortxe ikusten dugu, baita ere, erdiko ilaran zutik eta argazkiaren erdi-erdian, bere osaba Jesus Arrizabalaga Masillas, jertsean Warrior hitza daramala.

Warrior yatea Eskozian eraiki eta hainbat eskutatik pasa ondoren, 1920an Euskal Herrira ekarri zuten, Ramon de la Sotak erostia. Horrek Goizeko-Izarra izena ipini zion.

Jesus Masillas 1925ean, 18 urterekin, itsasoratu zen Goizeko-Izarran, eta orduan egin zituen hiru kosteretako bakoitzean, lau hilabete ematen zituen Medite-

rraneoan, eta hilabete Ipar Itsasoan.

Espainiako Gerran Ramon de la Sotak Eusko Jaurlaritzari laga zion Goizeko-Izarra ontzia herritarrak Frantziara ateratzeko, eta 1937ko maiatzean herritarrak eramateko hiru bidaia egin zituen.

Jardun horretan zebilela, Ingalaterrako Sir Hugo Cunliffe Owenek erosi, eta azken bi bidaia egin zituen herritarrak Bilbotik ateratzen, berriro ere Warrior izena ipinita.

Jabe berriak, nahiz eta ofizial ingelesak kontratatu, De la Sotarekin ibilitako marinelekin jarraitu zuen, eta, gainera, Espainiako guda zela eta, Frantzian erbesteratuta bizi ziren hainbat euskaldun ontziratu zituen eginkizun horretarako. Besteak beste, lehen aipatutako Iñaki Arrizabalaga, Pantzeza bere anaia zaharrena, bien osaba Juan Lizardi Kanuto...

Hain zuzen ere, garai horretako da (1937-39) aipatzen dugun argazkia; Bretaña Handia, Islandia, Niza, Istanbul eta beste hainbat lekutatik nabigatu zuteneko, alegia.

Argazki horretan goian aipatutako senideez gain, badakigu ondarrutar eta lekeitiar marinelak ere badirela. Horrela izanik, gustatuko litzaiguke argazki hori ikusten duenak Warrior itsasontzia izatea gogoan eta ez goian aipatutako artikuluan esaten dena. Begiratu ondo, hementxe bertan dituzue argazkiak eta.

-Idoia Arrizabalaga, Mutriku.

HITZAK irakurleen eskutitzak plazaratzen ditu. Ez dute 2.500 karaktere —espazioak barne— baino luzeago izan behar, eta HITZAK mozteko eskuñidea dauka.


Bagenekien akatsak helduko zirela eta hori dela eta aurtengo Kurikak orrialde bi eskaini dizkio atal honi. Akatsok ez gaituzte lotsatzen, baina bai ernegatzen, zuzen eta txukun egitea gustatuko litzaigukelako aldirikari hau. Edozein modutan ere, badakizue: *errare humanum est*. Bestalde, merezi ete du perfekzioaren bilatze bukaezin horrek halako aditasunez akatsak izan dituzula esaten dizuenean? Gehiagotan erratzeko gogoia ematen digu. Idoia Arrizabalagak, gainera, primeran kontatu du istorio hori, eskerrik asko, beraz, zuri.

Gaztelania eta latinaren tiraniatik ezin ihes eginda gabiltza, zazpi akatsak (los siete errores), *errare humanum est*... Honek ezin du izan, euskarak badu eta horretarako berezko esakera, gainera aproposagoa: **akerrak adarrak okerrak ditu**. Adarrok zuzenak izan beharko liriteke, okertasunean datza beraz akatsa, okerra. Akerra noski, aditzaile onari hitz gutxi, gizakia, humanum-a litzateke. Adarrok berriz, akerraren nortasun ezaugarri nagusia, gizakiarena erratzea den antzera. Zergatik uste duzu, ba, adarra jo esaera erabiltzen dela?

Portzierto, aurreko Kuriken erregea aipatu genuen eta zelan barkamena eskatu zuen. Guk, bere erakusbidea jarraituz, gure okerrak onartuko genituzke. Baina, kontua da errege horrek kargua utzi dela eta esandakoa bete nahi izan ezkeror irtenbide bakarra geratuko litzaigukela... Eta hori be ez da. Zer arraio! Datorrela berriro errege zaharra!



*Errare humanum est, perseverare diabolicum*





LINTERNA MÁGICA  
**EL SUBMARINO DE LEQUETTIO**

Aprovisionamiento celestial.—El espionaje en el Cielo.—Un centinela en nuestras costas.—Amagos de combate.—Un convoy pasa.—El submarino en la higuera.—Moralja figal.

Los submarinos alemanes siguen merodeando por nuestras costas. Convenientemente distribuidos por el litoral, hacen una guardia de centinela en la boca de los puertos sin apartarse un punto de la jurisdicción que les está confiada a su custodia. Días y más días, meses y casi años llevan de vigilancia en sus bases al acecho del barco mercante que se aventure por esos mares del diablo teutón. Esto prueba que los submarinos reciben del Cielo una especie de rindes, consistente en gasolina, aceites, maná, y toda clase de provisiones y todo ello sin que nadie se entere, pues no hay que pensar en quienes las gentes encargadas—y bien retribuidas—de facilitar a los submarinos los víveres, ni en las aguas que se espionan; no, no hay que pensar en espionajes, ni en las y venidas de los submarinos de alemanes e indios...

Los buques alemanes e indios... inquietarse. Sin duda preparaba sus torpedos, sus cañones, sus bombas... Y ¡pim, pam, pum!, uno tras otro, los dieciséis barcos mercantes irían al fondo del mar. Allí, en aquel momento, se iba a ver lo que era el bloqueo, la guerra submarina y, sobre todo, la bravura alemana.

Los marinos lequetianos habían tomado posiciones para no perder detalle del encuentro, y el vigía atalayero, pegado al telescopio, parecía una adición del aparato.

Los buques eran ya grandes a la vista, y mostraban su nacionalidad; los buques iban a pasar cerca del submarino; pero éste no rompía el fuego. ¿Qué sucedía? ¿A qué esperaba el sumergible que, imparable, veía el desfile como en una vista marítima?

¡Oh, qué sorpresa y qué decepción la de los pescadores de Lequetio! Vieron como los buques, sin ningún contratiempo, pasaron al alcance del submarino; pero, como uno de los barcos, desligándose del rosario, cambió de rumbo para tomar, solo, el puerto de Bilbao, sin inquietarse por la presencia del submarino, quien pensando que se le venía encima el buque inglés para saludarle con su cañoncito de juguete, escabulló bonitamente el bulto. No estaba, por lo visto, para cumplidos y finezas.

Los buques llegaron sanos y salvos, sin hacer del sumergible más aprecio que de una merluza o de un pulpo que sale a la superficie para oler lo que pasa en el mundo de los humanos.

He aquí lo que el atalayero de Lequetio vio a través de su lente hace unos pocos días.

La moraleja de esta narración está en que los submarinos alemanes no quieren tratos con los buques armados. A ellos, a los sumergibles, que les echen barcos neutrales, sin cañones, y se verá cuánto valen.

T. MENDIVE.

**Azken kopatxua**


Seberok ta kuadrillak Hotel Beitian afaldu eben eta mozkorra harrapatu. Ez dakigu bertan hotelian edo geruago mozkortu ziran, baina badakigu afal ostian kopatxu batek edo bestek ezarrijan berako bidia egin ebala. Kopatxu hori da nik neuk honako honetan dakartzuedana, aldikari honek be Seberok eta kuadrillak lez, ganorazko amaieria izan daian. Izparrangi baten aurkitu dot ondorengo barria, "zaharrak barri".

1917ra goiaz barrero. Europa osua sudan, eta Errusia irakitten Iraultza bezperetan. Gu barriz, espainolak neutralak ziran ez, ez hotz ez bero, epel. Burrukan batetik, frantsesak eta ingelesak eta bestetik, alemanak, inpernuko diabruen semiak Barrabasterietan "number one", ingelez apur bat be badakit eta. Kasurako sumariñuak erabiliz egin eben gerria. Alemaniako "inkinierruak" orduan be sekulakuak ziran ez, gerrarako egin ebezan itsaspekuak ez zeuten parerokirik. Holan ba ingelezen baporak hondoratzen hasi ziranian, ia gerria irabazi eben. Baina ez ingelezenak bakarrik, guiak be hamaikatxu hondoratu ebezan.

Baina beti ez ziran hain harruak. Lekittoko talaieruak ikusitakua kontuko deusuet. Zer ikusiko eta 16 merkantez osatutako konboi bat eta euren zelatan sumariño aleman bat. Talaierua noiz entzungo torpeduen eta bonben hotza eta honegaz batera Lekittoko arrantzaliak guztiak, a zelako ezustia izan eben! Ez tirorik ez espetakulorik; sumariñoko kapititanak ikusi ebanerako ingelezen baporetakoko baten kaitoxu bat, sartu urpian eta ospa egin eban.

Deskuiduan, alkarrereri tiroka hasi izan baziran eta sumariñua hondoratu Lekitto aldian, orduan izango zan, laquntxu, aeroplanuen antzera, Bakio eta Mundaka artian bi edo bihar izan ezker dozena erdi hondoratu ziriara.

Lau sumariño pasa-ta...



Itsaspeko alemana Calais-eko hondartzan hondartuta, 1917.



# KURIN

**KURIK***eruak*



**lekeitioko  
udala**

